

Compilación de
documentos generados
por el Gobierno Vasco
en la Legislatura
2017-2020 en materia de
**derechos humanos
y convivencia**

4



1. Proyecto general
2. Clarificación del pasado
3. Víctimas

4. Memoria

5. Política penitenciaria
6. Educación
7. Diversidad religiosa
8. Asilo y migración vulnerable
9. Contribución internacional
10. Anexo. Desarme y disolución de ETA

Secretaría General de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación

julio de 2020



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Giza Eskubide, Bizikidetzeta
eta Lanikidetzaren Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General de Derechos Humanos,
Convivencia y Cooperación

Sumario

Presentación general de esta compilación.	4
Presentación de este libro.	6
Documento 1. Programa de actuación de Gogora 2017-2020.	9
Documento 2. Conocimiento y discursos de la población universitaria sobre terrorismo y vulneraciones de derechos humanos en Euskadi.	81
Documento 3. Bases y criterios para la elaboración de Informes Municipales de Derechos Humanos y Memoria Reciente (1960-2018).	125
Documento 4. Balance de actuaciones de Gogora en materia de Memoria Reciente.	137
Documento 5. Informe sobre los traslados desde Euskadi y de vascos trasladados desde otras Comunidades Autónomas al Valle de los Caídos.	161
Documento 6. Primera fase del Informe base de violaciones de derechos humanos en Euskadi durante la Guerra Civil y el Franquismo: Víctimas mortales durante la Guerra Civil y el primer franquismo (1936-1945).	259
Documento 7. Informe sobre la situación de la retirada de la simbología franquista en Euskadi.	297
Documento 8. Borrador para un anteproyecto de Ley de Memoria Histórica y Democrática de Euskadi.	319

Presentación general de esta compilación

El 20 de octubre de 2011, en el último año de la IX Legislatura vasca (2008-2012) ETA anunció el “cese definitivo de su actividad armada”. Un año más tarde se celebraron las elecciones autonómicas que dieron paso al primer gobierno presidido por Iñigo Urkullu Rentería (X Legislatura: 2012-2016). Por primera vez después de décadas, la política y la sociedad vasca iniciaban una Legislatura sin la amenaza de la violencia y el terrorismo.

En aquel momento, una de las primeras decisiones adoptadas por el Lehendakari fue la creación de una nueva Secretaría General para la Paz y la Convivencia, adscrita a la Presidencia del Gobierno Vasco y bajo su dependencia directa. Su objetivo fundamental era contribuir a favorecer un final ordenado de la violencia y promover el Encuentro Social.

El 25 de septiembre de 2016 tuvieron lugar nuevamente las elecciones autonómicas vascas. El 20 de octubre de aquel año, el Parlamento Vasco dio inicio a la XI Legislatura (2016-2020). El 23 de noviembre de 2016, Iñigo Urkullu Rentería fue investido Lehendakari por segundo mandato.

En relación con la Secretaría General para la Paz y la Convivencia de la anterior Legislatura, el Lehendakari mantuvo esta estructura pero con algunas modificaciones en cuanto a su denominación y funciones. Así, pasó a denominarse Secretaría General de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación. Incorporó este tercer ámbito, el de *cooperación*, debido a que la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo quedó integrada en su seno. También quedó adscrita a esta Secretaría la coordinación de la respuesta a la crisis humanitaria de las personas refugiadas.

De este modo, en la XI Legislatura la Secretaría ha contado en su estructura interna con la Dirección de Víctimas y Derechos Humanos, la Dirección del Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos, Gogora, y la Dirección de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.

A lo largo de la XI legislatura como en la anterior, la Secretaría ha contado con un plan estratégico de Legislatura: el Plan de Convivencia y Derechos Humanos 2017-2020. Gogora y la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo han articulado su actividad mediante sendos programas de actuación con rango de plan departamental.

El Plan de Convivencia y Derechos Humanos 2017-2020 fue presentado el 4 de abril de 2017 y aprobado definitivamente el 10 de octubre de ese mismo año. De sus previsiones han emanado 16 iniciativas y un gran número de programas y actuaciones derivados de las mismas.

Esta colección de libros recopila en diez volúmenes los principales documentos generados a lo largo de esta Legislatura en el marco del desarrollo del Plan de Convivencia y Derechos Humanos 2017-2020. Su estructura, atendiendo a sus títulos, es la siguiente: (1) Proyecto general, (2) Clarificación del pasado, (3) Víctimas, (4) Memoria, (5) Política Penitenciaria, (6) Educación, (7) Diversidad religiosa y (8) Asilo y migración vulnerable, (9) Contribución internacional, y (10) Anexo: Desarme y disolución de ETA.

Este cuarto libro contiene los documentos relativos al ámbito de las políticas públicas de memoria.

La agenda de los derechos humanos tras la Covid-19

Entre la Legislatura que terminó en 2016 y la que ha terminado en 2020, hubo otra modificación significativa relacionada con la denominación de esta área del Gobierno Vasco; pero con un importante fondo conceptual. La Secretaría paso de ser de “paz” y “convivencia” a ser de “derechos humanos” y “convivencia”. Detrás de este cambio se encontraba un diagnóstico de situación formulado a final de 2016:

“La paz, asociada al final de un tiempo marcado por el terrorismo y la violencia, había pasado a ser socialmente percibida como una agenda que estaba quedando atrás. Se trataba de una agenda pendiente, relacionada con el pasado. La convivencia vinculada a los derechos humanos representaba una formulación que, sin olvidar los retos pendientes, buscaba una mejor adaptación a los desafíos de un mundo cambiante y rodeado de incertidumbres. Se trataba de una agenda emergente de los derechos humanos y la convivencia vinculada al presente y al futuro”.

Aquel diagnóstico fue certero. El tiempo de la XI Legislatura vasca, en este ámbito, pasará a la historia por dos hechos fundamentales:

- Por una parte, el desarme de ETA el 8 de abril de 2017, y su disolución definitiva el 3 de mayo de 2018. Todo ello como secuela y signo anacrónicos de un pasado que, además de injusto, era inasumible e insostenible en la sociedad vasca y europea de nuestro tiempo.
- Por otra parte, la consolidación en la sociedad vasca de una nueva agenda de preocupaciones e inquietudes sociales relacionadas con los derechos humanos, la igualdad, la justicia, el medio ambiente, las migraciones, las personas refugiadas, la libertad...

En 2020, sigue quedando una agenda de tareas pendientes vinculadas al final de ETA, principalmente en tres ámbitos: las políticas públicas en materia de víctimas, la reflexión crítica y compartida en relación con la memoria y con ETA, y una política penitenciaria de consenso y convivencia.

No obstante, la agenda vasca de los derechos humanos es cada día más la agenda global de los derechos humanos. Esta reflexión sobre la transición desde una agenda local vinculada al pasado, hasta su plena confluencia actual con la agenda global de los derechos humanos marca el inicio de la XII Legislatura (2020-2024).

Como se ha reseñado, aquel diagnóstico de finales de 2016 subrayaba la necesidad de “adaptación a los desafíos de un mundo cambiante y rodeado de incertidumbres”. Nada de lo conocido hasta ese momento, podía simbolizar mejor el cambio y lo incierto como la pandemia de la Covid-19, que se hizo presente en todo el planeta a principios de 2020. La Legislatura XI también pasará a la historia porque su periodo final estuvo monopolizado por sus efectos.

Aquella vivencia local y planetaria no ha hecho sino reforzar y corroborar el enraizamiento en Euskadi de la agenda global de derechos humanos. Si aquella apelación a una nueva mirada a la realidad del mundo era una reflexión conceptual, tras la pandemia se trata de un imperativo de realidad. Estamos ante un cambio de paradigma del que todavía desconocemos su alcance y consecuencias.

Algunas de las nuevas preguntas están ya formuladas. No, sin embargo, todas las respuestas. En el ámbito de actuación de esta Secretaría hay dos preguntas importantes: primera, ¿cómo se expresarán las nuevas formas de vulneración y vulnerabilidad de los derechos humanos?; y segunda, ¿cómo deberán plantearse las políticas públicas de defensa y promoción de los derechos humanos en la nueva realidad perfilada tras la pandemia?

Algunos debates sobre las consecuencias de la Covid-19 anticipan una profunda pugna sobre el valor jerárquicamente superior de los derechos humanos. Poderosas corrientes de opinión e influencia global propugnan el desdén de su valor o, en todo caso, su supeditación a otros valores nucleados en torno al eje ideológico de un individualismo materialista.

Se trata de una visión ideológica que minusvalora el sentido de lo comunitario y la búsqueda del bien común como un “*buenismo*” estéril, e incluso contraproducente, y que prioriza valores como el localismo, el “sálvese quien pueda”, la seguridad, el proteccionismo, o el liderazgo del mercado frente a la política, entre otros.

La defensa de los derechos humanos y, en consecuencia, el deber de solidaridad representan la gran tarea de las próximas décadas. Lo que nos estamos jugando es si el centro de gravedad del mundo tiende hacia el eje de la solidaridad o, por el contrario, profundiza en el eje del individualismo, tanto en su proyección en la conciencia de la ciudadanía como en su plasmación en los diferentes ámbitos de la política local, nacional o internacional.

Tras la Covid-19, con más motivo aún, va a ser necesario seguir profundizando en una agenda local y global de la solidaridad, la igualdad, la inclusión y los derechos humanos. Los Objetivos de Desarrollo Sostenible de la Agenda 2030, con los que el Gobierno Vasco está comprometido en el conjunto de su acción, constituyen un punto de partida en este nuevo ciclo. Este es el panorama de incógnitas y referencias con el que termina la XI Legislatura vasca y se inicia la XII.

Presentación de este libro

En la edición de la compilación correspondiente a la anterior Legislatura, en el libro dedicado a la memoria, se delimitaban tres ámbitos para entender el carácter interrelacionado y diferenciado que existe entre las políticas públicas de clarificación del pasado (Libro 2), víctimas (Libro 3) y memoria (Libro 4). Resulta pertinente ahora por su vigencia e importancia reiterar aquella reflexión.

El foco de las políticas de clarificación del pasado son los hechos objetivos que supusieron vulneración de derechos humanos. Su objeto principal es desvelar y visibilizar lo ocurrido para impedir la impunidad del olvido y hacer pedagogía de lo que no debe volver a ocurrir. Este ámbito específico es una obligación de una política pública responsable y comprometida con los derechos humanos y con las víctimas. Clarificamos lo ocurrido para poder valorarlo críticamente y evitar su repetición.

Las políticas públicas de víctimas tienen su núcleo central en las personas que han sufrido vulneración de derechos humanos y en dar respuesta a sus derechos de verdad, justicia y reparación. Su objetivo principal es restituirles moral y materialmente, en la medida de lo posible, por el daño inconmensurable e injusto que el terrorismo o la violencia les ha provocado.

Las políticas públicas de memoria se dirigen principalmente al conjunto de la sociedad. Su objetivo es la convivencia. En concreto, promover una reflexión ciudadana que ponga en diálogo las distintas perspectivas de la memoria y de lo ocurrido con la realidad presente y futura de la convivencia. Al contrario de lo que a menudo se piensa, las políticas públicas de memoria no se centran en fijar un relato oficial sino en canalizar la participación y la expresión del pluralismo en su configuración.

La gestión de este diálogo libre y plural entre memorias solo tiene un límite: debe poner a salvo unos mínimos democráticos. La memoria no se puede utilizar ni para excluir ni para equiparar acontecimientos. Tampoco para reescribir una historia de legitimación de ninguna forma de terrorismo, violencia o conculcación de derechos humanos. Al contrario, representa su más firme denuncia porque sirve con intención de verdad y justicia al valor superior de la dignidad humana y a los derechos y libertades que de este se derivan.

La Ley 4/2014, de creación del Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos, fue aprobada de 27 de noviembre de 2014. El primer proyecto que desarrolló Gogora, el Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos fue el denominado Plaza de la Memoria. Desde 2016, esta exposición itinerante ha recorrido 23 localidades vascas y ha sido visitada por más de 32.000 personas y 5.600 alumnos y alumnas han participado en los talleres educativos escuchando los testimonios grabados de víctimas.

Memoria Plaza recoge y expone testimonios. Testimonios de víctimas del terrorismo, testimonios de víctimas de represión ilícita, testimonios de víctimas del franquismo, y testimonios de ciudadanos y ciudadanas. En su desarrollo itinerante busca promover en cada localidad conversaciones que pongan en diálogo, escucha y encuentro las perspectivas diversas de la memoria.

El 23 de octubre de 2017, el Consejo de Dirección del Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos aprobó el Programa de Actuación de Gogora 2017-2020 que se reproduce como **Documento 1**. Los documentos 2, 3 y 4 están centrados en la que se ha venido en denominar *Memoria Reciente*. Los documentos siguientes desarrollan actuaciones vinculadas a la *Memoria Histórica*.

El **Documento 2** presenta el informe “Conocimiento y discursos de la población universitaria sobre terrorismo y vulneraciones de derechos humanos en Euskadi”. Se trata de una investigación realizada por el Instituto de Derechos Humanos Pedro Arrupe de la Universidad de Deusto, con la colaboración de la Secretaría General de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación, para conocer el nivel de conocimiento y los discursos que la población universitaria tiene respecto de las vulneraciones en el periodo de nuestra memoria reciente (1960-2010).

El **Documento 3** presenta el informe “Bases y criterios para la elaboración de Informes Municipales de Derechos Humanos y Memoria Reciente (1960-2018)”. Este informe respondió a las solicitudes de infor-

mación, criterio o asesoramiento realizadas por distintos representantes municipales, en relación con los Informes Municipales sobre Derechos Humanos y Memoria Reciente. El objetivo de este documento era ofrecer a los consistorios de Euskadi un conjunto de bases y criterios para el encargo y realización de este tipo de estudios.

En materia de Memoria Reciente, la XI Legislatura finaliza con la presentación en el Consejo de Dirección de Gogora del documento titulado Balance de Actuaciones, que en este libro figura como **Documento 4**. Se trata de una descripción detallada del conjunto de actividades que ha desarrollado el Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos en las políticas públicas de memoria que hacen referencia a las últimas cinco décadas.

Es mucho lo que se ha avanzado en las dos últimas Legislaturas en la construcción de una memoria crítica en relación con nuestro pasado de terrorismo, violencia y vulneraciones de derechos humanos. No obstante, quedan tareas pendientes con vistas a la próxima Legislatura. La principal, probablemente, poner en común una valoración sobre toda forma de terrorismo y violencia padecida en el pasado y que, incluyendo explícitamente a ETA, sea compartida, por primera vez, por todas las fuerzas políticas.

Ya en materia de Memoria Histórica, el **Documento 5** recoge el Informe sobre los traslados de vascos al Valle de los Caídos, tanto desde Euskadi como desde otras Comunidades Autónomas. Esta investigación llevada a cabo por Gogora trata de responder a tres cuestiones fundamentales: (1) número de restos enviados desde Euskadi y otros lugares enterrados en el valle de los Caídos, (2) su identificación y (3) estado de situación de los permisos familiares para su traslado.

El **Documento 6** “Primera fase del Informe base de violaciones de derechos humanos en Euskadi durante la Guerra Civil y el Franquismo: Víctimas mortales durante la Guerra Civil y el primer franquismo (1936-1945)” ha sido elaborado mediante un convenio suscrito, en julio de 2016, entre la Secretaría General para la Paz y la Convivencia del Gobierno Vasco, el Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos Gogora, la Cátedra Unesco de Derechos Humanos y Poderes Públicos de la UPV/EHU y la Sociedad de Ciencias Aranzadi. En esta primera fase este informe ofrece un listado con los nombres de las víctimas mortales ocasionadas desde 1936 a 1945 en la guerra civil y la posguerra en Euskadi así como de los vascos que murieron a consecuencia de la guerra fuera de Euskadi. Este informe es un primer paso necesario para cumplir un objetivo prioritario del Gobierno Vasco y de Gogora, en materia de memoria histórica: contribuir a culminar el proceso de reconocimiento institucional de la verdad de la Memoria Histórica.

En cumplimiento de la Ley 52/2007, de 26 de diciembre, y del mandato del Parlamento Vasco recogido tanto en el *Plan de Paz y Convivencia 2013-2016*, como en el *Plan de Actuación de Gogora 2017-2020*, se realizó el Informe sobre la situación de la retirada de la simbología franquista en Euskadi que aparece como **Documento 7**.

Son innumerables las actuaciones promovidas en materia de memoria histórica por el Gobierno Vasco, las Diputaciones, y los Ayuntamientos, la sociedad civil organizada, y los familiares de las víctimas de la guerra civil y el franquismo. En los últimos veinte años, se han desplegado iniciativas de recuperación de lugares simbólicos, exhumaciones de restos, reordenación de archivos, investigación y divulgación de hechos históricos, elaboración de bases de datos, recogida de testimonios, o actos de reconocimiento que culminaron en la aprobación de la Ley de creación de Gogora.

Sobre la base de este legado, el 24 de septiembre de 2019, el Lehendakari presentó en el Consejo de Gobierno el primer borrador del anteproyecto de Ley de Memoria Histórica (**Documento 8**), mediante el que se dará inicio a su tramitación como proyecto de ley. En las últimas dos décadas, el reconocimiento y restitución moral de las víctimas del franquismo y la reparación de la verdad de la memoria histórica ha sido una misión que la sociedad vasca, sus agentes sociales y sus instituciones han puesto en común con un alto grado de consenso. Esta Ley es una herramienta que se constituye en el reflejo normativo de esa misión y de la determinación de culminarla de forma compartida.



A large, stylized number '10' in a grey, sans-serif font. The '1' is a simple vertical bar with a small horizontal top bar. The '0' is a solid green circle. The background features a white, torn-paper effect with grey shadows.

● dokumentua

2017-2020 aldirako Gogora Institutuaren
Jarduera Plana

2017-2020

aldirako Jarduera Plana

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko
Zuzendaritza Kontseiluari zuzendutako proposamena

*Memoriarako eta enpatiarako
plaza publikoa*

Memoriaren,
Bizikidetzaren eta
Giza Eskubideen
Institutua

gogora

Instituto de la Memoria,
la Convivencia
y los Derechos Humanos

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

AURKIBIDEA

Sarrera

LEHEN ZATIA. **ESPARRU OROKORRA**

1. Egindakoaren ebaluazioa.

- 1.1. 2015-2016ko Jarduera Programaren barne-ebaluazioa.
 - 1.1.1. Zeharkako proiektuak.
 - 1.1.2. Memoria Historikoa.
 - 1.1.3. Oraintsuko Memoria.
 - 1.1.4. Memoriaren Plaza ekimenaren balantze espezifikoa.
- 1.2. Kanpo-ebaluazioa.
 - 1.2.1. Informe externo de evaluación intermedia.
 - 1.2.2. Informe externo de valoración del Plan de Paz y Convivencia al final de la Legislatura.
- 1.3. Conclusiones.

2. Gogora Institutuaren abiapuntuak.

- 2.1. Oinarriak.
 - 2.1.1. Printzipioak.
 - 2.1.2. Gogora Institutuaren xedea eta helburu orokorrak eta espezifikoa.
 - 2.1.3. Eginkizunak eta zerbitzuak.
 - 2.1.4. Legeak ezarritako bestelako argibideak.
- 2.2. Balio erantsiko gakoak.
 - 2.2.1. Arazo nagusia, irizpide nagusi.
 - 2.2.2. Balio erantsi bihur daitekeen zailtasuna.

3. Jarduera Plan honetan islatutako Eusko Jaurlaritzaren bizikidetzapolitiken osagaiak.

- 3.1. Oinarri aurre-politikoak.
- 3.2. Misioa.
- 3.3. Planaren zentzu-batasuna.
- 3.4. Lan-metodologia.
 - 3.4.1. Erreferentziazko irizpideak.
 - 3.4.2. Jardunbideak.
- 3.5. Jarduera-esparruaren egitura.
 - 3.5.1. Zeharkako proiektuak.
 - 3.5.2. Memoria Historikoari buruzko proiektuak (1936-1975).
 - 3.5.3. Oraintsuko Memoriari buruzko proiektuak (1960-2015).
- 3.6. Jarduera-eremuak mugatzea, 2017-2020ko Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planarekin lotuta.

BIGARREN ZATIA. **ORIENTAZIO ESTRATEGIKOA**

1. Koordenatuak.

- 1.1. Irizpide gidaria.
- 1.2. Lehentasun estrategikoak.
- 1.3. Helburu nagusiak.
- 1.4. Laburbilduz, "ibilbide-orri" bat.

2. Zeharkako proiektuetarako ildo estrategikoak.

- 2.1. Plangintza orokorra.
- 2.2. Helburu espezifikoak.
- 2.3. Esangura estrategiko berezia duten proiektuak.
 - 2.3.1. EAEko beste memoria-erakunde batzuekiko koordinazioa eta lankidetzak.
 - 2.3.2. Agiriak, artxiboak eta datu-baseak antolatzea.
 - 2.3.3. Erakusketa-estrategia.

3. Memoria Historikoaren ildo estrategikoak.

- 3.1. Plangintza orokorra.
 - 3.1.1. Errealitate baten berrespena.
 - 3.1.2. Erreferentzia-esparrua.
 - 3.1.2. Erakundeek erantzunak emateko duten konpromiso zehatza.
- 3.2. Helburu espezifikoak.
- 3.3. Esangura estrategiko berezia duten proiektuak.
 - 3.3.1. Gorpuak hobietatik ateratzeko planarekin jarraitzea eta DNA banku bat egitea.
 - 3.3.2. Memoria Historikoaren egiari buruzko aitorten instituzionala.
 - 3.3.3. Biktimen aitorten instituzional eta pertsonalerako prozesua.

4. Oraintsuko Memoriaren ildo estrategikoak.

- 4.1. Plangintza orokorra.
 - 4.1.1. Oraintsuko Memoriaren konplexutasunaren aitorten zintzoa.
 - 4.1.2. Oraintsuko Memoriaren konplexutasunari aurre egiteko esparru orokorra.
 - 4.1.3. Erronka estrategiko baten ardatz nagusiak.
- 4.2. Helburu espezifikoak.
- 4.3. Esangura estrategiko berezia duten proiektuak.
 - 4.3.1. Oraintsuko Memoriaren eremuan EAEko erakundeekin lankidetzan aritzea.
 - 4.3.2. Ikus-entzunezko funts publiko bat sortzea Oraintsuko Memoriari buruz.
 - 4.3.3. Oraintsuko Memoriak hezkuntza-arloan egiten dituen ekarpenak lantzea.

HIRUGARREN ZATIA. JARDUERA PROGRAMA

I. ardatza. Zeharkako proiektuak.

- 1. ekimenaren fitxa. Memoria-erakundeekin modu sinergikoan eta osagarrian jardutea.
- 2. ekimenaren fitxa. Gogora Instituturako ikerketa- eta artxibo-tresnak sortzea.
- 3. ekimenaren fitxa. Gogora Institutuaren dibulgazio-lanerako baliabideak sortzea.

II. ardatza. Memoria Historikoari buruzko proiektuak (1936-1975).

- 4. ekimenaren fitxa. Memoria Historikoaren eremuan EAEko erakundeekin lankidetzan aritzea.
- 5. ekimenaren fitxa. Memoria Historikoaren egiari ekarpena egitea.
- 6. ekimenaren fitxa. Memoria Historikoaren egiaren aitortzea eta frankismo-garaiko biktimen aintzatespena hedatzea.

III. ardatza. Oraintsuko Memoriari buruzko proiektuak (1960-2011).

- 7. ekimenaren fitxa. Oraintsuko Memoriaren eremuan EAEko erakundeekin lankidetzan aritzea.
- 8. ekimenaren fitxa. Ikus-entzunezko funts publiko bat sortzea Memoriari buruz.
- 9. ekimenaren fitxa. Memoriak hezkuntza-arloan egiten dituen ekarpenak lantzea.

IV. ardatza. Proiektu operatiboak. Antolaketa eta aurrekontuak.

- 10. ekimenaren fitxa. Antolaketa: koordinazioa, jarraipena eta ebaluazioa.
- 11. ekimenaren fitxa. Aurrekontu-aurreikuspena.



Sarrera

I

Euskal Autonomia Erkidegoan Memoria-
ren Institutu bat sortzeko ekimena IX. legeal-
dian jaio zen, Jaurlaritzak berak eta legebil-
tzar-taldeek elkarrekin artean hala adostuta.
Legealdia, baina, izapideak gauzatu baino
lehen amaitu zen, eta, beraz, hezurmamitu
gabe geratu zen proiektua. Nolanahi ere, X.
legealdiaren hasieran, berriro ekin zitzaion
proposamena lantzeari, aurreko urteetan
egindako lanak oinarri hartuta.

2013-2016ko Bake eta Bizikidetzeta Planak
Memoriaren eta Bizikidetzaren Institutua
sortzeko proiektua gehitu zuen bigarren eki-
menean. Honela aurreikusi zen: "Eusko Jaur-
laritzak Memoriaren eta Bizikidetzaren Insti-
tutua sortuko du, Legebiltzarrak horretarako
hartutako akordioa beteta. Erakunde horretan
memoriari buruzko politika publikoak eta
zentroen, espazioen edo ekitaldien sarearen
sinergiak koordinatu eta dinamizatuko dira".

Halaber, 2015-2016 Memoria Historikoa-
ren arloko Lehenetsuen Oinarriko Pro-
gramak -2014ko azaroan aurkeztua-, Me-
moriaren Institutua sustatu eta garatzea
aurreikusten zuen. Beraz, agiri hartan aurrei-
kusi ziren ekimenetako asko Gogora Institu-
tuak hartu zituen bere gain, sortu eta mar-
txan jarri zenean.

Aurrekari horiek kontuan hartuta, izapide
egokiak eginda eta legebiltzar-taldean artean
eztabaidatu eta erabakiak hartzeko prozesua
burututa, 2014ko azaroaren 27an Eusko Le-
gebiltzarrak 4/2014 Legea onartu zuen, Me-
moriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen

Institutua sortzekoa. Hala, Euskal Autonomia
Erkidegoko administrazio instituzionalean in-
tegratutako izaera administratiboko organis-
mo autonomiaduna bihurtu zen Gogora Insti-
tutua.

Ekainaren 25eko EHAk Lehendakariaren
16/2015 Dekretua, ekainaren 17koa, argita-
ratu zuen. Dekretu horrek 2015eko uztaila-
ren 1a finkatu zuen Institutuaren jarduerari
ekiteko data. 112/2015 Dekretuak, ekainaren
23koak, erakunde autonomoaren 2015era-
ko gastu-aurrekontua (550.000 euro) onartu
zuen, eta bertan lanean sei funtzionario ari-
tzea baimendu zuen.

Gobernu Kontseiluak, ekainaren 23ko
saioan, Institutuaren zuzendaria izendatzeko
dekretua ere onartu zuen. Ekainean bertan,
halaber, Institutuaren egoitzaren kokalekua
ezagutarazi zuten. Euskadiko Artxibo Histori-
koa hartzen duen eraikineko hirugarren so-
lairuan egongo da, hain zuzen, Bilboko Maria
Diaz Haroko kaleko 3 zenbakian.

Garai berean Memoriaren, Bizikidetzaren
eta Giza Eskubideen Institutuaren logotipoa
ere aurkeztu zuten; Gogora hitza oinarri har-
tuta osatuta dago. Testuinguru horretan era-
tu zen, 2015eko urriaren 19an, Gogora Institu-
tuaren Zuzendaritza Kontseilua. Egun hartan
bertan egin zuen lehen bilera, eta, lehenik,
Institutuaren Estatutuak onartu ziren.

Halaber, 2015-2016ko Jarduera Programa-
ren proposamena aurkeztu eta onartu zuen
Zuzendaritzak. Hala ere, egutegi laburrak bal-
dintzatuta planteatu eta garatu behar izan
zen lehenengo lan-programa haren edukia,
legealdi baten amaiera eta beste baten hasie-

ra baitzen. Horregatik, Gogora Institutuaren lana, etorkizunari begira, bi fasetan planteatu behar izan zen: lehenengoa, proiektuaren oinarriak sendotzeko, une hartatik 2016aren amaiera arte; eta bigarrena, proiektua zabalteko, 2016-2020ko legealdirako aurreikuspenarekin.

II

Lehenengo jarduera-agiri haren aurreikuspenen artean, Gogora Institutuaren 2017-2020rako Jarduera Plan baten proposamena egin eta onartzea zegoen. Horretarako, 2016. urtean zehaztu behar ziren planaren nondik norakoak, eta legealdi berriaren hasieran onartu behar zen proposamena. Dokumentu hau da, hain zuzen ere, konpromiso horren emaitza. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Gogora Institutuarentzako Jarduera Planaren edukiak jasotzen ditu, 2017-2020 aldirako, hots, XI. legealdirako.

Jarduera Plan batean, lau urterako jarduera-programa bat zehaztu behar da, egitura eta zentzu-batasun bakarraren barruan. Ari-keta hori jarduera diziplina baten parte da, eta, horren bidez, garatu beharreko lana antolatzen da, asmo eta konpromisoak lotu eta ustekabeak saihesteko. Proposatutako egingtzak bideragarriak ote diren seriotasunez aurreikusteko modua ere bada.

Gaur egun, krisialdiak ere badu eraginik lan-programetan; izan ere, baliabideak mugatuta daude, eta baliabide urriagoekin egin behar da lan bera edo lan handiagoa, sormenean eta konpromisoan are gehiago inbertituz. Hori horrela, jarduera planetan, jarduerak aurreikusi eta programatzen dira, urrats bakoi-tzaren bideragarritasuna eta egingarritasuna aurreko urratsa finkatu ahala bermatuta.

Bestalde, ikuspegi aniztasunari buruzko aurretiazko eztabaidak izateko eta aniztasun hori hasiera-hasieratik integratzeko aukera ematen du jarduera planak, eta zentro honek lehendik dauzkan adostasunak sakontzea eta

lortu nahi eta behar dituenetan aurrera egi-tea ahalbidetzen du. Ildo horretatik, jarduera plana lagungarri da Institutuak legealdiaren lau urteetan garatu behar dituen jardueren printzipio etikoak jorratzeko.

Gogora Institutuarentzat, aniztasunaren ikuspegitik, ezinbestekoa da jarduera plan bat egin, eztabaidatu eta onartzea eta, era berean, baliabide metodologiko aproposa ere bada, egungo testuinguruan duen bideragarritasunari erreparatuta. Hau da, tresna honek zehazten ditu Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak dauzkan mugak eta aukerak, ikuspegi guztietatik.

III

Aspalditik desio zen une historiko zehatz-zehatz batean diseinatu, sortu eta garatu zen Gogora. ETak indarkeria eta mehatxua behin betiko utziko zituela iragarri eta lau urtera inauguratu zen. Terrorismoaren amaiera hark aukera eta zailtasunez beteta utzi zuen Euskal Autonomia Erkidegoa. Aukerak etorkizunari begira, eta zailtasunak atzera begiratuz gero.

Etorkizunari begira, hain zuzen ere, ETaren amaierak itxaropena ekarri eta apurka-apurka normalizazioa lortzeko aldi bat ireki zuen; hau da, konfiantza eta integrazio handiagoko bizikidetzarako bidea zabaldu zuen. Indarke-riaren mehatxurik gabeko errealitate sozio-politikoan errotutako etorkizun hobea nahi izate horrek gizartea batzea dakar.

Iraganera begiratuz gero, ETaren amaierak gertatutakoari buruz eztabaidatzera garamatza. Eta, hala, berehala agertzen da memoria ezberdinak kudeatzeko zailtasuna. Memoria poliedrikoa eta gatazkatsua da, are gehiago mina oraindik egutegian hurbil ikusten de-nean. Gertaera urrutiagokoak gogoratzen dituen memorian, denboraren iraganak leundu egiten ditu ertzak; memoria hurbilean, aldiz, oraindik ere zorrotzak dira ertzak.

Horren harira, XXI. mendean partekatu behar diren gutxieneko oinarri etikoak iden-

tifikatzea da gakoa, memoriaren ikuspegi aniztasuna ez dadin etorkizunean aurrera egiteko eragozpen izan. Memoriaren aniztasuna kudeatzea eta gero guztiak bateratu ahal izateko gutxieneko oinarri etiko partekatu bat identifikatzea da, seguru asko, memoriaren politika publikoak eta Gogora Institutuak –politika horren adierazpen instituzionala den aldetik– lortu behar duten erronka nagusia.

Auzi neuralgiko hori lantzeko, Jarduera Plan honen erreferentzia-esparrua Eusko Jaurlaritzaren 2017-2020ko Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planean zehaztutakoa da. Eta, horri heltzeko, hona hemen bete beharreko hiru irizpide nagusi:

- Ez baztertu. Iraganera begiratzean ezin da baztertu terrorismo, indarkeria edo giza eskubideen urraketa bat ere, ez eta horien biktima bakar bat ere. Guzti-guztiak aintzat hartu behar dira, ikuspegi integrala jorratzeko.
- Ez legitimatu. Iraganari buruzko memoria kritikoa egitean ezin da onartu gatazkaren, bando arteko borrokaren edo justifikazio politikoen teoria, giza eskubideen beste urraketa batzuk edo beste edozein aitzakia erabiltzea terrorismoa edo indarkeria legitimatu, justifikatu, konpentsatu edo minimizatzen.
- Ez garrantzirik kendu. Iraganari buruzko hausnarketa kritikoan halakorik ez errepikatzea lortu nahi bada, gogoeta ezin da generikoa soilik izan; berariaz eta modu berezian uko egin behar zaio edozelako terrorismo- edo indarkeria-kasuaren legitimazio, konpentsazio eta minimizazioari.

Aurrera egiteko zailtasuna eta aukera. Horiexek dira legealdi honen hasieran dauden eta 2017tik eta 2020ra bitarteko Jarduera Plan hau garatzean lagun izango ditugun gakoak. Testuinguru horretan, Gogorak eragin positiboa izan dezake bizikidetzaren normalizatu eta adiskidean aurrera egiteko, gure iragana izan denarekin lotutako hausnarketa zintzoan oinarrituta etorkizunera begiratzen.

IV

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortu eta Jarduera Plan hau egiteko, aurretik ibilbide bat egon da, eta araudi-esparru jakin batean kokatzen da. Planaren edukiari eragiten dion araudi-esparruan, honako hauek dira erreferentzia nagusiak:

- 52/2007 Legea, abenduaren 26koa, gerra zibilean eta diktaduran jazarpenera edo indarkeria jasan zituztenei eskubideak aitortu eta gehitu zizkiena eta beraien aldeko neurriak ezarri zituenak. (2007ko abenduaren 27ko BOE, 310. zk.)
- 4/2008 Legea, ekainaren 19koa, terrorismoaren biktimei errekonozimendua eta ordaina emateari buruzkoa. (uztailaren 1eko EHAA, 124. zk.) (2011ko irailaren 3ko BOE, 212. zk.)
- 29/2011 Legea, irailaren 22koa, terrorismoaren biktimei errekonozimendua eta babes osoa emateari buruzkoa. (2011ko irailaren 23ko BOE, 229. zk.)
- 107/2012 Dekretua, ekainaren 12koa, 1960. eta 1978. urteen artean Euskal Autonomia Erkidegoan izan zen motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan, giza eskubideak urratu zitzaizkielako sufrimendu bidegabea bizi izan zuten biktimak izendatzeari eta ordaina emateari buruzkoa (2012ko ekainaren 19ko EHAA, 119. zk.)
- 157/2014 Dekretua, uztailaren 29koa, Bake eta Bizikidetzaren Planaren Aholku Batzordea arautzen duena (2014ko abuztuaren 1eko EHAA, 145. zk.)
- 55/2010 Dekretua, otsailaren 23koa, Terrorismoaren Biktimen Partaidetza Kontseilua arautu zuena.
- 4/2014 Legea, azaroaren 27koa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortu zuena. (2014ko abenduaren 22ko EHAA, 230. zk.)
- 12/2016 Legea, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bi-

tartean arrazoi politikoengatiko indarke-riaren ondorioz giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta ordaina emateari buruzkoa. (2016ko abuztuaren 10eko EHAA, 151. zk.).

V

Aurrekari eta hasierako ohar horiek guztiak kontuan hartuta, Jarduera Plan honen egiturak hiru zati dauzka. Lehenik eta behin, "Esparru orokorra" dago, eta hori, era berean, hiru ataletan banatzen da: orain arte egindakoaren ebaluazioa, Gogora Institutuaren abiapuntuak, eta Jarduera Plan honetan islatutako Eusko Jaurlaritzaren bizikidetza-politikako osagaiak.

Bigarren zatiak "Orientazio estrategikoa" izena dauka. Koordinatu orokorrak ematen ditu, irizpide gidari bihur daitezzen, eta jardue-
ra plana egituratzen duten hiru eremuetako bakoitzaren ildo estrategikoak zehazten ditu: zeharkako proiektuak, Memoria Historikoari buruzko proiektuak eta Orintsuko Memoriari

buruzko proiektuak. Planaren hirugarren zatiak jarduera programa jorratzen du, lau eremu horietan biltzen diren 11 ekimenak barne hartuta.

Jarduera Plan hau diseinatzerakoan, bereziki kontuan hartu dira aurreko legealdiaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko prozesuen emaitzak, bai eta erakundeen, alderdien edo legebiltzar-taldeen eta elkarteetako agenteen eskutik jaso diren ekarpenak ere.

Horren harira, nabarmentzekoa da Eusko Jaurlaritzako memoriaren politikak jasotzen zituen aurreko legealdiko Bake eta Bizikidetza Planean egin zen kanpo-ebaluazioko prozesua. Prozesu horren ondorioak eta gomen-
dioak berariaz aztertu dira agiriaren lehen zatiko lehenengo puntuan.

Agiri hau, logikoki, Gogora Institutuko Zuzendaritza Kontseiluari zuzendutako proposamen irekia da, kontseiluaren barruan aha-
lik eta adostasunik handiena lortzeko asmoa duena.

Lehen zatia
Esparru orokorra



1. Egindakoaren ebaluazioa

Gogora Institutua eratu zenetik Jarduera Plan hau aurkeztu arte iragan den denbora urtebete eta erdikoa soilik den arren, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak garatutako jardueraren ebaluazioa egitea beharrezkoa eta egokia iruditzen zaigu. Ebaluazio hori egiteko orduan erreferentzia izango dira 2015-2016ko Jarduera Programan aurreikusitakoaren betearazpen-mailaren balantzea, batetik, eta aurreko legealdian bakearen eta bizikidetzaren arloak egindako jardueren kanpo-ebaluazioaren emaitzak, bestetik. Hala, ebaluazio hori izango da Gogora Institutuaren Jarduera Plana egiteko lehenengo abiapuntua.

1.1. 2015-2016ko Jarduera Programaren barne-ebaluazioa

Atal honetan, 2015-2016ko Jarduera Programan aurreikusitako proiektu bakoitzaren betearazpen-mailaren balantzea egin da. Lan-plan hori 2015eko udatik 2016. urtearen amaierara arte egon zen martxan (urtebete eta erdi). Aldi horretan, hiru hauteskunde-prozesu egon ziren, eta, horrek, nola ez, baldintzatu eta mugatu egin zuen plana.

2015-2016ko Jarduera Programa hiru multzo handitan banatu zen: (I) zeharkako proiektuak, (II) Memoria Historikoaren aldiari buruzko proiektuak eta (III) Oraintsuko Memoriaren aldiari buruzko proiektuak. Ebaluazio hau islatzeko azalduko ditugun taulek ere egitura hori bera jarraitu dute. Halaber, laugarren puntu bat erantsi da, Memoriaren Plaza izeneko ekimenak, bere garrantziagatik, izan duen eraginaren balantze zehatzagoa egiteko.

1.1.1. Zeharkako proiektuak

•Kudeaketa

Proiektua	Aurreikusitako jarduera	Betearazpen-mailaren balantzea
· 1. proiektua. 2017-2020 aldirako Jarduera Planaren proposamena prestatzea	·2016an Jarduera Planaren proposamena prestatzea.	·Proiektua ezarritako aurreikuspenen arabera garatu da.
· 2. proiektua. Memoriaren arloko bestelako erakundeekin lankidetzaz-hitzarmenak prestatzea.	·Memoriaren eta giza eskubideen arloko beste erakunde batzuekin hitz egiten hastea, koordinazio eta lankidetzarako esparruak ezartzeko.	· <i>“Erakundeek memoriaren politikan garatu beharreko jarduera eta egintzen antolaketari buruzko lehen eskema”</i> egin da. Halaber, kontaktuak egin eta elkarriketak eduki dira Gernikako Bakearen Museoarekin, Aieteko Baliabide Pedagogikoen Zentroarekin eta Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentroarekin.

•Ikerketa

Proiektua	Aurreikusitako jarduera	Betearazpen-mailaren balantzea
-3. proiektua. Iragana argitzeko txostenen eta azterlanen programa definitzea.	·Gogora Institutuaren 2016ko txostenen programa zehaztea.	·"1936-1978 aldiko giza eskubideen urraketei buruzko oinarritzko txostena" jarri da abian 2016an.
-4. proiektua. Dokumentazio-zentroaren eta liburutegiaren diseinua eta lehen urratsak.	·Gogora Institutuaren dokumentazio-zentroaren eta liburutegiaren proiekturako lehen urratsak egin dira.	·Lehenengo proiektua 2016ko uztaileko Zuzendaritza Kontseiluan aurkeztu da. Liburuak erosi eta katalogatzen ari dira, eta edukiak Interneten kudeatzeko sistema bat garatzen ari da.

•Zabalkundea

Proiektua	Aurreikusitako jarduera	Betearazpen-mailaren balantzea
-5. proiektua. Memoriaren Plaza deritzon herritarren parte-hartzeko ekimena diseinatzea eta modu ibiltarian garatzea..	·Modu ibiltarian jarraitzea herritarren parte-hartzea sustatzeko Memoriaren Plazaren ekimenarekin.	·Ekimenak parte-hartze handia eta aniztasuna bildu ditu. Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan eta bost eskualde-burutan egon da.
-6. proiektua. Beken, hitzarmenen eta bestelako lankidetzen programa definitzea.	·Beken, hitzarmenen eta lankidetzan aritzeko edo zerbitzuak emateko beste modu batzuen programa zehaztu da.	·2016an hitzarmenak eta lankidetzak ezarri eta zerbitzuak eman dira, bai ikerketak sustatzeko, bai hedapen-jarduerak egiteko.

1.1.2. Memoria Historikoa

•Kudeaketa

Proiektua	Aurreikusitako jarduera	Betearazpen-mailaren balantzea
-7. proiektua. Ikur frankistak kentzea.	·Udalekin lankidetzan, sinbologia frankista erretira dadila sustatzen jarraitzea.	·Udal guztiekin batera, urteko jarraipen zehatza egin da, eta Gogora Institutuaren aholkularitza edo lankidetzak eskatu da kasu batzuetan.
-8. proiektua. Identifikatu gabeko desagerrarazitako gorpuzkien Kolunbarioa abian jartzea.	·Kolunbarioaren proiektua sortzen laguntzea.	·Proiektua ezarritako aurreikuspenen arabera egin da, eta elkarteekin hitzarmen bat sinatu da. 2017ko urtarrilaren 30ean inauguratu zen Duintasunaren Kolunbarioa.

•Ikerketa

Proiektua	Aurreikusitako jarduera	Betearazpen-mailaren balantzea
·9. proiektua. Frankismo garaiko (1936/75) giza eskubideen urratzei buruzko oinarri-txostena egiteko batzordea sortzea.	·1936-1978 aldiko giza eskubideen urraketei buruzko txostena egiteko batzordea sortzea.	Proiektua ezarritako aurreikuspenaren arabera garatu da. Hitzarmen bat sinatu da Aranzadi Zientzia Elkartearekin eta UPV/EHUrekin, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritzarekin batera.
·10. proiektua. Lekukotasunak, artxiiboak eta datu-baseak antolatzea.	·Frankismoari buruzko lekukotasunak, artxiiboak eta datu-baseak antolatzeko proposamena aurkeztea.	·Proiektua aurreikusitakoaren arabera garatzen ari da. Edukiak kudeatzeko eta antolatzeko sistema bat diseinatzen ari da, eta elkarteei informazioa helarazten zaie.

•Zabalkundea

Proiektua	Aurreikusitako jarduera	Betearazpen-mailaren balantzea
·11. proiektua. Frankismoaren biktimen omenezko eta aitormenezko ekitaldiak sustatu eta koordinatzea.	Memoria-ekitaldiak antolatzeko proposamen bat aurkeztea, frankismoaren biktimekin lotuta.	·Proiektu honekin lotuta, lehendik dauden ekitaldiei eta frankismoaren biktima guztientzako egun bakar eta bateratu bat ezartzeko egokitasunari buruz hausnartu eta eztabaidatzeko prozesu bat hasi da.
·12. proiektua. Oroitzapen-guneen identifikazioa eta interpretazioa kudeatzea.	·Hiru proiektu pilotu jarri dira martxan memoriaren espazioak interpretatzeko, tresna pedagogiko bat eratze aldera.	·Lehendik dauden tokiko ekimenak aztertzen ari dira, gutxieneko koordinazioa ezartzeko. Horrez gain, espazio beliko eta bonbardatuak geolokalizatzen ari dira, informazio hori Gogora Institutuaren webgunean eskuragarri egon dadin.

1.1.3. Oraintsuko memoria

•Kudeaketa

Proiektua	Aurreikusitako jarduera	Betearazpen-mailaren balantzea
·13. proiektua. Udal Memoriak. Udal-mailako eremuan memoriari buruzko politika bultzatzea.	·Udalekin koordinatuta aritzeko kudeaketa-lanak garatzea, memoriaren politika sustatu eta Memoriaren Eguna ospatzeko.	·Proiektu hau aurreikuspenen arabera garatu da. Udalekin etengabeko harremana eduki da, gutun eta telefono bidez. Kasu batzuetan, harreman zuzena eskatu da, eta harreman horrekin jarraitu da urte osoan.
·14. proiektua. Web-espazio bat prestatzea biktimen memorian.	·Web-espazio hau aktibatzea.	·Proiektu hau aurreikusitakoaren arabera garatu du Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritzak, eta Gogora Institutuan gordeta eta ikusgai dago.

•Ikerketa

Proiektua	Aurreikusitako jarduera	Betearazpen-mailaren balantzea
· 15. proiektua. Biktimen lekukotasunak grabatzeko Gertu Programa zabaltzea.	·Helburua zauritutako eta mehatxatutako biktimen lekukotasuna grabatzea da.	Programa hau aurreikusitakoaren arabera garatu da. Zauritutako biktimen eta mehatxatutako pertsonen lekukotasun gehiago grabatzen ari dira.
· 16. proiektua. Biktimen, gizartearen, memoriaren eta bizikidetzaren arteko bat-egiteari buruzko elkarrizketa-espazioak garatzea.	Biktima, gizarte, memoria eta bizikidetzaren kontzeptuen bat-egiteari buruzko elkarrizketa- eta gogoeta-foro batzuk era esperimental batez deitzea.	Hainbat jarduera egin dira gai horiei buruz eztabaidatzeko Memoriaren Plaza ekimenaren esparruan. Nabarmentzekoak dira Bilbon eta Donostian biktimen eta gizartearen artean garatu ziren elkarrizketa-taldeak.

•Zabalkundea

Proiektua	Aurreikusitako jarduera	Betearazpen-mailaren balantzea
· 17. proiektua. Biktimen lekukotasunak biltzen dituen Gertu ikus-entzunezkoak herritarren esku jartzea.	·Gertu programaren grabazioak eskuragarri jartzea, webgunearen edo ikus-entzunezko baten bidez.	Proiektu hau Memoriaren Plazaren erakusketaren bidez garatu da. Hala ere, biktimenek hala eskatu dutenez, lekukotasunak webgunean ez jartzea erabaki da.
· 18. proiektua. Oraintsuko Memoriaren gogoeta kritikoari buruzko hezkuntza-proposamena egitea.	·Baliabide pedagogikoen proposamen bat egitea, Oraintsuko Memoriari buruzko hausnarketa kritikoa hezkuntzaren eremuan sartzeko.	·Begoñazpiko ikastolan egin da lehenengo esperientzia pilotua. Hausnarketa kritikoko tailerrak garatu dira Memoriaren Plazaren eremuan, eta 3.020 ikasleek parte hartu dute horietan.

1.1.4. Memoriaren Plaza ekimenaren balantze espezifiko

2015eko ekainean, Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak Memoriaren Plaza izeneko webgunea aurkeztu zuen, herritarren memoriari buruzko lekukotasunak jasotzeko. Ekimen hau esperientzia pilotua izan zen, eta, harekin batera, komunikazio-kanpaina bat eta beste dibulgazio-jarduera batzuk egin ziren, herritarrek memoria eraikitzeke orduan parte har zezatela sustatzeko. Herritarren eskutik jaso diren lekukotasun eta mezu guztiak memoriaplaza.euskadi.eus webgunean jaso dira.

2016. urtearen hasieran, Memoriaren Plaza ekimenaren fase ibiltaria abiarazi zen. Hurrezkeroko, 450 m²-ko karpa bat herriz herri ibili da, eta, bertan, ikus-entzunezko eduki interaktiboak eta erakusketa-elementuak ikus daitezke. Erakusketan honako espazio hauek daude:

·**Lekukotasunak grabatzeko txokoa:** erakusketara doazenek beren memoriaren lekukotasun pertsonala idatzi edo grabatu ahal dute.

·**Lekukotasunak entzuteko txokoa:** erakusketan, 107/2012 Dekretuaren babespean dauden terrorismoaren biktimen eta giza eskubideen urraketan biktimen, frankismoaren biktimen nahiz kulturako ordezkari eta herritarren lekukotasunak entzuteko espazioak daude.

•**Proiektzioak eta eztabaidak:** karpan dokumentalak proiektatu eta hitzaldi, mahai-inguru eta talde-dinamikak antolatzeko espazio bat dago.

•**Mezuen murala:** erakusketara sartzen diren pertsonen mezua bat idatz dezakete muralean, gero Gogora Institutuan gordetzeko.

2016aren amaierara arte, EAEko zortzi udalerritatik igaro da erakusketa ibiltaria (Bilbo, Durango, Tolosa, Gasteiz, Eibar, Donostia, Zarautz eta Arrasate), EAEn azken hamarkadetan bizi izandakoaren lekukotasunak erakutsi eta biltzeko. Bost-hamar egun egon da udal-erri bakoitzean. Barruan, tailerrak antolatzen dira goizetan 16 eta 18 urte bitarteko gazteentzat, inguruko ikastetxeekin lankidetzan; arratsaldean, hitzaldiak eta mahai-inguruak egiten dira. Jarduera horien bidez, udal-talde politiko guztiek eta eskualdeko erreferentziako pertsonen eta biktimek parte har dezatela lortu nahi da.

1. taula. Memoriaren Plaza ekimen ibiltarian 2016an egondako partaidetzaren balantzea

	Bilbo	Durango	Tolosa	Gasteiz	Eibar	Donostia	Zarautz	Arrasate	Guztira
Erakusketako bisitariak	1.705	580	971	2.435	939	3.165	1.100	1.269	12.164
Jardueretako partaideak	415	290	210	343	239	312	200	561	2.570
Ikasleentzako tailerrak	681	152	424	177	231	298	666	405	3.034
Partaidetza, guztira	2.901	1.022	1.605	2.955	1.409	3.775	2.100	1.674	17.441

Memoriaren Plaza ekimenaren bidez garatutako esperientziari esker, balorazio kuantitatibo eta kualitatiboa egin ditzakegu. Ikuspuntu kuantitatibotik, karpa bisitatu duten eta jardueretan parte hartu duten pertsonen kopurua altua izan da, batez ere herri horietan kultura-etxeetan edo gizarte-etxeetan antolatzen diren antzeko jardueretara joaten den jende-kopuruarekin alderatzen badugu. Halaber, ikasleek tailerretan izan duten partaidetza oso garrantzitsua izan da, eta udal-erri bakoitzeko ia ikastetxe guztiak inplikatzea lortu da.

Ikuspegi kualitatibotik erreparatuz gero, Memoriaren Plazaren karpa gizarte-topaketarako plaza publikoa bihurtu da, eta, bertan, sentsibiltate politiko guztiek izan dute tokia, ahotsa eta partaidetza. Karpa egon den hirietan eta eskualde-buruetan, antolatutako jardueren udaleko indar politiko guztien partaidetza plurala jaso dute. Hainbat alorretako indarkeriaren biktimek ere partekatu dituzte lekukotasunak eta hausnarketak.

Ekimena egon den tokietan memoriari buruzko pedagogia egin da, eta adin guztietako herritarrek irudikapen errealago eta zehatzago batekin lotu ahal izan dute memoriaren konzeptu teorikoa, bertan parte hartzeko aukera edukita gainera.

1.2. Kanpo-ebaluazioa

Aurreko Bake eta Bizikidetzaren Planak zehaztutako moduan, bi kanpo-ebaluazio egin behar ziren: planaren garapenaren erdialdean, lehendabizi, eta legegaldien amaieran, ondoren. Roberto Toscano, Covadonga Morales, Jesus A. Nuñez eta Francisco Rey adituei eskatu zitzaizkien kanpo-ebaluazio bikoitz hori egitea, eta IECAH Institutuaren laguntza ere izan zuten (Gatazkei eta Ekintza Humanitarioari buruzko Ikasketen Institutua). Gogora Institutua sortu eta martxan

jartzea Bake eta Bizikidetzeta Plan hartan aurreikusitako ekimen bat zenez, Institutuaren kudeaketa ere ebaluatu zen. Atal honetan, ebaluazio horri buruzko laburpen batzuk jaso ditugu.

1.2.1. Bitarteko ebaluazioaren kanpo-txostena (<https://goo.gl/XocOUq>)

"(...) Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren sorrerak argi eta garbi agertzen du borondate politikoa dagoenean elkarrekin aurrera egin daitekeela, etorkizunean hartu beharreko bidearen inguruan desadostasunak badaude ere. Azken hilabeteotan Institutuaren proiektuan lortutako aurrerapausoak nabarmentzekoak dira benetan eta adostasun adibide ona dira. Ikusteko dago, ildo horretatik, Memoriaren Egunaren (azaroak 10) elkarren arteko ospakizuna berreskura daitekeen ala ez

(...) Memoria historikoari buruzko 2015-2016ko Lehenetasunen Oinarri Programak, iraganaren berrikusketa kritikoaren ahalegina zabaldu duena Francoren diktaduraren garaia barne hartuz (1936-1975), oraingoz balio izan du dagoeneko abian ziren ekimen partzialak modu egokian bildu eta artikulatzen jarraitzeko, herritarren eta erakundeen laguntzarekin, ordura arte burututako jarduerak ordenatzeko eta egituratzeko ahaleginean, jarduera horiek beharrezkoak ziren beste batzuekin osatuz eta dauden baliabideekin lortu daitezkeen lehenetasunak ezarriz.

Ondorioak

Ez dago (eta ez da egongo) iraganaren kontakizunaren eztabaida behin-betiko ebatz dezakeen arbitro aseptikorik, ebazpen hori denek onartzeko moduan. Baina bada, gutxienez, gertaeren erregistroa zehaztasunez ezartzeko neurri objektibo bat: giza eskubideen urraketa. Horrek izan behar du, itzulgingururik gabe, beharrezko argitze-prozesuaren abiapuntua.

Memoria, definizioz, poliedrikoa da. Horrek esan nahi du, ziur asko, ezingo dela alde guztiak asebetetzen dituen kontakizun bakarrera iritsi. Zentzu horretan proposa eta bultzak daitezkeena da herritarren eta adituen eskura dauden askotariko testuak eta materialak sortzea, gertaerak ikuspuntu desberdinetatik zehazki ezartzeko, genero-ikuspuntua barne hartuta, inor kaltetzen ez duen (baina inor asebetetzen ez duen) azaleko eremuan geratu gabe, horrek gertatutako guztia aitortzea saihestuko luke eta. Kontakizun edo historia erkidea, egunen batean lortzen bada, bidearen helmuga izango da eta ez martxan jartzeko aurrebaldintza.

Beste kasu batzuetako esperientziagatik dakigunez, interesgarriena da elkarlanerako ekimenak maila lokalean abian jartzea. Honela, denek erkide gisa aitortzen duten gunean libreki adierazitako hainbat kontakizun daudela onartuz, arreta gehiena jarri beharrean bakea zergatik hautsi zen eta iraganean indarkeria zergatik hasi zen erabakitzean, ahalegin nagusiak izan behar du galdera honi erantzunak bilatzea: nola bizi gaitzke denok elkarrekin bakean eta lurralde berean gaur eta bihar?".

1.2.2. Legealdiaren amaieran Bake eta Bizikidetzeta Plana baloratzeko kanpo-txostena (<https://goo.gl/My3Grr>)

"Eremu horretan esanguratsua izan da Gogora, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua martxan jarri izana. Zuzendarien Kontseiluak egin zuen lehenengo bileran (2015eko urriaren 19an) Institutuaren 2016ko jardun-plana onartu zuten (18 proiektu zituen), eta 2017-2020rako Jarduera Plana onartzeko prozesuari ekin zioten.

Harrezkero denbora gutxi igaro den arren, Gogora Institutua ikusgai egin da EAEko testuinguruan; argi azaldu ditu zeintzuk diren beraren egiteko bereziak, eta dagoeneko beste ekimen batzuk ere jarri ditu abian. Ekimen horietako bat EAEko museoak antolatzekeko proiektu bat da (Gernikako Bakearen Museoa, Aieteko Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea eta aipatu dugun Me-

moriarako Zentroa). Beste alde batetik, oinarrizko adostasun politikoa lortu du, iraganari eta memoriari buruzko eremu bakoitzean jarduera eta azterketa zehatzak egin ahal izateko.

Gogora Institutuak erreferentzia nagusizat hartu du indarkeria eta giza eskubideen urraketak ezin direla zuritu, eta oinarritzat hartu ditu esklsiorik eta berdintzerik ez egiteko printzipioak. Handik begiratu nahi dio azken mendeko memoriari. (...)

Institutuaren lehenengo etapa horretan lortu dituzten emaitzak –bereziki, Memoria Plazarekin lotutakoak eta Elgoibarren kolunbarioa sortu izana– kontuan hartzen baditugu, ondorioztatzea da «plaza publikoa» bereganatu, eta konfiantza sortu dutela eragile politikoen eta sozialen artean. Horren frogatzat har daitezke azaroaren 10ean, Memoriaren Egunean, egin ziren ekitaldiak, aurreko urtearekin erkatuta laukoiztu egin baitzen parte hartu zuten udalen kopurua. Gure ikuspegitik, Idazkaritzak egin duen lana gainerako eragile politikoek aintzat hartu izan ez balute, edo aurreko jarduketek konfiantza sortu izan ez balute, nekez lortuko ziratekeen ageriko aurre-rapen horiek.

Kapitulu honetan behin eta berriro aipatu dugun paralisia ahaztu gabe, Gogorak etorkizunari begiraten dio, eta sinetsita dago euskal testuinguruan erreferentzia-erakunde modura bermatzea lor dezakeela. Aurreko urteetan gai horiekin lotuta garatu diren gainerako ekimenak aintzat hartuz eta elkarrekintza koordinatua eginez lortu nahi du helburu hori. Institutuaren helburu praktikoa ahozko lekukotasunetan espezializatzea da, eta Euskal Herriko kasuan erreferentzia-liburutegia izatea.”

1.3. Ondorioak

Urte eta erdiko epean, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak bete-arazpen-maila altua lortu du bere Zuzendaritza Kontseiluak onartutako 2015-2016ko Jarduera Programan aurreikusitako proiektuetan. Horrez gain, garrantzi handiko lau helburu nagusi betetzea lortu du:

·Azpiegitura. Urte eta erdiko epe honetan, Gogora Institutuaren oinarrizko azpiegitura finkatu da: proiektuak, taldea, aurrekontua, eta kudeaketa-, ikerketa- eta dibulgazio-zerbitzuak. Sortu berria den erakunde honek oinarri sendoa dauka orain, datozen urteetako erronkei aurre egiteko.

·Aniztasuna. Martxan jarri zen lehen egunetik, Gogora Institutuak “parte-hartzea eta pluralismoaren adierazpena bideratzea” lortu du. Eta horrelaxe egin du, bai gizartearekin ezarri dituen loturetan, baita bere Zuzendaritza Kontseiluaren dinamiketan ere, adostasun-maila altua lortuta Kontseiluak egindako lau bileretan.

·Sozializazioa. Hemezortzi hilabete hauetan, eta batez ere Memoriaren Plaza ekimen ibiltariaren arrakastari esker, Gogora Institutuak memoria kalearekin eta herritarrekin lotzea lortu du erakusketa-karpa egon den herrietan. Gizarte-mailan memoriaren esanahia eta memoriako partaidetza ulertzeko orduan lagungarri izan da.

·Oinarri etikoa. Halaber, aldi honetan memoriaren politika publikoa bideratu ahal izan da (1) bizikidetzat demokratiko eta inklusiboa lortzeko, (2) indarkeriazko forma ezberdinen arteko era guztietako parekatze konpentsagarriak baztertuta, eta, (3) bereizkeria edo hutsunerik gabe, horietako bakoitzari buruzko gogoeta kritiko eta autonomoa sustatuta.

Jardueraren balantze honen lau lorpen horiek estrategikotzat jo daitezke, eta, horrexegatik, hain zuzen ere, lagundu dute 2017-2020ko proiektuko oinarriko sendoenetako bat sortzen.

2. Gogora Institutuaren abiapuntuak

Gogora Institutuaren Jarduera Planeko bigarren puntu honetan hitzez hitz jaso da izenburu berarekin 2015-2016ko Jarduera Programako proiektu zehatzen deskribapenaren aurretik agertzen den testua. Testua hitzez hitz jasotzeko arrazoiak bi izan dira: lehenik eta behin, denbora gutxi iragan denez –urtebete eta erdi–, abiapuntuak oraindik ere berdina dira; bigarrenik, atal honetan egindako azterketak adostasun handia lortu zuen Gogora Institutuaren Zuzendaritza Kontseiluan batzen diren ikuspegi aniztasunean.

4/2014 Legeak, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzekoak, eta Gogora Institutuaren estatutuek argi eta garbi zehaztu dute jarduteko esparru orokorra. Jarduera planak garatu beharreko esparrua mugatzen du bi horien edukiak, beraz. Hori abiapuntu hartuta, puntu honetan Gogoraren proiektuaren «oinarriak» eta «gakoak» nabarmentzen dira.

2.1. Oinarriak

2.1.1. Printzipioak

Gogora sortzeko Legearen zioen azalpenak abiapuntua definitzen du, eta egiaztapen enpirikoa esplizitatzen du horrek:

·Ez dago bi memoria berdina. Memoria publikoa, beraz, eraikitze gatazkatsu, dinamiko eta poliedrikoa da.

Oinarri horren gainean, dio legeak, Memoriaren politika publiko batek bi printzipio handi konbinatu behar ditu, batera ekarri:

·Erantzukizun etiko eta politikoa bereganatu behar du: oroitzea, oroitzapena egitea, elkarbanatzea eta transmititzea memoria demokratiko bat.

·Parte-hartzea eta pluralismoaren adierazpena bideratu behar ditu memoria eratzean.

2.1.2. Gogora Institutuaren xedea eta helburu orokorrak eta berariazkoak

Legeak hitzez hitz dioenari jarraiki, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren eginkizun nagusiak:

·Erreskatatu, nabarmendu, oroitu eta transmititu behar ditu indarkeriazko gertakari larrien erdian duintasuna, berdintasuna, askatasuna eta abar defendatzeko borrokatu ziren balio eta ahalegin demokratikoak.

Helburu orokorreari dagokienez, legearen zioen azalpenak lehen helburuaz eta azken helburuaz hitz egiten du:

·Lehen helburua da herritarren arteko elkarrizketa sortzaile bat bideratzea, sustatzea eta adieraztea, iraganeko esperientzia sozial eta politikoki traumatikoetan elkarrekin bizi diren memoriaren arteko elkarrizketa bat.

·Azken helburua da laguntzea agora bat eraikitzen, dinamikoa eta emankorra, plaza publiko bat, balioen topagune sozial bat, berdintasun maila handiagoak lortzeko. Askatasuna eta demokrazia.

Artikuluetan, legeak berariazko lau helburu ezartzen ditu, eta honela adierazten ditu:

·Ekarpen kualitatiboa egitea diseinatzen, sustatzen, garatzen eta gauzatzen euskal gizartearen askatasunaren aldeko borrokaren, giza eskubideen bermearen eta bizikidetzaren demokratikoaren oroimenean funtsezkoak diren balio etikoei eta printzipio demokratikoei buruzko politika publikoa.

- Gure herriak askatasuna eta demokraziaren garapena defendatzen hainbat hamarkadatan mantendu duen prozesua gogoan, sustatzea etengabeko oroitzapena egin dadin herritarrek prozesu hura ezagutzea, ulertzea eta kontzientzia hartzea bermatzen duten balio politiko eta sozialez.
- Gordetzea, garatzea eta zabaltzea memoriak eragin duen ondare kolektiboa, bizikidetzaren demokratikoaren oinarri diren balioen eta printzipioen defentsarena, biktimen lekukotasunean alderdi ordezkazekin bat duena.
- Institutuak bultzatu egingo du giza eskubideak eta bakearen balioak zabaldu, sustatu eta defendatzeko lana.

2.1.3. Eginkizunak eta zerbitzuak

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren lehen jarduera-proiektu hau egituratzeko orduan, hiru erreferentzia eduki behar ditugu gogoan. Lehen biak legearen testuan jasota daude, eta hirugarrena Gogora Institutuaren Estatutueta.

A) Eginkizun nagusiak

- Institutuaren eginkizun nagusia da gestionatzea egiari eta justiziarri buruzko memoriaren balio demokratiko eta etikoak gordetzeko, ikertzeko, ezagutzera emateko eta haietan hezteko lana, baita bultzatzea eta bermatzea herritarrek ondare horren mantentze-lanetan parte har dezaten ere.
- Autonomia Erkidegoko sektore publikoan dauden organo, zerbitzu edo entitateen jarduna koordinatzea, definitu den politika publikoarekin zerikusia duen bezainbatean, eta kooperazioa eta lankidetzaren bultzatzea beste edozein administrazio edo instituzio publikoekin.
- Institutuak arreta berezia jarriko du bere eginkizunak betetzekoan instituzio publikoekin eta izaera pribatuko entitateekin eta haren eginkizunetan interesa duten elkarteekin lankidetzan jarduteko, gizartearekin ahalik harreman handiena izateko bidea bermatuz.

B) Berariazko eginkizunak

- Gogora Institutuak, gainera, berariazko eginkizun hauek ere garatu beharko ditu: oroitzapena, kontserbazioa, ikerketa, prestakuntza, parte-hartze eta zabalpena, eta integrazio eta kontsulta.

C) Zerbitzuak

Gogora Institutuaren barneko antolamendua, aipatutako helburu eta eginkizunak betetzeko, hiru zerbitzu hauen inguruan egituraturik dago: kudeaketa, ikerketa eta zabalpena.

2.1.4. Legeak ezarritako bestelako argibideak

Legearen zioen azalpenak kontuan hartu beharreko hainbat alderdi nabarmentzen ditu, balio kualitatibo handiko orientazio-argibideak baitira.

- Memoriaren eskubidea gizarte osoari dagokio, herritarrak dira-eta historiaren, oroipenaren eta memoriaren gordetzailerik eta oinordeko naturalak. Ahazteak ezinezko egiten du errekonozimendua, iraganaren bertsio bat inposatzen du eta hutsune etiko bat sortzen du. Haren aurrean, herritarrek memoria demokratikoaren ezagutza historiko ez-neutral bat izateak bidea ematen du irizpide propioak lortzeko eta, gainera, libreago egiten ditu herritarrak.
- Horiek horrela, memoriaren eta bizikidetzaren politika publikoa ez da biktimei begira bakarrik egiten, herritar guztiei begira baizik, haien erantzukizuna eskatzen baitu. Horrela egiten ez bada, biktimak bakarrik gelditzen dira haien oroitzapen eta biktima izan ez direnak memoria kolektibotik kanpo geratzen dira. Memoriaren, bizikidetzaren eta giza eskubideen institutu ba-

tek deuseztatu behar du biktimen eta herritarren arteko banaketa hori. Banaketa horrek egoera horretan ixten du biktima, betiko itxi ere, eta ikusle hutsa bihurtzen du herritarra. Memoriaren zentro batek ibilbide etiko bat iradoki behar du, herritarrek parte hartzeko ibilbide bat.

- Memoriak gordetzen duen ondare demokratikoak oinarri izan behar du, gizartearen bizikidetzatza demokratikoarena; salaketa izan behar du, sufrimendu bidegabearen erantzuleena, eta bultzatzaile izan behar du, balio etiko eta printzipio demokratikoena.
- Memoriaren gestioa ezin da mugatu, bestalde, oroigarri, plaka, eskultura edo mural bat ipintzera edo data bat ezartzera. Oroitzeak ikusgaiak beharko ditu, bai, baina gogoeta bat gehitu beharko da memoriaren sorreraren, iraunkortasunaren eta indarraldiaren dinamismoaz. Hori da Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren desafio handienetako bat.
- Aldarrikapen unibertuala inspiratu zuten giza eskubideen eta balioen sustapena eta defentsa tresna baliotsuenetako bat izango da Euskadin bizi izandako indarkeria traumatikoko esperientziak berriz gertatuko ez direlako bermea lortzeko.

2.2. Balio erantsiko gakoak

Zailtasunei egoki aurre egin nahi badiegu, ezagutu behar ditugu aurretik. Horregatik, gure herrialdearen testuinguru zehatzean memoriaren politika publiko batek aurre egin beharko dien zailtasunak lehen momentu honetatik bertatik identifikatzea komeni da. Zentzu horretan, bi arazo-gune handi ikus ditzakegu: batetik, iraganaren irakurketari dagokionez dauden desadostasunak; eta bestetik, memoriaren politika publikoak proiektatzean sentsibilitate politiko ezberdinak egotea.

Baina arazoa dagoen tokian aukera ere aurki dezakegu. Konplexutasun horri heltzeko irizpideak azaltzea lagungarria izan daiteke, orobat, adostasuna oinarri duten memoriaren politika publikoak bultzatzeko akordioa errazteko, betiere ikuspegi integratzaile eta inklusibo batez. Hurrengo bi atalotan zailtasun horiek Gogora Institutuaren etorkizunerako balio erantsi gisa kokatzen saiatu gara.

2.2.1. Arazo nagusia, irizpide nagusia

Iraganaren kudeaketa bizikidetzatza berreraikitzeke prozesu baten zatirik konplexuena da. Memoria iraganaren kudeaketaren funtsezko zatia da. Iraganean aurkituko dugu erruaren eta erantzukizunaren diagnostikoa, jasandako mina eta sufrimendua eta, horrekin batera, gertatutakoaren kausen eta jatorriaren gaineko irakurketa ezberdinak. Konplexutasun hori onartu beharra dago, eta berdin ere onartu behar dugu ezinezkoa dela iraganaren interpretazioari buruzko erabateko akordioa lortzea. Hala eta guztiz ere, adostasun-aukera posible izateko minimo batzuk finka daitezke.

Legearen testuak honela dio memoriaz: “Gogoeta kritiko bat elkarbanatzeko borondateari erantzuten dio, giza eskubideen urraketa iraunkor eta sozialki traumatikoa ekarri zuten gure historia berriko gertaerei buruzko gogoeta kritiko bat². Horrenbestez, pluralean aipatzen du gure historia traumatikoa. “Gertaerez” hitz egiten du. Jarraian, esplizitu egiten ditu: “Azkeneko ehun urtean, euskal gizarteak gutxienez indarkeriak markatutako lau esperientzia traumatiko sufritu ditu: Gerra Zibila, diktadura frankista, ETAren terrorismoa eta legez kontrako antiterrorismoak”.

Lerokada horietan dago ziur aski Gogora Institutuak aurre egin behar dion gairik konplexuena. Agian horregatik ere bertan dago haren aukera nagusia. Institutuak gertaera traumatiko ezberdinen memoria kudeatu behar du; irakurketa dibergenteak dituzte horiek, eta giza baliabideak eta, zehazki, bizitzeko eskubidea urratzeko balantze dramatikoak dute lotura komun modura.

Legearen testuak hauxe ere gehitzen du: “Ezberdinak izanik ere, badute laurak lotura komun bat: bidegabeki jasandako sufrimendua, eta egoera okerrenetan ere bizikidetzatza demokratikoa eta

giza eskubideen defentsan, bakean eta askatasunean oinarritutako gizarte bat eraiki eta defendatzeko ahalegina”.

Gure testuinguru soziopolitikoan, konfiantzarik ezeko bi gune sortzen eta kontrajartzen ditu gertaera traumatiko horien kudeaketak: batetik, indarkeriazko gertakari batzuk beste batzuk orekatzeko, justifikatzeko, diluitzeko edo minimizatzeko beldurra; eta bestetik, indarkeriazko gertakarien arteko ezberdintasunak biktimen edo memorien artean bereizteko erabiltzeko beldurra. Gogora Institutuaren etorkizuneko gakoa gurpil zoro hori bertutezko gurpil bihurtzea da.

Legearen testuak berak konplexutasun horri heltzeko kontzeptu etikoen esparru bat eskaintzen du: “Euskadin jasandako sufrimendu bidegabearen memoria gordetzea da egin daitekeen zerbitzurik onena etorkizunean bizikidetzaren duinago, justuago eta libreago bat izan dadin, baldin memoria hori (1) era barneratzailean eta (2) kausen berezitasuna haiek beren artean parekatu gabe mantenduz gordetzen bada; zerbitzurik onena (3) irizpide kritikoz eraturiko gizarte baten zat, gizarte sendo baten zat gerraren, totalitarismoaren, terrorismoaren eta edozein indarkeriaren edo giza eskubideen urraketaren mehatxuaren aurrean”.

Legearen testuak ematen duen berariazko orientazio horri esker irizpide zuzentzailea adieraz dezakegu, hiru jarraibide nagusi barne hartzen dituena:

·Memoriaren politika publikoa (1) bizikidetzaren demokratiko eta inklusibora orientatzea, (2) indarkeriazko forma ezberdinen arteko era guztietako parekatze konpentsagarriak baztertuta, eta, (3) bereizkeria edo hutsunerik gabe, horietako bakoitzari buruzko gogoeta kritiko eta autonomo bat sustatuta.

2.2.2. Balio erantsian bihurtu daitezkeen zailtasun bat

Gogora Institutuak aurre egin beharreko bigarren arazoa aniztasunaren kudeaketa da. Aniztasuna konplexutasuna eta aukera da. Pluralismoa da aniztasunaren konplexutasunari heltzeko aukera. Pluralismo demokratikoarekiko konpromisoa da balio erantsiko gakoa. Legearen testuak ikuspegi hori biltzen du memorien aniztasuna, haien gatazkakortasuna eta pluralismoaren aldeko apustua espresuki onartzen baititu:

“Memoriak ahalbidetzen digu gertatutakoaren oroipena presente izatea. Memoria gertaera objektiboen erreferentzian oinarritzen da, oroitzen denaren parte diren gertaera objektiboetan, baina modu subjektiboan eratzen da pertsona bakoitzarengan. Ez dago bi memoria berdinerdinak. Memoria publikoa, beraz, eraikitze gatazkatsu, dinamiko eta poliedrikoa da”. Horregatik, legearen testuak honela dio: “parte-hartzea eta pluralismoaren adierazpena bideratu behar ditu memoria eratzean”.

Jarraian, legearen zioen azalpenak pluralismo demokratiko baten jokalekua etikoki mugatzen du: “Memoriaren arteko elkarrizketa aske eta plural honen kudeaketak muga bakarra du: babestu behar ditu gutxieneko demokratiko batzuk. Urraketa-kategoria berdinen biktimek duten eskubide-berdintasunaren printzipioa aintzat hartuz, memoria ezin da erabili gertakariak baztertzeko eta erkatzeko. Ezta terrorismo, indarkeria edo giza eskubideen urraketaren ezein adierazpide legitimatuko lukeen historia bat berridazteko ere. Alderantziz, urraketa haien salaketarik sendoena da, giza duintasunaren goreneko baliori begira egiten baita, egia eta justizia helburu, baita balio horren ondorio diren eskubideei eta askatasunei begira ere”.

Azkenik, zera ere gehitzen du: “Eusko Legebiltzarrean lortu berri diren zenbait adostasun garrantzitsurekin bat etorrira, memoriaren eta bizikidetzaren politika publikoak oinarrian izan behar du ‘biolentziaren bidegabekeriaren aitortzea, sortutako minaren eta biktimen duintasunaren aitortzea, biktima guztiek egitarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubidea dutelarik”.

Nabarmendutako alderdi horiek oinarri hartuta, balio erantsiko bigarren gako bat adieraz dezakegu Gogora Institututik egin beharreko aniztasunaren kudeaketaren inguruan:

·Memoriaren politika publikoarentzat iraganaren oroitzapenari eragiten dion memoria-ondare baliotsua da aniztasuna; halaber, orainean zein etorkizunean pluralismoa errespetatzeko konpromiso pedagogikoaren oinarria ere bada, eta gerra, totalitarismoa, terrorismoa eta indarkeria eta giza eskubideen urraketa oro baztertzeko du.

3. Eusko Jaurlaritzako bizikidetzaren politikaren elementuak, **Jarduera Plan honetan islatu direnak**

Aurreko bi puntuetan, batetik, orain arte Gogora Institutuak egindakoaren aurrekariak eta ebaluazioa eguneratu dira, eta, bestetik, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren oinarriak erreparatu dira. Hori guztia kontuan hartuta, atal honetan berariaz identifikatu da Eusko Jaurlaritzako bizikidetzaren politika publikoetako zein parametrok duten eragina Jarduera Plan honetan.

Ikuspegi metodologikotik erreparatuta, Eusko Jaurlaritzaren 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana eta Gogora Institutuaren Jarduera Plana ildo beretik doaz egiturazko elementu batzuetan. Partekatzen dituzten parametroak honakoak dira: oinarri aurre-politikoak, planaren xedea, zentzu-batasuna, lan-metodologia, jarduera esparruaren egitura eta, azkenik, jarduera-eremuen muga, aipatu bizikidetzaren planarekin lotuta.

3.1. Oinarri aurre-politikoak

Jarduera Plan hau diseinatu, sustatu eta garatzeko orduan bi oinarri aurre-politiko izan dira euskarri nagusiak: printzipio etikoa eta printzipio demokratikoa.

·Printzipio etikoa. Plan honek giza duintasunaren balio gorena eta duintasun hori lortzeko beharrezkoak diren giza eskubideen defentsa eta sustapena hartzen ditu oinarri, eta baita elkartasunarekiko eta giza eskubideen urraketen biktima izan direnen eskubideekiko konpromisoa ere.

·Printzipio demokratikoa. Plan honek printzipio demokratikoarekin duen lotura terrorismoa eta indarkeria forma oro alde batera uzteko konpromisoan islatzen da, eta baita askatasunaren, aniztasunaren, elkarrizketaren, eta bizikidetzaren adiskidetsu eta normalizatuaren aldeko konpromisoan ere.

3.2. Xedea

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planak eta Gogora Institutuaren 2017-2020ko Jarduera Planak xede berbera dute. Ondorioz, gauza bera esaten dute bietan ere. Lehenengoan, "gizarte-topaketarako helburua" aipatzen da, eta, bigarren honetan, bestetik, "memoriarako plaza publikoaz" ari gara. Bi kasuetan planteatzen dena proiektio berbera da: gizarte bat non, bizikidetzari begira, hura osatzen duen sentsibilitate-aniztasunerako espazio publiko bat bilatu behar duen.

Formulazio horiek maila altuagoko erreferentzia bati buruz ari dira: bizikidetzaren adiskidetzaren idealaren hurbilketari buruz, hain zuzen ere. Gogora Institutuaren 2017-2020ko Jarduera Planaren helburua da, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzeko Legearekin bat, gizarte-topaketarako plaza publiko bat sortzen laguntzea, non sentsibilitate politiko guztiek

izango duten beren tokia, ahotsa eta partaidetza. Eta bizikidetza adiskidea lortu nahi da, baita iraganera begiratzeak etorkizunean duen eraginean ere.

3.3. Planaren zentzu-batasuna

Jarduera plan bat egitea justifikatzen duen helburu metodologikoa zera da: ekimen-multzo bat antolatzea, helburu, printzipio, irizpide eta jarduera nagusiak zentzu-batasun berean oinarrituta. Plan honen zentzu-batasuna enpatia hitzak zehazten du.

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren azpтитulua honako adierazpen hau da: "gizarte-topaketarako helburua, enpatiaren aldeko hautua". Jarduera Plan honen azpтитulua, bestalde, honakoa da: "memoriarako eta enpatiarako plaza publikoa". Jarduera Plan honen xedea memoriaren ikuspegi guztiak barne hartuko dituen plaza publikoa eratzea da. Enpatiaren aldeko hautua behar-beharrezkoa da besteen memoriak ere bere tokia izan dezan.

Memoriarekin lotuta, enpatia lagungarri zaigu guztiz norberarena, pertsonala eta subjektiboa den ikuspegi bat beste begirada, bizipen eta errealitate batzuen interpelazioarekin alderatzeko eta osatzeko. Plan honetan biktimei buruz hitz egiten denean, beharrezkoa da enpatiaren aldeko hautua egitea. Eta gauza bera memoriari buruz ari garenean ere, edo iragana argitzeari buruz, autokritikari buruz eta hezkuntzari, berdintasunari edo elkartasunari buruz. Kasu guztietan, beste pertsona batzuen errealitatea dago atzean, eta, beraz, beharrezkoa da haien errealitatea ulertuko duen ikuspegia.

Iraganari buruzko hausnarketa eta memoria kritikoa sustatuko dituen ariketa hori gizarte-eta politika-mailan egin nahi bada, gizarteak gai izan behar du bere herrikide batzuek jasan zuten bidegabeko sufrimendua aitortzeko. Enpatia ezinbestekoa da bizikidetza adiskide eta normalizatua lortzeko.

Enpatiaren aldeko hautua da, beraz, Jarduera Plan honen eta Eusko Jaurlaritzako bizikidetza-politika guztien zentzu-batasuna 2017-2020 legealdian. Bertako ekimen guztiak batzen dituen, izan ere, enpatiarako gaitasuna duen gizarte (eta politika) sustatu eta uztartzea da. Hau da, gizarte-topaketarako eta bizikidetzarako gaitasuna duen gizarte.

3.4. Lan-metodologia

Jarduera Plan hau sustatu eta kudeatzeko lan-metodologiak erreferentziazko irizpide jakin batzuk eta funtzionamendurako jarraibide zehatz batzuk betetzen ditu.

3.4.1. Erreferentziazko irizpideak

- **Nazioarteko estandarrak.** Nazioarteko zuzenbide humanitarioari, giza eskubideei, Nazio Batuen arauari eta biktimei, bake-prozesuen eta adiskidetzaren arloetan dauden nazioarteko estandarrei hobekien erantzuten dieten erabakiak aintzat hartzea litzateke plana kudeatzeko irizpide gidatzailea.
- **Adostasuna.** Zeharkako adostasuna bilatu eta lortzea izango da plana kudeatzeko bigarren irizpide gidatzailea. Adostasun horrek gure errealitate soziopolitikoaren aniztasunari erantzun beharko dio, esparru politikoan zein erakunde arteko esparruan.

3.4.2. Jardunbideak

Honako jardunbide hauek gidatzen dute 2017-2020rako Gogoraren Jarduera Planak:

- Planean bildutako jarduera guztiak garatzeko orduan genero-dimentsioa txertatzea.
- Herritarrek Planarekin erlazionatutako politika publikoetan parte hartzeko bideak aztertu, proposatu eta/edo erraztea.
- Lehentasuna ematea gizarte-erakunde guztiekin eta, bereziki eta oroz gainera, Eusko Legebiltzarrekin lankidetzan aritzeko espazioei.

3.5. Jarduera-esparruaren egitura

Eusko Jaurlaritzak aurreko legegaldian aurkeztutako eta Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko Zuzendaritza Kontseiluak onartutako proposamenean oinarrituta, Gogora Institutuak sustatu eta garatuko dituen proiektuak hiru motatakoak izan ahalko dira: "Memoria Historikoaren" garaiari buruzko proiektuak, "Oraintsuko Memoriarekin" lotutako proiektuak, eta bien zeharkako proiektuak. Hiru ardatz horietan, proiektuak hiru kategoriatan sailkatzen dira: kudeaketa, ikerketa edo dibulgazioa.

3.5.1. Zeharkako proiektuak

Beren izaeraren ondorioz denboraren parametrotik kanpo dauden proiektuak dira. Beren egitura-, azpiegitura- edo tresna-izaera dela-eta, Memoria Historikoaren garaia nahiz Oraintsuko Memoriarena lantzen duten jardueretan aplikatu daitezke.

3.5.2. Memoria Historikoari buruzko proiektuak (1936-1975)

Memoria Historikoari lotutako denbora 1936 eta 1975 artekoa da; horren barnean sartzen da Gerra Zibilari eta Diktadura Frankistari lotutako memoria. Horrela, bada, 52/2007 Legeak -hots, Memoria Historikoarenak- aintzat hartutako aldiarekin bat dator.

3.5.3. Oraintsuko Memoriari buruzko proiektuak (1960-2015)

Terrorismoaren biktimen legeak ezartzen duten denbora-esparru berean kokaturik dago Oraintsuko Memoria. ETAren adarren terrorismoa, legez kontrako kontraterrorismoen bestelako kapituluak eta motibazio politikoko testuinguruan eragindako giza eskubideen urraketak izandako denbora historikoak mugatzen du aipatutako esparrua.

3.6. Jarduera-eremuen muga 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planarekin lotuta

Gogora Institutuaren 2017-2020rako Jarduera Plan hau onartzeko prozesuarekin batera, martxan daude, halaber, Eusko Jaurlaritzako 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana onartzeko lanak. Atal honetan, bi planifikazio-tresnen arteko jarduera-eremuak mugatu eta osatzen dituen egitura azaldu dugu.

1. taula. Gogora Institutuaren eta Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren eremuen mugaketa

Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana 2017-2020	Gogora Institutuaren Jarduera Plana 2017-2020
<p>I. Indarkeriaren amaiera antolatua, duela gutxi gertatutakoaren memoriari lotuta</p> <p>Jarduera-eremu horrek barne hartzen ditu ETA armagabetzen eta desegiten laguntzera bideratutako ekimenak, eta baita iraganean terrorismoa, indarkeria edo giza eskubideen urraketa eragin duen guztiaren inguruko hausnarketa kritikoa eta autokritika egiteko prozesuak bultzatzera bideratutako ekimenak ere.</p>	<p>I. Memoria Historikoa eta aldi horretan izandako biktimei eman beharreko aitortza bere osotasunean tratatzea</p> <p>Memoria Historikoaren garaiaren eta gure garaiaren artean jarritako distantziaren ondorioz, oroipenerako, kontserbaziorako, ikerketarako, parte hartzeko edo hedapenerako jarduerak egiten dira gehienbat, hura lantzeko. Beste modu batera esanda, memoriaren politika izaera hartzen dugu kontuan, Gogoraren politika dena.</p>
<p>II. Giza eskubideen urraketak argitzeko txostenak</p> <p>Hertsiki giza eskubideen urraketari eta biktimengan izandako eraginari eta ondorioei eragiten dieten egitateak argitzean zentratutako azterlanak eta ikerketa-lanak egitea litzateke. Txostenak egin ondoren, Gogorari helaraziko zaizkio, txostenen dibulgazioa kudeatzeko.</p>	<p>II. Memoriari buruzko ikerketak eta proiektuak</p> <p>Memoriaren zentzu zabalean zentratzen diren eta giza eskubideen urraketak argitzera mugatzen ez diren ikerketak, proiektuak, bekak eta abar lirateke. Gure gizarteak iraganean bizitako indarkeria-egoera traumatikoekin batera doazen errealitate eta balio sozio-politiko positibo zein negatiboekin buruzko lanak lirateke.</p>
<p>III. Biktimen arloko politika publikoak kudeatzea</p> <p>Atal honetan lantzen dira erakunde terroristen biktimei eta motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei laguntzeko politikak eta haiei aitortza eta ordaina ematekoak. Era berean, bizikidetzara erakitzen laguntzea helburu duten ekimenak ere lantzen dira.</p>	<p>III. Biktimen lekukotasuna biltzea</p> <p>Gogoraren beraren jardueraren eremu espezifikoak da erakunde terroristen, legez kontrako errepresioaren eta frankismoaren biktimen lekukotasuna biltzea, ikus-entzunezko euskarrian batez ere. Kasu bakoitzean, argi eta garbi bereiziko dira biktimen bihurtu dituzten kausak.</p>
<p>IV. Espetxe- eta gizarteratze-politika berriak bultzatzea</p> <p>Idazkaritzaren beraren jardueraren eremua da espetxe- eta gizarteratze-politika berria adostera bideratutako proposamenak, ekimenak eta kudeaketa-lanak bultzatzea, eta berariaz bildu da Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plan honetan.</p>	<p>IV. Memoriaren sozializazioa: dibulgazioa eta parte-hartzea</p> <p>Gogoraren erantzukizuna eta eskumena da memoriari buruzko dokumentu eta lekukotasun guztiez arduratzea, horiek sailkatzeko, artxibatzeko eta jendearen eskura jartzeko, dokumentazio zentro baten eta liburutegi baten bitartez.</p>
<p>V. Bizikidetzaren arloan agertuz doazen erronkei arreta eskaintzea eta erantzutea</p> <p>Idazkaritzaren egitekoa litzateke bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan agertuz doazen erronkei arreta eskaintzea. Errefuxiatuen egoerari, erlijioen eta kulturen arteko bizikidetzari, xenofobiari, nazioarteko terrorismoari, gorroto-delituei eta beste errealitate batzuei erantzun beharrak sortzen ditu erronka horiek.</p>	<p>V. Socialización de la memoria: divulgación y participación</p> <p>Memoria eta hura osatzen duten tokiak ezagutzera ematea eta gizarteak memoria hori aniztasunetik erakitzeke parte hartzea barne hartzen ditu jardueraren eremu honek. Memoriaren Plana ekimenak erakusten du memoriaren funtzio pedagogiko hori: errepikatu behar ez dena eta sustatzea merezi duena gogora ekartzea.</p>
<p>VI. Bizikidetzaren, giza eskubideen eta herritarren parte-hartzearen aldeko kultura sustatzea</p> <p>Bizikidetzaren aldeko kultura sozial eta politikoa sustatzea eta horrez gain, giza eskubideekiko eta aniztasunarekiko errespetuan oinarritutako hezkuntza-programak sustatzea. EITBrekin, Gazteriaren Kontseiluarekin eta gizarte-, hezkuntza- eta unibertsitate-arloko eragileekin zein nazioarteko eragileekin batera garatzen da jardueraren eremu hau.</p>	<p>VI. Memoriaren balioak hezkuntzan txertatzea</p> <p>Gogoraren beraren jardueraren eremua izateaz gain, bere erronka nagusietako bat da memoriaren dimentsio historiko eta etikoa hezkuntza- eta unibertsitate-esparruan txertatzea, horretarako egokiak diren tresna pedagogikoak erabilia eta hezkuntza-arloko eragileekin adostasunarekin eta lankidetzarekin.</p>
<p>VII. Elkarriketarako, lankidetzarako eta akordioarako espazioak sustatzea</p> <p>Idazkaritzaren egitekoa da erakundeak, gobernuak eta indar politikoak zein Legebiltzarreko indarrak bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan lankidetzan aritzeko eta lan egiteko espazioak bultzatzea eta horiek sortzen laguntzea.</p>	<p>VII. Erakundearen jardueren koordinazioa sustatzea memoriaren arloan</p> <p>Hiru alderdi ditu jardueraren eremu honek: Euskadiko erakundearen eta memoriaren inguruko ekimenen arteko lankidetzaren, memoriaren inguruko udal politikak koordinatu eta bultzatzea, Memoriaren Eguna bultzatzeaz gain, eta memoriaren inguruko nazioarteko sare eta erakundeekin harremanetan egotea.</p>

Bigarren zatia
Orientazio estrategikoa



1. Koordenatuak

Koordenatu nagusi jakin batzuen arabera zehazten dira 2017-2020 aldirako Gogora Institutuaren Jarduera Plan honen nondik norakoak. Hor dira irizpide gidari bat, bi erronka estrategiko eta helburu nagusi bat hiru jarduera-eremuetako bakoitzerako. Hori guztia "ibilbide-orri" gisa laburbilduta dago.

1.1. Irizpide gidaria

Jarduera Plan hau garatzean eta jarraian azalduko diren erronka, helburu eta jarduereri erantzuteko lanetan, honako irizpide gidaria gailenduko da:

Jarduera Plan honek aniztasunaren partaide eta adierazpide izan behar du memoria osatzeko orduan. Memorien gaineko elkarrizketa aske eta plural honen kudeaketak muga bakarra du: ezin da erabili ez baztertzeko, ez gertaerak alderatzeko. Ezta gerra, totalitarismoa, terrorismoa edo inolako indarkeria-modu edo giza eskubideen urraketa legitimatuko duen historia berridazteko ere. Alderantziz, urraketa haien salaketarik sendoena da, giza duintasunaren goreneko balioari begira egiten delako, baita horren ondorio diren eskubideei eta askatasunei begira ere.

1.2. Lehentasun estrategikoak

Aurreko orrialdeetan adierazitako oinarri zehatzak ebaluatu eta identifikatzean, Gogora Institutuak bi lehentasun estrategiko nagusi dauzka datozen lau urteetarako: adostasuna eta sozializazioa.

- Adostasuna.** Gure gizarteko sentsibilitate politiko ezberdinen arteko adostasun plural ahalik eta zabalena eduki eta indartzea, memoriaren politika publikoak garatzeko orduan.
- Sozializazioa.** Gogora Institutua kalera eta herritarrengana memoriaren balio zehatz eta benetakoa hurbiltzeko erreferentziazko espazioa bihur dadin lortzea, horretarako bere gaitasun etiko eta hezitzailea sustatuz eta elkarrizketa, eztabaida eta gizarte-partaidetza bultzatuz.

1.3. Helburu nagusiak

Jarduera Plan honen jarduera esparruaren egiturak hiru eremu zehazten ditu: *izaera zeharkakoa* duten proiektuak, *Memoria Historikoaren* aldiari buruzko proiektuak eta *Oraintsuko Memoriaren* aldiari buruzko proiektuak. Jarduera-eremu horietako bakoitzak, gainera, helburu nagusi bat dauka:

- Zeharkako eremua.** Gogora Institutuaren proiektua sendotzea, eta, horretarako, kudeaketa-, ikerketa- eta dibulgazio-azpiegitura nagusiak finkatzea eta beste memoria-erakunde eta -ekimen batzuekin dauden lankidetzak-eremuak eta sinergiak definitzea.
- Memoria Historikoaren eremua.** Memoria Historikoaren egiaren aitortze instituzionala eta frankismo-garaiko biktimen memoriaren aintzatespen moralak egiteko prozesuak burutuztat jotzen laguntzea.
- Oraintsuko Memoriaren eremua.** Udaleko erakunde, gizarte zibil, hezkuntza-sektore eta biktimekin gizartekotzea eta partekatzea Oraintsuko Memoriari buruzko elkarrizketa, baita horretaz egindako hausnarketa kritiko eta anitzaren gizarte-balio, balio etiko eta pedagogikoak ere.

2. taula. Gogora Institutuaren Jarduera Planaren irizpidea, lehentasunak eta helburuak

	Zeharkako proiektuak	Memoria Historikoari buruzko proiektuak	Oraintsuko Memoriari buruzko proiektuak
Irizpide GIDARIA	Memoria eraikitzeko beharrezko den elkarrizketa aske eta plurala kudeatzeko muga bakarra dago: ezin da erabili ez baztertzeko, ez gertaerak alderatzeko. Ezta gerra, totalitarismoa, terrorismoa edo inolako indarkeria-modu edo giza eskubideen urraketa legitimatuko duen historia berridazteko ere.		
Lehentasun ESTRATEGIKOAK	<p>·1. lehentasuna. Gure gizarteko sentsibilitate politiko ezberdinen artean adostasun plural ahalik eta zabalena eduki eta indartzea, memoriaren politika publikoak garatzeko orduan.</p> <p>·2. lehentasuna. Gogora Institutua kalera eta herritarrengana memoriaren balio zehatz eta benetakoa hurbiltzeko erreferentziatzeko espazioa bihur dadin lortzea, horretarako bere gaitasun etiko eta hezitzailea sustatuz eta elkarrizketa, eztabaida eta gizarte-partaidetza bultzatuz.</p>		
Helburuak OROKORRAK	Gogora Institutuaren proiektua sendotzea, eta, horretarako, kudeaketa-, ikerketa- eta dibulgazio-azpiegitura nagusiak finkatu, eta beste memoria-erakunde eta -ekimen batzuekin dauden lankidetzaremuak eta sinergiak definitzea.	Memoria Historikoaren egiaren aitorten instituzionala eta frankismo-garaiko biktimen memoriaren aintzatespen morala egiteko prozesuak burututzat jotzen laguntzea.	Udaleko erakunde, gizarte zibil, hezkuntza-sektore eta biktimekin gizartekotzea eta partekatzea Oraintsuko Memoriari buruzko elkarrizketa, baita horretaz egindako hausnarketa kritiko eta anitzaren gizarte-balio, balio etiko eta pedagogikoak ere.

1.4. Laburbilduz, “ibilbide-orri” bat

Finkatu da hitz gakoa. Gogora Institutua duela urtebete eta erdi sortu zen. Emandako lehen urratsak itxaropenez beteta daude. Egindakoaren balantzeak lau lorpen handi utzi ditu agerian:

- bere proiektuaren, taldearen, aurrekontuaren eta zerbitzuen oinarritzko azpiegitura finkatu da;
- adostasun plural eta zeharkakoak josi ditu bere diskurtsoan eta ekimenetan;
- memoria kalearekin eta herritarrekin lotu du;
- eta iraganari buruzko hausnarketa kritikoak sustatu ditu.

EAEko Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak datozen lau urteetan izango duen proiektioak lau lorpen handi horiek finkatu eta hedatzea izan behar du helburu. Horixe da, hain zuzen ere, Jarduera Plan honen ibilbide-orria.

2. Zeharkako proiektuetarako ildo estrategikoak

2.1. Plangintza orokorra

Zeharkako proiektuen eremuan, Gogora Institutuaren lehenengo betebeharra Jarduera Plan honetan jasotako filosofia eta aurreikuspenak era egokian sustatu eta kudeatzea da. Zehatzago esanda, bi jarduera ardatz nagusi landu behar ditu:

- Alde batetik, kudeaketa, ikerketa eta dibulgaziorako azpiegitura nagusiak finkatu behar ditu. Hau da, bereziki erreparatu beharko die bere barne-antolamenduari, artxibo eta datu-ba-seen antolaketari, ikerketa-beka eta -programei, dokumentazio-zentro, liburutegi eta argital-penen sendotzeari, eta dibulgaziorako eta komunikaziorako beste baliabide batzuei. Horren harira, Institutuaren erakusketa-proiektua (ibiltaria nahiz estatikoa) berariaz azpimarratu beharrekoa da. Izan ere, zuzenean lotuta dago Gogora Institutuak legealdi honetarako daukan bi lehentasun estrategikoetako batekin.

- Bestetik, zeharkako proiektuen jarduera-eremuan ardatz bat gailentzen da; hain zuzen ere, sen onetik datorren ardatza, zeina Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzeko Legearen hitzez hitzeko irakurketatik ere badatorren. Lege honek Gogora Institutuarentzat berariaz zehazten dituen hiru funtzio nagusietako bat honakoa da:

- Autonomia Erkidegoko sektore publikoan dauden organo, zerbitzu edo entitateen jarduna koordinatzea, definitu den politika publikoarekin zerikusia duen bezainbatean, eta kooperazioa eta lankidetzaren bultzatzea beste edozein administrazio edo instituzio publikoekin.*

Horren harira, EAEko beste memoria-erakunde batzuekin lankidetzan eta koordinazioan aritzea lehentasuna izan behar da. Erakunde horien guztien artean sinergia bat sortzea izango da, beraz, datozen lau urtetarako zeregin estrategikoetako bat. Erakunde horien artean nabarmentzekoak dira Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentroa, Gernikako Bakearen Museoa (baita Gernikako beste azpiegitura batzuk ere), eta Aieteko Giza Eskubideen Baliabide Pedagogikoen Zentroa, izaera ezberdina izanik ere gainerakoen osagarria baita.

Koordinazio, lankidetzaren eta osagarritasunaren bilaketaren grina hori, gainera, memoriaren politikan jarduten duten beste ekimen batzuetara hedatu behar da, udalerrietan, unibertsitateetan edo gizarte zibileko memoria-erakundeetan nahiz erakunde historikoetan. Halaber, nazioarteko memoria-erakundeekin batera sare-harremanak antolatzeke orduan ere aplikatu beharreko ildo da. Koordinazioa, lankidetzaren eta osagarritasuna dira helburuak. Horien bidez sinergia bat sortzeko memoriaren politiketan.

Azken finean, bere proiektu orokorraren ikuspegitik erreparatuta, Gogora Institutuak bi helburu nagusi dauzka: finkatzea eta partekatzea. Proiektu propioa finkatzea: bere egitura, azpiegitura eta zerbitzuak; eta espazioak eta politikak partekatzea, modu eraikitzailean eta produktiboan, memoria jorratzen duten beste erakunde batzuekin.

Hori guztia egiteko, baliabideak ahalik eta zorrotasun handienaz kudeatzeko ahalegina egin beharko da. Gaur egun, gizarte krisialdian dagoen eta zailtasun ekonomiko garrantzitsuak pairatzen dituen garaiotan, funtsezkoa da sormenaren eta arduraldiaren ahaleginak areagotzeko konpromisoa hartzea, gutxiagorekin gehiago egin ahal izateko.

2.2. Helburu espezifikoak

Laburbilduz, Gogora Institutuaren zeharkako proiektuen eremuan, eta bere egitura ezartzen duten hiru kapituluak (kudeaketa, ikerketa eta dibulgazioa) kontuan hartuta, horietako bakoitzari dagozkion helburu espezifikoak honako hauek dira:

- Kudeaketaren arloan:** Proiektu propioa finkatzea eta memoriaren beste erakunde batzuekiko osagarritasuna eta sinergia sustatzea.
- Ikerketaren arloan:** Gogora Institutuak ikerketaren eta artxiboaren eremuan bere gaitasuna gara dezan oinarriak jarri eta baldintzak sortzea.
- Dibulgazioaren arloan:** Beharrezko diren azpiegitura eta tresnak sortzea, Gogora Institutuak bere dibulgazio-funtzioa bete dezan.

2.3. Esangura estrategiko berezia duten proiektuak

Zeharkako proiektuen barruan sartu behar diren helburu eta jardueren artean bi dira bereziki azpimarratu behar direnak, kontuan hartuta zer-nolako garrantzi eta konplexutasuna duten, eta zer lotura duten adostasunaren eta sozializazioaren lehentasun estrategikoekin: EAEko beste memoria-erakunde batzuekiko osagarritasuna, eta erakusketa-estrategia.

2.3.1. EAEko beste memoria-erakunde batzuekiko koordinazioa eta lankidetzak

EAEko beste memoria-erakunde batzuekiko osagarritasuna bilatu eta islatzea da Jarduera Plan honen lehentasuna, helburua eta proiektua. Ildo horretatik, Gogora Institutuak bere zereginen artean izango du gainerako erakundeei eskema bat proposatzea, erakunde bakoitzaren espezializazio-espazioak eta guztien arteko lankidetzak-espazioak partekatu ahal izateko. Proposamen honek honako eskema hau izango du oinarrian, erakunde bakoitzeko espezializazio-eremu nagusiei dagokienez:

3. taula. Erakunde bakoitzeko espezializazio-eremu nagusiak

Erakundea	Espezializazio-eremu nagusia
·Gernikako Bakearen Museoa	·Gernikako bonbardaketa eta Memoria Historikoa
·Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentroa	·Terrorismoaren biktimen memoria
·Gogora	·Memoria, bere osotasunean, eta Oraintsuko Memoria
·Aieteko baliabide pedagogikoen zentroa	·Giza eskubideen pedagogia

Hasierako eskema horrez gain, 4. taulako eskema ere aplikatuko da. Azken horretan, memoria-erakundeen arteko lankidetzak- eta osagarritasun-eremuak zehazten dira. Bi taula horietan islatzen dena kontuan hartuta, espezializazio- eta lankidetzak-ardatzak honela zehaztuko lirateke:

- Gogora Institutua Gernikako Museoarekin lankidetzan arituko litzateke, bere espezializazio-eremu nagusiarekin lotutako alderdietan: Gernikako bonbardaketa eta Memoria Historikoen aldia.

- Gogora Institutua Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentroarekin lankidetzan arituko litzateke bere espezializazio-eremu nagusiarekin lotutako alderdietan: terrorismoaren biktimen memoria.
- Gogora Institutua Aieteko Giza Eskubideen Baliabide Pedagogikoen Zentroarekin lankidetzan arituko litzateke bere espezializazio-eremu nagusiarekin lotutako alderdietan: giza eskubideen gaineko baliabide pedagogikoak sortu, bildu eta hedatzea.
- Gogora Institutuak, gainera, beste gizarte-erakunde batzuekin eta nazioarteko elkarte batzuekin lankidetzan eta koordinazioan aritzeko xedez jardungo luke, bere espezializazio-eremu nagusiarekin lotutako alderdietan: memoria, bere osotasunean, eta Oraintsuko Memoria.

4. taula. Erakundeen arteko lankidetzarako eremuak

Jarduera Eremuak	Ikerketa	Dibulgazioa	Erakusketa
· Memoria historikoa	Gernikako Bakearen Museoa + Gogora	Gernikako Bakearen Museoa + Gogora	Gernikako Bakearen Museoa + Gogora
· Memoria, bere osotasunean, eta Oraintsuko Memoria	Gogora	Gogora	Gogora
· Terrorismoaren biktimen memoria	Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentroa + Gogora	Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentroa + Gogora	Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentroa + Gogora
· Giza eskubideei buruzko pedagogia	Aieteko baliabide pedagogikoen zentroa + Gogora	Aieteko baliabide pedagogikoen zentroa + Gogora	Aieteko baliabide pedagogikoen zentroa + Gogora

Eskema hauen edukia zehaztean, zereginak ez dira edozein modutan esleitu. Sen ona dago atzean, baita aipatu erakunde bakoitzaren genesia eta autodefinizioa ere. Logikoki, abiapuntu irekia dute. EAEko memoria-erakundeen zuzendaritza-organoen artean aldatu eta hobetu daitezkeen proposamenak dira.

Baina argi dagoena da elkarrizketaren eta adostasunaren isla izan behar dela, koordinazioa, lankidetzak eta osagarritasuna lortzeko, bestelako aukerak ez baitira zilegi ez politikoki, ez gizarte-mailan. Sinergia lortzea ezinbestekoa da, ez soilik baliabideen ekonomiaren ikuspuntutik, baizik eta baita etikari, gizarteari eta bizikidetzari erreparatuta ere.

2.3.2. Agiriak, artxiiboak eta datu-baseak antolatzea

Agiriak, artxiiboak eta datu-baseak antolatzeko proiektuak izaera estrategiko eta esanguratsua dauka. Izan ere, gizartearen aurrean zabalik egoteko asmoagatik gailentzen den erakundea da Gogora. Agiriak kudeatzeko lan hori barrurantzko lana da. Hala ere, ezinbestekoa da Institutuak kanporako proiektzioa ere izan dezan zerbitzu gisa.

Horrenbestez, artxiboak ondo kudeatzea beharrezkoa da zerbitzu hau jendearen esku egon dadin, eta bere Liburutegia eta Dokumentazio Zentroa gure gizartearen aurrean erreferentziazko tresna bihurtu daitezzen; hau da, azken finean hala nahi duen edozein pertsona edo erakunde izan dezan erakunde publikoek memoriari buruz dakitena eta daukatena ezagutzeko aukera.

Une honetan, hainbat erakunde, elkarte eta partikularren eskutik jasotako dokumentazio idatzizkoa eta ikus-entzunezkoa dago Institutuan, baita Institutuak berak sortutakoa ere (batez ere, ikus-entzunezkoak). Legealdiaren lehenengo zatian, edukiak kudeatzeko sistema burutu behar da, informazio hori guztia eta gerora iritsiko dena modu antolatuan eta digitalizatuan artxibatu ahal izateko. Agiri-mota bakoitzak behar duen tratamenduaren arabera, prozesu hori bi tresna informatikoaren inguruan egituratuko da:

- Liburutegia kudeatzeko sistema, ABSYSNET, liburutegi-proiektua antolatzea. Institutuan jasotzen diren argitalpen guztien erreferentzia bibliografikoa jasotzen du. Gaur egun, liburutegiko bilduman Oraintsuko Memoriari buruzko 498 erregistro daude (monografiak eta DVDak). Memoria Historikoari buruzko bilduma osatuko duten lanak aukeratzea izango da hurrengo urratsa.

- Gordailu digitala, DSPACE, Dokumentazio Zentroaren proiektua betetzeko. Institutuan jasotako eta sortutako datu-baseetako eta artxiboetako edukien informazioa biltzen du: lekukotasuna, fitxategiak, agiriak, txostenak...

Helburua erakundeek, memoria-elkarteek eta partikularrek emandako informazioa eta dokumentazioa zentralizatu eta antolatzea da, gero jendearen esku jartzeko. Helburu horrekin, beraz, hiru foru-aldundien eta tokiko memoriari buruzko ikerketa berariaz landu duten udalen artean koordinazioa ezarriko da. Halaber, eta helburu horiek betetzeko asmoz, EAEko memoria-erakundeekin harremanetan jarraituko da. Agiriak jaso eta hartzeko prozesu horrekin batera, jarduera protokolo bat ere egongo da.

Gogora Institutua Euskadiko Artxibo Historikoaren eraikin berean dago. Ikuspuntu sozialetik nahiz barne-ikuspegitik indargune garrantzitsua da hori. Gizarte-mailan, Euskadiko Artxibo Historikoak areagotu egiten ditu herritarrek edo elkarteek egin ditzaketen informazio-eskariei erantzuteko aukerak, batez ere Memoria Historikoaren eremuan. Barne-mailan, harreman horri esker bikoiztasunak saihestu eta sinergiak sortzen dira, jasotzen diren agiriak baloratu eta tratatzeko orduan. Hau da, azken finean, ibilbide luzeko balio estrategikoa dauka bi erakundeen arteko koordinazioak.

2.3.3. Erakusketa-estrategia

Memoriari buruzko erakunde batek adierazpen-diskurtso eta -proiektu propioak izan behar ditu. Tresna hori da, hain zuzen ere, plan honen bigarren lehentasun estrategikoari erantzuna emateko baliabide nagusietako bat: "kalera eta herritarrengana memoriaren balio zehatza eta benetakoa hurbiltzea, eta, horretarako, bere gaitasun etikoa eta hezitzailea sustatzea, elkarriketa, eztabaida eta gizarte-partaidetza sustatu ahala".

Hori dela eta, gaur egun erakusketa-ereduaren aldeko apustua egin baino lehen hausnarketa geldo eta bare bat egin behar da. Erakusketa-proposamen asko eta asko inauguratu eta hilabete gutxira zahartu eta iraungitzen dira, inbertsio garrantzitsuak egin ondoren. Hori dela eta, esperientziaz baliatu behar da, eta presazko erabakiak eta inprobisazioa baztertu.

Teknologia berriek –eta, horien barruan, ikus-entzunezko baliabideen eremu mugaga-beak– guztiz eraldatu dute erakusketaren kontzeptua bera. Testuinguru horretan, erakuske-

ta-proposamen batek erakartzeko eta irauteko duen gaitasunari buruzko gakoak eta gizarte-sentsibilitateak dinamikoak eta aldagarriak dira. Ondorioz, ondo egituratutako hausnarketa geldoa egitea guztiz justifikatuta dago.

Gogora Institutuaren kasuan, zorionez, hausnarketarako denbora horrek ez du esan nahi memoriaren euskal erakundea erakusketa-proiekturik gabe geratuko denik. Eratu zen lehen egunetik, Institutuak Memoriaren Plaza erakusketa ibiltaria jarri du martxan, eta emaitza kuantitatibo eta kualitatibo garrantzitsua izan du, gizartean eta politikan jaso duen erantzunari erreparatuz gero.

Ondorioz, bi irizpide ezar daitezke Gogora Institutuak datozen bi urteetan erakusketa-alarri nola helduko dion zehazteko: lehenik eta behin, Memoriaren Plaza erakusketa ibiltariarekin jarraituko da, eta, bigarrenik, epe ertaineko erakusketa-proiektuari buruzko azterketa-prozesu bat hasiko da.

·Memoriaren Plaza erakusketa ibiltariarekin jarraitzea

Lehenengo fasean, Gogora Institutuaren erakusketa-ardatz nagusia Memoriaren Plaza erakusketa ibiltaria garatzea izango da. Irizpide hori hasiera batean hurrengo bi urteetan aplikatuko da, baina beste bi urtez luzatu ahalko da, egiten den balantzearen eta dagoen eskariaren arabera.

Emaitza onak izan dituenek, proiektuaren edukia, funtsean, orain arte garatu den berbera izango da, baina beharrezko diren egokitzapenak egingo dira. Memoriaren Plazaren karpak bere ibilbide egiten jarraituko du udalerriz udalerriz eta unibertsitate-campus batetik bestera, eta jardueraren sozial, kultural edo ekonomikoko beste gune batzuetan ere jartzeko aukera zango da.

·Epe ertainerako erakusketa-proiektuari buruzko azterketa-prozesua hastea

Gogora Institutuko Zuzendaritzak erakusketa-proiektuari buruzko lantalde bat sortuko du, eta, bertan, hainbat adituk parte hartuko dute, aukerak aztertzeko. Helburua bi urteko epean proposamen bat zehaztea izango da, 2018an Gogora Institutuko Zuzendaritza Kontseiluan aurkezteko, Zuzendaritza Kontseilua arduratuko baita proposamena aztertzeaz eta aintzat hartzeaz.

Lehen azaldutakoaren ildotik, erakusketa-proiektu bat nola antolatu zehazteko, hausnarketa-prozesua ondo pentsatu eta partekatu behar da. Honako hauek dira ibilbide horri hasiera emateko abiapuntu batzuk. Irizpide orokorrak bete behar dira, batetik, eta erakusketa-espazioaren eta bisitarien arteko elkarrizketako irizpideak, bestetik.

Gogora Institutuaren erakusketa-proiektuari buruzko hausnarketa hasteko abiapuntuak

Irizpide orokorrak

Oro har, erakusketa-proiektuak gutxienez honako ezaugarri hauek izan beharko ditu:

- Bisitariaren elkarrekintza sustatu behar du, eta memoriaren eraikuntzan parte hartzea eta hausnartzea bultzatu.
- Ikusizko mezua idatzizkoaren gainetik jarriko du, eta pentsarazteaz gain, sentiarazi ere egin behar du.
- Aldi historikoak eta biktimizazio-arrazoiak bereizi behar ditu, eta berariaz baztertu behar du gertaerak justifikatzea edo gertaera batzuk beste batzuekin konpentsatzea.
- Bidegabekeriaren eta sufrimenduaren isla izateaz gain, egoera traumatikoetan erantzun positiboren bat eragin zuen alderdi oro islatu behar du.
- Denboran zehar irauteko eta dinamikoa izateko pentsatuta egon behar du.

- Aldizka eguneratzeak eta aldaketak egiteko aukera eman behar du.
- Neurtua eta proportzionatua izan behar du baliabideen gaineko inbertsioa egitean, bai martxan jartzeko orduan, bai berau mantentzeko orduan.

Erakusketa-espazioaren eta bisitariaren arteko elkarrizketarako irizpideak

Kontzeptu-mailan, erakusketa-espazio edo -formatu batetik pasatzean hiru une garrantzitsu aurkituko ditu bisitariak: sarrera, gure mikrokosmosetik atera eta bestelako mikrokosmos baterako sarbidea izango dena; irteera, emozio, sentsazio edo hausnarketa esanguratsuak eragiteko helburua duena; eta sarreraren eta irteeraren arteko espazioa, eragin sentsorial eta intelektualeko erreferentziak sortuko dituena. Ohar hauek hiru puntu horien arabera egituratu dira, eta bisitari helduei, eskoletako ikasleei nahiz unibertsitate-ikasleei harrera emateko pentsatuta daude.

·Sartzean, paradigma-aldaketa

Memoria gizartearen bizikidetzan hobetzea xede duen politika publikoa da. Memoria-aren arazo nagusia autoafirmazio ideologiko, politiko, erlijioso, intelektual edo identitariorako tresna hutsa bezala erabiltzen denean sortzen da. Hau da, iragana oraina justifikatzeko erabiltzen denean.

Ikuspuntu horretatik, ohikoa izaten da memoriaren aurrean gaudenean gure ikuspegi hartatik espero dugunaren arabera izatea; alegia, memoriari zer eskatzen diogun, ikuspegi horretatik behatzea. Hau da, gure ideologia berretsi eta justifika dezala, edo gutxienez ez gaitzala deseroso sentiarazi gure biografian, jarreretan edo usteetan.

Memoriaren politika publikoen sustapenean, hala ere, berrikuntza gako bat egon da: beste paradigma batean jartzea, hain zuzen. Kontua ez da soilik *nik memoriari zer eskatzen diodan*, baizik eta *memoriak niri zer eskatzen didan* planteatzea.

Ondorioz, bisitaria memoriari buruzko erakusketa batera sartzean, lehenengo iradokizuna autokonplazentziarako bidea ematen ez duen puntu batean jartzea da. Sartzean, honakoa galdetu behar da: *zer eskatzen diodan, baina baita zer ematen diodan ere*. Edo *zer eskatzen diodan memoriari eta zer eskatzen didan berak*.

Irtetean, lau galdera

Memoria kritikoa –hau da, autokonplazentzia helburu ez duena eta deseroso izan daitekeena– galderen memoria da. Sentiarazteko eta pentsarazteko galderen memoria. Memoriari buruzko erakusketa bat bisitatu ondoren buruan izan ditzakegun hausnarketak honakoak bezalako interpelazioak izan daitezke:

1. Zer aldatuko nukeen gertatu zen horretan.
2. Zer aldatuko nukeen egin nuen edo egin ez nuen horretan (zer egingo nukeen nik, non kokatuko ote nintzatekeen).
3. Zer ez litzatekeen inoiz errepikatu behar.
4. Zein balio positibo gorde beharko litzatekeen.

Ibilbidean zehar, erreferentzia batzuk

Erakusketaren ibilbideak, plangintzak hala eskatzen duenean, bereizi egin behar ditu bai Memoria Historikoaren eta Oraintsuko Memoriaren behin-behineko espazioak, baita hiru errealitate ezberdin ere: Gerra Zibila eta Diktadura, terrorismoa, eta poliziaren legez kanpoko indarkeria. Espazio eta errealitate horietako bakoitzera hurbiltzeko, elementu batzuk behar izaten dira: (1) gertatutakoari buruzko datu objektiboak; (2) bidegabekiaren lekuko-

tasunak, (3) erresilientzia demokratikoaren lekukotasunak, eta (4) erakusketan interakzioa edo elkarrekintza sustatzen duten beste elementu batzuk.

Hala ere, hori guztia bezain garrantzitsua (edo are garrantzitsuagoa) izan daiteke bizipen horiek sortzen dituzten tentsioei eta emozioei arreta egitea. Indarkeriaren bidegabekeriak sortu dituen traumen memoriaren oinarriko esperientziak horiek zeharkatzen dituzten lau tentsio emozionaletan laburbildu daitezke. Erakusketaren diskurtsoan eta baliabideetan, beraz, kontuan har litezke:

- Heriotzaren eta bakardadearen arteko tentsioa.
- Bakardadearen eta elkartasunaren arteko tentsioa.
- Justiziaren eta bidegabekeriaren arteko tentsioa.
- Gorrotaren eta maitasunaren arteko tentsioa.

3. Memoria Historikoaren ildo estrategikoak

3.1. Plangintza orokorra

1936ko uztaileko matxinada militar faxistak eta haren ondorioek, hots, Gerra Zibilak eta 40 urteko Diktadura frankistak, bidegabekeria bikoitza ekarri zuten: batetik, zapalkuntzazko eta askatasun oinarrikorik gabeko erregimenaren pean gizarte osoak jasan zuen bidegabekeria historiko eta politikoa, eta bestetik frankismoaren biktimek jasan zituzten giza eskubideen urratze masiboen bidegabekeria. Ikuspegi bikoitz honek Jarduera Planaren orientazioa zehazten du, Memoria Historikoaren esparruan.

3.1.1. Errealitate baten berrespena

Hainbat ikerketa historikoren arabera, Estatu osoan 200.000 inguru izan ziren "legezko" exekuzioen, judiziorik gabeko exekuzioen eta bortxazko desagertzeen bitartez eraildako pertsonak. Euskadin guztira 9.800 bat izan ziren biktimak, kontuan hartzen baditugu desagertuak, gerra-tokian edo espetxean hildakoak, judizioz kanpo exekutatutakoak eta beste hildako batzuk. Ez gara ari han-hemenka gertatutako hilketez, baizik eta gizateriaren aurkako krimenez, erailketa sistematikoa, masibo eta jarraituez.

Giza eskubideei buruzko nazioarteko arauak agintzen dutenez gainera esperientzia historikoak ere frogatu duenez, frankismoan bezala giza eskubideen urratze jarraitua euren ekarri duten gertaera traumatikoei berriuspen kritikoa egin behar zaie eta argitu egin behar da zer gertatu zen. Horrela, beste gauza batzuen artean, egindako bidegabekeriak aitortu eta biktimei ordaina eman ahal izango zaie.

Horrek guztiak, halaber, oinarriko pedagogia demokratikoko helburu bikoitza du: batetik, erakustea bidegabekeriak badituela ondorioak, horrela bidea itxiz zigorgabetasunari eta etorkizunean antzekorik berriro gertatzeko aukerari; eta bestetik, gertaera objektiboaren oinarri sendoaren gainean, alegia, giza eskubideen urratzeen aitortenaren gainean, kontziliazioa eta normalizazioa finkatu eta ahalbidetzea.

Horrelako ezaugarriak dituen prozesurik ezin izan da egin Estatu espainiarrean. Inpunitateari lege babesa emateko oinarritzat hartzen den arau juridikoa Amnistiari buruzko urriaren 15eko 46/1977 Legea da, baina arau hori inpunitaterako tresna gisa erabiltzea gaitzetsi egin dute giza eskubideen arloko nazioarteko instantzia agintedunek. Hogeita hamar urte geroago, abenduaren 26ko 52/2007 Legea, Memoria Historikoari buruzko Le-

gea deritzona, aurrerapausoa izan zen, bere ondorengo gauzatzea eta garatzea oraindik nahikoa izan ez den arren.

Errealitate hori zuzentzeko eskaera ugari egin dira. Adierazgarrietakoak dira frankismo garaian gertatutakoa argitzeari ekiteko bi dei, hots, Europako Kontseiluko Parlamentu Batzarrak 2006ko martxoaren 17an egindakoa eta Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak 2008ko urrian egindakoa¹. Aurrekoei erantsi behar zaizkie geroago egindako hiru txosten: Espainiak aurkeztutako txostenari buruz Bortxazko Desagertzeen aurkako Batzordeak 2013ko abenduaren 12an emandako Amaierako Oharrak²; 2013ko irailaren 23an eta 30ean Espainiara bisita egin eta gero Bortxazko Desagertzei buruzko Lantaldeak 2014ko uztailaren 2an emandako txostena³; eta orain dela gutxi, 2014ko uztailaren 22an, egiaren, justiziaren, erreparazioaren eta berriz ez gertatzeko bermeen sustapenerako Nazio Batuen errelojari berezi Pablo de Greiffek eman duen txostena, Espainian 2014ko urtarrilaren 21etik otsailaren 3ra bitartean egindako misioari buruzkoa⁴.

Zigorgabetasunaren bidegabekeria historikoak piztu duen kezka sozial eta demokratiakoaren eraginez azken hamarkadetan ugaritu egin dira herritarren eta elkarten ekimenak, baita erakundeek ere, batez ere udalenak eta autonomia erkidegoetako gobernuenak. Denek esan dute iragan hori argitu egin behar dela eta frankismoaren biktimei gutxienez ere aitormen eta erreparazioa zor zaiela. Askotarikotasun eta pluraltasun handiko bultzaden multzo horri "Memoria Historikoa" deitu zaio.

3.1.2. Erreferentzia-esparrua

Giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen izaera lotesleak eta Nazio Batuen arlo honetako berariazko aginduek oinarritzko esparrua eskaintzen digute, 2017-2020 aldiari erantzun egokia eta egokitua eman ahal izateko abiapuntua jar dezagun.

Giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea ez da erreferentzia erretoriko edo apaingarri bat, baizik eta arauzko agindu lotesle bat, etika politikoaren gutxienekoak unibertsalak izateko eta bateratzeko aukera ematen diguna. Eusko Jaurlaritzaren ustez, baina, ez du lotetsi bakarrik egiten. Aitzitik, arauzko esparru horrekin erabat konprometitu ere badago Eusko Jaurlaritza: pentsatzekoa denez, besteak beste, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak, eskubide zibil eta politikoen nazioarteko itunek eta Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak lotesten eta konprometitzen dute.

Memoria Historikoari eta zehatzago frankismoaren biktimei dagokienez, Nazioarteko Zuzenbidearen erreferentzia nagusia Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 60/147 Ebazpena da, 2005eko abendukoa. Beraren bidez onetsi da dokumentu hau: "Nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urratze nabarmenen biktimek errekurtsioak jartzeko eta erreparazioa jasotzeko duten eskubideari buruzko oinarritzko printzipio eta irizpideak".

Ebazpen horrek sendotu egiten du biktimei hiru esparrutan dagozkien eskubideen oinarritzko definizioa –egia, justizia eta erreparazioa–, eta eskubide horietariko bakoitzaren eduki praktikoa zehazten ditu. 2011ko urrian, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Kontseiluak 18/7 Ebazpena⁵ onetsi zuen. Horren bidez errelojari berezi baten mandatu ezarri zen, bera arduratu zedin "giza eskubideen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urratze nabar-

1 CCPR/C/ESP/CCO/5

2 CED/C/ESP/CO/1

3 A/HRC/27/49/Add.1

4 A/HRC/27/56/Add.1

5 A/HRC/RES/18/7

menak egin diren egoerez". Mandatu horrek hiru eremutatik lautara hedatzen du esku-hartzearen egitura, halako moduan non, egiarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubideak sustatzeaz gain, berriz ez gertatzeko bermeak ere hartu behar baitira aintzat.

Ebazpen horrek berak berariazko aipamena egiten dio, gainera, pertsona guztiak bortxazko desagertzeetatik babesteko Nazioarteko Konbentzioari. Espainiako Gobernuak konbentzio hori berretsi zuen 2011ko otsailean⁶, eta haren 24. artikuluko 2. paragrafoan aitortzen da biktima orok eskubidea duela bortxazko desagertzearen egiazko inguruabarrak, ikerketen nondik norakoa eta emaitzak eta desagertutako pertsonari jazotakoa jakiteko, eta auziko alderdi den Estatuaren eginbeharrak ezartzen dira, neurri egokiak ezarri beharko dituela esanez; eta atariko hitzetan berretsi egiten da helburu horretarako informazioak bilatzeko, jasotzeko eta zabaltzeko askatasunerako eskubidea. Horrek zuzeneko eragina du hemen, Memoria Historikoari buruzko politiketan, frankismoaren garaiko bortxazko desagertzeei buruz ditugun datu ikaragarriak direla-eta.

Ondorioz, Memoria Historikoaren arloko Eusko Jaurlaritzaren politikak Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen esparruan izango du oinarria, eta bere lau eremutan (egia, justizia, erreparazioa eta berriz ez gertatzearen bermeak). Eusko Jaurlaritzak arlo honetan esku hartzeko dauzkan eskumenen eta baliabideen muga arabera egokituko da konpromiso horren garapena.

Gogora Institutuarentzat erreferentzia baliotsuak dira, halaber, nazioarteko erakunde ospetsuek, hala nola Human Rights Watch-ek Legelarien Nazioarteko Batzordeak eta Amnistia Internazionalak egin dituzten deiak eta txostenak. Aipatzekoa da, zehazki, Amnistia Internazionalaren 2013ko ekaineko txostena, izenburu hau duena: "Denbora badoa, inpunitateak hor dirau". Aurreko beste txosten bat eguneratzen du, 2012ko maiatzekoa.

Nazioarteko Zuzenbideaz gainera, Memoria Historikoaren arloko Eusko Jaurlaritzaren jarduna kokatzeko erreferentzia osagarriak, jakina, barne-zuzenbidea, lege-aurrekariak eta alde aurreko ekimen instituzionalak eta sozialak dira (<https://goo.gl/Hjbc5x>). Euskadin azpimarratzekoa da Ararteko erakundeak 2012ko urtarrilean aurkeztutako azterlan hau: "Egia, justizia eta ordaina Diktadura frankistaren biktimentzat: esanahia eta politika publikoak Euskal Autonomia Erkidegoan". Txosten horrek eskaintzen duen kontzeptuen argitzea aise jo liteke erakundeen arteko eta gizarteko topagunetzat arlo honetan.

Horrek guztiak balio izan du bidea eta ildo irekitzeko Diktaduraren garaiko biktimen eta memoriaren gaineko politika publikoen garapen beharrezkoari.

3.1.3. Erakundeek erantzunak emateko duten konpromiso zehatza

Orain arte azaldutako guztia kontuan hartuta, jarduera plan honen lehentasunetako bat da bi konpromiso handiri erantzuna ematea: Memoria Historikoaren egiaren aitortpen instituzionala egiteko prozesua burutzen laguntzeko konpromisoari, eta frankismo-garaiko biktimen memoriaren aintzatespen morala egiteko prozesua burutzen laguntzekoari.

Bi lehentasun horiek lortzeko lagungarri dira (eta horien orientazioaren isla ere badira) honako proiektuak, besteak beste: aldundiekin eta udalekin koordinazioan aritzea, Duintasunaren Kolonbarioa bezalako proiektu puntualak garatzea, memoriaren erakundeekin lankidetzan aritzea, eta memoria historiaren aldeko gizarte-jardueretarako diru-laguntzak deitzea, edo Memoria Historikoaren espazioak, tokiak eta ibilbideak kudeatzea.

Halaber, hiru proiektu zehatzek garrantzi estrategiko berezia izango dute: gorpuak ho-

6 2011ko 42. BOE, otsailaren 18koa, l. atala, 18254. or.

bietatik ateratzeko eta DNA banku bat egiteko planarekin jarraituko da, desagertutako pertsonen kasuek duten lehentasunaren isla; giza eskubideen urraketari buruzko txostena (1936-1978) garatu eta amaituko da, bigarren fasean Memoria Historikoaren egiari buruzko aintzatespen instituzionala egin dadin; eta, horren guztiaren osagarri, frankismoaren biktimak erakunde-mailan eta norbanako mailan aitortzen dituen azterketa bat egingo da.

Noski, proposamen hau osatugabea eta akastuna da. Lehenik, berandu iristen ari gare-lako aintzatespen honetara, inguruabar historiko eta politikoen ondorioz. Bigarrenik, EAEko erakundeen eskumen, ahalmen eta baliabideek badituztelako mugak, haien jarduna baldintzatzuten dutenak. Hala ere, zailtasun eta mugak gorabehera, horiek bezain indartsua da, gutxienez, ekimen honen oinarri diren printzipioekiko konpromisoa. Konpromiso horretatik borondate sendoa sortu da kendu beharreko oztopoak kentzeko eta lortu nahi diren helburuen aldeko baldintzak sortzeko.

Jarduera Plan hau zorretan dago aurretik ahalegina egin duten beste horiekin. Nabarmendu behar da, horren haritik, Eusko Jaurlaritzak aurreko legealdietan egin duen lanaren balioa, bai eta foru-aldundien jarduna eta egoera zailtan ekimen aitzindariak garatu dituzten hainbat eta hainbat udalena ere.

Esker on hori EAEko elkarte-sareari ere zor zaio, lagundu egin duelako politika publikoen espazio hau sortzen eta Memoria Historikoa ahanzturan erorita ez uzten. Bereziki goraiatu behar dira, era berean, jasandako bidegabekeriaren aitorten historiko eta demokratikoaren bila etsi gabe ekiteko behar adinako pazientzia eta indarra izan duten milaka biktimak eta biktimen senideak.

3.2. Helburu espezifikoak

Laburbilduz, Gogora Institutuak Memoria Historikoaren aldiari buruz ezarri nahi dituen proiektuen eremuan, eta horiek egituratzen dituzten hiru kapituluak (kudeaketa, ikerketa eta dibulgazioa) kontuan hartuta, horietako bakoitzaren helburu espezifikoak honako hauek dira:

- **Kudeaketaren arloan:** Memoria Historikoaren gaineko lankidetzak hobetzea EAEko erakundeekin.
- **Ikerketaren arloan:** Memoria Historikoaren egia berreskuratzeko prozesu instituzionala burututzat jotzen laguntzea.
- **Dibulgazioaren arloan:** Memoria Historikoaren egiaren aitorten instituzionala eta frankismo-garaiko biktimen memoriaren aintzatespen moralak egiteko prozesuak burututzat jotzen laguntzea.

Bai Jarduera Plan honetan Memoria Historikoaren alde egiten den lana, bai haren helburuak, Memoria Historikoari buruzko 2015-2016ko Oinarriko Lehentasun Programaren jarraipena dira. Horren adibide da, era berean, egia argitzeko, justiziarako, egindako mina konpontzeko eta halakorik ez errepikatzeko biktimek duten eskubidearen aldeko konpromisoa ere.

3.3. Esangura estrategiko berezia duten proiektuak

Memoria Historikoari buruzko proiektuen barruan sartu behar diren helburu eta jardueren artean hiru dira bereziki azpimarratu behar direnak, eremu honetan ezarritako bi lehentasunekin duten loturagatik: egia eta biktimak.

3.3.1. Gorpuk hobietatik ateratzeko planarekin jarraitzea eta DNA banku bat egitea

Biktimen arloan, desagertutako inguruko erantzunak lehentasunik handiena izan behar duela nabarmentzen dute nazioarteko erakundeek. Estatu espainiarrari berariaz, es-

plizituki eta modu urgentean egindako gomendio batzuen parte da lehentasun hori. Gomendio horien egileak dira, batetik, bortxazko edo nahi gabeko desagertzeei buruzko Nazio Batuen Lantaldea eta horren errelatore berezia, eta bestetik, egia, justizia, aintzatespena eta berriz ez gertatzeko bermeak sustatzeko errelatore berezia.

Alde horretatik, lehentasunezko bi jarduera ildo garatzea aurreikusi du Gogora Institutuak. Batetik, Gerra Zibilean desagertutako pertsonak bilatu eta identifikatzeko EAEko Plana garatzen jarraitzea, hobien kokapena ikertzeko eta lokalizatzeko. Plan honi esker, azken urteetan gorpuk ateratzeko 29 eragiketa egin dira, eta horietan 85 gorpuren gorpuzkiak atera dira. Aurrera jarraituko dugu lan-ildo horrekin.

Bestetik, eta identifikazio-prozesuak errazteko, DNA banku bat sortzeko proiektua lan-tzen jarraitzea; banku horri datu-base genetiko bat eta web-bilatzaile bat uztartuko zaizkio, desagertutako pertsonak bilatu ahal izateko.

Desagertutako pertsonak oinarri dituen jarduera proiektuak eremu honetarako zehaz-tutako bi helburu nagusiak bete beharko ditu. Batetik, Memoria Historikoaren egia bilatzen dela sustatuko du, eta, horretarako, lurpetik aterako dira historiari desagerrarazi nahi izan ziren pertsonen gorpuzkiak; eta, bestetik, frankismoaren biktimek eta beren familien memo-riaren aintzatespena egingo du –aintzatespena morala, gutxienez.

3.3.2. Memoria Historikoaren egia buruzko aitoren instituzionala

Lehentasun horri heltzeko, elkarren artean lotutako bi proiektu daude: Memoria Histori-koaren egia buruzko txosten bat egitea, batetik, eta gai horren gaineko adostasun institu-zionala sustatzea, bestetik. Helburua da Memoria Historikoaren egia jakiteko eskubidea bete dadila, eskubide hori baitute bai frankismoaren biktimek, bai gizarte osoak.

Aurreko legealdian, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren, Gogora Institu-tuaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzaren hitzarmen baten bidez, 1936tik 1978ra izandako giza eskubideen urraketei buruzko txosten bat egiteko ikerketa-taldea jarri zen martxan. Azterketa horren helburua da egia mapatu bat egitea, Gerra Zibilean eta Fran-coren diktadurak iraun zuen bitartean giza eskubideen urraketen arloan benetan eta zehatz gertatutakora ahalik eta gehien hurbiltzeko. Lana legegaldiaren hirugarren urtean amaituta egotea espero da.

Abiapuntu hori kontuan hartuta, bigarren proiektuak, lehenengoarekin lotuta, erakunde-arte adostasuna lortzea du helburu, Memoria Historikoaren egia buruz. Legegaldiaren laugarren urterako helburu hori betetzea espero da. Proiektu honen helburua da erakunde arte adostasuna bilatzea, indar politikoen ahalik eta babes handiena eta pluralena izango duena, Memoria Historikoaren egia aintzatespen ofizial bat instituzionalizatuko duen adie-razpen baten inguruan.

Gogora Institutuak zeregin aktiboa izango du legegaldiaren azken urte horretan, adostasun hori lor dadin. Erakunde-arte ikuspegitik, adostasun hori lortzea eta adostasuna jendaurrean aurkeztea une erabakigarriak izan behar dira, Memoria Historikoaren egia EAEko erakunde-arte eskutik aitortu izateko prozesua burutuzat jo dadin. Gizarteak eta biktimek jakin behar dute keinu hori egia zor zaion aintzatespen ofizial eta instituzionala izango dela.

Jarduera ardatz hau giza eskubideak babesteko Nazio Batuen mekanismoek, Europako Kon-tseiluko Parlamentu Batzarrak, Europako Parlamentuak, Arartekoak eta elkarte-mugimenduak egindako deia erantzuten dion lehentasuna da, Memoria Historikoari buruzko egia argitzeko me-kanismoak sor daitezela eskatzen baitute guztiek aho batez.

3.3.3. Biktimen aitorten instituzional eta pertsonalerako prozesua

1936-1978 bitarteko giza eskubideen urraketei buruzko txostenaren ondorioak bi jardueren oinarri izateko balioko du. Lehenik eta behin, Memoria Historikoaren egia ofizialki aintzatesteko erakundearteko adostasunaren oinarri izango da (aurreko atalean azaldu den bezala). Bigarrenik, frankismoaren biktimak aintzatesteko aurretiazko erreferentzia izango da. Azken prozesu horretan bi elementu osagarri egongo dira: frankismo-garaiko biktima guztiekiko aitorten instituzional eta bateratua, eta biktima bakoitzaren familiari zuzendutako aitorten pertsonalizatua.

Aitorten instituzional eta bateratua legealdiaren azken urterako proiektatuko da, frankismo-garaian urratutako giza eskubideei buruzko txostenean oinarrituta, eta Memoria Historikoaren egiari buruzko aitorten-ekitaldi instituzionalaren osagarri. Helburua da frankismo-garaiko biktimen aitorten horretan EAEko erakunde eta gizarte-elkarte guztiek bat egin dezatela.

Biktima bakoitzaren familiaren aitorten pertsonalizatua egin baino lehen, txosten bat egingo da, familia bakoitzari bere senidea frankismoak eragin zuen bidegabekiaren biktima izan zela ofizialki aitortzen dion jakinarazpen ofizial bat helarazteko bitartekorik egokiena eta bidegarriena zein den aztertzeke.

4. *Oraintsuko Memoria*ren ildo estrategikoak

4.1. Plangintza orokorra

Terrorismoaren biktimen legeek ezartzen duten denbora-esparru berean dago Oraintsuko Memoria, hau da, 1960tik gaur arte. ETaren adarren terrorismoa, GALen eta eskuin muturreko beste taldeen terrorismoa eta motibazio politikoko testuinguruan eragindako giza eskubideen urraketak izandako denbora historikoak mugatzen du aipatutako esparrua.

Logikoki, indarkeria-gertaera horiek Oraintsuko Memoriari buruzko aldi tratatzean bereizi egin behar dira denbora-tarte horretan egon diren testuinguru politiko ezberdinak: Francoren diktaduraren amaiera, Trantsizioa, eta Demokrazia. Oraintsuko iraganari buruzko memoria eta balorazioa ezin dira bereizi gabe egin testuinguru batean ala bestean.

4.1.1. Oraintsuko Memoriaren konplexutasunaren aitorten zintzoa

Agiri honetan lehendik ere esan dugunarekin jarraituz, Oraintsuko Memoria denboran hurbil kokatzen diren gertaerekin lotuta dago, oraindik presente dauden sufrimendu pertsonal eta familiarrekin, min sozial eta politikoekin. Bizikidetzaren politikaren eremuan, oraintsuko iraganaren tratamendua da alorrik konplexuena eta delikatuena. Kontzeptu arantzatsuak eztabai datzen dira, besteak beste, gertatutakoaren sorrera, erruaren diagnostikoa, sufrimenduaren aitortpena eta aintzatespena, edo sufrimendua eragin zuten ekintzen kalifikazioa.

Konplexutasun eta sentsibilitate altuko testuinguru horretan, hainbat arrisku elkarren aurka jarri eta kontrako norabideetara bideratzen dira. Horren adibide, saihestu beharreko hiru arrisku-multzo bitar deskribatuko ditugu:

•Gutxienekorik gabe, edo gehienekoarekin

Oraintsuko Memoriaren auzia jorratzean aurkitzen dugun lehen arriskueta bat zera da: oinarrizko gutxieneko etikoak sakrifikatzea, memoriari buruzko adostasun bat lortu ahal izateko. Aukera hori "erakargarria" izan daitekeen arren, ez da halakorik egitea komeni. Memoriaren politika publikoak zentzua izan dezan, ezinbestekoa da argi adostea zer ezin den "inoiz

gehiago" gertatu, baina ez hori bakarrik, baita zergatik ezin den zer hori sekula gehiago gertatu ere. "Inoiz gehiago" horren zergati etiko eta politikoari uko egiten bazaio, memoriaren pedagogia demokratikoari uko egiten zaio. Hori dela eta, Oraintsuko Memoriaren politikan adostasuna bilatzen denean, argi eta garbi finkatu behar dira gutxieneko etiko eta demokratikoak.

Arrisku horrek berak kontrako zentzua hartzen du adostasun etiko eta demokratikoa mendekatzeko edo umiliatzeko erabiltzen denean, eta bizikidetzaren proiektu bateratu bat bideraezin bihurtzera iritsi daiteke. Tentazio hori sarritan agertzen da indarkeriaren osteko egoeran dauden eztabaidetan, eta saihestu egin behar da, pluralismoaren printzipio demokratikoaren aurka baitoa. Memoriaren politika publikoak printzipio hori zaindu behar du memoria ezberdinei buruzko elkarrizketak kudeatzen dituenean. Gutxieneko etikoa gutxieneko etiko sendoa eta solidoa izan behar da; ezin da atzera jo, gehieneko bateratzaile bat bihurtzeko.

•Dena nahasteko joera, edo zati batzuk txikiagotzeko joera

Arrisku bikoitz hori agiri honen hainbat ataletan azaldu da. Horren arabera, gure oraintsuko iraganean dauden terrorismo- edo indarkeria-mota ezberdinak elkarren artean aldekatzeko eta konpentsatzeko erabiltzen dira, eta, hala, bakoitzak modu berezian eragin duena lausotu eta desagertu egiten da. Ezin da halako joerarik onartu, ez ikuspuntu etikotik, ez demokratikotik. Izan ere, terrorismoaren edo indarkeriaren bidegabekeria inplizituki legitimatzen du, konpentsazioaren bidez.

Bestalde, terrorismo- edo indarkeria-mota jakin batzuk ukatu, ezkutatu edo txikiagotzeko ere erabil daiteke arrisku hori. Edonola ere, memoriaren ariketa ezin da partziala izan, eta terrorismo-modu jakin baten larritasun edo intentsitate berezia agerian uzteko ez da beharrezkoa giza eskubideen beste urraketa larri batzuk ukatu edo ezkutatzea. Memoriaren politika publikoak zorrotz eta modu autonomoan aurre egin behar die giza eskubideen urraketek, horiek lausotu gabe; baina, era berean, bakar bat ere baztertu gabe. Izan ere, giza eskubideen urraketak baztertzea biktimak baztertzea da.

•Etorkizunera soilik edo iraganera soilik bideratutako begirada

Horixe da testuinguru honetako beste arrisku bat; alegia, etorkizunera soilik begiratzea, iragana kontuan izan gabe. Aurrerantz ihes egiteko modu bat da, iraganaren zailtasunari aurre egitea saihestuz eta zauriak eta zailtasunak denboraren poderioz gaindituko direlakoan. Baina esperientzia historikoak diosku hori ez dela horrela. Isiltasuna da gizartearen zauriak tratatzeko modurik okerrena. Aitzitik, trauma belaunaldi batetik bestera helarazteko biderik onena da. Gizarte-mailan txarto asimilatu den terrorismo edo indarkeriazko bizipen bat modu eta itxura desordenatuetan ager daiteke hainbat urte geroago.

Arrisku honen ifrentzua iraganera soilik begiratzen duen joera da; indarkeriaren bidegabekeriak kendu zien hori berreskuratu eta berrezartzeko eskeari tinko helduta. Alabaina, iraganaren aitortzeak eta aintzatespenak efektu aringarriak baino ez dituzte konpondu ezin diren errealitateetan. Orainaldi eta etorkizun hobe eraikitze bidea ematen dute iraganean gertatu zena esplizitu egiteak, horrek eragin zuen bidegabekeria aitortzeak eta iraganaren aintzatespen pertsonal, familiar, sozial eta politikoaren tratamendu osoak. Biktimizazioa terrorismoaren edo indarkeriaren esperientzia traumatikoak biktimaren inguru familiar, sozial edo politikoan uzten duen blokeoa da, eta memoriaren politika publikoak biktimizazioa gainditzeko lagundu behar du, eta ez hura betikotzen.

4.1.2. Oraintsuko Memoriaren konplexutasunari aurre egiteko esparru orokorra

Oraintsuko Memoriaren konplexutasuna tratatzearekin lotutako alderdietan, Jarduera Plan honen esparru orokorra Eusko Jaurlaritzaren Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana-

ren plano etiko eta aurre-politiko berean dago. Laburbilduz, honako puntu hauek azpimarra ditzakegu:

•Gutxieneko etiko eta demokratikoak

Gogorak eta Jarduera Plan honek bere egin dute “Zoru etikoa” izeneko dokumentua, Eusko Legebiltzarrak 2012ko uztailaren 12an onetsi zuena. Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana oinarrizko akordio haren argitara irakurri beharra dago. Halaber, Gogora Institutuak beregain hartuko du Legebiltzarrean hartzen den erabaki oro, baldin eta memoriaren politikari eragiten badio eta aipatu agiriaren adostasuna mantendu edo areagotzen badu.

Jarduera Plan honen lehentasunezko helburu estrategikoetako bat, hain zuzen, iraganaren kontakizun kritikoan geure ekarpena egitea da. Gogorari ez dagokio kontakizun jakin bat inposatzea, baizik eta partekatutako gogoeta hori posible egiten duten baldintzak sortzea. Badugu printzipio bat eta badugu irizpide bat ibilbide hori segurtasun demokratikoz eta sinisgarritasun etikoz janzten dutena.

-Printzipio bat. Zoru Etikoan bildutakoa: *“Eragile ezberdinek gertatutakoaren kausei buruz konpartitutako akordio bat lortzea desiragarria den arren, giza eskubideen urraketaren sorrerari buruz interpretazio ugari egon daitezkeela onartu behar da. Ondorioa da eskubide horien urraketa guztiak gertatzeko arrazoia dela zenbait talde eta pertsonak beste helburu batzuk jarri zituztela giza duintasunaren gainetik”.*

-Irizpide bat. Honako hau zehaztu zen aurreko Bake eta Bizikidetzaren Planean: “Iraganari buruzko kontakizun kritiko eta konpartitutan, ezin da argudiorik erabili (ez gatazka-testuingurua, ez elkarren aurka dauden aldeen gaineko tesia, ez jatorri ezberdinetako urraketaren salaketa, ez estatu-arrazoia, ez etorkizunaren garrantzia handiagoa dela) ETaren indarkeria edo giza eskubideen bestelako urraketak gutxitzeko, justifikatzeko edo legitimatzeko”.

•Jatorri ezberdinetako urraketaren tratamendua

Iraganari begiratzean, lanik zailenetako eta aldi berean garrantzitsuenetako bat giza eskubideen urraketa guztiak aitortzea da, bat ere baztertu gabe edo bati ere garrantzia kendu gabe. Izan ere, arriskua bikoitza da. Lehenik eta behin, urraketa batzuk besteekin justifikatzeko edo konpentsatzeko erabil daiteke iragana argitzeko ariketa hau. Eta gerta daiteke –hau bigarren arriskua– urraketa batzuk gutxiestea edo ezkutatzea. Beste behin ere, zoru etikoak bi erreferentzia argigarri eskaintzen dizkigu:

-Egiaren printzipioa: *“Erdizkako egia, erreprimitutakoa edo amnesikoa ekiditea: gertaeren kontakizun objektiboaren bitartez, giza eskubideen urraketari buruzko egia konpartitua eratzea”.*

-Erantzukizunaren printzipioa: *“Bakoitzak iraganean duen erantzukizuna eta giza eskubideen urraketaren ondorioak zehaztea eta aitortzea”.*

Premisa horiek aintzat hartuz gero, ikuspuntu bikoitza izan dezakegu. Giza eskubideen urraketa guztien tratamendu integrala, giza eskubideen urraketaren errealitate bakoitzari buruzko balorazio espezifikoa eskaintzeko beharrezanarekin batera.

•Etorkizunaren lehentasunaren zentzua

Etorkizuna eraikitzeagatik ordaindu behar den faktura ezin daiteke izan iragana ahaztea, ezta aurretik zegoena gutxiestea ere. Bizikidetzaren integratu eta bateratuan oinarritutako etorkizunaren lehentasuna iragana argitzeko printzipiotik landu behar da. Zoru etikoak honela formulatzen du: “Konpartitutako oroimenaren eraikuntza biktimen bidegabeko sufrimendua arintzeko, zigorgabetasuna ekiditeko, eta bakea eta bizikidetzaren demokratikoa lortzeko bitartekoa izan dadin saiatzea. Memoria hori etorkizuna birpentsatzeko eta eraikitzeke erabili behar da, gertatutakoaren kontakizunarekin harrapatuta geratu gabe”.

Gure gizarteak, guztiek bezalaxe, arazoak, gatazkak, krisiak eta zatiketak dauzka eta edukiko ditu. Hori bizikidetzaren errealitatearen parte da. Ez dugu gizarte utopikoa eraiki nahi. Gure helburua xumeagoa da. Gutxieneko etiko eta demokratiko batzuk konpartitzen dakien gizarte bat eraiki nahi dugu soilik, gainontzeko gaietan desadostasunak bermeekin agertu ahal izateko. Hori da etorkizunerako eginkizun argi eta arduratsua eta erronka. Zoru etikoak dioenez, *“iragan mingarri baten ateak itxi behar dira eta denontzat itxaropentsua den etorkizunaren ateak ireki”*. Iragana, oraina eta etorkizuna batzen dituen ikuspegi hau da Jarduera Plan hau kokatzen den ikuspegia.

4.1.3. Erronka estrategiko baten ardatz nagusiak

Oinarri horiek kontuan hartuta, apustu estrategiko nagusia memoria partekatuen politika publiko bati buruzko batasun plurala lortu eta sustatzea da. Horren harira, helburua ez da kontakizun partekatu bat bilatzea, baizik eta politika publiko partekatu bat lortzea. Partekatu behar dena gutxieneko etiko eta demokratikoa da. Hau da, onartu behar da *“interpretazio ugari egon daitezkeela”*, memoria plurala, gatazkatsua eta poliedrikoa baita.

Ondorioz, apurka-apurka egin behar da aurrera batzen gaituen horretan, bereizten gaituenaren gainetik; horixe da memoriaren politika publikoan defendatu beharreko irizpide estrategikoa. Adostasunik zabalena bilatzeko ahalegin horretan, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak bi konpromiso hartuko ditu beregain:

- Alde batetik, Gogora Institutuak Memoriaren Egunak gizartean eta erakundeetan duen proiektzioa indartuko du, azaroaren 10 bakoitzean, iraganari buruzko hausnarketa kritikoa eta partekatua egin dadin erakundeen eta gizartearen artean.
- Bestetik, eta lehenengoaren osagarri, Gogora Institutuak Bizikidetzaren, Giza Eskubideen eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren ekimena babestuko du, Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna (martxoaren 11) ospatzean.

Batzen gaituena sustatzeko helburu horretan, hiru jarduera ardatz nagusi garatuko dira. Hasteko, erakundeen arteko adostasunik zabalena lortzeko bidean aurrera egingo da, memoriari buruzko udal-politikak bereziki zainduz. Bigarrenik, Gogora Institutua ikus-entzunezko lekukotasunak jasotzen dituen zentro espezializatu bihurtzea sustatuko da. Eta, azkenik, sakon jorratuko da Orintsuko Memoriaren gaitasun hezitzailea.

Hirurek zeharkako ardatz bat partekatuko dute: herritarren eta EAEko gizarte-sarearen partaidetza eta inplikazioa bilatu eta sustatu nahi dira, bai memoria-prozesuak eraikitzeke fasean, bai memoriaren ekitaldi eta ospakizunetan.

4.2. Helburu espezifikoak

Laburbilduz, Gogoratu Institutuak Orintsuko Memoriaren aldiari buruz ezarri nahi dituen proiektuen eremuan eta kontuan hartuta berau egituratzen duten hiru kapituluak (kudeaketa, ikerketa eta dibulgazioa), horietako bakoitzerako helburu espezifikoak honako hauek dira:

- Kudeaketa**ren arloan: EAEko erakundeen artean Orintsuko Memoriaren politika publikoak bateratzea.
- Ikerketa**ren arloan: Gogora Orintsuko Memoriari buruzko ikus-entzunezko dokumentazioan espezializatutako zentroa izan dadila sustatzea.
- Dibulgazio**aren arloan: Memoriaren Egunaren eta memoriaren balio pedagogikoak hezkuntza-eremuan sartzea.

4.3. Esangura estrategiko berezia duten proiektuak

Oraintsuko Memoriari buruzko proiektuen barruan sar daitezkeen helburu eta jardueren artean hiru dira zehatzago azaldu behar direnak, eremu honetan zehaztutako bi lehentasunekin duten loturagatik.

4.3.1. Oraintsuko Memoriaren eremuan EAEko erakundeekin lankidetzan aritzea

Erakundeen artean ahalik eta adostasun handiena lortzen aurrera egitea da lehenengo ekimen handiaren helburua. Gogora Institutuko Zuzendaritza Kontseiluaren bidez, lankidetzan sustatuko da, elkarrekin lanean jarduteko Legebiltzarrarekin, foru-aldundiekin, Eudalekin, udalekin eta EAEko gainerako erakundeekin, memoriaren politika publikoa indartzeko, batetik, eta Memoriaren Eguna sustatu eta ospatzeko orduan bat egiteko, bestetik. Erakundearteko adostasun horrez gain, talde politikoen artean ere adostasuna lortzeko lan egingo da.

Ildo horretatik, garrantzia berezikoa izango da Oraintsuko Memoriari buruzko politika publikoak sustatzea, baita udalerrri-mailan Memoriaren Eguna ospatzea ere. Memoriaren eta bizikidetzaren eremuetan, udala da erakunde estrategikorik garrantzitsuen, horixe baita herritarrengandik hurbilen dagoen erakundea eta askotariko sentsibilitateak batzen dituen plaza publikoa, iraganean metatutako arazo konplexu guztiak aintzat hartuta.

Horren harira, bi dira datozen urteetarako erronkak. Lehenik eta behin, Oraintsuko Memoriaren ekimenak ahalik eta udalerrri gehienetara heltzeko ahalegina egitea, eta, bestetik, jarduera horiek, proiektu instituzionala izateaz gain, gizartearen eta herritarren partaidetza izatea eta udalerrri bakoitzeko gizarte-erakundeekin lankidetzan jardutea.

4.3.2. Ikus-entzunezko funts publiko bat sortzea Oraintsuko Memoriari buruz

Gogora Institutuak 2017-2020 aldirako duen apustu estrategikoetako bat Oraintsuko Memoriaren lekukotasunak batu eta gordeko dituen zentro espezializatua bihurtzea da. Diagnostiko oso zehatz batekin lotutako apustua da: lekukotasuna tresna gakoa da batzen gaituen hori sustatzeko, bereizten gaituenaren gaintetik, Oraintsuko Memoriaren testuinguruan, non konplexutasuna eta banaketa baitira nagusi.

Lekukotasunak entzuteak sentsibilitate ezberdinak batzen laguntzen du. Distantziak eta banaketak gainditzen dituen eta hausnarketarako bidea zabaltzen duen isilune bat eragiten du. Bizitakoaren eta sufritutakoaren lekukotasun humano eta pertsonalak duen gaitasunari eta legitimitateari esker, iraganari aurre egiteko eta etorkizunera begiratzeko oinarri sendoak sortzen dira. Horixe izango da datozen lau urteetan Gogora Institutuaren estrategia nagusietako bat.

Lekukotasunak jasoko dira, bai biktimen eskutik, bai herritarren eskutik. Jasandako sufri-mentuaz eta bidegabekeriak gain, zorigaizto larrien artean askatasuna, printzipio demokratikoak edo bizitza pertsonal, familiar edo sozial duina defendatzean sortu ziren balio positiboak islatuko dira.

Ekimen honen esparruan, biktimen lekukotasunak grabatzen dituen Gertu Programarekin jarraituko da. Orain arte, hildako biktimen senideen ia 200 grabazio egin dira; eta, orain-tsu, zauritutako eta mehatxatutako biktimengana ere heldu da lekukotasunak grabatzeko programa. Testuinguru horretan, biktimen lekukotasunak jasotzen jarraitzea da datozen urteetarako proiektua, gizarte eta hezkuntzako hainbat eremutan lekukotasun horiek ezagutu eta entzun daitezken, betiere haien baimena eskuratuz gero.

Filosofia hori bera garatuko da azken 50 urteetan bizitakoaren oroitzapena eta esanahia orainaldira ekartzen duten herritarren lekukotasunak grabatzean ere. Ildo horretatik, diru-laguntzen deialdi espezifiko bat sustatuko da, Oraintsuko Memoriako gertaerak eta lekukotasunak helburu dituzten dokumentalak eta ikus-entzunezko lanak egiteko.

4.3.3. Oraintsuko Memoriak hezkuntza-eremuan egindako ekarpenak

Jarduera Plan honek Oraintsuko Memoriarekin lotuta proposatzen duen hirugarren ekimen handia hezkuntza-eremuan oinarritzen da. Hezkuntza da, izan ere, etorkizunaren aldeko apustua ondoen islatzen duen ardatza. Memoriaren politika publikoak iraganera begiratzeko du, baina etorkizunera orientatuta. Memoriari buruzko hausnarketa kritikoak bokazio esplizituki pedagogikoa dauka: iraganean egin eta errepikatu behar ez den hori gogoratzea, eta gizartearen alde duen balioagatik sustatu beharra dagoen iraganeko hori gogoratzea. Horrek guztiak proiektio zuzena dauka hezkuntzan.

Hori dela eta, hezkuntza plan honen eremu estrategikoa da. Ikuspuntu horretatik, plan honek elkarren artean gurutzatzen diren hiru proiektu zehatz garatzea proposatzen du:

- Lehendabizi, memoriaren gaitasun didaktikoa sustatzea bere dimentsio historikoaren ikuspuntutik. Proiektu hori bideratzeko, memoriari eta Historia irakasgaiari buruzko jardunaldi espezializatuak egingo dira, eta lantalde bat sortuko da, 2018an dimentsio hori EAEko hezkuntza-curriculumean sartzeko proposamena aurkez dadin.
- Bigarrenik, memoriaren hezkuntza-gaitasuna bultzatzea bere dimentsio etikotik erreparatuta. Eremu horretan, biktimen lekukotasunen Adi-adian esperientziak izan duen eragina eta unibertsitateek egindako Ahotsak proposamena hartuko dira kontuan, biak ere Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak sustatuak. Esperientzia horiek abiapuntutzat hartuta, Gogora Institutuaren ikus-entzunezko funtseko baliabideak eskolen eta unibertsitateen esku jartzeko proiektu bat aurkeztuko da.
- Hirugarrenik, memoriaren gaitasun sozio-hezitzailea sustatzea, hezkuntza- eta unibertsitate-agenteei Memoriaren Egunean parte har dezatela bultzatzen duen proposamen baten bidez. Egun hori hezkuntza-eremuan ospatzeko, jarduera pedagogiko eta parte-hartzaileak egingo lirateke. Gogora Institutuak proposamen bat egingo du, eta Gizalegez Akordioa sinatu duten erakundeei jakinaraziko die.

Ekimen horiek, ezinbestez, Hezkuntza Sailaren, Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lan-kidetzaren Idazkaritza Nagusiaren eta EAEko Eskola Kontseiluaren adostasunez gauzatuko dira, Gizalegez Akordioa sinatu dutenekin eta hezkuntza-agenteekin lankidetzan.

Hirugarren zatia
Jarduera-programa



5. taula. Jarduera programaren laburpena

	Zeharkako proiektuak	Memoria Historikoari buruzko proiektuak (1936-1975)	Oraintsuko Memoriari buruzko proiektuak (1960-2011)
Erronka ESTRATEGIKOAK	<p>·1. erronka. Memoriaren politika publikoak garatzean eta horretarako beharrezko den adostasun komun etikoa lortzean pluraltasuna <i>ahalik eta gehien</i> indartzea.</p> <p>·2. erronka. Memoriaren politika publikoak gizartearekiko eta herritarrekiko elkarrizketa, hausnarketa, partaidetza eta inplikaziorako ariketa benetako, erabilgarri eta zehatza direla ulertaraztea eta helaraztea.</p>		
Kudeaketa HELBURUAK	·Proiektu propioa finkatzea eta beste memoria-erakunde batzuekiko sinergia eta osagarritasuna sustatzea.	·EAEko erakundeekin Memoria Historikoaren gaineko lankidetzak hobetzea.	·EAEko erakundeen artean Oraintsuko Memoriaren politika publikoak bateratzea.
Kudeaketa EKIMENA	1. ekimena. Memoria-erakundeekin modu sinergikoan eta osagarrian jardutea	4. ekimena. Memoria Historikoaren eremuan EAEko erakundeekin lankidetzan aritzea	7. ekimena. Oraintsuko Memoriaren eremuan EAEko erakundeekin lankidetzan aritzea
PROIEKTUAK	<p>·Jarduera Plana kudeatzea, Gogora Institutuaren proiektua finkatzeko.</p> <p>·EAEko beste memoria-erakunde batzuekin koordinazioan eta lankidetzan aritzea.</p> <p>·Nazioarteko memoria-erakundeekin sare-harremanak antolatzea.</p>	<p>·Koordinazio-ekintzak antolatzea aldundiekin, Memoria Historikoaren arloan.</p> <p>·Sinbologia frankista erretiratzeko ekintzak egitea, udalen lankidetzarekin.</p> <p>·Proiektu zehatzak garatzea: Duintasunaren kolunbarioa.</p>	<p>·Urtero Memoriaren Eguna sustatzea, EAEko erakundeekin lankidetzan.</p> <p>·Oraintsuko Memoriari buruzko udal-politikak indartzea.</p> <p>·Oraintsuko Memoriari buruzko proiektu zehatzak garatzea.</p>
Ikerketa HELBURUAK	·Gogora Institutuak ikerketaren gainean duen gaitasuna gara dezan oinarriak jarri eta baldintzak sortzea.	·Memoria Historikoaren egia berreskuratzeko erakunde-prozesua burututzat jotzen laguntzea.	·Gogora Memoriari buruzko ikus-entzunezkoen zentro espezializatuak bihurtzea.
Ikerketa EKIMENA	2. ekimena. Ikerketa-tresnak sortzea	5. ekimena. Memoria Historikoaren egiari ekarpena egitea	8. ekimena. Ikus-entzunezko funts publiko bat sortzea Memoriari buruz
PROIEKTUAK	<p>·Dokumentazioa, artxiboak eta datu-baseak hartzea, gordetzea eta antolatzea.</p> <p>·Ikerketak egiteko beka-programa zehaztu eta martxan jartzea.</p> <p>·Memoriari buruzko txostenak eta azterlanak egiteko programa zehaztea eta garatzea.</p>	<p>·Gorpuak hobietatik ateratzeko planarekin jarraitzea eta DNA banku bat egitea.</p> <p>·Giza eskubideen urraketei buruzko txostena garatzea (1936-1978).</p> <p>·Memoria-erakundeekin lankidetzan aritzea eta diru-laguntzetarako deia egitea.</p>	<p>·Biktimen lekukotasunak grabatzeko Gertu Programa zabaltzea.</p> <p>·Gizarte-lekukotasunak eta herritarren lekukotasunak grabatzea.</p> <p>·Ikus-entzunezkoak egiteko diru-laguntzak emateko deialdia egitea.</p>

Dibulgazioa HELBURUAK	·Beharrezko diren azpiegiturak eta tresnak sortzea, Gogora Institutuak bere dibulgazio-zeregina bete dezan.	·Frankismo-garaiko biktimak aintzatesteko eta egia aitortzeko prozesuan laguntzea.	·Memoriaren Egunaren eta memoriaren balio pedagogikoak hezkuntza-eremuan sartzea.
Dibulgazioa EKIMENA PROIEKTUAK	3. ekimena. Gogora Institutuaren dibulgazio-lanerako baliabideak sortzea ·Dokumentazio-zentroa, liburutegia eta argitalpenak sendotzea. ·Epe ertainean erakusketa-proiektuaren gaineko azterketa egitea, eta Memoriaren Plazarekin jarraitzea. ·Urtero gai zehatz bat garatzea, urteroko jardunaldiekin batera.	6. ekimena. Frankismo-garaiko egia aitortzea eta biktimei ordaina ematea ·Memoria Historikoaren guneak, lekuak eta ibilbideak kudeatzea. ·Memoria Historikoaren egia erakunde-mailan aitortzeko ekitaldia egitea. ·Frankismoaren biktimak pertsonalki aitortzeko bideragarritasuna aztertzea.	9. ekimena. Memoriak hezkuntza-arloan egiten dituen ekarpenak lantzea ·Memoriaren dimentsio historikoa hezkuntzan sartzea. ·Memoriaren dimentsio etikoa hezkuntzan sartzea. ·Hezkuntza-agentetek Memoriaren Egunean parte hartzeko proposatzea.

I. ardatza. Zeharkako proiektuak

KUDEAKETA

1. ekimenaren fitxa

Memoria-erakundeekin modu sinergikoan eta osagarrian jardutea

1. Ekimenaren deskribapena

Ekimen honetan EAEko memoria-erakundeekiko sinergia eta osagarritasuna sustatzea eta EAEtik kanpoko memoria-erakundeekiko harremanak antolatzea da helburu nagusia. Zehazki, hiru jarduera ildo hauek ezarri dira:

- EAEn dauden edo egongo diren memoria-erakundeen artean koordinazioa eta osagarritasuna sustatzea, Jarduera Plan honen bigarren zatiko 3. eta 4. tauletan islatzen den eskema abiapuntutzat hartuta (2.3.1 puntua).
- Udaletako eta unibertsitateetako ekimenekin edo gizarte zibilaren memoria-erakundeekin eta erakunde historikoekin koordinazioan eta lankidetzan aritzea, baita memoriaren politikan jarduten duten estatu-mailako ekimen eta erakundeekin ere.
- Memoria-politiken eremuan nazioarteko esperientziekin eta erakundeekin sare-harremanak antolatzea.

2. Helburuak

- EAEn lan egiten duten memoria-erakundeen jarduera eta politika publikoen koordinazioa eta osagarritasuna sustatzea.
- Gogora Institutua estatu-mailako ikerketak egiten dituzten erakunde eta taldeekin eta memoriaren nazioarteko sare eta esperientziekin lotzea.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzeko azaroaren 27ko 4/2014 Legeak ezartzen duen zeregin nagusietako bat gure herrian garatzen diren memoria-politika publikoak koordinatu eta antolatzean datza. Elkarriketa-esparru hori ezarri behar da gutxienez honako erakunde hauekin: Gernikako Bakearen Museoarekin, Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentroarekin, eta Aieteko Baliabide Pedagogikoen Zentroarekin. Helburua sinergia sustatu eta bikoiztasunak saihestea da. Xede horrekin, zentroetako bakoitzarekin koordinazio-eremu espezifikoa bat ezarriko da.
- Gogora Institutuak eremu honetan egin behar duen lanerako jarduera irizpide iraunkor eta oso erabilgarria izango da beste autonomia-erkidego batzuek garatu dituzten ekimenak eta esperientziak (batez ere ikerketaren arloan) ezagutzea.

·Nazioarteko memoria-erakundeekin sare-harremanak antolatzea beharrezkoa izango da Gogora Institutua finkatzeko fasean, bi helbururi begira. Batetik, bere lana nazioartean eza-gutarazteko, eta, bestetik, memoria kudeatzeko nazioarteko esperientziak euskal gizarteari hurbiltzeko.

4. Jarduera-programa

Ekintzak	Egutegia	Ebaluazio-irizpidea
1. ekintza. Gernikako Bakearen Museoko Patronatuari erakunde bakoitzaren espezializazio-eremuen eta lankidetzaren proposamena aurkeztea.	·2018	Proposamena ezarritako epean aurkeztea eta lankidetzaren proposamena kudeatzea.
2. ekintza. Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentroarekin elkarrizketa eta koordinazioa sustatzeko eremua ezartzea.	·2018	Legealdian zehar ezartzen diren prozesuak, lankidetzaren eta sinergia garatzea.
3. ekintza. Aieteko Baliabide Pedagogikoen Zentroarekin elkarrizketa eta koordinazioa sustatzeko eremua ezartzea.	·2018ko lehen sei hilekoa	Legealdian zehar ezartzen diren prozesuak, lankidetzaren eta sinergia garatzea.
4. ekintza. Beste autonomia-erkidego batzuetan memoriaren eremuan lan egiten duten erakundeekin kontaktua eta harremana ezartzea.	·2018an zehar	Legealdian zehar egindako harreman- eta lankidetzaren kopurua zehaztea.
5. ekintza. Nazioarteko memoria-erakundeekin sare-harremana antolatzea.	·2018	Legealdian zehar egindako harreman-kopurua eta harreman horien irismena aztertzea.

5. Legealdiaren amaieran azken ebaluazioa egiteko irizpidea

Gogora Institutuaren, EAEko memoria-erakundeen eta Estatuko nahiz nazioarteko memoria-erakundeen artean sortu diren lankidetzaren eta sinergiaren betearazpen-maila baloratzea izango da ebaluazio-irizpide nagusia.

I. ardatza. Zeharkako proiektuak

IKERKETA

2. ekimenaren fitxa

Gogora Instituturako ikerketa- eta artxibo-tresnak sortzea

1. Ekimenaren deskribapena

Gure herriko memoria demokratikoa ikertu, jaso eta gordetzen dela sustatzea izango da Gogora Institutuaren lehentasunezko jarduera ildoetako bat, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzeko Legeak ezarritakoari jarraikiz. Horretarako, bi jarduera ildo ezarriko dira:

- Dokumentazioa, artxiboak eta datu-baseak hartu, gorde eta antolatzea. Institutuan hainbat erakundek, memoria-elkartek eta partikularrek emandako informazioa eta dokumentazioa zentralizatu behar da, eta, hala, Gogora Institutua EAEn memoriaren erreferentzia-zentro bihurtu. Aurreko legealdiaren amaieratik edukiak kudeatzeko sistema bat garatzen ari gara, Gogora Institutuan gorde den informazio guztia modu antolatuan eta digitalizatuan antolatu dadin eta jendearen esku egon dadin. Era berean, memoria-erakunde eta -elkarrekin garatu dituzten ikerketak, argitalpenak eta datu-baseak biltzeko lanarekin jarraituko da.
- Urteko ikerketa-programak zehaztu eta garatzea: ikerketaren eremuan, honako lan-ildoak ezarriko dira, eta urtero berrituko dira:
 - (a) Ikasketa eta ikerketen urteko programa zehaztu eta garatzea.
 - (b) Ikerketa-beken urteko programa sustatzea.

2. Helburuak

- EAEko memoriarekin lotuta azken urteetan sortu den eta etorkizunean sortuko den informazioa eta dokumentazioa zentralizatzea, Gogora Institutua gai honen gaineko erreferentziako zentro bihurtu dadin.
- Memoriaren ikerketak lehenetsi, sustatu eta koordinatzea, gainerako memoria-elkarte eta -erakundeekin lankidetzan.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Orain arte egindakoa bateratzea eta gainerako memoria-erakunde eta -elkarrekin nahiz eremu akademikoarekin lankidetzan aritzea izango da Gogora Institutuak ikerketaren arloan jarraituko duen irizpide gidaria.
- Ondoren, hedatu egin beharko da ikerketa- eta artxibo-lana, eta, beraz, legezko mugen barruan zilegi den heinean, dokumentazio guztia jendearen esku jartzeko ahalegina egingo da. Dokumentazioa jaso, hartu eta gordetzeko prozesuarekin batera, jarduera protokolo bat ere bete beharko da.

- Agiri-mota bakoitzak behar duen tratamenduaren arabera, prozesu hau bi tresna informatikoren bidez egituratuko da: ABSYSNET liburutegia kudeatzeko sistema, liburutegi-proiektua sustatzeko, eta DSPACE gordailu digitala, dokumentazio-zentroaren proiekturako.
- Hiru foru-aldundiekin eta tokiko memoriari buruzko ikerketa berariaz landu duten udalekin koordinazioan aritzeko ahalegina egingo da. Era berean, eta helburu berberetarako, EAEko memoria-elkarteekin harremanetan jarraituko da. Lankidetzaz bereziki estua izango da Euskadiko Artxibo Historikoarekin.
- Gogora Institututuko Zuzendaritzak azterketa, ikerketa eta beken urteko programa aurkeztu du urtero, urteko lehenengo hiruhilekoan, Zuzendaritza Kontseiluan.

4. Jarduera-programa

Ekintzak	Egutegia	Ebaluazio-irizpidea
1. ekintza. Agiriak eta datu-baseak antolatzekeo proiektua burutuztat ematea, eta jarduera protokoloa aurkeztea.	·2017	Proiektua ezarritako epean burutuztat ematea.
2. ekintza. Alde bitarako harreman-esparrua ezartzea foru-aldundi bakoitzarekin, zuzen-zuzenean ezagutu ahal izateko ordura arte egindakoa, eta etorkizuneko proiektuak partekatzekeo.	·2017 eta legealdi osoa	Legealdi osoan egindako kudeaketan lanak garatzea.
3. ekintza. Udalekin harreman-esparru bat ezartzea, egindakoa ezagutu eta etorkizuneko proiektuak partekatzekeo.	·Legealdi osoa	Legealdi osoan egindako kudeaketan lanak garatzea.
4. ekintza. Memoria-elkarteekin harreman-esparru bat ezartzea, egindakoa ezagutu eta etorkizuneko proiektuak partekatzekeo.	·2017 eta legealdi osoa	Legealdi osoan egindako kudeaketan lanak garatzea.
5. ekintza. Memoriari buruzko txosten eta azterketen urteko programa zehaztea.	·Urte bakoitzeko lehenengo seihilekoa	Urteko programa bakoitzaren garapen-maila neurtzea.
6. ekintza. Gogora Institutuaren beka-programaren irizpideak eta oinarriak zehaztea.	·2018ko bigarren seihilekoa	Konpromisoa ezarritako epean betetzekeo.
7. ekintza. Gogora Institutuaren edukiak jendaurrean azaltzekeo plana aurkeztea.	·2018ko lehen seihilekoa	Konpromisoa ezarritako epean betetzekeo, eta aurreikuspenak garatzea.

5. Legealdiaren amaieran azken ebaluazioa egiteko irizpidea

Ebaluazio-irizpide nagusiak bi adierazle hartuko ditu kontuan: batetik, jendearen esku jarritako dokumentazio- eta artxibo-zerbitzuaren kalitatea, eta, bestetik, Gogora Institutuak jorratutako ikerketa eta azterketek memoriaren politikei ematen dieten balio erantsia.

I. ardatza. Zeharkako proiektuak

DIBULGAZIOA

3. ekimenaren fitxa

Gogora Institutuaren dibulgazio-lanerako baliabideak sortzea

1. Ekimenaren deskribapena

Gogora Institutuaren zeregin nagusietako bat da gure herriaren memoria demokratikoa dibulгатzea, herritarrek memoria eraikitzeke orduan duten partaidetza sustatzeko eta azken hamarkadetan gertatutakoari buruzko hausnarketa kritikoa sortzeko. Ekimen honetan zehaztu dira Institutuak lan hori eraginkortasunez egin dadin garatuko dituen tresnak. Hala, hiru jarduerara ildo hauek ezarriko dira:

- Gogora Institutuaren dokumentazio-zentroa eta liburutegia sortu eta finkatzea.
- Erakusketa-proiektua norabide bikoitzean diseinatu eta garatzea. Alde batetik, Memoriaren Plaza ekimen ibiltariarekin jarraituko da, gutxienez 2017 eta 2018an. Bestetik, Gogora Institutuaren erakusketa-espazio iraunkor bat ezartzeko aukera aztertuko da.
- Urtero gai zehatz bat garatuko da, urteko jardunaldietan edo/eta aldi baterako erakusketa tematikoetan azalduko dena.

2. Helburuak

- Gure herriaren memoriarekin lotutako edukiei buruzko erreferentziazko dokumentazio-zentroa eta liburutegia jartzea jendearen esku.
- Erakusketa-espazio interaktiboak sortzea, Gogora Institutuak jasotzen dituen ikerketak eta ikus-entzunezko edukiak erakusteko, eta, era berean, memoria ezberdinen berri izateak sortzen dituen hausnarketak partekatzeko aukera eskaintzeko.
- Hausnarketa zehatzak sortzea urte bakoitzean gai jakin bati buruz; horretarako, gaia jardunaldietan, tailerretan, aldi baterako erakusketetan eta argitalpenetan sakonduko da.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Dokumentazio-zentroa eta liburutegia irekitzea erabaki estrategiko eta esanguratsua da. Izan ere, gizartearen eskura dagoen institutu irekia izatea da Gogoraren bereizgarri nagusia. Dokumentazio-zentroak orain arte erakunde eta elkarteek garatu dituzten ikerketa, argitalpen, ikus-entzunezko edo datu-baseak biltzea izango du helburu. Liburutegia memoriaren gaineko argitalpen eta dokumentalen zentro espezializatua izango da.
- Erakusketa-proiektu iraunkorrari dagokionez, lantalde bat sortuko da, eta, bertan hainbat adituk parte hartuko dute. Hala, Gogora Institutuko Zuzendaritza Kontseiluan 2018an aurkeztuko den proiektua garatuko dute. Bitartean, Gogora Institutuaren erakusketa-jarduerak (Memoriaren Plaza) ikusle guztientzat diseinatu dira, baina kontuan hartuko da bisitarieta-

ko asko Bigarren Hezkuntzako eta batxilergoko ikasleak izango direla. Hori dela eta, erakusketa guztietan tailerrak edo elkarrizketa-taldeak garatzeko espazioak egongo dira.

- Urte bakoitzeko azken hiruhilekoan, Gogora Institutuaren Zuzendaritzak hurrengo urtean garatu beharreko gai zehatza aurkeztuko dio bere Zuzendaritza Kontseiluari. Horrekin batera, zein argitalpen edo bilduma aurreikusten dituen ere aurkeztuko du.

- Zabalkunde-proiektuen gakoetako bat herritarren partaidetza da. Horrenbestez, ahalik eta partaidetzarik altuena lortzeko irizpideari eutsiko zaio, eta, horretarako, sinergiak sortuko dira gainerako erakundeekin, elkarteekin eta hezkuntza-erkideagoarekin.

4. Jarduera-programa

Ekintzak	Egutegia	Ebaluazio-irizpidea
1. ekintza. Gogora Institutuaren dokumentazio-zentroa eta liburutegia abian jartzea.	·2018ko lehen seihilekoa	Zentroa irekitzeko epeak betetzea.
2. ekintza. Memoriaren Plaza ekimenaren programa ibiltaria zehaztea.	·2017ko lehen seihilekoa	Planifikazioa ezarritako epean aurkeztea.
3. ekintza. Memoriaren Plaza ekimena garatzea.	·2017. eta 2018. urteak	Jarduerak ezarritako epean garatzea.
4. ekintza. Gogora Institutuaren erakusketa-proiektuari buruzko lantaldea antolatzea.	·2017ko bigarren seihilekoa	Lantaldea martxan jartzea.
5. ekintza. Lantaldeak Gogora Institutuaren erakusketa-proiektuari buruz ateratzen dituen ondorioak eta proposamenak aurkeztea.	·2018. urte osoa	Ondorioak ezarritako epean aurkezteko konpromisoa betetzea.
6. ekintza. Hala badagokio, Gogora Institutuaren erakusketa-proiektua eskatzea.	·2019ko lehen seihilekoa.	Konpromisoa ezarritako epean betetzea.
7. ekintza. Urteko ardatz tematikoa aurkeztea, hurrengo urteko argitalpen-planarekin eta beste dibulgazio-jarduerak batzuekin batera.	·Urte bakoitzeko laugarren hiruhilekoa	Urteko konpromisoa ezarritako epean betetzea, eta hura kudeatzea.

5. Legealdiaren amaieran azken ebaluazioa egiteko irizpidea

Ebaluazio-irizpide nagusia legealdiaren amaieran Gogora Institutuaren dokumentazio-zentroak eta liburutegiak lortu dituzten ezagutza-maila eta erreferentzialtasun-maila izango dira, baita horien erakusketa- eta dibulgazio-jarduerak ere. Hori guztia kuantitatiboki nahiz kualitatiboki aztertu beharko da.

II. ardatza. Memoria Historikoari buruzko proiektuak

KUDEAKETA

4. ekimenaren fitxa

Memoria Historikoaren eremuan EAEko erakundeekin lankidetzan aritzea

1. Ekimenaren deskribapena

Ekimen honen helburua udal- eta foru-erakundeekin Memoria Historikoari buruzko koordinazioa eta lankidetzan sustatzea da. Hiru jarduera ildo zehatz dira horren lekuko:

- Foru-aldundiekin koordinazioan aritzea, Memoria Historikoa berreskuratzeari buruzko politikak bateratu eta erakunde bakoitzak helburu horretara bideratutako baliabidea publikoak hobetzeko.
- Aurreko legealdietan sinbologia frankista erretiratzeko udalekin egindako lanarekin jarraitzea.
- Udalerri-mailan proiektu zehatzak sustatzea, Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioa kasu, eta udalekin koordinazioan aritzea, gorpuk hobietatik ateratzeko nahiz sartzeko eragiketak kudeatzeko orduan.

2. Helburuak

- EAEko erakunde publikoek Memoria Historikoari buruz ematen dituzten diru-laguntzen programen politikak eta helburuak koordinatzea.
- EAEko kale eta hirietatik sinbologia frankista guztia erretiratzeko, EAEko udalekin lankidetzan.
- Duintasunaren espazio bat prestatzea, Gerra Zibilean identifikatu gabeko biktimen gorpuzkiak jasoko dituen, bertan beren memoria ohoratu ahal izateko.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Azken urteetan, foru-aldundiek Memoria Historikoa berreskuratzeko politikak garatu dituzte, bai zuzenean, bai memoria-elkarteekin sinatutako adostasunen edo diru-laguntzen bidez. Gogora Institutua sortzean, eta kontuan hartuta hiru foru-erakundeek parte hartzen dutela Institutuaren Zuzendaritza Kontseiluan, baldintza egokiak ezarri dira proiektuak koordinatzeko eta erakunde guztien diru-laguntzen deialdietako helburuak bateratu ahal izateko.
- EAEko udalekin Memoria Historikoari buruzko lankidetzan batez ere sinbologia frankista erretiratzeko proiektua garatuko da. Gogora Institutuak lan-plan bat adostuko du oraindik halako sinboloak dauzkaten herrietako udalekin. Helburua legealdian zehar sinbolo guztiak erretiratzeko da.
- Duintasunaren kolunbarioa 2017ko urtarrilaren 30ean inauguratu zen. Ondoren, kolunbarioa kudeatzeko jardura protokolo bat ezarriko da, eta, horretarako, bertan gordeko diren Gerra Zibileko biktimen gorpuzkiak atera dituzten tokietako udalekin koordinazioan aritu

beharko da. Horrez gain, akordio bat egingo da Elgoibarko Udalarekin, kolunbarioaren mantentze-lanetarako.

4. Jarduera-programa

Ekintzak	Egutegia	Ebaluazio-irizpidea
1. ekintza. Foru-aldundiekin lankidetzan aritzeko proposamena prestatzea, eta horiekiko koordinazioa ezartzea.	·2017	Ezarritako epean foru-aldundiekin lortuko den koordinazio-maila.
2. ekintza. Sinbologia frankista erretiratzeko jarduera plana prestatzea, udalekin lankidetzan.	·2017	Legealdiaren amaierara arte erretiratutako sinbolo-kopurua.
3. ekintza. Elgoibarko Udalarekin Kolunbarioa mantentzeko adostasuna lortzea.	·2017	Adostutakoaren gainean legealdiaren amaieran izandako betearazpen-maila.
4. ekintza. Gorpuk lurperatzeko protokoloa onartzea, Aranzadi Zientzia Elkartearekin eta inplikaturako udalekin lankidetzan.	·2017	Ezarritako epean udalekin lortutako adostasun-maila.
6. ekintza. Identifikatu gabeko gorpuzkiak lurperatzea, hobietatik ateratzen diren heinean, ezarritako protokoloaren arabera.	·Legealdi osoa	Legealdi amaieran identifikatu gabeko gorpuzkien lurperatze-kopurua.

5. Legealdiaren amaieran azken ebaluazioa egiteko irizpidea

Ebaluazio-irizpide nagusia foru- eta udal-erakundeekin lortutako adostasunen balorazio kuantitatiboa izango da, bai eta Memoria Historikoaren politika publikoekin lotuta izan duten irismen kualitatiboa ere.

II. ardatza. Memoria Historikoari buruzko proiektuak

IKERKETA

5. ekimenaren fitxa

Memoria Historikoaren egiari ekarpena egitea

1. Ekimenaren deskribapena

Ekimen honen helburu nagusia Memoria Historikoaren egia berreskuratzeko prozesua burutuzat jotzen laguntzea da. Ekimen hau garatzeko, erakunde, elkarte eta akademikoen koordinazioa izango da oinarri nagusia. Horretarako, lehentasunezko lau jarduera ildo garatuko dira:

- Gerra Zibilean desagertutako pertsonak bilatu eta identifikatzeko EAeko Plana garatzen jarraitzea, hobien kokapena ikertzeko eta lokalizatzeko.
- DNA banku bat sortzeko proiektua sustatzea.
- Giza eskubideen urraketari buruzko txostenaren bigarren fasea garatzea (1936-78).
- Memoria Historikoaren ikerketak eta azterketak sustatzea udalerrri- eta eskualde-mailan.

2. Helburuak

- Ahal den neurrian, Gerra Zibilean desagertutako pertsonen gorpuzkiak berreskuratu eta identifikatzea.
- Gerra zibilaren eta frankismoaren gertaera historikoak ikertu eta argitzea, giza eskubideen urraketekin lotuta.
- Memoria Historikoa udalerrri- eta eskualde-mailan berreskura dadin laguntzea, udalen eta gizarte-erakundeen partaidetzarekin.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Giza eskubideen nazioarteko erakundeek behin eta berriz azpimarratu dute lehentasun handiena desagertutako pertsonen drama argitzea izan behar dela. Zuzentarau horren inguruan, hobien kokapena ikertzeko eta lokalizatzeko EAeko planarekin jarraituko da, Aranzadi Zientzia Elkartearekin sinatutako hitzarmenaren bidez, eta DNA banku bat jarriko da martxan.
- Giza eskubideen urraketari buruzko txostenari (1936-1978) dagokionez, 2016. urtean zehar lehenengo oinarritzko agiri bat egin da, Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren, Gogora Institutuaren, UPV/EHUren eta Aranzadi Zientzia Elkartearen artean sinatutako hitzarmenaren bidez. Lehenengo txosten horrekin jarraitu beharko da guztienez hurrengo bi urteetan, helburuak burutu ahal izateko. Hala, 2019an txostena guztiz amaituta egotea espero da.
- Tokiko ikerketak sustatzearekin lotuta, azpimarratzekoa da azken urteetan halako azterketak egin direla, eta emaitza onak eta gizarte-harrera ona izan dutela. Jarduera ildo hori sus-

tatuko da Memoria Historikoaren proiektuak diruz laguntzeko deialdiaren bidez, eta, bertan, udalerrri eta eskualdeetan ikerketak egiteko proiektuek izango dute lehentasuna.

4. Jarduera-programa

Ekintzak	Egutegia	Ebaluazio-irizpidea
1. ekintza. Hobien kokapena ikertu eta lokalizatzeko EAEko plana garatzen jarraitzea.	·Legealdi osoa	·Planaren balantzea egitea legealdiaren amaieran.
2. ekintza. DNA banku bat sortzeko proiektua zehaztu, aurkeztu eta martxan jartzea.	·2017	Proiektua ezarritako epean martxan jartzea, eta bere jardueraren balantzea egitea.
3. ekintza. Giza eskubideen urraketei buruzko oinarritzko txostena (1936-1978) osatzea.	·2017, 2018 eta 2019. urteak	Ikerketak ezarritako epean garatzea.
4. ekintza. Memoria Historikoari buruzko diru-laguntzak deitzea.	·2017ko lehen sei hilekoa eta hurrengo urteak	Diru-laguntzen urteko deialdia egitea eta sustatutako proiektu-kopurua zehaztea.
5. ekintza. Udalerrri-mailan ikerketak garatzen laguntzea.	·Legealdi osoa	Garatutako tokiko ikerketa-kopurua.

5. Legealdiaren amaieran azken ebaluazioa egiteko irizpidea

Hauek izango dira ebaluazio-irizpide nagusiak: batetik, zer balantze egiten den hobien kokapena ikertu eta lokalizatzeko EAEko planaren kudeaketari buruz eta DNA bankuari buruz, eta, bestetik, giza eskubideen urraketei buruzko txostenak (1936-1978) zer irismen duen aldi historiko horren egia argitzeko orduan.

II. ardatza. Memoria Historikoari buruzko proiektuak

DIBULGAZIOA

6. ekimenaren fitxa

Memoria Historikoaren egiaren aitortpena eta frankismo-garaiko biktimen aintzatespena hedatzea

1. Ekimenaren deskribapena

Ekimen honetan sartzen dira Memoria Historikoaren egiaren aitortpen instituzionalerako eta Gerra Zibileko eta frankismoko biktimen aintzatespen moralerako prozesuak antolatu eta dibulgatzeko garatuko diren ekintzak. Garatuko diren ekintza nagusiak honako hauek izango dira:

- Memoria Historikoaren espazioak, tokiak eta ibilbideak kudeatzea, aurreko legealdian Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eskatuta egindako eta argitaratutako lanak oinarri hartuta –Memoriaren ibilbideak (I eta II)–.
- Memoria Historikoaren egia instituzionalki aitortzeko ekitaldi bat antolatu eta ospatzea, ahalik eta adostasunik handiena jasoko duen aitortpen baten inguruan.
- Biktimen familien aitortpen instituzional pertsonalizatua egiteko bideragarritasuna aztertzea, eta aitortpen-ekitaldi bat antolatzea.

2. Helburuak

- Gerra zibilaren eta frankismoaren biktimen memoriaren espazio eta toki nagusiak identifikatzea, eta horien balio pedagogikoak eta memoria-balioak hedatzea.
- Memoria Historikoaren egia instituzionalki aitortzeko prozesua burutzat ematen laguntzea.
- Gerra zibilaren eta frankismoaren biktimen aintzatespen moralerako prozesu instituzionala burututzat jotzen laguntzea.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Espazioak identifikatu eta kudeatzeko orduan, dagoeneko tokiko ekimen asko garatu dira. Ondorioz, zeregin hau jorratzean orain arte egindakoa kontuan hartu beharko da, eta udalekin eta gizarte-erakundeekin koordinatuta lan egin.
- Memoriaren kokalekurik esanguratsuenak Gogora Institutuaren webgunean geolokalizatuta agertuko dira. Identifikatutako espazio edo toki bakoitzak fitxa bat edukiko du, argazkiak eta ikus-entzunezkoak ikusi ahal izateko. Halaber, espazio esanguratsuenak in situ ere identifikatuko dira, eta ibilbideen proiektu bat garatuko da, udalekin koordinatuta.
- Memoria Historikoaren egia instituzionalki aitortzeko ekitaldia antolatu eta ospatzeko, erakundeen, alderdi politikoen eta gizarte zibilaren artean adostasun ahalik eta zabalena lortzea izango da egiteke dagoen zeregin honetan irizpide gidaria.

·Giza eskubideen urraketei buruzko oinarritzko txostena (1936-78) egitea (5. fitxa) aurretiazko erreferentzia bihurtuko da frankismoaren biktimak aitortzeko prozesua burututzat emateko. Oinarri horren gainean, azterketa bat egingo da, biktima bakoitzaren familiari aitorten pertsonalizatua eskaintzearen bideragarritasuna ebaluatze aldera.

·Era berean, legealdiaren azken urtean frankismoaren biktima guztien aitorten instituzional eta bateratua egingo da. Helburua da aitorten horretan EAEko erakunde, sentsibiltate politiko eta gizarte-erakunde guztiek bat egitea.

·Horrez gain, Jarduera Plan honen esparruan beste dibulgazio-ekintza batzuk garatuko dira, besteak beste giza eskubideen urraketei buruzko oinarritzko txostena (1936-78) hedatuko da edo oroitzapen-ekitaldiak egingo dira. Izan ere, Gerra Zibilean biztanleria zibilaren gainean egindako bonbardaketa gehien urteurrena izango da 2017a.

4. Jarduera-programa

Ekintzak	Egutegia	Ebaluazio-irizpidea
1. ekintza. Gerra zibileko espazioak geolokalizatzeko proiektua garatzea.	·2017	Planaren helburuak ezarritako epean garatzea.
2. ekintza. Webgunea aurkeztea, geolokalizazioak eta informazio-fitxak barne.	·2017	Aurkezpena ezarritako epean garatzea.
3. ekintza. Biztanleria zibilaren gaineko bonbardaketen 80. urteurrenari buruzko ekitaldiak prestatu eta garatzea.	·2017	Jardunaldiak ezarritako epean garatzea.
4. ekintza. Memoriaren espazioei buruzko ibilbide esanguratsuak prestatzea.	·2017ko laugarren hiruhilekoa eta 2018ko lehenengoa	Ibilbideak ezarritako epean garatzea.
5. ekintza. Giza eskubideen urraketei buruzko oinarritzko txostena (1936-1978) hedatzen laguntzea.	·2019. urte osoa	Txosteneko emaitzen hedapenaren eragin kuantitatiboa eta kualitatiboa.
6. ekintza. Memoria Historikoaren egia aitortzeko eta frankismoaren biktimak aintzatesteko ekintzak prestatzea.	·2019. urte osoa	Ekintzak prestatzeko helburua betetzea.
7. ekintza. Biktima bakoitzaren familiari aitorten pertsonalizatua eskaintzeko bideragarritasunari buruzko azterketa egitea.	·2019. urte osoa	Azterketa egitearen helburua betetzea.
8. ekintza. Memoria Historikoaren egia instituzionalki aitortzeko ekitaldia egitea.	·2020ko lehen sei hilekoa	Ekitaldiaren eragina eta berau ospatzean lortutako adostasunaren aniztasuna aztertzea.
9. ekintza. Gerra zibilaren eta frankismoaren biktimen aitorten bateratuko ekitaldia egitea.	·2020ko lehen sei hilekoa	Ekitaldiaren eragina eta berau ospatzean lortutako adostasunaren aniztasuna.

5. Legealdiaren amaieran azken ebaluazioa egiteko irizpidea

Ebaluazio-irizpide nagusia eremu horretan garatutako balorazio kuantitatibo eta kualitatiboa izango da. Bereziki erreparatuko zaio Memoria Historikoaren egia aitortzeko eta frankismoaren biktimen aintzatespen morala egiteko kudeaketan lortutako aniztasunari.

III. ardatza. Oraintsuko Memoriari buruzko proiektuak

KUDEAKETA

7. ekimenaren fitxa

Oraintsuko Memoriaren eremuan EAEko erakundeekin lankidetzan aritzea

1. Ekimenaren deskribapena

Ekimen honen ardatza da foru-aldundien, EUDELen, udalen, beste erakunde batzuen eta Eusko Jaurlaritzaren artean Oraintsuko Memoriari buruzko politika publikoen gaineko lankidetzan sustatzea. Lankidetzan ardatz hori hiru jarduera ildotan islatuko da:

- Erakundeetan eta gizartean bultzada eta oihartzuna ematea urtero azaroaren 10ean egiten den Memoriaren Egunari.
- Oraintsuko Memoria lantzen duten beste udal-jarduera batzuk babestu eta sustatzea, elkarre-sareko beste erakundeekin lankidetzan.
- Oraintsuko Memoriari buruzko proiektu zehatzak garatzea, eremu judizial, akademiko, kultural edo ekonomikoko beste erakunde edo instituzio batzuekin lankidetzan.

2. Helburuak

- Memoriaren Egunaren ospakizuna ahalik eta udal eta erakunde gehienetara hedatzea, herritarrek ospakizuna garatzen parte hartzen dutela sustatuz.
- Udalen eta elkarre-sareko erakundearen artean elkarrekintza sustatzea, Oraintsuko Memoriari buruzko hausnarketa kritikoa indartzeko.
- Sektore-mailako ekarpenak eta ekimenak sustatzea Oraintsuko Memoriari buruzko hausnarketa-prozesua eraikitzeko orduan.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Memoriaren Egunaren oroimen-ekitaldiari dagokionez, bi dira Jarduera Plan honen aldiari jorratu behar diren erronkak: lehenik eta behin, oroimen-ekitaldia hau ahalik eta udalerrira gehienetara hedatzea, EUDELekin eta Eusko Legebiltzararekin lankidetzan; eta, bigarrenik, ekitaldi honen proiektzio instituzionalak gizartearen eta herritarren partaidetza izan dezan eta udalerrira bakoitzeko gizarte-erakundeekin laguntza izan dezan lortzea.
- Oraintsuko Memoriari buruzko beste udal-jarduera batzuk sustatzearekin lotuta, Memoriaren Plaza kanpaina ibiltariak (3. fitxa) eskaintzen duen aukeraz gain, Gogora Institutuak babesa emango die udalei, eta jarduerak garatzeko aholkularitza eta baliabide dokumentalak eskainiko dizkie. Udal-jarduerak sustatzeko orduan, honako hiru gomendio nagusi emango dira:

- udalerrian ahalik eta adostasun handiena lortzeko irizpidearekin jardutea;
 - biktimen familiekin harreman zuzen eta pertsonalizatua edukitzea, haien iritzia edo partaidetza eduki ahal izateko garatzen diren jardueretan;
 - giza eskubideen urraketei eta indarkeriaren iraganari buruzko hausnarketa kritikoak eta elkarrizketa pluralak partekatu ahal izateko jarduerak antolatzen saiatzea.
- Antzeko jarraibideez baliatuz, Gogora Institutuak Oraintsuko Memoriaren arloan gizarteko edozein eremutako erakundeek sustatzen dituzten jarduerak bultzatu edo babestuko ditu, batez ere erakunde horiek Oraintsuko Memoriaren aldian zeregin nabarmena izan zuten sektore-eremuen parte baldin badira.

4. Jarduera-programa

Ekintzak	Egutegia	Ebaluazio-irizpidea
1. ekintza. Eusko Legebiltzarrarekin, aldundiekin, EUDELekin eta udalekin harremanetan egotea, urtero Memoriaren Eguna ospatzeko.	·Legealdi osoa	Memoriaren Egunaren oroimen-ekitaldiaren balantzeari buruzko urteko txostenaren edukia jorratzea, urte bakoitzeko lehenengo hiruhilekoan aurkezteko.
2. ekintza. Babesa eskaintzea Oraintsuko Memoria lantzen duten beste udal-jarduera batzuei.	·Legealdi osoa	Urtero garatutako jardueren balantzea.
3. ekintza. Oraintsuko Memoriari buruzko sektore-ekimenak sustatu eta babestea.	·Legealdi osoa	Urtero garatutako jardueren balantzea.

5. Legealdiaren amaieran azken ebaluazioa egiteko irizpidea

Ebaluazio-irizpide nagusia udalekin eta beste erakunde batzuekin memoria-jarduerak, eta, bereziki, Memoriaren Eguna garatzen izandako lankidetzari buruz egindako balantze kuantitativo eta kualitatiboa izango da.

III. ardatza. Oraintsuko Memoriari buruzko proiektuak

IKERKETA

8. ekimenaren fitxa

Ikus-entzunezko funts publiko bat sortzea Memoriari buruz

1. Ekimenaren deskribapena

Ekimen honen barruan, lekukotasun, bideo eta dokumentalen funts handi bat sortu nahi da, Gogora Institutua gure historiaren memoria lantzen duten ikus-entzunezko agirien erreferentziatzeko zentro bihurtzeko. Horretarako, ekintza hauek gauzatuko dira:

- Biktimen lekukotasunak grabatzeko Gertu Programa zabaltzea.
- Gizarte-lekukotasunak eta herritarren lekukotasunak grabatzea.
- Memoriaren aldia lantzen duten ikus-entzunezko lanak egiteko diru-laguntzak deitzea.

2. Helburuak

- Azken hamarkadetan gertutakoari buruz gure herriaren memoria plurala jasoko duen erreferentziatzeko ikus-entzunezko funts dokumentala sortzea.
- Gertu programa EAetik kanpo bizi diren biktimen eta biktima-mota ezberdinen lekukotasunak grabatzeko zabaltzea.
- Azken hamarkadetako historiaren gizarte-memoria jasotzea, azken hamarkadetan protagonismo berezia izan duten kolektiboen lekukotasunen bidez.
- Gure Oraintsuko Memoriari buruzko dokumentalak egiten direla sustatu, koordinatu eta antolatzea.

3.Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Gertu Programarekin lotuta, aurreko legegaldian Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak lehen fasea garatu zuen: eraildako biktimen senideen lekukotasunak grabatzea, hain zuzen ere. 2016an zehar, Gogora Institutuak bigarren fasea garatu du, eta, horretarako, EAEn bizi diren zauritutako eta mehatxatutako pertsonen lekukotasunak grabatu ditu. Hala, Oraintsuko Memoriako biktimen berrehun lekukotasun jasotzen dituen funtsa sortu da. 2017tik aurrera, Gogora Institutuak programa hau garatu eta beste biktima-mota batzuen lekukotasunak grabatzeko asmoa du. Lehenengo fasean, bahiketak jasan zituzten biktimak eta EAetik kanpo bizi diren terrorismoaren biktimen senideak izango dira jomuga. Era berean, 107/2012 Dekretuan eta 12/2016 Legean aitortutako legez kanpoko errepresioaren biktimen grabaketak egiten jarraituko da. Gertu programa legealdi osoan zehar garatuko da, urteko plangintzaren bidez.

·Memoriaren Plaza ekimenaren esparruan, beren memoria grabatzen parte hartu nahi izan duten pertsona guztien lekukotasunak jaso dira. Aukera hori zabalik egongo da legealdi osoan zehar. Gainera, gizarteak gure memoria plurala eraikitzeko orduan duen partaidetza indartzeko, EAEko memoria soziala izeneko proiektua jarriko da martxan. Proiektu horretan azken hamarkadetan protagonismo berezia izan duten gizarte-kolektiboen grabazioak jasoko dira: bakearen eta giza eskubideen aldeko gizarte-mugimenduak, udal-kargu hautetsiak, enpresa-mundua, sindikatuak... Proiektua legealdi osoan zehar garatuko da, urteko plangintzaren bidez.

·Ikus-entzunezko funts bat sortzeko ildo beretik, eta Gogora Institutuak dokumentalak egiteko jasotzen dituen proposamen ugariak antolatzeke asmoz, EAEko Memoriari buruzko dokumentalak egiteko urteko diru-laguntzen deialdia abiaraziko da. Dokumentalak egiteko diru-laguntzen deialdiak lehenetsua emango die orain arte jorratu ez diren edo tratamendu publiko edo mediatiko txikiagoa izan duten gaiei.

4. Jarduera-programa

Ekintzak	Egutegia	Ebaluazio-irizpidea
1. ekintza. Grabaketan Gertu programaren urteko plangintza prestatzea.	· Urte bakoitzeko lehenengo seihilekoa	Plangintza prestatzea, eta bere aurreikuspena betetzea.
2. ekintza. EAEko Memoria Sozialaren grabazioen urteko plana prestatzea.	· 2018ko lehen seihilekoa	Plangintza prestatzea, eta bere aurreikuspena betetzea.
3. ekintza. Dokumentalak egiteko diru-laguntzak emateko deialdia prestatzea.	· Urte bakoitzeko lehenengo seihilekoa	Deialdia ezarritako epean argitaratzea.
4. ekintza. Dokumentalak egiteko diru-laguntzak emateko deialdia ebaztea.	· 2017ko eta hurrengo ekitaldietako bigarren seihilekoa	Diruz lagundutako ikus-entzunezko proiektuak egitea.

5. Legealdiaren amaieran azken ebaluazioa egiteko irizpidea

Ebaluazio-irizpide nagusia Gogora Institutuaren ikus-entzunezko funtsak lortu ahal izan duen erreferentzia-balioa izango da, eta, horretarako, biktimen, herritarren eta gizartearen eskutik jasotako lekukotasunen nahiz jasotako dokumentalen dimentsio kuantitatiboa eta aniztasuna baloratuko dira.

III. ardatza. Oraintsuko Memoriari buruzko proiektuak

DIBULGAZIOA

9. ekimenaren fitxa

Memoriak hezkuntza-arloan egiten dituen ekarpenak lantzea

1. Ekimenaren deskribapena

Ekimen honen helburua Memoriari buruzko hausnarketa kritikoaren gaitasun pedagogikoa jarduera zehatzetan islatzea da. Hau da, azken batean hezkuntza-tresnak eskainiko dira, giza eskubideen eta indarkeriarik ezaren konpromisoa indartzeko, gure herriko memoria demokratikoaren balioak helaraziz. Helburu hori betetzeko, hiru lan-ildo garatuko dira:

- Memoriaren dimentsio historikoa EAEko hezkuntza-curriculumean sartzeko proposamena prestatzea.
- Memoriaren dimentsio etikoa eskoletan eta unibertsitateetan sartzeko proposamena prestatzea, Gogora Institutuaren ikus-entzunezko funtsak eskaintzen dituen baliabideak erabiltzeko gida didaktikoaren bidez.
- Hezkuntzako eta unibertsitateetako agenteek Memoriaren Egunean parte hartzeko proposamena aurkeztea.

2. Helburuak

- Hezkuntza-tresnak eskaintzea memoriaren gaitasun didaktikoa sustatzeko, bere dimentsio historikoaren ikuspegitik.
- Hezkuntza-tresnak eskaintzea memoriaren gaitasun didaktikoa sustatzeko, bere dimentsio etikoaren ikuspegitik.
- Memoriaren gaitasun sozio-hezitzailea sustatzea, hezkuntzako eta unibertsitateetako agenteek Memoriaren Egunean parte hartzeko proposamen baten bidez.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Memoriaren dimentsio historikoa hezkuntzan sartzeko proposamena prestatze aldera, memoriari eta historia irakasgaiari buruzko jardunaldi espezializatu batzuk antolatuko dira, eta lantalde bat sortuko da. Lantalde horrek arduratu beharko du eduki horiek DBHko 4. mailako eta Batxilergoko historia garaikidearen curriculumean sartzeko proposamena aurkezteaz. Hezkuntza Sailaren lankidetzak edukiko dute, proposamena prestatu eta sareetan eta ikastetxeetan aurkezteko.
- Memoriaren dimentsio etikoa eskola eta unibertsitateetan sartzeko proposamenarekin lotuta, kontuan hartuko dira, batetik, biktimen lekukotasunen Adi-adian esperientziak eragin duena eta, bestetik, unibertsitateek egindako Ahotsak proposamena. Bi horiek Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak sustatuko proiektuak dira. Esperientzia horietan oi-

narrituta, plataforma birtual bat garatuko da, eta Gogora Institutuaren webgunean egongo da eskuragarri. Ikastetxeen, unibertsitateen eta erakunde publikoen esku egongo da. Plataforman Gogora Institutuaren ikus-entzunezko funtsak ikusi ahalko dira, bai eta eduki horiek hezkuntzaren eta pedagogiaren ikuspegitik erabiltzeko orduan orientagarri izango den gida didaktiko bat ere.

• Hezkuntzako eta unibertsitateetako agenteek Memoriaren Egunean parte hartzeko proposamenarekin lotuta, proposamenaren edukiak izaera partaidea eta hezitzailea duten jarduerak jorratuko ditu. Gogora Institutuak proposamen bat egingo du, eta Gizalegez Akordioa sinatu duten erakundeek jakinaraziko die.

• Ekimen honen barruan aurreikusi diren jarduera guztiak, noski, bat etorriko dira Hezkuntza Sailarekin, Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin eta EAEko Eskola Kontseiluarekin, eta, era berean, hezkuntza-agenteekin eta Gizalegez Akordioa sinatu dutenekin koordinatuta gauzatuko dira. Gainera, jarduera horiek bateragarriak izan beharko dute Memoriaren Plaza erakusketa ibiltariaren harira garatuko diren tailerrekin (3. fitxa) eta Gogora Institutuak garatuko dituen beste erakusketa-proposamen batzuekin.

4. Jarduera-programa

Ekintzak	Egutegia	Ebaluazio-irizpidea
1. ekintza. Memoriaren dimentsio historikoa hezkuntzan sartzeko jardunaldi espezializatuak egitea.	·2017ko bigarren seihilekoa	Jardunaldiak ezarritako epean garatzea.
2. ekintza. <i>Memoriaren dimentsio historikoa hezkuntzan sartzeko lantaldea sortzea.</i>	·2017ko bigarren seihilekoa	Lantaldea ezarritako epean martxan jartzea.
3. ekintza. Proposamen bat aurkeztea, hezkuntzan memoriaren dimentsio historikoa sartzeko.	·2018. urte osoa	Proposamena ezarritako epean aurkeztea.
4. ekintza. Memoriaren dimentsio etikoa eskoletan eta unibertsitateetan sartzeari buruzko gida didaktikoa prestatzea.	·2018ko lehen seihilekoa	Gida ezarritako epean aurkeztea.
5. ekintza. Gogora Institutuko edukien plataforma birtuala prestatzea, gida didaktikoarekin lotuta.	·2018ko lehen seihilekoa	Plataforma ezarritako epean prestatzea.
6. ekintza. Eskoletako eta unibertsitateetako agenteek Memoriaren Egunean parte hartzeko proposamena prestatzea.	·2017ko bigarren seihilekoa	Proposamena ezarritako epean aurkeztea.
7. ekintza. Hezkuntza-erkidegoari proposamenak aurkeztea.	·2017-18 ikasturtea	Proposamenak aurkezteko egindako ekintzak.
8. ekintza. Hezkuntza-proposamenak ezartzea.	2018-19 eta 2019-20 ikasturteak	Legealdiaren amaieran Gogora Institutuaren hezkuntza-proposamenen ezarpenari buruzkoa balantzea egitea.

5. Legealdiaren amaieran azken ebaluazioa egiteko irizpidea

Ebaluazio-irizpide nagusia Gogora Institutuaren hezkuntza-proposamenek eskoletan eta unibertsitateetan eta hezkuntza-eremuko agenteen artean jasotako harrera izango da.

IV. ardatza. Proiektu operatiboak

ANTOLAKETA ETA AURREKONTUAK

10. ekimenaren fitxa

Antolaketa: koordinazioa, jarraipena eta aurrekontuak

1. Ekimenaren deskribapena

Plan hau antolatu, koordinatu eta jarraitzea Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko Zuzendaritzaren ardura da. Horretarako, hiru koordinazio-eremu landuko ditu:

- Gogora Institutuko Zuzendaritza Kontseiluak onartuko ditu Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren Jarduera Planak, proiektu nagusiak eta urteko aurrekontuak. Era berean, organo horretan dauden erakundeekin memoriaren politika publikoak koordinatzeaz arduratuko da.
- Gogora Institutuko Zuzendaritzak Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiko taldearen bileretan parte hartuko du.
- Horrez gain, lankidetzarako dinamika iraunkorra ezarriko da Memoria Historikoaren elkarteekin eta memoriaren eta giza eskubideen eremuan lan egiten duten beste elkarte batzuekin.

2. Helburuak

- Gogora Institutuaren 2017-2020 Jarduera Plan honen ahalik eta kudeaketarik onena gauzatzeko bide ematea eta ezarritako helburuak lortzen laguntzea.
- Ahaleginak egitea plan honen kudeaketa ahalik eta gizarte-, politika- eta erakunde-arloko adostasun handienetan oinarritzeko.
- Erakundeen eta gizarte zibilaren artean elkarriketak izateko, entzuteko, kontsultatzeko eta elkarlanean jarduteko dinamikak antolatzea, bizikidetzaren hobetze aldera.
- Ebaluazio-metodologia zorrotza eta erabilgarria bermatzea plan hau hobetzeko, eta, hala badagokio, zuzentzeko, bere aplikazioari buruzko azterketa oinarri hartuta.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

Jarduera Plan hau lan-proposamen ireki, dinamiko eta malgua da, gure errealitatearen konplexutasuna eta adostasun-beharra bideratzeko. Legebiltzarreko taldeek, erakundeek eta gizarte-eragileek egingo dituzten ekarpenak jasotzeko moduan atonduta da, eta Lankidetzaren filosofia horren arabera, hona hemen irizpide espezifikoak:

- Zuzendaritza Kontseilua urtean gutxienez hiru aldiz bilduko da. Planaren jarraipen etengabea egingo du, eta memoriaren politika publikoak koordinatuko ditu, gainerako erakundeekin.
- Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritzarekiko koordinazioa etengabea izango da, eta gutxienez hamabost egunez behin bilduko da.
- Gizarte-agenteei harremana malgua eta etengabea izango da.

4. Jarduera-programa

Ekintzak	Egutegia
1. ekintza. Zuzendaritza Kontseiluaren deialdia egitea, 2017ko aurrekontuak onartzeko.	·2017ko lehen seihilekoa
2. ekintza. Gogora Institutuaren Jarduera Plana Zuzendaritza Kontseiluko kideei aurkeztea.	·2017ko lehen seihilekoa
3. ekintza. Gogora Institutuaren Jarduera Plana Zuzendaritza Kontseiluan onartzea.	·2017ko bigarren seihilekoa
4. ekintza. Jarduera Plana memoriaren eta giza eskubideen eremuan lan egiten duten gizarte-agenteei aurkeztea.	·2018ko lehen seihilekoa

IV. ardatza. Proiektu operatiboak

ANTOLAKETA ETA AURREKONTUAK

11. ekimenaren fitxa

Aurrekontu-aurreikuspena

Ekimena	2017	2018	2019	2020
1. ekimena Memoria-erakundeekin modu sinergikoan eta osagarrian jardutea	20.000	30.000	30.000	30.000
2. ekimena Ikerketa-tresnak sortzea	70.000	90.000	90.000	90.000
3. ekimena Gogora Institutuaren dibulgazio-lanerako baliabideak sortzea	650.000	650.000	650.000	650.000
4. ekimena Memoria Historikoaren eremuan EAEko erakundeekin lankidetzan aritzea	132.000	30.000	30.000	30.000
5. ekimena Memoria Historikoaren egari ekarpena egitea	248.750	280.000	280.000	280.000
6. ekimena Frankismo-garaiko egia aitortzea eta biktimei ordaina ematea	120.000	70.000	70.000	70.000
7. ekimena Oraintsuko Memoriaren eremuan EAEko erakundeekin lankidetzan aritzea	20.000	30.000	30.000	30.000
8. ekimena Ikus-entzunezko funts publiko bat sortzea Memoriari buruz	100.000	100.000	100.000	100.000
9. ekimena Memoriak hezkuntza-arloan egiten dituen ekarpenak lantzea	20.000	30.000	30.000	30.000
GUZTIRA	1.380.750	1.310.000	1.310.000	1.310.000



2

● dokumentua

Unibertsitateko gazteek Euskadin
bizi izan den terrorismoari eta giza
eskubideen urraketei buruz dakitena
eta duten diskurtsoa

Unibertsitateko gazteek Euskadin bizi izan den terrorismoari eta giza eskubideen urraketei buruz dakitena eta duten diskurtsoa

Pedro Arrupe
Giza Eskubideen Institutua

 **Deusto**
Instituto de Derechos Humanos
Pedro Arrupe
Giza Eskubideen Institutua

2017ko uztailaren 7a

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren
enkarguz egina

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Giza Eskubide, Bizikidetzeta
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General de Derechos Humanos,
Convivencia y Cooperación

Aurkibidea

1. Sarrera eta proiektuaren aurretiko testuingurua.
 2. Proiektua deskribatzeko datuak.
 3. Emaitzak.
 - 3.1. Identifikatzeko datu orokorrak.
 - 3.2. Interes eta parte hartze maila.
 - 3.3. Dakitenari buruzko autopertzepzioa eta informazio iturriak.
 - 3.4. Jakite maila.
 - 3.5. Balorazio etikoa.
 - 3.6. Biktimak, memoriaren inguruko politikak eta tortura.
 - 3.7. Konpromiso maila.
 - 3.8. Unibertsitate eremua.
 - 3.9. Etorkizunari begira.
 - 3.10. Ideologia eta identitate kokapena.
 4. Ondorioak eta gomendioak.
 - 4.1. Ondorio garrantzitsuenak.
 - 4.2. Gomendioak.
- I. Eranskina:** Landa lanean erabilitako galde sorta.
- II. Eranskina:** Datu nagusiak.

1. Sarrera eta proiektuaren aurretiko testuingurua

1.1. Sarrera

Dokumentu hau Pedro Arrupe Institutuak gure iragan hurbilean (1960tik 2010era) gertatu ziren urraketen inguruan unibertsitateko ikasleek zer dakiten eta zein diskurtso dituzten aztertzeko egin duen ikerketa proiektu baten azken txostena da. Ikerketa horretako emaitzetatik abiatuta, hobetzeko esparruak identifikatu nahi dira eta adin horretako gazteek arlo horretan inplikazio handiagoa lortzeko irizpideak ondorioztatu. Ikerketa Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eskatu zuen, 2016ko uztailean.

1.2. Testuingurua

Euskadiko politikan eta gizartean ziklo berri bat ireki zen 2011ko urrian, ETAk indarkeriaren erabilera behin betiko utziko zuela iragarri zuenean, baita urte bereko udal eta aldundietako hauteskundeetan alderdi politiko guztiek normaltasunez parte hartzeko aukera izan zutenean ere. Ziklo berri hori gaur egun aukera historikotzat dute alderdi eta sentsibilitate politiko guztiek, desberdintasunak ugariak eta logikoak izanik ere, indarkeriaren erabilera eta giza eskubideen urraketa ezaugarri izan dituzten azken bost hamarkada hauekin bukatzeko eta gizartean adiskidetze prozesu bat sustatzeko.

Egoera horren eraginez, nabarmen handitu da euskal erakunde publikoek bakearekiko eta bizikidetzarekiko dute konpromisoa. Horrela, Eusko Jaurlaritzak gaur Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia eta Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Gogora Institutua dauzka, eta bai Foru Aldundiek eta bai Udalek planak, programak eta ekintzak eramaten dituzte aurrera. Esan liteke Euskadik, gaur egun, bake eta bizikidetzarako politika publiko berri bat duela, bere egitura, araudi eta aurrekontuak dituenena. Eta hori pentsaezina zen orain dela bost urte.

Politika publiko berri honen barruan aurrera eramaten diren ekintza guztien helburu komunitario bat da euskal gizartean giza eskubideekiko konpromiso zalantzarik gabekoa sendotzea. Konpromiso horrek zilegitasuna kentzen dio xede politikoak lortzeko edozein indarkeria mota erabiltzeko aukerari. Gainera, konpromiso horrek gatazka gertaera naturalizat du, gizarte ororen berezkitzat, baina gatazka ezin da aitzakia izan eskubideak urratzeko, gure iragan hurbilean gertatu izan den bezala. Aitzitik, gizarte gatazkak gertatzen direnean hartu behar da gizakion duintasuna, inoiz baino gehiago, balio absolutu eta ezin urratuzkotzat.

Horrelako diskurtso etikoa sendotzeko helburua goresgarria eta beharrezkoa da, zalantzarik gabe, eta are garrantzitsuagoa, gainera, biztanle gazteentzat izan ere, alde batetik, gazteek kudeatu beharko dituzte, etorkizunean, euskal gizartean, nahi ala ez, sortuko diren gizarte gatazkak. Baina, beste aldetik, gazte horiek ez dute zuzenean bizi izan, ez, behintzat, aurreko belaunaldietakoek bezala, gure gizartean bizi izan ditugun urraketa urteak. Arrazoi horiek direla eta, logikoa eta egokia dirudi haiek, euskal gazteak, lehenestea giza eskubideekiko konpromisoa sendotzea helburu duten ekintzak pentsatzen direnean.

Agerikoa da, nolana ere, gazteak ez direla, gaur egun, esparru horretako protagonista nagusiak. Bake, bizikidetzeta eta memoriari lotutako ekintzetan parte hartze eta inplikazio oso txikia azaltzen dute eta gutxiengoa dira, beste adin tarte batzuekin alderatuta. Gai horri lotutako azterlan sakonik ez badago ere, badirudi bi gauza egiaztatzen direla: euskal gazteei zuzendutako ekintzak oso gutxi dira, beste talde batzuei zuzendutakoekin alderatuta; eta herritar orori bideratutako ekintzetan ere askoz ere gutxiago hartzen dute parte gazteek.

Hezkuntza eremua, adierarik zabalenean, eta, zehazki, hezkuntza formala, lehenestuzko ekintza arloa da bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntza sustatzeko. Horrenbestez, logikoa dirudi gaur egun, eta indarkeriaren amaierako ingurune historiko berri honen aurrean, euskal gazteei aukera gehiago ematea hezkuntza formalaren bidez giza duintasunarekiko konpromisoa indartzeko eta diskurtso hori sendotzeko.

Hortxe kokatuko lirateke 13 eta 17 urte arteko euskal gazteak, derrigorrezko hezkuntza aldiaren amaieran daudenak. Eusko Jaurlaritzak aurreko legegintzaldian abian jarri zuen “biktima hezitza-

leak” programak ETAk eragindako urraketen biktimen lekukotzak ikasgeletara eramateko aukera eman zuen. Eta programa hor indartu egin da, *Adi-adian* proposamenari esker. *Adi-adian* programa bide eraginkorra da ikasgeletan giza eskubideak sustatzeko eta indarkeriari zilegitasuna kentzeko, askotariko erakunde terroristek edo Estatuak berak egin izan dituen urraketen biktimen senitartekoen lekukotzak abiapuntu hartuta.

Unibertsitateko ikasleei dagokienez, ordea, gaur egun ez da antzeko eskaintzarik egiten. Ez da unibertsitateko ikasle guztiei eskaintzen zaien programa edo ekintzarik, giza eskubideak sustatzeko eta indarkeriaren erabilerari zilegitasuna kentzeko. *Ahotsak* proiektua, bide horretan, lehenengo esperientzia interesgarria da, baina oraindik ere urrun dago programa egonkor bat izatetik eta unibertsitateko ikasleengan eragin handia izatetik.

Hori guztia ikusita, ondorioztatu dezakegu euskal gizartea indarkeriaren amaierako egoera berri hau egoki baliatzen ari dela giza eskubideekin konpromiso irmo bat sendotzeko, besteak beste, hiru erakunde mailatan aurrera eramaten ari diren politika publiko berri eta indartuez baliatuz. Hala eta guztiz ere, gazteek neurri oso txikian hartzen dute parte prozesu horretan, nahiz eta, teoriarik, lehentasunezko taldeetako bat izan. Gazteei eskaintzen zaizkien edo haien inplikazioa erakarri nahi duten ekintza kopurua oso txikia da, bereziki unibertsitateko gazteei dagokienez. Gure ustez, bake eta bizikidetzako politika publikoko ekintzak unibertsitateko gazteekin lantzeak aukera handiak eskaintzen ditu.

Aukera horietaz baliatzeko, beharrezkoa da, besteak beste, jakitea unibertsitateko gazteek zer pentsatzen duten eta zein iritzi duten bakearen eta bizikidetzaren inguruan eta, bereziki, zein arrazoik laguntzen edo eragozten duten gazteak gai horietan inplikatzeko. Bi galdera horien erantzunak jakiteak euskal erakundeei irizpide berriak ekarriko dizkie eta, horiek oinarri hartuta, aukera izango dute ekintza gehiago eta erakargarriagoak diseinatzeko, gazteentzat, oro har, eta unibertsitatean ikasten ari direnentzat, bereziki.

1.3. Ikerketa proiektua

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eskatu zigun aztertzeko unibertsitateko gazteek zer dakiten eta zein diskurtso duten gure iragan hurbileko (1960-2010) urraketen inguruan. Eskaera horri erantzunez, esku artean dugun ikerketa hau proposatu genuen.

Unibertsitateko elkarte oso zabala denez, gizarte zientzietako eta hezkuntzako graduetakoko ikasleen unibertsitate hartu dugu erreferentziazat ikerketan, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru unibertsitatetan: Euskal Herriko Unibertsitatea EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea.

Hiru unibertsitate horiek eta, zehazki, arestian aipatu ditugun unibertsitate ikasketek, hartu zuten parte lehendik ere *Ahotsak* proiektuan. *Ahotsak* ekimenean sortutako lankidetzak harremanek, gure iritziz, bideragarritasun handiagoa ematen zioten oraingo ikerketari, proiektua aurrera eramateko epeak ez baitziren luzeak.

Proiektuaren ardatza galdeketa bat izan da, aipatutako unibertsitate eta ikasketetako 300 ikasleko lagin bati egiteko, hiru lurraldeetako campusak hartuta.

1.4. Proiektuaren emaitzak

Ikerketa proiektu honetan aurreikusten zen txosten bat egitea landa lana deskribatzeko eta unibertsitateko ikasleek gure iragan hurbileko urraketez dakitenaren eta erabiltzen duten diskurtsoaren analisia jasotzeko.

1.5. Ikertaldea

Pedro Arrupe Institutuak erabaki zuen ikerketaren lidergoia Iker Uson Gonzalek irakasleak hartzea, Gorka Urrutia Asua Institutuko zuzendariarekin batera eta Cristina de la Cruz Ayuso Institutuko irakasleak lagunduta.

1.6. Plangintzaren aurreikuspena

Denboraren plangintzaren koadroa	
Ikertaldea osatzea eta zeregin eta funtzio nagusiak banatzea	2016ko uztaila
Hiru unibertsitateek proiektuan laguntzea lortzea	2016ko uztaila
Landa lana egitea	2016ko azaroa
Txostena ematea	2016ko abendua

1.7. Aurrekontua

1. txostena	Orduak	
Ikerketa gastuak		
Proiektuaren zuzendaritza	30	900
Ikertzailea	250	7.500
Joan-etorrietako gastuak		250
Itzulpen gastuak		1.800
Galdeketaren gastuak eta papertegia		340
Guztira (BEZik gabe)		10.790,00
BEZa		2.265,90
Guztira (BEZarekin)		13.055,90 €

2. Proiektua deskribatzeko datuak

2.1. Garapena denboran

Bilakaera denboran	Aurreikuspena	Benetako garapena
Ikertaldea osatzea eta zeregin eta funtzio nagusiak banatzea	2016ko uztaila	2016ko uztaila
Hiru unibertsitateek proiektuan laguntzea lortzea	2016ko uztaila	2016ko irail eta urri artean
Landa lana egitea	2016ko azaroa	2016ko urriaren 24tik azaroaren 11ra
Txostena ematea	2016ko abendua	Txostenaren aurrerapena 2016ko abenduaren 21ean

2.2. Egindako galdeketak

Proiektuan aurreikusten genuen 300 galdeketa egitea. Azkenean, galdeketa askoz ere gehiago egin dira, guztira 1.011. Horietatik baliozkotzat¹ jo dira 939.

Fitxa teknikoa

- Egindako galdeketak: 1.011.
 - Paperean: 952.
 - Onlineko formularioa: 59.
 - Baliozkoak: 939.
- Probabilitatezkoa ez den laginketa geruzatua.
 - Euskal Herriko Unibertsitateko, Mondragon Unibertsitateko eta Deustuko Unibertsitateko Gizarte Zientzien Fakultateetako eta Hezkuntza Fakultateetako graduatuko lehen mailako ikasleak, hiru lurralde historikoetan.
 - Ikerketa honetan lagundu nahi izan duten irakasleen bidez iritsi gara haiengana.
 - Landa lana: 2016ko urriaren 24tik azaroaren 11ra.
- Galdeketa hogeita hamar galderek osatzen dute. Horietatik lehenengo bostak identifikatzeko galderak dira, 1. eranskinean ikus daitekeen bezala. Galderak galdeketetan esperientzia duten irakasle ikertzaileekin alderatu ziren eta haien proposatutako hobekuntzak egin ziren. Ondoren, aurretest bat egin zitzaizen Deustuko Unibertsitateko Gizarte Laneko ikasle batzuei, 2016ko urriaren 11n.


¹ Galdeketa batzuk baztertu egin dira ikerketarako zehaztutako adin tartetik kanpoko pertsonen bete dituztelako edo zatiren bat bete gabe gelditu delako.

3. Emaitzak

3.1. Identifikatzeko datu orokorrak


Unibertsitatea

Ikerketa EAEko hiru unibertsitateetan egin da: Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU), Deustuko Unibertsitatean eta Mondragon Unibertsitatean, zehazki, unibertsitate horiek hezkuntzako eta gizarte zientzietako graduak eskaintzen dituzten lurralde historikoetan. Horrela, EHU, landa lana hiru lurralde historikoetan egin da; Deustuko Unibertsitatean, EAEn dituen bi campusetan, alegia, Bizkaian eta Gipuzkoan; eta, azkenik, Mondragon Unibertsitatean, Gipuzkoan soilik.



1. grafikoa: Unibertsitatea

Adina




2. grafikoa: Adina

Ikerketan parte hartu dute aipatutako graduetakoko lehenengo maila egiten ari diren ikasleek. Lehenengo mailako ikasle guztiak ez dira, nahitaez, adin berekoak, hainbat arrazoi dela medio, unibertsitatean edo gradu horretan bizitzako uneren batean edo bestean has baitaitezke. Parte hartzaile guztien artean, nagusi dira 18 urte dituzten ikasleak. Bigarren, baina urrun, 19 eta 17 urte dituztenak azaltzen dira. Ikerketan 29 urte

arteko ikasleak sartu ditugu, EUSTATEk² gazteriari buruzko azterketetan erabiltzen duen irizpideari jarraiki. Espainian ere, INJUVE-Gazteriaren Institutuak³ irizpide hori bera erabiltzen du.

Bizilekua (Lurralde historikoa)


Inkestan parte hartu duten ikasleak unibertsitate ikasketak hiru lurralde historikoetako edozein campusetan ari dira egiten. Horietako asko lurralde berean bizi eta ari dira ikasten, baina gerta liteke beste batzuk beste lurralde batzuetakoak izatea, baita Euskadiz kanpokoak ere. Parte hartzaile gehienak Gipuzkoan bizi dira (% 46), ondoren Bizkaia dator (% 35), hirugarren, Araba (% 14) eta, azkenik, ikasleen % 5 Euskadiz kanpo-ko beste lurralde batzuetatik dator.



3. grafikoa: Bizilekua (lurraldea)

Bizilekua: herria edo hiria

Parte hartzaileen % 59 herrietan bizi da; gainerako % 41a, hirietan.




4. grafikoa: Herria edo hiria

2 http://www.eustat.eus/elementos/ele0013900/ti_Panoramica_de_la_juventud_de_Euskadi_2015/inf0013991_c.pdf (2016/12/06an ikusitako web orria)

3 <http://www.injuve.es/observatorio/demografia-e-informacion-general/poblacion-crecimiento-de-la-poblacion-joven> (2016/12/06an ikusitako web orria)

Parte-hartzaileen sexua

Galdeketari erantzun dioten ikasleen % 72 emakumeak dira; % 28, gizonak. Desberdintasun esanguratsu horren arrazoia aztertu ditugun ikasketetan aurkituko dugu. Izan ere, hezkuntzako eta gizarte zientzietako graduetan, emakumeak gizonak baino askoz ere ugariagoak dira.




5. grafikoa: Sexua

3.2. Interes eta parte-hartze maila

ikerketak aztertu nahi zuen Euskadiko gazteek zenbateko interesa duten giza eskubideen urraketen eta terrorismoaren gaiaren inguruan. Horregatik, galde sortako lehenengo galderak giza eskubideei lotutako errealitateen zerranda bat proposatzen zuen eta gazteei eskatzen ziren haien artean kezkarrienak zirenak aukeratzeko. Giza eskubideen esparruan, kezkarrik handiena genero indarkeriak eta nazioarteko pobrezia izan ziren. Aitzitik, "bakea eta bizikidetzaren" interes txikieneko errealitateen artean dago.


Giza Eskubideei lotutako errealitate hauetatik, zein dira, zure ustez, kezkarrienak? Hiru aukeratu.



6. grafikoa: Giza eskubideei lotutako errealitateen aurrean duten interesa

Hala ere, gazteei eskatu diegunean ikerketa honetako gaien inguruan duten interesa zehazteko, 1 inongo interesik ez eta 10 interes handia izanik, gehienek bere burua mailarik handienetan kokatzen dute. Zehazki, parte hartzaileen % 87,6k dio gai horien aurrean 6tik 10era arteko interesa dutela; % 60k baino gehiagok dio 8tik 10era arteko interesa dutela.


Zuretzat zenbateko interesa dute Euskadin bizi izan den terrorismoari eta indarkeriaren erabilerari lotutako gaiak? (1 inongo interesik ez – 10 interes handia)



7. grafikoa: Interes maila

Ikerketak norberak gai horien inguruan duen kezka ez ezik, belaunaldi osoaren ikuspegia ere jaso nahi zuen, hau da, nola definituko luketen gai horien interes maila euskal gazteentzat, oro har. Berrito ere, gazteek uste dute gaia interesekoa dela beren belaunaldikoentzat. Izan ere, erdiak baino gehiagok, % 56k, dio nolabaiteko interesa duen gaia dela eta % 24k dio gai oso interesgarria dela. Interesik gabeko gaia dela dio soilik % 1ek.


Zure ustez, euskal gazteentzat zenbateko interesa du Euskadin terrorismoa eta arrazoi politikoengatik indarkeriaren gaiak?



8. grafikoa: Belaunaldien interesa

Terrorismoaren eta indarkeriaren zikloa, zorionez, Euskadiren iraganeko historia hurbilean gero eta urrunago dago. Horregatik, interesgarria da jakitea ikasleek nola ikusten duten beste belaunaldi batzuek errealitate horien aurrean duten kezka. Hala, eskatu zaienean beren belaunaldiaren interesa eta gurasoen belaunaldiaren interesa alderatzeko, ikasleek adierazi dute handiagoa dela gurasoen belaunaldiaren interesa. Parte hartzaileen % 53k uste dute gazteek gurasoek baino interes txikiagoa dutela gai horietan. Azpimarratzekoa da, hala ere, parte hartzaileen % 23rentzat bi belaunaldien interesa parekoa dela. Gainera, % 17k dio gazteek gurasoek baino interes handiagoa dutela.


Zure gurasoen belaunaldiarekin alderatuta, nolakoa da zure belaunaldiak duen interesa Euskadin terrorismoaren eta Giza Eskubideen urraketei lotutako gaietan?



9. grafikoa: Belaunaldien arteko interesa

Azkenik, ikerlana ahalegindu da neurtzen interes mailaren eta konpromiso zehatzen artean loturarik ba ote dagoen. Horretarako, gazteei galdetu zaie parte hartzen ote duten gaiari lotutako ekintzetan. Esan daiteke harremana positiboa dela eta erantzuna koherentea. Izan ere, ikasleen erdiak baino gehiagok, % 57,5ek, dio azken urtean Euskadin bakearekin eta bizikidetzarekin lotutako jardueraren batean parte hartu duela. % 39,3k dio ez duela horrelakorik egin. Parte hartzea ez da oso trinkoa, izan ere, gazteen % 40,5 mailarik txikienean kokatzen dira: 1-5 alditan parte hartu dute horrelako ekintzaren batean. % 17k dio, ordea, urtean 6-10 alditan edo gehiagotan hartu duela parte horrelako ekintzaren batean.

Azken urtean, Euskadin bakeari eta bizikidetzari lotutako jardueraren batean parte hartu al duzu?




10. grafikoa: Parte hartze maila

3.3. Dakitenari buruzko autopertzepzioa eta informazio iturriak

Ikerketa honek garrantzi handia eman nahi izan dio unibertsitateko gazteek gertatu zenaren inguruan zer dakiten aztertzeari. Horretarako, galderak bi multzotan banatu dira: lehenengo multzoko galderak belaunaldiak gai horiei buruz dakitenaren inguruan duen autopertzepzioa eta ezagutza horren inguruko informazio iturriak identifikatzea dute helburu; bigarren multzoko galderak gazteek dakitenaren inguruko lehenengo hurbilpen bat eskuratzea dute xede, zuzeneko galdera batzuez baliatuz. Hirugarren atal honek autopertzepzioa eta informazio iturriak ditu aztergai.

Ikasleei galdetu diegu zein iritziz duten gazteek Euskadin bizi izandako terrorismoaren eta giza eskubideen urraketen inguruan dakitenari buruz. Galdera horren erantzun gehien-gehienak erdiko tokietan daude. Hala, % 80,5ek 2 aukera eta 3 aukera hartu ditu (% 32,9k lehenengoa eta % 47,6k bigarrena), 1etik 5erako eskalan, 1 oso gauza gutxi dakite eta 5 gauza asko dakite izanik. Nolanahi ere, azpimarratu behar da hautemate hori, neurri handi batean, positiboa dela. Izan ere, 3, 4 eta 5 aukerak batuz gero, ia erantzunen % 60 hartuko genuke (% 58,6, zehazki).


Zure iritziz, gazteek zer dakite Euskadin azken bost hamarkadetan bizi izan dugun terrorismoaren eta Giza Eskubideen urraketen inguruan? (1 oso gauza gutxi – 5 gauza asko)



11. grafikoa: Belaunaldiek dakitena

Gertatutakoaren inguruko informazioa eskuratzeko erabili dituzten iturriek dagokienez, lehenengo hirurak hauek dira: hedabideak (erantzunen % 68), familia (% 59) eta gizarte sareak eta internet (% 54). Urrunago azaltzen dira lagunak (% 35), eskola (% 34) edo liburuak (azken aukera, % 13).

Zein izan da Euskadin terrorismoaren, indarkeriaren eta Giza Eskubideen urraketen inguruan gertatu dena jasotzeko zure informazio iturri nagusia?




12. grafikoa: Informazio iturriak

Sozializazioari buruzko teoriak⁴ diote familia eragile gakoa dela jakiteak, balioak eta arauak transmititzeko orduan. Ikerketak ikusi nahi zuen unibertsitateko gazteengan familiak zenbateko eragina izan duen iragana transmititzeko orduan. Gehiengo esanguratsu batentzat, % 60,7, eragina handia edo oso handia izan da. % 34,2k eragin txikia edo oso txikia aukeratu du, baina horietatik % 17,2k, hau da, erdiak baino gehiagok, 4 eta 5eko balioa ematen diote galdera honi, 1etik 10erako eskalan.

4 Giddens A. Introducción a la sociología. 2006. Alianza Editorial. Madril.


Zure ustez, zenbateko eragina izan du zure familiak Euskadin bizi izandako terrorismoaren eta Giza Eskubideen urraketen inguruan dakizkizun gauzetan? (1 ez du eraginik izan – 10 eragin handia izan du)



13. grafikoa: Familiaren eragina

Sozializazioaren inguruko teoriak diote, halaber, hezkuntza sistemak eta, zehazki, ikastetxeak, lehen mailako sozializazio lana egiten duela pertsonen sozializazioan. Gai horri dagokionez, ikasleek askotariko iritziak dituzte. Handiagoa da ikastetxearen eragina txikia edo oso txikia izan dela diotenen ehunekoa, % 50,7; % 44,2k, ordea, uste du ikastetxeak eragin handia edo oso handia izan duela. Baina, bi multzoetan erditik goranzko joerek (5, 6 eta 7 balioek, 1etik 10erako eskalan) jasotzen dute erantzun gehien eta hiruren artean erantzun guztien % 40,6ra iristen dira.


Eta, ikastetxeari dagokionez, zure ustez zenbateko eragina izan du Euskadin bizi izandako terrorismoaren eta Giza Eskubideen urraketen inguruan dakizkizun gauzetan? (1 ez du eraginik izan – 10 eragin handia izan du)



14. grafikoa: Ikastetxearen eragina

Azkenik, ikerlanak jakin nahi zuen ikasleak gustura ote dauden Euskadin bizi izandako terrorismoaren, indarkeriaren eta giza eskubideen urraketen aurrean jaso duten informazioarekin. Argi eta garbi, unibertsitateko gazteak ez daude gustura informazio horrekin: % 60k erantzuten du ez daudela batere gustura (% 11) edo ez daudela gustura (% 49). % 31k erantzuten dute nahiko gustura daudela eta soilik % 2k erantzuten du oso gustura dagoela.

Gustura al zaude Euskadin bizi izan dugun terrorismoaren, indarkeriaren eta Giza Eskubideen urraketek inguruan jaso duzun informazioarekin?



15. grafikoa: Informazioarekin gustura

3.4. Jakite maila


Dagoeneko adierazi dugun bezala, gazteek gai honi buruz zer dakiten aztertzeko bigarren galdera multzo bat ere erabili nahi izan da, dakitenaren trinkotasuna maila neurtzeko. Hainbat galdera proposatu zaizkie ikasleei, gertaerak ezagutzeko eta besteetatik bereizteko duten gaitasuna neurtzeko, baita Euskadin giza eskubideak urratu dituzten eragileak edo erakundeak definitzeko ere.

Azpimarratzekoa da atal honetako galderetan metatu direla galde sorta osoko “ez daki, ez du erantzuten” erantzun gehienak, alde nabarmenaz, gainera. Pertsonak aukera hori zergatik hautatzen duten aztertzen duten lanek diote hainbat arrazoik eragiten duela norbaitek “ez daki, ez du erantzuten” hautatzea: ez daki, ez da erantzuteko gai, ez du erantzun nahi, elkarrizketatzailearen trebakuntza maila edo erantzuten dutenen motibazioa⁵. Erantzun mota horren eskema bitar bera erabiliz esan genezake ikasleak aukera hori hautatu duela edo ez dakielako edo erantzun nahi izan ez duelako. Gure iritziz, eragin handieneko arrazoiak lotura du, hain zuzen ere, galdera horren bidez jakin nahi genuenarekin, hau da, gazteek dakitenarekin, eta ez beste arrazoiekin. “Ez daki, ez du erantzuten” erantzunaren lehenengo aukerak agerian jartzen du elkarrizketatuak ez dakiela gai horri buruz edo ez dakiela, bere iritziz, nahikoa. Atal honetako galderak nolakoak diren kontuan hartuta, uste dugu elkarrizketatuak gai horren inguruan nahikoa ez bazekien, arrazoizkoa eta egokia zela erantzun hori hautatzea Aipatutako azterlanek eta beste batzuek azpimarratzen dute korrelazio handia dagoela galderen gaiaren eta “ez daki, ez du erantzuten” erantzunen kopuruaren artean, besteak beste, norberari buruz, barru-barruko gaiei buruz, sarrera ekonomikoei buruz edo politikari buruz galdetzen denean. Baina ez dugu uste kasu honetan hori denik arrazoi nagusia, galde sorta osoak baitu aztergai gai politiko bat eta soilik atal honetan azaldu da erantzun horren kopuru deigarria.

ETAren atentatu terroristak ugarien artean, Hiperkorrekoak, 1987ko ekainaren 19an 21 pertsona hil zituenak, du ETAk egindako atentatuen artean heriotza gehien eragin zituena izateko ohore tristea. Gai horri buruz galdetuta, unibertsitateko gazteak bi multzotan bana ditzakegu: Gehiengoak, % 50ak zehazki, ez daki/ez du erantzuten aukera hautatu du; % 44k, berriz, zuzen erantzun dio galderari. Eskainitako beste bi aukerak % 6an geratu dira. Dagoeneko esan dugunez, ikertzaileok uste dugu “ez daki, ez du erantzuten” hautatu duten gazte gehienek ezer gutxi dakitela edo zalantzak dituztela gertaera horren inguruan eta, horrenbestez, esan dezakegu ikerketan parte hartu duten unibertsitateko gazteen zati handi batek ez dakiela nahikoa Hiperkorreko atentatuaren inguruan:

5 Cruz P. “Del no sabe al no contesta: un lugar de encuentro para diversas respuestas”. *Revistas de investigaciones sociológicas*. 52. zk., 1990eko urria-abendua, 144. or.


Zer da Hipercoreko atentatua?



16. grafikoa: Hipercore

Euskadiren historiaren iragan hurbileko beste urraketa bat “Lasa eta Zabala” kasua izan zen. Jose Antonio Lasa eta Jose Ignacio Zabala GAL-Askapenerako Talde Terroristak taldean zeuden guardia zibil batzuek bahitu, preso hartu, torturatu, hil eta desagerrarazi zituzten, Auzitegi Nazionalaren 2000. urteko epai baten arabera. Ikasleek ezagutzen dute kasu hori, erantzun guztien % 54 izan baita zuzena. Hala ere, % 32 esanguratsuak aukeratu du “ez daki, ez du erantzuten” eta, aurretik azaldu dugunarekin bat, ulertu dugu, funtsean, ezer gutxi dakitela gai horren inguruan. Soilik %1ek hautatu du gaiarekiko urrunen dagoen aukera. Baina deigarria da % 13k uste izatea hilketa horiek ETAK egin zituela. Horrek erakusten digu ez dakitela zer gertatu zen eta, gainera, nahasmen handia dutela.


Zure ustez, zer da “Lasa eta Zabala” kasua?



17. grafikoa: Lasa eta Zabala

1997an, ikerketa honetan parte hartu duten gazte gehienak jaino baino urte bete lehenago, ETAK Miguel Angel Blanco Ermuko PPko zinegotzia bahitu zuen eta Espainiako Gobernuari 48 orduko epea eman zion erakunde presoak Euskadira hurbiltzeko, zinegotzia hiltzea eragotzi nahi bazuen. Mehatxua bete egin zen eta Miguel Angel Blanco hil egin zuten. Heriotza horren aurreko eta ondorengo egunetan, ETAreko kontrako gizarte mobilizazio handiak izan ziren, bai Espainian eta bai Euskadin. Askorentzat, inflexio puntu bat izan zen ETAreko amaieraren aldeko herritarren mobilizazioan. Horregatik galdetu zaie ikasleei ba ote zekiten Miguel Angel Blanco ETAK bahitu eta hil zuela. Gehienek erantzuna zuzena izan da: % 53k baietz erantzun du. Baina % 40k “ez daki, ez du erantzuten” aukera hautatu du, gertaera horren inguruko ezjakintasuna islatuz. Ezezko erantzuna % 7koa izan da.

Miguel Angel Blanco ETAk bahitu eta hil zuen:




18. grafikoa: Miguel Angel Blanco

1980ko hamarkada oso beltza izan zen, giza eskubideen urraketek dagokionez. ETAk inoiz baino pertsona gehiago hil zituen (400 pertsonatik gora guztira, eta urte bakarrean, 1980an, 118 pertsona). Garai hartan sortu zen GAL ere. Ikerketa honetan parte hartu duten unibertsitateko ikasle gehienek badute horren berri, % 55ek aukera zuzena hautatu du. Berrero ere, ezjakintasun maila esanguratsua da. Izan ere, % 38k hautatu du “ez daki, ez du erantzuten” aukera galdera horretan. Errealitate historikoarekin antzekotasunik txikiena zuten bi aukerek erantzuten % 7 jaso dituzte.

GAL izena entzutean zer datorkizu gogora?

Francoaren kontra borroka egin zuen talde bat.




19. grafikoa: GAL

3.5. Balorazio etikoa

Lan honen helburua da unibertsitateko gazteek Euskadin bizi izan dugun terrorismoaren eta indarkeriaren aurrean dituzten diskurtsoetan sakontzea. Horretarako, egoera horiek zein neurritan ezagutzen dituzten aztertzeaz gainera, funtsezkotzat dugun beste alderdi bat ere landu nahi izan dugu: horrelako gertakariak, etikaren ikuspuntutik, nola baloratzen dituzten eta, bereziki, gazteek onargarritzat edo onartezintzat duten indarkeria erabiltzea eta giza eskubideak urratzea gizarte eta politikako arazoak kudeatzeko. Gure iritziz, iraganeko urraketa horiek ezagutzea bezain garrantzitsua da unibertsitateko gazteengan urraketa horien inguruan gogoeta etiko bat sorraraztea, haiengan jarrera etikoa sustatzeko. Hala, Fernando Savaterren hitzetan, “norberaren askatasunaren inguruko banakako gogoeta egin nahi da, besteen askatasunarekin eta gure gizarte askatasunarekin lotuta”⁶. Horretarako, galde sortan sei baieztapen eskaini ziren, horietako bakoitzaren aurrean ikasleak zein neurritan dauden ados jakiteko.

Lehenengo baieztapenak aztertu nahi zuen proiektu politikoak pertsonen bizitza eskubidearen gainetik dauden ala ez: **“Inongo proiektu politiko ez da pertsona baten bizitzeko eskubidea baino garrantzitsuagoa”**. Erantzun gehienek, % 91ek, diote baieztapen horrekin erabat ados edo nahiko ados daudela. Gainera, ehuneko horren zatirik handienak, % 66k, dio guztiz ados dagoela baieztapen horrekin. Desadostasuna, beraz, % 2 besterik ez da, eta % 3k esan du ez dagoela oso ados. Aurreko atalarekin alderatuta, “ez daki, ez du erantzuten” aukera hautatu duten pertsonen ehunekoa oso txikia da, % 4.

“Inongo proiektu politiko ez da pertsona baten bizitzeko eskubidea baino garrantzitsuagoa”.




20. grafikoa: Bizitza eskubidea nagusi

Bigarren, ikasleek Euskadin bake eta bizikidetzaren inguruko iritzi azterketak egiten direnean egin ohi den galderetako bati erantzun behar zioten. Alegia, galdetzen zitzaien ia gaur egungo egoera bake egoeratzat har daitekeen. **“Gaur egun, Euskadin bake egoeran bizi gara”** baieztapenaren aurrean, gazteak bi multzotan banatuta daude. % 49 baieztapen horrekin guztiz edo nahiko ados dago eta horien artean % 42k bigarren erantzuna hautatu dute, hori da erantzun nagusia, beraz. % 47, ordea, desados dago edo ez dago oso ados baieztapen horrekin. Talde horretan, % 32k hautatu du “ez oso ados” aukera. Ikusten da bakearen kontzeptuaren inguruan ikuspegi desberdinak dituztela eta horrek eragiten du askok pentsatzea ETaren indarkeria desagertuta ere, oraindik ez dugula bakea lortu.

6 Savater F. “Ética y ciudadanía”. 2002. Monte Avila Editores Latinoamericana. Madril.


“Gaur egun, Euskadin bake egoeran bizi gara”



21. grafikoa: Bake egoera

Hirugarren baieztapena ETaren indarkeriaren deslegitimazio mailari buruzkoa zen. **“ETaren indarkeriaren kontra nago”** baieztapenaren aurrean duten jarrera azaltzeko eskatzen zitzairen. Ikasle gehienek, % 79k, erantzun dute baieztapen horrekin guztiz edo nahiko ados daudela. Hain zuzen ere, erdiak baino gehiagok, % 57k, “gutziz ados” dagoela dio. % 12k “ez oso ados” edo “desados” aukerak hautatu ditu, azken hori, zehazki, % 2k baino ez du hautatu.


“ETaren indarkeriaren kontra nago”



22. grafikoa: ETaren indarkeria

Laugarren baieztapenak ez zituen Euskadin gertatutakoak bakarrik kontuan hartzen. Baieztapen orokor bat zen, etikaren ikuspuntutik indarkeriako ekintzak onargarriak edo onartezinak diren adierazteko: **“Pertsona baten duintasunaren kontra egiten duen indarkeria ekintza oro baztertu behar da”**. Parte hartzaile gehienek iritziak, pertsonen duintasunaren kontra egiten duen indarkeria ekintza oro baztertu behar da. % 65ek erantzun du baieztapen horrekin “gutziz ados” dagoela. Beste % 21ek esan du “nahiko ados” dagoela. Beraz, bi multzoak batera hartuta, gazteen % 85ek indarkeria ekintza oro baztertzen duela on-doriozta dezakegu. Desadostasun maila oso txikia da, % 1ek esaten du “desados” dagoela eta % 6k “ez dagoela oso ados”.

“Pertsona baten duintasunaren kontra egiten duen indarkeria ekintza oro baztertu behar da”



23. grafikoa: Indarkeria ekintzak baztertzea

Estatuaren espedientea ere zikinduta dago gure iragan hurbilean gertatu diren giza eskubideen urraketekin, legez kontrako ekintzak egin baititu, esate baterako, ETAren kontra borroka egiteko⁷. Era berean, nazioarteko terrorismoaren gaur egungo abaguneak berriro ere mahai gainean jarri du Estatuak zein jarrera hartu behar duten arazo horren aurrean, erabaki behar baita onargarria ote den (edo onartezina) eskubide batzuk urratzea, atentatuak saihesteko, Villan Duranek jasotzen duen bezala⁸.


Euskadin, zoritxarrez, gehiegizko esperientzia dugu terrorismoan eta haren kontra borroka egiteko askotariko moduetan. Horregatik, egokia iruditzen zaigu unibertsitateko gazteek horren inguruan duten iritzia jakitea. Zehazki, galde sortari erantzun zioten ikasleek argi eta garbi adierazten dute terrorismoaren kontra borroka egiteko orduan oinarrizko eskubideak urratzearen kontra daudela. Ikasleen % 76k esan du “guztiz ados” edo “nahikoa ados” dagoela esaldi honekin: **“Estatuak ez ditu pertsonen oinarrizko eskubideak urratu behar terrorismoaren kontrako borrokaren izenean”**. Zehazki, parte hartzaileen % 51ek aukeratu du adostasun mailarik handiena adierazten duen proposamena. Adostasun txikia edo desadostasuna erakusten dute elkarrizketatuen % 6k (%4k adostasun txikia eta % 2k desadostasuna). Azpimarratzekoa da, nolatan ere, galdera horretan %18k erantzun dutela “ez daki, ez du erantzuten”. Kasu honetan, uste dugu hori gertatu dela “hizkera arruntean oso ohikoak ez diren hitzak erabili ditugulako” baieztapena idazterakoan⁹.

7 López R. “Informe Foronda: Los efectos del terrorismo en la sociedad vasca”. 2015. Catarata. Madrid.

8 Villán Durán C. “La seguridad preventiva como nuevo riesgo para los derechos humanos”. 2006. Alberdania. Zarautz.

9 Cruz P. “Del no sabe al no contesta: un lugar de encuentro para diversas respuestas”. *Revistas de investigaciones sociológicas*. 52. zk., 1990eko urria-abendua, 144. or.


“Estatuak ez ditu pertsonen oinarrizko eskubideak urratu behar terrorismoaren kontrako borrokaren izenean”



24. grafikoa: Terrorismoaren kontrako borroka

Atal hau amaitzeko, ikasleei galdetu zitzaizen zer-nolako askatasuna sentitzen duten jendaurrean azterlan honetan landutako gaien inguruan hitz egiteko. Ikasle parte hartzaileen artean askotariko iritziak daude **“Aske sentitzen naiz jendaurrean azaltzeko Euskadin bizi izan dugun terrorismoaren eta Giza eskubideen urraketan inguruan pentsatzen dudana”** baieztapenaren aurrean ados dauden ala ez azaltzeko orduan. Izan ere, elkarrizketatuen % 49k dio “ez oso ados edo desados” dagoela baieztapen horrekin eta % 44k dio “nahiko ados” edo “gutziz ados” dagoela. Datu hori bat dator, orokorrean, orain dela gutxi euskal herritarroi egindako beste azterketa batzuetatik ateratako ondorioekin. Hala ere, gazteek desadostasun maila handiagoa azalduko lukete, hau da, askatasun sentsazio txikiagoa¹⁰.

“Aske sentitzen naiz jendaurrean azaltzeko Euskadin bizi izan dugun terrorismoaren eta Giza Eskubideen urraketan aurrean pentsatzen dudana”




25. grafikoa: Adierazpen askatasuna

10 2016ko neguko Deustobarometroaren bilakaera txostenak erakusten du herritarrak guztiz ados edo nahiko ados daudela “Edozein egoeratan, nire iritziak adierazteko libre sentitzen naiz” baieztapenarekin. % 47 eta % 53 artean daude erantzun horiek.

3.6. Biktimak, memoriaren inguruko politikak eta tortura

Bake eta bizikidetzaren inguruko politiketan, gai nagusietako bat terrorismoaren eta beste indarkeria mota batzuen edo urraketen biktima izan diren pertsonen arreta eta aitortzea eskaintzea izaten ari da. Biktimei zenbait eskubide (egia, justizia, erreparazioa eta ez errepikatzeko bermea) aitortzen dien nazioarteko legedi-esparruan¹¹ kokatzen dira politika hauek. Lan honetan parte hartu duten ikasleak politika horien alde azaltzen dira, argi eta garbi. Berariaz galdetu zaie zein garrantzi duen haien artean Euskadin biktimak erreparatzeak eta aitortzeak. Gazteen % 80K 1etik 10erako eskalaren goiko mailetan kokatzen du bere burua. Zehazki, erantzun guztien ia % 60k, % 57,5ek alegia, 8, 9 eta 10 balioak dituzte galdera horretan.

Zein garrantzi dute zuretzat Euskadin terrorismoaren eta Giza Eskubideen urraketen biktimak aitortzeak eta erreparazioen bat egiteak?




26. grafikoa: Biktimekiko politika

Terrorismoaren eta indarkeriaren ziklo hau ixterakoan eta bizikidetzari berri bat eraikitzen hasierakoan, euskal gizartean eztabaida eta garrantzi handia hartu duen beste gai bat memoriaren gaia da eta, bereziki, administrazioak gertatutakoa transmititzeko orduan izan behar duen egitekoa. Gure ikerketako gazteek argi eman dute iritzia: Administrazioak memoriari lotutako politikak sustatu behar ditu. % 84k baiezkora erantzun dio galdera horri. Zehazki, erdiak baino gehiagok, % 55ek, erantzun behar du politika horiek sustatu beharko lirakeela, baina gertatutakoa ezagutzeko helburua edukitzeaz gainera, beste helburu batekin: iraganetik ikastea, etorkizunean ekintza horiek berriro errepika ez daitezen. Soilik % 4 dago politika horien kontra.

11 Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartutako 60/1947 erabakia, 2005eko abenduaren 16an.


Administrazioek Euskadin bizi izandako terrorismoaren, indarkeriaren eta Giza Eskubideen urraketek inguruko memoria politikak sustatu beharko al lituzkete?



27. grafikoa: Memoria politikak

Tortura, giza eskubideen urraketa larria, oso presente egon da eta dago bake eta bizikidetzako gaien inguruko eztabaidetan. Gazteei galdetu zaienean **poliziek tortura erabili** izan duten, gehienek uste dute urraketa hori oso sarritan gertatu dela. Erantzunen % 70ek eman du iritzi hori. Beste % 15 batek uste du “kasu gutxitan” erabili izan dela. Eta soilik % 1ek uste du inoiz ez dela tortura erabili. “Ez daki, ez du erantzuten” aukera hautatu dute gazteen % 14k.

Poliziek tortura erabiltzeari dagokionez, zein iritzi duzu?




28. grafikoa: Torturaren erabilera

3.7. Konpromiso maila

Euskal gazteriak lehentasunezko tokia hartzen du bakearen eta bizikidetzaren erronkan. Izan ere, nahiz eta urte zailenetako zuzeneko protagonistak ez izan, gaur egungo eta etorkizuneko gizartearen protagonista nagusiak izango dira. Horregatik, egoki iruditu zitzaigun gazteen konpromiso maila zen den jakitea. Euskadin bakea eta bizikidetzak sustatzeko neurrien artean, gehienek indarkeria mota oro baztertzearen aldeko apustua egiten dute, gainerako neurriekiko alde handiz, gainera. Bigarren tokian aipatzen dute historia ezagutzea.


Hurrengo neurrien artean, zure ustez zein landu behar dira lehentasunez, Euskadin bakea eta bizikidetzaren sustatzeko?



29. grafikoa: Lehentasunezko neurriak

Ikerketako parte hartzaile gehienek erantzuten dute prest egongo liratekeela Euskadin bakearen eta bizikidetzaren aldeko jardueran parte hartzeko. Ia % 60k, zehazki, % 58,5ek, jarri du prest egoten horren maila 1etik 5erako eskalaren goiko balioetan. Prest egote maila txikia, eskalaren 1etik 2ra arteko baliok islatzen dutena, ez da % 9ra iristen.

1etik 5erako eskalan, zein neurritan egongo zinateke prest Euskadin bakea eta bizikidetzaren babesteko jardueretan parte hartzeko?



30. grafikoa: Konpromisorako prest egotea

Aurrera eraman daitezkeen jardueraren zerranda batetik, historiari buruzko onlineko prestakuntzak jaso du erantzun kopururik handiena.

Bakea eta bizikidetzaren sustatzeko hurrengo jardueren artean, zeinetan egongo zinateke prest parte hartzeko, neurri handiagoan?



31. grafikoa: Jarduera interesgarriak


3.8. Unibertsitate eremua

Goi mailako hezkuntza sistema garatuak dituzten gizarteetan, gazteentzat topagune garrantzitsuenetako bat da unibertsitatea. Euskadik unibertsitate esparru sendoa du, unibertsitate publiko batek eta hainbat unibertsitate pribatuk osatutakoa. Unibertsitate horiek guztiek ibilbide luzea dute eta oso errotuta daude gizarteetan. Halaxe gertatzen zaie ikerlan honetan parte hartu duten hiru unibertsitateei ere: Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea.

Bake eta bizikidetzeta gaitan, eta are gehiago Euskadin gaur egun bizi dugun egoeran, garrantzi handikoa da Unibertsitatearen egitekoaren inguruan gogoeta egitea. Tartean dauden eragileek izan ditzaketen iritziak iritzi, egokia iruditu zaigu gazteek gai horren inguruan zer pentsatzen duten jakitea. Ikerketa honi dagokionez, ikasleek argi ikusten dute Unibertsitateak Euskadin terrorismoaren eta indarkeriaren inguruko gaiak lantzeko eremua izan behar duela. Unibertsitateak ikasleentzat gai horri lotutako jarduerak eskaini behar dituen galdetu zaienean, baiezkoa izan da erantzunen % 87,4. Jarduera horiek aurrera eramateko eskaintzen zitzaizkien hiru aukeren artean, % 44k adierazi du jarduerak eskaini beharko lirakekeela "hautazko prestakuntza" moduan. Ikasleen % 23k dio nahitaezko jarduerak izan beharko lirakekeela eta, azkenik, % 22k, prestakuntzaz kanpoko jarduerak proposatu behar direla.

Unibertsitateak bere ikasleei euskal gizarteetan bizi izan dugun terrorismoari eta Giza Eskubideen urraketari buruzko jarduerak eskaini beharko al lizkieke?

Ez, uste dut Unibertsitateak ez lukeela hori egin behar. Ed/Ede




32. grafikoa: Unibertsitate eremua

3.9. Etorkizunari begira

Gizarte bateko gazteak eta helduak desberdintzen dituen ezaugarri nagusia da gazteek etorkizun luze bat dutela aurretik. Gaur egungo herritar gazteak etorkizuneko herritar helduak izango dira, hortaz. Epe luze-ko prozesuetarako, horien artean, Euskadin bizikidetzara erakitze prozesurako, denboraren kontua oso garrantzitsua da, are gehiago gaur egun adostasun handiena eragiten duen alderdietako bat baldin bada gertatutakoa berriro ez errepikatzeko oinarri sendoak ezartzeko beharra. Horregatik egoki iruditu zitzaigun galde sortan horren inguruko galdera bat ere sartzea.

Ikasle parte hartzaileak ez dira oso baikorrak etorkizunari dagokionez, arlo horretan. Ia % 60k, zehazki, % 57k aukeratu du probabilitate nahikoa edo probabilitate oso handia dagoela etorkizunean, euskal gizartearen, berriro ere giza eskubideak urratzeko, arrazoi politikoetan oinarrituta. Ehunekorik handiena jokaleku horrek “probabilitate nahikoa” duela uste dutenena da, % 40 inguruan. Soilik % 2k uste du berriro gertatzea “ia ezinezkoa” dela.

Zure iritziz, zenbateko probabilitatea dago etorkizunean euskal gizartearen Giza Eskubideak berriro urratzeko, arrazoi politikoak direla eta?



33. grafikoa: Etorkizuneko jokalekua


3.10. Ideologia eta identitate kokapena

Ikerketa honetan interesgarri iruditu zitzaigun beste bi galdera eranstea, ikasleek beren burua non kokatzen zuten jakiteko, alde batetik ideologiaren eremuan eta beste aldetik euskal errealitatearentzat garrantzi handikoa den gai batean, identitatearenean, alegia. Bi kasuetan, Euskadin iritzi azterketetan erabili izan diren askotariko formulazioak kontuan hartuta, bi eskala aukeratu genituen, ahalik eta ulergarrienak izateko asmoz. Ideologia kokatzeko, ohiko eskema erabili zen, “ezker muturra-eskuin muturra”, eta identitatea kokatzeko, berriz, “espainiarra bakarrik-euskalduna bakarrik” eskala.

Galde sortaren erantzuten erakusten digute ikerketa honetan parte hartu duten unibertsitateko gazteek beren burua “ezkerrean” kokatzen dutela. 1 “ezker muturra” izanik eta 10 “eskuin muturra”, gazteen % 52,8 ezkerrean dauden tokietan kokatu dira, 1 eta 2 tokietan, alegia. 3 eta 4 aukerak, horiek ere ezkerrekoak, gehituz gero, ehunekoak % 63ra iritsiko da. Esanguratsua da elkarriketatuen % 18,6k “ez daki, ez du erantzuten” hautatu duela. Horrek, agian, erakuts dezake belaualdi honek ez duela hainbesteko loturarik eremu ideologikoak banatzeko ohiko eskemarekin. Hau da, Javier Llorentek dioenaren arabera, “gazteek helduek baino gutxiago erabiltzen dute ezker-eskuin banaketa”¹².

12 Llorente J. “¿Son los jóvenes diferentes en su relación con la división izquierda-derecha? Política Zientzietako Espainiako XI. Biltzarrean aurkeztutako lana. Donostia, 2015eko uztaila. <http://www.aecpa.es/uploads/files/modules/congress/12/papers/1226.pdf> (2016ko abenduaren 26a)


1etik 10erako eskalan, 1 ezker muturra izanik eta 10 eskuin muturra, non kokatuko zenuke zure burua? (1 ezker muturra – 10 eskuin muturra)



34. grafikoa: Ideologia kokapena

Identitateari dagokionez, datuek erakusten digute galdeketari erantzun dioten ikasleek euskal identitate nabarmena dutela. % 66k euskaldunetik hurbilen dauden lau aukeretan kokatzen du bere burua. Oraingoan, “ez daki, ez du erantzuten” aukeraren ehunekoa ez da hain esanguratsua.

1etik 10erako eskalan, nazio bateko kide sentitzeari dagokionez, 1 espainiarra bakarrik izanik eta 10 euskalduna bakarrik izanik, non kokatuko zenuke zure burua? (1 espainiarra bakarrik – 10 euskalduna bakarrik)



35. grafikoa: Identitatea

4. Ondorioak eta gomendioak

Ikerketatik ateratako datu nagusien deskribapena egin ondoren, egoki iruditu zaigu ondorio batzuk ateratzea. Halaber, gomendio batzuk ere emango ditugu, lanaren azken helburua baitzen unibertsitateko gazteentzat bake eta bizikidetzako politika publikoak egoki bideratzeko informazio gehiago eta hobea eskuratzea. Hala, atal honetan, lehenengo ondorio kuantitatibo garrantzitsuenak emango ditugu eta, ondoren, gomendioak.

4.1. Ondorio garrantzitsuenak

a) Interes eta parte hartze maila: Ikasleek interes handia dute Euskadin bizi izandako terrorismoaren eta giza eskubideen urraketen inguruan. Gainera, parte hartze nabarmena dute bakearekin eta bizikidetzarekin lotutako jardueretan.

- Giza eskubideekin lotutako errealitateen artean, gazteentzat interes handienekoak genero indarkeria edo nazioarteko pobrezia dira. Bakea eta bizikidetzak, ordea, interes txikieneko gaien artean daude.
- Baina Euskadin terrorismoari eta giza eskubideen urraketei lotutako gaietan zuzeneko interesa duten galdetuta, galde sortari erantzun dioten gazteen % 61,7k dio interes handia duela. Gai horretan nolabaiteko interesa dutenak ere kontuan hartzen baditugu, ehuneko % 87,6ra iritsiko litzateke.
- Interes hori ez da banakakoa soilik, baizik eta belaunaldi osora zabal daiteke. Izan ere, elkarrizketatuen % 80k erantzun dute gai hori gazteentzat oso interesgarria dela edo nolabaiteko interesa duela.
- Beren interesa eta beren gurasoena alderatzea eskatu diegunean, % 53k uste du gazteena gurasoena baino txikiagoa dela, baina % 23k uste du berdina dela eta % 17k uste du gazteena handiagoa ere badela.
- Galde sortari erantzun dioten ikasleen % 57,5ek aitortzen du azken urtean Euskadin bakearekin eta bizikidetzarekin lotutako jardueraren batean parte hartu duela. Horietatik % 40,5ek 1-5 alditan hartu du parte eta % 17k, 6-10 alditan edo gehiagotan.

b) Dakitenari buruzko autopertzepzioa eta informazio iturriak: Ikasleek uste dute gai horren inguruan dakitena ez dela gutxi eta hedabideek eta, bereziki, familiak eragin dutela gehien alderdi horretan. Ikastetxearen eraginari dagokionez, denetariko erantzunak daude. Nolanahi ere, argi uzten dute ez daudela gustura jaso duten informazioarekin.

- % 58,6k uste du Euskadin bizi izan den terrorismoaren edo giza eskubideen urraketen inguruan dakitena erdian edo maila gorenean kokatzen dela.
- Gertatutakoren inguruko informazioa jasotzeko hiru iturri nagusiak dira hedabideak (erantzunen % 68), familia (erantzunen % 59) eta gizarte sareak eta internet (% 54). Urrunago azaltzen dira lagunak (% 35), norberaren familia (% 34) edo liburuak (azken aukera, % 13).
- Gehientzat, zehazki, % 60,7rentzat, familiak eragin handia edo oso handia izan du jakite hori osatzerakoan.
- Ikastetxeak izan duen eragina baloratzerakoan, askotariko iritziak daude. % 50,7k esan du ikastetxearen eragina txikia edo oso txikia izan dela; % 44,2k uste du eragina handia edo oso handia izan dela.
- Galde sortari erantzun dioten gazteen % 60 ez dago gustura gai horren inguruan jaso duen informazioarekin; zehazki, % 49 ez dago oso gustura eta % 11 ez dago batere gustura.

c) Jakite maila: Berariaz galdetu diegunean jaio aurretik izan ziren gertaera jakin batzuen inguruan, erantzunetako asko zuzenak izan direla azpimarratu behar da. Hala ere, esanguratsua da zalantza edo ezjakintasun maila.

- Ikasleen % 50ek ez du informazio nahikorik Hiperkorreko atentatua zer izan zen definitzeko. % 44k, ordea, badaki zer gertatu zen.
- % 54k zuzen definitzen du zer den “Lasa eta Zabala” kasua, baina ez dirudi % 32 hori egiteko gai denik, “ez daki, ez du erantzuten” hautatzen baitute. % 13k ETAREN ekintza bat izan dela dio.
- Ikasleen % 53k badaki Miguel Angel Blanco ETAK bahitu eta hil zuela; % 40k ez dirudi informazio edo ezagutza hori duenik, “ez daki, ez du erantzuten” hautatzen baitu.
- % 55k ongi daki zer izan zen GAL. Baina % 38k hautatu du “ez daki, ez du erantzuten” aukera.

d) Balorazio etikoa: Ikerketan parte hartu duten gazteek konpromiso maila handia erakusten dute giza duintasunarekin. Era berean, duintasun horri erasotzen dioten ekintzen kontra azaltzen dira argi eta garbi. Hala, ETAREN kontra agertzen dira.

%91 nahiko ados edo guztiz ados dago inongo proiektu politiko ez dela pertsona baten bizitzeko eskubidea baino garrantzitsuagoa esatearekin.

Euskadin gaur egun bakean bizi garen baloraterakoan, % 49 nahiko edo guztiz ados dago, baina % 47 ez oso ados edo desados dagoela azpimarratu behar da.

% 79 ETAREN indarkeriaren guztiz kontra edo nahiko kontra dago. Soilik % 2 azaltzen da harekin ados.

% 65 nahiko ados edo guztiz ados dago pertsona baten duintasunaren kontra egiten duen indarkeria ekintza oro baztertu behar dela esaterakoan.

% 76k uste du Estatuak ez dituela oinarrizko eskubideak urratu behar terrorismoaren kontra borroka egiterakoan. Erantzun duten guztien % 51 azaltzen da baieztapen horrekin guztiz ados.

% 49 ez da aske sentitzen jendaurrean azaltzeko Euskadin bizi izan ditugun terrorismo edo giza eskubi-deen urraketen inguruan pentsatzen duena; % 44k uste du horretarako askatasuna baduela.

e) Biktimak, memoriaren inguruko politikak eta tortura: Ikasle gehien-gehienek uste dute garrantzitsuak direla biktimei erreparazioa eta aitortza emateko politikak. Halaber, uste dute Administrazioak memoria sustatu behar duela, gertatutakotik ikasteko ez ezik, berriro ere horrelakorik ez gertatzeko.

- Galde sortari erantzun diotenen % 80,4k uste du Euskadin terrorismoaren eta giza eskubi-deen urraketen biktimak erreparazioa eta aitortzea garrantzitsua dela. Horietatik % 57,5ek uste du oso garrantzitsua dela.
- Ikasleen % 84k uste du administrazioak memoria politikak sustatu behar dituela. % 55k uste du politika horiek erabili behar direla gertatu zena ezagutzeko ez ezik, hartatik ikasteko eta berriro horrelakorik ez errepikatzen.
- Ikasleen % 70ek uste du poliziek oso maiz erabili izan dutela tortura.

f) Konpromiso maila: Ikasle gehienak prest daude Euskadin bakearen eta bizikidetzaren aldeko jardueretan parte hartzeko. Jarduera horiek sustatzeko har litezkeen lehentasunezko neurrien artean bi azpimarratzen dituzte: indarkeria mota oro bazterzea eta historia ezagutzea.

- Euskadin bakea eta bizikidetzaren sustatzeko neurrien artean, indarkeria mota oro baztertearen aldeko apustua egiten dute gehienek, gainerako neurriekiko alde handiarekin, gainera. Bigarren tokian aipatzen dute historia ezagutzea.
- Ikasleen % 58,5 prest dago Euskadin bakea eta bizikidetzaren aldeko jardueretan parte hartzeko.
- Bakea eta bizikidetzaren sustatzeko proposatutako jarduera posibleen artean, zeinetan egongo liritekeen parte hartzeko prest galdetuta, erantzuten dute prestakuntza eta, zehazki, onlineko prestakuntza hartuko luketela parte.

g) Unibertsitate eremua: Gazte gehien-gehienek uste dute Unibertsitateak terrorismoarekin eta giza eskubi-deen urraketekin lotutako jarduerak eskaini beharko lituzkeela.

- Ikasleen % 87,4k uste du Unibertsitatean terrorismoaren eta giza eskubideen urraketan inguruko jarduerak eskaini ahal izango liratekeela. Gehienek, % 44k, uste dute hautazko prestakuntza moduan eskaini daitezkeela; % 23k dio nahitaezkoa izan beharko lukeela, eta % 22k dio prestakuntzaz kanpoko ekintzen artean eskaini beharko litzatekeela.

h) Etorkizunari begira: Gazteen gehiengo esanguratsu batek ikuspegi nahiko ezkorra du etorkizunaren inguruan. Uste dute ziur aski Euskadin giza eskubideak berriro urratuko direla, arrazoi politikoengatik.

- % 57k uste du probabilitate oso handia edo nahikoa dagoela Euskadin berriro ere giza eskubideak urratzeko, arrazoi politikoetan oinarrituta. Ikasleen % 40k uste du horretarako probabilitate nahikoa dagoela.

4.2. Gomendioak

Gomendioak lan honen azterketa esparrura mugatuko ditugu, alegia, unibertsitate esparrura. Horrek ez du esan nahi bazterrean utzi behar ditugunik beste esparru batzuetan egin daitezkeen ekintzak, besteak beste, unibertsitate aurreko hezkuntza formalean. Baina horien inguruko aipamenik ez dugu egingo, ikerketa honen xedeetatik kanpo gelditzen direla uste baitugu.

4.2.1. Aldez aurreko ondorio bat: lan hau errealitatera egindako lehenengo hurbilketa bat dela ulertu behar dugu.

Ez dakigu honen antzeko beste ikerketarik ba ote dagoen. Unibertsitateko gazteek Euskadin terrorismoaren, indarkeriaren eta giza eskubideen urraketan inguruan dakitena eta duten diskurtsoa ezagutzeko lehenengo hurbilpen bat da eta, ikuspuntu horretatik, balio handia duela esan dezakegu. Baina, erabilitako metodologiarengatik berarengatik -metodologia kuantitatiboa, inkesta baten bidez-, lana apaltasunek ikusi behar da, lehenengo urratsa izango balitz bezala eta inola ere ez azkena. Aztertu ditugun aldagaietako batzuetan, horien artean, motibazioei edo balorazio etikoei lotutakoak, inkestak lehenengo argazki oso interesgarria eman digula uste dugu. Baina sakon aztertzea merezi du, teknika kualitatiboez lagunduta, ñabardura asko egon baitaitezke ikasleak galderei erantzuteko aurrean zituen erantzun itxien atzean.

Era berean, parte hartzaileen kopurua hasieran pentsatu genuena baino askoz ere handiagoa izan bada ere –ia mila pertsona guztira–, lagin hori ez da unibertsitateko gazte guztiekiko esanguratsua, ez baitugu laginketa probabilistikorik egin. Horregatik guztiagatik, emaitzak eta ondorioak ezin ditugu unibertsitateko gazteen gizarte talde osora zabaltu, erabateko bermearekin. Izan ere, segur aski, beste lagin batekin, esate baterako, beste ikasketa batzuetako ikasleak hartuta, emaitzak ez lirateke berdin-berdinak izango.

Gomendioak

4.2.1.1. Ikerketa honi jarraipena ematea, zehazki, talde fokalen teknika erabiliz, eta horietara ikasle parte hartzaileen lagin bat deituz, zehaztasun handiagoz ezagutzera iristeko zein den unibertsitateko gazteen diskurtsoa aztergai ditugun gaien inguruan.

4.2.1.2. Galde sorta berarekin bigarren landa lan bat egitea, unibertsitateko beste ikasketa batzuk egiten ari diren gazteekin, dagoeneko lortu ditugun emaitzen adierazgarritasuna egiaztatzeko eta horrela, hezkuntza eta gizarte zientzien arloko ikasketentzat egokiak izanik ere, beste ikasketa batzuentzat egokiak izan ez daitezken neurriak hartzea saihesteko.

4.2.2. Parte hartzeko interesa eta konpromisoa aprobeztatzea

Ikerketaren datuek aukera ematen dute ondorioztatzeko unibertsitateko gazteek interes handia dutela Euskadin bizi izan den terrorismoaren, indarkeriaren eta giza eskubideen urraketan inguruan. Giza eskubideen inguruko beste errealitate batzuekin alderatuta, agerian geratu da bakea eta bizikidetzak ez daudela ikasleen lehentasunezko interesen artean. Baina, gai horren inguruan zuzenean galdetuz gero, interes askoz ere handiagoa azaldu dute, bai banaka eta bai belaunaldi osoa hartuta. Ez dirudi berresten denik gizartean hain zabalduta dagoen hipotesia, alegia, gai horiek ez daudela gazteen kezken artean.

lido beretik, lanak parte hartzearen inguruan erakusten dituen datuek agerian jartzen dute, berriro ere, apatia irudia gailendu izan bada ere, gazteak dagoeneko ari direla parte hartzen bakearekin eta bizikidetzarekin lotutako ekintzetan, eta modu esanguratsuan, gainera. Beraz, interesa edukitzeaz gainera, interes hori gizartean parte hartzeko palanka ere bihurtzen ari dela esan dezakegu.

Gomendioak

4.2.2.1. Interesa sustatzea: orain inoiz baino egingarriagoa dirudi Euskadin terrorismoaren eta indarkeriaren inguruko gaietan interesa eta jakin mina sortzeko ekintzak sustatzea, bai lan honetan erantzun duten gazteen interesari eutsi ahal izateko eta bai beste profil batzuetako gazteengana iristeko, jakinik ez dagoela bere lehentasunezko interesetatik hain urrun, hori pentsatzea ohikoa bada ere.

4.2.2.2. Interesa bideratzea: gai horietan nolabaiteko interesa duten gazteentzat, besteak beste, ikerketa honetan parte hartu dutenetako askorentzat, egokia iruditzen zaigu interes hori bideratuko duten programak edo ekintzak eskaintzea. Alegia, bideak proposatzea aukera izan dezaten bakearen eta bizikidetzaren inguruko ekintzetan parte hartzen jarraitzeko, edo gai horrekiko konpromisoa hartzeko. Horretarako, gure iritziz, ekintza posibleak ez lirateke mugatu beharko gaiaren inguruan informazio eta erantzun gehiago ematera soilik. Aitzitik, unibertsitate eremuan gaudela jakinik, bereziki bideratu beharko lirateke ikasle bakoitzari, banaka eta belaunaldi gisa, bere galderak eta gogoetak egiten laguntzera.

4.2.2.3. Tartean dauden eragileen arteko elkarlana: Landu nahi dugun gaia oso konplexua denez, eta arlo horretan hasiberriak garenez, gure ustez egokia izango litzateke tartean dauden eragileei eskatzea aurrera eramango diren ekintzen inguruko gogoetan eta diseinuan parte hartzeko, horrela ekimenaren arrakasta probabilitateak handitzeko. Parte hartze hori bideratzeko modu bat lanerako mahai bat da, bi mailatan egituratuko litzatekeena: batetik, plangintzaren eta erabakiaren maila eta, bestetik, beste mahai bat, teknikoagoa edo proposamenak egitekoa.

-Plangintza eta erabakitze maila: Hiru unibertsitateak egongo lirateke ordezkatuta, baita Hezkuntza Saila eta Giza Eskubide, Bizikidetzaren Idazkaritza Nagusia ere. Mahai honen egitekoen artean egongo lirateke:

- unibertsitate esparruan bakea eta bizikidetzaren sustatzeko jarri nahi diren helburuak eta irizpide orokorrak adostea.
- mahai teknikoak egin dituen proposamen zehatzak aztertzea eta horien inguruko erabakiak hartzea, azkenean gauzatu ahal izateko.

-Maila teknikoak: Hemen ere hiru unibertsitateek eta Hezkuntza eta Bake eta Bizikidetzako arloek hartuko lukete parte, baina profil teknikoagoa izango luke. Zehazki, aurreko mailako mahaiak definitutako helburuak bete ahal izateko proposamen zehatzak sortzea izango luke xede.

Gomendio hori kontuan hartuz gero, egokia izango litzateke lanerako mahaiak prozesu ikuspegia hartzea, erdi epera, behintzat. Hala, lehentasuna etorkizunerako lortu nahi diren emaitzek hartuko lukete eta ez soilik ezartze eritimoak eta epe laburrera betetzeko helburuek, besteak beste, lehenengo esperientzia pilotuen eta haien ebaluazioaren bidez.

4.2.3. Ekintzarako esparru bat: gertatutakoa ezagutzea

Aurkezten ari garen lana, zalantzarik gabe, oso urrun dago gai honen inguruan unibertsitateko gazteek daitenen inguruko azterketa osoa izatetik. Baina, halako lagin handia duen lehenengoa izateaz gainera, lehenengo hurbilpen bat ere eskaintzen du eta hartatik dagoeneko aipatu ditugun ondorioetako batzuk atera daitezke (gertatutakoa hobeto ezagutu nahi dute; hedabideak eta familia dira informazio iturri nagusiak, eta ez horrenbeste ikastetxea; eta ez daude gustura jasotako informazioarekin).

Zehazki, gertatutakoa ezagutzeari dagokionez, esan daiteke informazioa, neurri handi batean, familiaren edo hedabideen bidez transmititu dela eta ez horrenbeste hezkuntza sistemaren bidez. Euskadin bizi izan dugun testuinguru hain nahasian, ulergarria izan daiteke hezkuntza sistema ez izatea lehen mailako sozializazio eragilea, ez, behintzat, modu unibertsalean eta sistematizatuan, Euskadin terrorismoari eta giza

eskubideen urraketari lotutako gaietan. Baina gaur testuinguru hori aldatu egin da eta gure ikerketako datuek erakusten digute eremu zabala dagoela iragan hurbilenaren inguruko informazioa lantzeko. Gainera, ikasleak horretarako gogoz daude.

Gomendioak

Horregatik guztiagatik, eta aurretik azaldu dugunarekin koherente izanik, gomendatzen dugu esperientzia pilotuak garatzea. Zehazki, lehenengo esperientzia horietakoren batek gertatutakoaren inguruko informazioa eta ezagutza zabaltzea izan dezake ardatz. Horretarako, uste dugu ez litzatekeela beharrezkoa izango proposamen berriak sortzea; aitzitik, nahikoa izan daiteke dagoeneko abian dauden esperientzietako batzuk modu orokorragoan zabaltzea. Hala, Ahotsak esperientzia (2016an aurkeztu zen unibertsitateen arteko proiektua) edo Gogora Institutuko Memoria plaza erakusketa oso baliabide egokiak izan daitezke eta eragin handikoak helburu hori lortzeko, hiru arrazoiengatik gutxienez:

4.2.3.1. lehenengo, dagoeneko prestatuta dauden baliabideak direlako eta, hortaz, nahiko erraz ezartzeko modukoak;

4.2.3.2. bigarren, dagoeneko probatu diren baliabideak direlako eta haien inguruan jasotako balorazioak onak izan direlako, horrenbestez, jardunbide egokitzat har ditzakegu;

4.2.3.3. eta, azkenik, baliabide horiek aginduzko eredu pedagogikoetatik urrun daudelako eta zentzu kritikoaren gaitasuna sustatzen laguntzen duelako, giza eskubideen urraketan biktima izan diren pertsonen zuzeneko lekukotasunen bidez, eta ez gertatutakoaren inguruko diskurtso ideologikoen edo alde bakarreko ikuspegi bidez edo ikuspegi horietan mende.

Illo beretik, gomendatzen da informazio eta gogoetarako programak sustatzea eta indartzea, erabilgarri dagoen baliabide bat abiapuntu hartuta: Eusko Jaurlaritzak aurreko legegintzaldian egindako “Las huellas perdidas” dokumental saila. Gure ustez, dokumental sail hori baliabide oso egokia da iraganaren inguruko ezagutza sustatzeko, 1960ko hamarkadatik hasita, ikasleentzat hizkera ulergarria eta erakargarria erabiltzen baitu, ikus-entzunezkoa, alegia. Gainera, gaur egun hiru unibertsitateak egiten ari diren lanari esker, unibertsitateen eta Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren arteko hitzarmenaren barruan, aurtan bertan eskuragarri egongo dira saio horretarako proposamen metodologiko praktikoko batzuk, lanerako material gisa erabili ahal izateko, bai ikasgelan eta bai eskolaz kanpoko bestelako jardueran batzuetan. Horregatik guztiagatik, ondoriozta daiteke proposamen horiek aplikatzeko esperientziaren bat garatzea egingarria izan daitekeela.

Bestalde, ikasleek onlineko prestakuntzaren aurrean erakutsi duten jarrera irekia kontuan hartuta, bide horretan baliabideren bat diseinatzeko aukera aztertzea gomendatzen dugu.

Aukera bat izan daiteke ikasleentzat internet bidezko prestakuntza arautu bat diseinatzea. Baina aukera horrek inbertsio handiak eskatuko lituzke, bai denborari dagokionez eta bai diruari dagokionez. Gainera, ez dirudi erraza transmititu beharko liratekeen edukietan oinarritako adostasun bat lortzea. Iragan hurbilenaren inguruan oraindik ere ez dago nahikoa adostasun politiko eta sozialik epe laburrera hezkuntza edo informazio eduki jakinetan islatzeko. Baina beste formatu batzuk azter daitezke, esate baterako, eduki digitalen banku bat sortzea, dela unibertsitateko irakasleek erabiltzeko dela, batez ere, gazteek erabiltzeko, unibertsitate mailan zein beste maila guztietan. Onlineko espazio horretatik norbera, modu autonomoan, ikus-entzunezko, soinu bidezko edo testu digitalizatuko informazioaren biltegi batera sartu ahal izango litzateke, gaien arabera antolatuta. Era berean, aurrera eramaten ari diren esperientzia praktikoen bilduma ere eskain daiteke bertan eta erabiltzaileei eskatu haien inguruko esperientziaz ere elikatzeko. Proposamen horiek eta antzekoek dagokien balioa emango liekete dagoeneko dauden baliabideei eta jende gehiagoren eskura jarriko lituzkete. Gure ustez, Giza Eskubideen inguruko Baliabide Pedagogikoen Zentro berriak, Aieten, har dezake proposamen horren gidaritzeta.

I. Eranskina:

Landa lanean erabilitako galde sorta

Jarri X zure pentsamoldera ongien egokitzen den aukeran.

Mila esker laguntzeagatik.

Zein unibertsitatetan ari zara ikasten? EHU.

Mondragon Unibertsitatean.

Deustuko Unibertsitatean.

Zenbat urte dituzu?

_____.

Zein lurraldetan bizi zara?

Bizkaian.

Gipuzkoan.

Araban.

Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo.

Nolakoa da zure udalerrria?

Herri bat.

Hiri bat.

Sexua:

Emakumea.

Gizona.

1. Giza Eskubideei lotutako errealitate hauetatik, zein dira, zure ustez, kezkarrienak? Hiru aukeratu eta X jarri horietan.

Pobrezia munduan.

Pertsona errefuxiatuen errealitatea.

Emakumearen kontrako indarkeria.

Heriotza zigorra.

Langabezia.

Egoera politikoa.

Berotze globala.

Nazioarteko terrorismoa.

Bakea eta bizikidetzaren Euskadin.

Pobrezia egoerak Euskadin.

Ed/Ede.

2. Zuretzat zenbateko interesa dute Euskadin bizi izan den terrorismoari eta indarkeriaren erabilerari

lotutako gaiak?

Inongo interesik ez. _____ Interes handia.

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

Ed/Ede.

3. Zure ustez, euskal gazteentzat zenbateko interesa du Euskadin terrorismoa eta arrazoi politikoengatiko indarkeriaren gaiak?

Gai oso interesgarria da.

Nolabaiteko interesa duen gaia da.

Interes gutxiko gaia da.

Interesik gabeko gaia da.

Ed/Ede.

4. Zure gurasoen belaunaldiarekin alderatuta, nolakoa da zure belaunaldiak duen interesa Euskadin terrorismoaren eta Giza Eskubideen urraketei lotutako gaietan?

Berdina, haiek zuten interes berbera dugu gai horien inguruan.

Handiagoa, guri haiei baino gehiago interesatzen zaizkigu gai horiek.

Txikiagoa, gai horiek haiei gehiago interesatzen zaizkie guri baino.

Ed/Ede.

5. Azken urtean, Euskadin bakeari eta bizikidetzari lotutako jardueraren batean parte hartu al duzu, esate baterako, bileraren batera joan, manifestazioren batera, hitzaldiren batera, eskaeraren bat sinatu, gizarte sareetan parte hartu, interneteko foroetan parte hartu edo antzekorik?

Bai, 1-5 alditan.

Bai, 6-10 alditan.

Bai, 10 alditan baino gehiagotan.

Ez, ez dut parte hartu.

Ed/Ede.

6. Zure iritziz, gazteek zer dakite Euskadin azken bost hamarkadetan bizi izan dugun terrorismoaren eta Giza Eskubideen urraketen inguruan?

Oso gauza gutxi. _____ Gauza asko.

1 2 3 4 5

Ed/Ede.

7. Zein izan da Euskadin terrorismoaren, indarkeriaren eta Giza Eskubideen urraketen inguruan gertatu dena jasotzeko zure informazio iturri nagusia?

X jar dezakezu nahi beste aukeretan.

- Ikastetxea.
- Familia.
- Lagunak.
- Hedabideak (telebista, irratia eta prentsa)
- Gizarte sareak eta internet.
- Irakurri ditudan liburuak.
- Ed/Ede.

8. 1etik 10erako eskalan, zure ustez zenbateko eragina izan du zure familiak Euskadin bizi izandako terrorismoaren eta Giza Eskubideen urraketen inguruan dakizkizun gauzetan?

Ez du eraginik izan. _____ Eragin handia izan du.

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

Ed/Ede.

9. Eta, ikastetxeari dagokionez, zure ustez zenbateko eragina izan du Euskadin bizi izandako terrorismoaren eta Giza Eskubideen urraketen inguruan dakizkizun gauzetan?

Ez du eraginik izan. _____ Eragin handia izan du.

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

Ed/Ede.

10. Gustura al zaude Euskadin bizi izan dugun terrorismoaren, indarkeriaren eta Giza Eskubideen urraketen inguruan jaso duzun informazioarekin?

- Oso gustura.
- Nahiko gustura.
- Ez nago oso gustura.
- Ez nago batere gustura.
- Ed/Ede.

11. Zer da Hiperkorreko atentatua?

- ETArek atentatu bat, hildako asko eragin zituen.
- Erakunde jihadistak baten atentatu bat.
- Ez bata eta ez bestea.
- Ed/Ede.

12. Zure ustez, zer da "Lasa eta Zabala" kasua?

- ETAk bahitu eta hil zituen bi pertsonaren kasua.
- GALek bahitu, torturatu eta hil zituen bi pertsonaren kasua.
- Bi haur desagerturen kasua, oraindik ere argitu gabe dagoena.
- Ed/Ede.

13. Miguel Angel Blanco ETAk bahitu eta hil zuen:

- Bai.
- Ez.
- Ed/Ede.

14. GAL izena entzutean zer datorkizu gogora?

- ETaren barruko adar bat.
- ETaren eta ezker abertzalearen kontra atentatuak egiten zituen talde parapoliziala.
- Francoren kontra borroka egin zuen talde bat.
- Ed/Ede.

15. Adieraz ezazu Xekin zein neurritan zauden ados edo desados baieztapen hauekin:

- "Inongo proiektu politiko ez da pertsona baten bizitzeko eskubidea baino garrantzitsuagoa".
- Guztiz ados. Desados.
- Nahiko ados. Ed/Ede.
- Ez oso ados.

"Gaur egun, Euskadin bake egoeran bizi gara".

- Guztiz ados. Desados.
- Nahiko ados. Ed/Ede.
- Ez oso ados.

"ETaren indarkeriaren kontra nago".

- Guztiz ados. Desados.
- Nahiko ados. Ed/Ede.
- Ez oso ados.

"Pertsona baten duintasunaren kontra egiten duen indarkeria ekintza oro baztertu behar da".

- Guztiz ados. Desados.
- Nahiko ados. Ed/Ede.
- Ez oso ados.

"Estatuak ez ditu pertsonen oinarrizko eskubideak urratu behar terrorismoaren kontrako borrokaren izenean".

- Guztiz ados. Desados.
- Nahiko ados. Ed/Ede.
- Ez oso ados.

"Aske sentitzen naiz jendaurrean azaltzeko Euskadin bizi izan dugun terrorismoaren eta Giza Eskubideen urraketek inguruan pentsatzen dudana".

- Guztiz ados. Desados.
- Nahiko ados. Ed/Ede.
- Ez oso ados.

16. Zein garrantzi dute zuretzat Euskadin terrorismoaren eta Giza Eskubideen urraketen biktimak aitortzeak eta erreparazioen bat egiteak?

Inongo garrantzirik ez. _____ Garrantzi handia.

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

Ed/Ede.

17. Administrazioek Euskadin bizi izandako terrorismoaren, indarkeriaren eta Giza Eskubideen urraketen inguruko memoria politikak sustatu beharko al lituzkete?

Bai, etorkizunean pertsona guztiek jakin dezaten zer gertatu zen.

Bai, etorkizunean pertsona guztiek jakin dezaten zer gertatu zen eta horretatik ikas dezaten, berriro gerta ez dadin.

Ez, sortutako zauriak ixteko onena ahaztea delako.

Ez, gertatu zena gogoratzea norberaren baitan gelditzen delako eta horretan administrazioak ez duelako sartu behar.

Ed/Ede.

18. Poliziek tortura erabiltzeari dagokionez, zein iritzi duzu?

Oso maiz erabili izan dute.

Kasu gutxitan erabili izan dute.

Ez da torturarik izan.

Ed/Ede.

19. Hurrengo neurrien artean, zure ustez zein landu behar dira lehentasunez, Euskadin bakea eta bizikidetzaren sustatzeko? Aukeratu beharrezko iruditzen zaizkizunak.

ETA desegitea eta armagabetzea.

ETAko presoan dispertsioa bukatzea.

Indarkeria mota oro baztertzea sustatzea.

Euskadin terrorismoaren eta Giza Eskubideen urraketen historia ezagutzea.

Giza eskubideak urratu dituzten pertsonen egindako kaltea aitortzea.

Biktima guztiak erreparatzea eta aitortzea.

Euskal alderdi politikoek adostea inongo ideia ez dagoela pertsona baten bizitzeko eskubidearen gaineratik.

ETAko pertsona presoak gizarteratzea.

Gazteriaren parte hartzea sustatzea.

Giza Eskubideen urraketa guztiak argitzea.

20. 1etik 5erako eskalan, zein neurritan egongo zinateke prest Euskadin bakea eta bizikidetzaren babesteko jardueretan parte hartzeko?

Ez nago batere prest. _____ Oso prest nago.

1 2 3 4 5

Ed/Ede.

21. Bakea eta bizikidetzaren sustatzeko hurrengo jardueren artean, zeinetan egongo zinateke prest parte hartzeko, neurri handiagoan? Aukeratu beharrezko iruditzen zaizkizunak.

- Hitzaldi bat.
- Interneten sinadurak biltzea.
- Beste gazte batzuekin bizikidetzaren inguruan gogoeta egiteko jardunaldi bat.
- Gizarte sareen bidez egindako kanpaina bat.
- Manifestazio bat kalean.
- Onlineko prestakuntza Euskadin bizi izandako terrorismoaren eta Giza Eskubideen urraketaren historiari buruz
- Giza Eskubideen urraketaren biktimekin topaketa bat.
- Interneten foro bat bakearen eta bizikidetzaren inguruan hitz egiteko.
- Gatazkak konpontzeko buruzko lantegi bat.
- Gazteen artean iritziak partekatzeko blog bat.

22. Unibertsitateak bere ikasleei euskal gizartearen bizi izan dugun terrorismoari eta Giza Eskubideen urraketek lotutako jarduerak eskaini beharko al lizkieke?

- Bai, ikasleen nahitaezko prestakuntzaren barruan.
- Bai, ikasleen hautazko prestakuntzaren barruan.
- Bai, prestakuntzaz kanpoko ekintza bat bezala.
- Ez, uste dut Unibertsitateak ez lukeela hori egin behar.
- Ed/Ede.

23. Zure iritziaren arabera, zenbateko probabilitatea dago etorkizunean euskal gizartearen Giza Eskubideak berriro urratzeko, arrazoi politikoak direla eta?

- Probabilitate oso handia.
- Probabilitate nahikoa.
- Probabilitate txikia.
- Ia ezinezkoa da.
- Ed/Ede.

24. 1etik 10erako eskalan, 1 ezker muturra izanik eta 10 eskuin muturra, non kokatuko zenuke zure burua?

Ezker muturra. _____ Eskuin muturra.

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

- Ed/Ede.

25. 1etik 10erako eskalan, nazio bateko kide sentitzeari dagokionez, 1 espainiarra bakarrik izanik eta 10 euskalduna bakarrik izanik, non kokatuko zenuke zure burua?

Espainiarra bakarrik. _____ Euskalduna bakarrik.

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

- Ed/Ede.

Mila esker.

II. Eranskina: Datu nagusiak

1. Giza Eskubideei lotutako errealitateen artean, hauek dira gazteentzat kezkarrienak: genero indarkeria, pobrezia munduan eta nazioarteko terrorismoa, baina azken hori aurrekotik urrun xamar gelditzen da. Kezka gutxien sortzen dieten errealitateak hauek dira: heriotza zigorra, pobrezia Euskadin, eta ba-kea eta bizikidetzak.
2. Galde sortari erantzun dioten gazteen % 61,7k dio interes handia dutela Euskadin giza eskubideen urraketei eta terrorismoari lotutako gaietan. Interes ertaina dutenak ere kontuan hartzen baditugu, ehuneko % 87,6ra iritsiko ginateke.
3. Interes hori ez da banakakoa soilik, baizik eta belaunaldi osora zabal daiteke. Izan ere, elkarrizketatuen % 80k erantzun dute gai hori gazteentzat nolabaiteko interesekoa edo oso interesgarria dela.
4. Beren interesa eta beren gurasoena alderatzea eskatu diegunean, % 53k uste du gazteena gurasoena baino txikiagoa dela, baina % 23k uste du berdina dela eta % 17k uste du handiagoa ere badela.
5. Galdeketa parte hartu duten ikasleen % 57,5ek aitortzen du azken urtean Euskadin bakearekin eta bizikidetzarekin lotutako jardueraren batean parte hartu duela. Horietatik % 40,5ek 1-5 alditan parte hartu du eta % 17k 6-10 alditan edo gehiagotan.
6. % 47,6k uste du Euskadin bizi izan den terrorismoaren edo giza eskubideen urraketen inguruan duen ezagutza ertaina edo handia dela.
7. Gai horren inguruko informazio iturri nagusiak hedabideak, familia, eta gizarte sareak eta internet izan dira. Gutxien aipatutako iturriak dira liburuak, ikastetxea eta lagunak.
8. Gehientzat, zehazki, % 60,7rentzat, familiak eragin handia edo oso handia izan du jakite hori osatzerakoan.
9. Ikastetxeak izan duen eragina baloratzerakoan, askotariko iritziak daude. % 50,7k esan du ikastetxearen eragina txikia edo oso txikia izan dela; % 44,2k uste du eragina handia edo oso handia izan dela.
10. Galdeketa parte hartu duten gazteen % 60 ez dago gustura gai horren inguruan jaso duen informazioarekin; hala, % 49 ez dago oso gustura eta % 11 ez dago batere gustura.
11. Ikasleen % 50ek ez du informazio nahikorik Hipercorreko atentatua zer izan zen definitzeko. % 44k, ordea, badaki zer gertatu zen.
12. Ikasleen % 54k zuzen definitzen du zer den “Lasa eta Zabala” kasua, baina ez dirudi % 32 hori egiteko gai denik, “ez daki, ez du erantzuten” hautatzen baitute. % 13k ETAREN ekintza bat izan dela dio.
13. Ikasleen % 53k badaki Miguel Angel Blanco ETAK bahitu eta hil zuela; % 40k ez dirudi informazio edo ezagutza hori duenik, “ez daki, ez du erantzuten” hautatzen baitute.
14. Ikasleen % 55k ongi daki zer izan zen GAL. Baina % 38k hautatu du “ez daki, ez du erantzuten” aukera.
15. Ikasleen %91 nahiko ados edo guztiz ados dago inongo proiektu politiko ez dela pertsona baten bizitzeko eskubidea baino garrantzitsuagoa esatearekin.
16. Euskadi gaur egun bakean bizi den baloratzerakoan, % 49 nahiko edo guztiz ados dago, baina % 47 ez oso ados edo desados dagoela azpimarratu behar da.
17. Ikasleen % 79 ETAREN indarkeriaren kontra azaltzen da, guztiz edo nahiko kontra. Soilik % 2 azaltzen da harekin ados.

18. Ikasleen % 65 nahiko ados edo guztiz ados dago pertsonaren duintasunaren kontra egiten duen indarkeriazko ekintza oro baztertu behar dela esaterakoan.
19. Ikasleen % 76k uste du Estatuak ez dituela oinarrizko eskubideak urratu behar terrorismoaren kontra borroka egiterakoan. Erantzun duten guztien % 51 azaltzen da baieztapen horrekin guztiz ados.
20. Ikasleen % 49 ez da aske sentitzen jendaurrean adierazteko Euskadin bizi izan ditugun terrorismo edo giza eskubideen urraketek inguruan pentsatzen duena; % 44, ordea, aske sentitzen da.
21. Galde sortari erantzun dioten % 80,4k uste du Euskadin terrorismoaren eta giza eskubideen urraketek biktimak erreparatzea eta aitortzea garrantzitsua dela. Horietatik % 57,5ek uste du oso garrantzitsua dela.
22. Ikasleen % 84k uste du administrazioak memoria politikak sustatu behar dituela. % 55k uste du politika horiek erabili behar direla gertatu zena ezagutzeko ez ezik, hartatik ikasteko eta berriro horrelakorik ez errepikatzeke.
23. Ikasleen % 70ek uste du poliziak oso maiz erabili izan duela tortura.
24. Bakea eta bizikidetzaren sustatzeko lehentasunezko neurrien artean aipatzen dituzte indarkeriako edozein ekintza baztertzeko sustatzea, gertatutakoaren historia ezagutzeko, eta gazteen parte hartzea sustatzea.
25. Galdeketa parte hartu duten gazteen % 58,5 prest dago Euskadin bakea eta bizikidetzaren aldeko jardueretan parte hartzeko.
26. Errazago parte hartuko lukete jarduerak hauetan: onlineko prestakuntza gertatutakoaren historiaren inguruan, manifestazio batera joatea, eta interneten sinadurak biltzea.
27. Ikasleen % 87,4k uste du Unibertsitatean terrorismoaren eta giza eskubideen urraketek inguruko jarduerak eskaini ahal izango lirakeela. Gehienek, % 44k, uste dute hautazko prestakuntza moduan eskaini daitezkeela; % 23k dio nahitaezkoa izan beharko lukeela eta % 22k dio prestakuntzaz kanpoko ekintzen artean eskaini beharko litzatekeela.
28. Ikasleen % 57k uste du probabilitate oso handia edo nahikoa dagoela Euskadin berriro ere giza eskubidea urratzeko, arrazoi politikoak direla eta. Ikasleen % 40k uste du nahikoa probabilitate dagoela horretarako.
29. Galdeketa parte hartu zuten gazteek “ezkerrekotzat” hartzen dute bere burua, nabarmen gainera. % 63k eremu horretan kokatzen du bere burua, baina % 18,6 ez dirudi oso eroso sentitzen denik ezker-eskuin eskema horrekin, “ez daki, ez du erantzuten” aukera hartzen baitu.
30. Ikasleen % 66 “euskalduna bakarrik” sentitzen da; % 18, “euskaldunak eta espainiarrak”; eta % 5, “espainiarra bakarrik”.





3

• dokumentua

Giza Eskubideen eta Orintsuko
Memoriaren Udal Txostenak egiteko
oinarriak eta irizpideak
(1960-2018)

Giza Eskubideen eta
Oraintsuko Memoriaren
Udal Txostenak
egiteko oinarriak
eta irizpideak
(1960-2018)

2018ko ekaina

Memoriaren,
Bizikidetzaren eta
Giza Eskubideen
Institutua

gogora

Instituto de la Memoria,
la Convivencia
y los Derechos Humanos

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Aurkezpena

Legealdi honetan zehar, hainbat udal-ordezkarri hurbildu dira Gogora Institutura, Giza Eskubideei eta Oraintsuko Memoriari buruzko Udal Txostenen gaineko informazioa, irizpidea edo aholkularitza eskatzeko. Euskal Autonomia Erkidegoko udalei halako azterketak agindu eta egiteko oinarri eta irizpideak eskaintzea da, zehazki, agiri honen helburua.

Giza Eskubideei eta Oraintsuko Memoriari buruzko Udal Txosten bat egitea, izan ere, biktima-kopuruari eta gertaera dramatikoaren kronologiei buruzko azterketa tekniko bat eskatzea baino gehiago da. Ariketa etiko, politiko, demokratiko, pedagogiko eta soziala da, balio estrategikoa duena, orainean eta etorkizunean eragina duten iraganeko zauriei eragiten dielako eta aurrerapen kualitatiboa izan daitekeelako biktimen eta bizikidetzaren alde.

Txosten hauek egitea gomendagarria da edozein egoeratan. Are gehiago egungoa bezalako une batean, ETaren desagertzea behin betiko berretsi den honetan. Gertaera hori benetan erabakigarria da, une honetatik aurrera giza eskubideetan lehenak, hots, bizitzeko eskubideak, mehatxatuta egoteari utzi baitio. Testuinguru berri honetan komenigarria da atzera begiratu eta zer gertatu zaigun hausnartzea.

Baina hausnarketa horren garrantzia kualitatiboa, aukera etikoa eta konplexutasuna kontuan hartuta, zehatz-mehatz definitu behar dira halako prozesu bat egitean zaindu behar diren oinarriak eta irizpideak. Logikoa den bezala, parametro horiek batez ere memoria eraikitze eta araudia ezartzeko pro-

zesua izan behar dute oinarri, eta prozesu hori garatzen ari da Euskadi.

Agiri honetan jaso den proposamenak honako hauek ditu abiapuntu, batzuetan hitz hitzeko formulazio eta guzti: batetik, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzen duen Legea, Eusko Jaurlaritzak onartua; eta, bestetik, Gogora Institutuaren 2017-2020ko Jarduera Plana, bere Zuzendaritza Kontseiluak onartua, azken horretan ordezkaturik daudelarik legebiltzarreko talde guztiak.

Aurretiazko diagnostiko baten hurbilketa

Ikuspuntu metodologikotik erreparatuta, lehendik eta behin halako txostenak egiteak sortzen dituen arazoak aurretiaz diagnostikatze egin behar da lan. Horrenbestez, go-goan izan behar da konplexutasun altuko zeregin bat dela, batez ere bi arrazoi direla eta:

- Iragana kudeatzea da bizikidetzaren berrekitzeko prozesu baten zatirik zail eta konplexuena. Iraganean aurkituko ditugu erruaren eta erantzukizunaren diagnostikoa, jasandako mina eta sufrimendua eta, horrekin batera, kausen eta jatorriaren gaineko irakurketa ezberdinak.
- Memoria askotarikoa da. Eta, hala, berehala agertzen da memoria ezberdinak kudeatzeko zailtasuna. Memoria poliedrikoa eta gatazkatsua da. Aniztasuna konplexutasuna eta aukera da. Pluralismoa da aniztasunaren konplexutasunari helizteko aukera.

Eta arazo bikoitz honen aurrean, memoriaren aniztasuna onartu eta are sustatzea da gakoa, gutxieneko etiko bat oinarri hartuta: giza eskubideekiko konpromiso integrala, hain zuzen ere.

Memoriaren politika publiko guztiei eragiten dien konplexutasun horrek, era berean, Giza Eskubideei eta Oraintsuko Memoriari buruzko Udal Txosten bat egiteko ariketari ere eragiten dio.

Konplexutasun neuralgiko hori lantzeko, Gogora Institutuaren Jarduera Planaren erreferentzia-esparrua, zehazki, Eusko Jaurlaritzaren 2017-2020ko Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planean zehaztutakoa da. Eta, lanketa horretan, hiru jarraibide orokor daude, txostenak egiteko orduan aplikatu beharko direnak:

- **Ez baztertu.** Iraganera begiratzean ezin da baztertu terrorismo, indarkeria edo

giza eskubideen urraketa bat ere, ez eta horien biktima bakar bat ere. Guzti-guztiak aintzat hartu behar dira, ikuspegi integrala jorrazteko.

- **Ez legitimatu.** Iraganari buruzko memoria kritikoa egitean ezin da onartu gatazka-
ren, bando arteko borrokaren edo justifikazio politikoen teoria, giza eskubideen beste urraketa batzuk edo beste edozein aitzakia erabiltzea terrorismoa edo indarkeria legitimatu, justifikatu, konpentsatu edo minimizatzeko.

- **Ez garrantzirik kendu.** Iraganari buruzko hausnarketa kritikoa halakorik ez errepikatzea lortu nahi bada, gogoeta ezin da generikoa soilik izan; berariaz eta modu berezian uko egin behar zaio edozelako terrorismo- edo indarkeria-kasuaren legitimazio, konpentsazio eta minimizazioari.

1. Oinarriak

1.1. Oinarri aurre-politikoak

- **Printzipio etikoa.** Halako txostenak egiteko prozesuetan oinarrizko printzipio etiko bat dago: giza duintasuna eta giza eskubideak balio gorena dira, elkartasunarekiko konpromisoarekin eta horiek urratuta izan dituzten biktimen eskubideekin batera.
- **Printzipio demokratikoa.** Horrez gain, askatasuna, aniztasuna, elkarrizketa eta bizikidetzaren adiskidetsua sustatzeko konpromisoa defendatu behar da, bai eta giza eskubideen edozein urraketa edo haren justifikazioa salatu, baztertu eta aurkaratu ere.

1.2. Xedea

- **Gizarte-topaketa.** Gizarte-topaketarako plaza publiko bat eratzen, eta, bertan, sentikortasun politiko guztiek beren lekua, ahotsa eta partaidetza edukitzen laguntzea da udal-txosten hauen xedea. Hau da, azken finean, bizikidetzaren adiskidetsua lortzen laguntzea.

1.3. Giza Eskubideei eta Orainsuko Memoriari buruzko Udal Txostenen helburuak

- **Egia.** Biktimen eta gizarteak udalerrian jasan diren giza eskubideen urraketen gainean egia jakiteko duten eskubidean laguntzea.
- **Errekonozimendua.** Gertatutakoaren oroitzapen, errekonozimendu eta hausnarketa kritiko eta partekatua sustatzea.
- **Elkarrizketa.** Herri-mailan memorien aniztasuna aintzatesten duen elkarrizketa sortzailea eta herritarra bideratu, sustatu eta gauzatzea.
- **Ordaina.** Terrorismoaren, indarkeriaren eta giza eskubideen urraketen ondorioz sortutako kaltearen bidegabekeriaren aurrean, ordaina konpontzeko ondorio pedagogikoak ateratzea.

1.4. Printzipio gidari bat eta muga bat

- **Printzipio gidari bat.** Orainsuko Memoriari buruzko Udal Txostenak egiteko prozesuak printzipio gidari bat betetzen du: aniztasunaren partaidetza eta adierazpidea bideratzen ditu memoria egiteko orduan.
- **Muga bat.** Memorien aniztasuna kudeatzean muga bakarra dago: ezin da erabili ez baztertzeko, ez gertaerak alderatzeko. Ezta gerra, totalitarismoa, terrorismoa edo inolako indarkeria-modu edo giza eskubideen urraketa legitimatuko duen historia berridazteko ere.

2. Irizpideak

2.1. Irizpide etiko-politikoak

I. Nazioarteko estandarrak. Udal Txostenak egitean bete egin behar da giza eskubideen nazioarteko eskubidea, bai eta Nazio Batuen zuzentarauak eta nazioarteko estandarrak ere, memoriaren, giza eskubideen eta biktimen prozesuetan. Hala, giza eskubideak bihurtuko dira ardatz nagusia, nazioartean egiaztatutako erreferentzia objektiboak erabil daitezzen halako prozesuetan aurki daitezkeen zailtasunei eta egoera konplexuei erantzuteko orduan.

II. Gutxieneko konpromisoa. Halako txostenak egiteko prozesuan biktimekiko eta giza eskubideekiko konpromisoa izan behar da abiapuntua. Horrenbestez, berariaz azaldu behar da eskubideak urratu edo urraketa horiek justifikatu nahiz legitimatzen duen egintza ororen aurka dagoela, gaur egun, etorkizunean nahiz oraintsuko iraganean, ekintza terrorista edo oldarkorra edozein izanda ere.

III. Biktimak. Halako txostenetako nazioarteko estandarrei erreparatuz gero, biktimen errealtatea islatzean berariaz sartu beharko dira giza eskubideen urraketak, eta, funtsean, bizitzarako eta osotasunerako eskubidearen urraketak jasan dituzten pertsonen kasuak: erailketa-kasuak, pertsona zaurituak, torturatuak, mehatxatuak, estortsioa jasandakoak, erasoak pairatutakoak... Giza eskubideen urraketan nazioarteko estandarrak betetzen ez dituzten baina bukaera traumatikoa izan zuten beste gertaera batzuk, beraz, beste tratamendu eta esparru batean jorratu beharko liriateke.

IV. Adostasuna. Halako txostenak eskatu, egin, aurkeztu eta kudeatzean udalean ordezkatura dauden indar politikoen artean ahalik eta adostasun gehien bilatu eta sustatzea irizpide estrategikoa da, eta zaindu egin beharko da prozesu osoan zehar.

V. Generoaren dimentsioa. Halako txostenekin lotutako prozesu osoan generoaren azterketa zeharka sartzeko (1325 ebazpena, NBE), datuak generoaren arabera bereizi behar dira, besteak beste, indarkeriak dituen eragin desberdinak ezagutu eta aztertze aldera.

VI. Gizarte-partaidetza. Txosten hauek kalera eta herritarrengana memoriaren balio zehatz eta benetakoa hurbiltzeko erreferentziazko espazioa bihur daitezzen lortu behar da, horretarako beren gaitasun etiko eta hezitzailea sustatuz eta elkarrizketa, eztabaida eta gizarte-partaidetza bultzatuz.

2.2. Irizpide metodologikoak

I. Denbora-eremua. Denboraldia argi eta garbi ezartzea. 1960an hasi eta gaur arte iristea gomendatzen da.

II. Aurrekariak. Udaleko mozioak edo aitortenak, azterketak, artikuluak eta elkarrizketak bezalako aurrekariak biltzea izan da behar da batez ere abiapuntua.

III. Proiektua. Txostena egiteko ardura esleitu baino lehen, proiektu batean berariaz azaldu behar dira, gutxienez, helburuak, txostenaren egitura, metodologia eta irizpideak.

IV. Egitura. Txostenaren egiturak zerrenda kronologikoa eta gertaeren deskribapena uzartu beharko ditu agirien ikerketarekin eta elkarrizketa bidezko baliabidearekin.

V. Prestaketa. Txostena egiten hasi baino lehen, gizarte-agenteekin eta herriko politikariekin informazioa bildu eta elkarrizketan aritzeko aurretiazko prestaketa-lana egin behar da.

VI. Biktimak. Ezinbestekoa da eraildako biktimen familiekin eta giza eskubideen urraketa larrien biktima izan diren pertsonekin zuzenean komunikatzea.

VII. Erreferentziak. Txostenean gertaera biolentoak, traumatikoak edo suntsitzaileak gogoratu behar dira. Halaber, bizikidetzarako erreferentzia positibo izan ziren alderdi guztiak jaso behar ditu.

VIII. Elkarrizketak. Txostenaren azken agirian elkarrizketen atal bat jaso behar da. Bertan, memoriaren aniztasuna islatu beharko da, baina giza eskubideen gaineko konpromiso argia izango da muga. Atal horretan honako eragile hauek egon ahalko liriateke, gutxienez:

- Biktimak, batez ere herri-mailan ahaztuta geratu diren biktimak izan badira.
- Bakearen eta bizikidetzaren alde lan egin duten pertsonak edo elkarteak.
- Herri bakoitzeko gizarte- edo kultura-arloan erreferentziazkoak izan diren pertsonak.
- Oraintsuko iraganean udal-karguak eduki dituzten pertsonak.

IX. Ondorioak. Txostenean ondorioak eta gomendioak jaso behar dira berariazko atal batean, Inoiz ez errepikatu beharrekoa zehazteko. Atal honen egiturak oraintsuko memoriaren argi-ilunak azal ditzake, eta giza eskubideekin konpromiso integrala eta salbuespenik gabeya sustatu, iraganera, orainera eta etorkizunera begira.

X. Aurkezpena. Azken txostena aurkezteko ezaugarri jakin batzuk bete beharko liriateke, besteak beste:

- Txostena aurkezteko ekitaldia udalerrian sentikortasun ugari batzeko eta gizartea batzeko moduan diseinatu beharko litzateke.
- Azken txostena oinarritzko agiri irekia izan behar da, ekarpen berriekin osatu edo hobetu ahalko dena.
- Aurkezpenak ez du prozesua itxi behar; aitzitik, azken etapa bat ireki behar du, txostena hedatu, hausnarketa partekatua sortu, eta bizikidetzara hobetu asmoz.

Epilogoa

Gogora Institutua sortzeko Legearen zioen azalpenak kontuan hartu beharreko hainbat alderdi nabarmentzen ditu, balio kualitatibo handiko orientazio-argibideak baitira eta agiri honen epilogo gisa erabil baitaitezke.

- *Memoriaren eskubidea gizarte osoari dagokio, herritarrak dira-eta historiaren, oroipenaren eta memoriaren gordetzailerik eta oinordeko naturalak. Ahazteak ezinezko egiten du errekonozimendua, iraganaren bertsio bat inposatzen du, eta hutsune etiko bat sortzen du. Haren aurrean, herritarrek memoria demokratikoaren ezagutza historiko ez-neutral bat izateak bidea ematen du irizpide propioak lortzeko eta, gainera, libreago egiten ditu herritarrak.*
- *Horiek horrela, memoriaren eta bizikidetzaren politika publikoa ez da biktimei begira bakarrik egiten, herritar guztiei begira baizik, haien erantzukizuna eskatzen baitu. Horrela egiten ez bada, biktimak bakarrik gelditzen dira haien oroitzean, eta biktima izan ez direnak memoria kolektibotik kanpo geratzen dira. (...) biktimen eta herritarren arteko banaketa horrek (...) egoera horretan ixten du biktima, betiko itxi ere, eta ikusle hutsa bihurtzen du herritarra. (...) memoriak ibilbide etiko bat iradoki behar du, herritarrek parte hartzeko ibilbide bat.*





4. dokumentua

Oraintsuko Memoriaren arloko
jarduketan balantzea
XI Legegintzaldian





Oraintsuko Memoriaren arloko jarduketan balantzea XI Legegintzaldian

Memoriaren,
Bizikidetzaren eta
Giza Eskubideen
Institutua

gogora

Instituto de la Memoria,
la Convivencia
y los Derechos Humanos

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Sarrera

Txosten honek Oraintsuko Memoriaren esparruan egindako jarduerak jasotzen ditu. Jarduera horien helburua izan da udal-erakundeekin, gizarte zibilarekin, hezkuntza-sektorearekin eta biktimekin partekatzea Oraintsuko Memoriari buruzko elkarrizketa eta hari buruzko hausnarketa kritiko eta pluralaren balio zibiko, etiko eta pedagogikoak.

Oraintsuko Memoria terrorismoaren biktimen legeek 1960tik gaur arte ezartzen duten denbora-esparruan kokatzen da. ETaren adarren terrorismoak, GALen terrorismoak eta eskuin muturreko beste talde batzuek eta motibazio politikoko testuinguru batean eragindako giza eskubi-deen urraketek eragindako denbora historikoak markatuta dago.

Indarkeriazko gertaera horiek Oraintsuko Memoriari dagokion aldiaren tratatzeko, kontuan hartu dira zer testuinguru politikotan kokatzen den: diktadura frankistaren amaiera, trantsizioa eta demokrazia. Zeregin konplexua izan da eta izaten jarraituko du, denboran izan duen hurbiltasunagatik eta jokoan eta eztabaidan jartzen dituelako, besteak beste, gertatutakoaren sorrera, erruaren eta erantzukizunen diagnostikoa eta sufrimenduaren aitortza eta erreparazioa edo hura eragin zuten ekintzen kalifikazioa.

Eztabaida horiek Gogora Institutuan egindako jardueretan egon dira, adostasunez eta desadostasunez. Baina esan daiteke txosten honetan deskribatutako ekimenek adostasun- eta onarpen-maila handia izan dutela bai Zuzendaritza Batzordean, bai hezkuntza-komunitatean eta, oro har, gizartean osoan.

Deskribatutako ekimenen beste ezaugarrietako bat ekimen horiek izan duten parte-hartze zabala da: herritarrek eta hezkuntza-eremuak oso erantzun positiboa eman diete Gogora Institutuak bultzatutako proiektuei, eta, funtsean, horretan datza haien arrakasta. Parte-hartze plurala, zalantzarik gabe, zoru sendoa da gure iragan berrienaren memoria plurala eraikitzeko zeregin konplexu horretan aurrera egiteko, begirada etiko eta kritiko batetik.

1. Memoriaren Plaza

Memoriaren Plaza erakusketa ibiltaria da, eta 2016ko urtarriletik Euskadiko herri nagusiak zeharkatu ditu, memoriaren eraikuntzan gizartearen parte-hartzea bultzatzeko.

Memoria eraikitzea zeregin partekatu eta plurala da: pertsona guztiok dugu horretarako eskubidea, eta guztiok dugu parte hartzeko gonbita. Edozein pertsona da memoriaren parte. Hori da *Memoriaren Plaza* ekimenaren espiritua.

Horregatik, memoria kolektiboa eraikitzen lagundu dezakeen parte-hartze demokratikorako gune gisa pentsatuta dago erakusketa. Herritarrak gonbidatuta daude beren testigantza idatzia edo grabatua ematera, horretarako prestatutako kabinen bidez, memoriaren puzzlearen eta eraikuntza partekatuaren pieza gisa.

Erakusketak aukera ematen du ETArek eta GALen terrorismoaren eta beste terrorismo bartzuen biktimen testigantzak eta bizipenak entzuteko, modu berezian, bai eta indarkeria polizial ez-zilegiaren biktimenak ere. Ikus-entzunezko edukia duten azalpen-elementuen eta elementu interaktiboaren bidez, herritarrei eskatu nahi zaie gogoeta kritikoa egin dezatela Euskadin gertatutako giza eskubideen urraketei buruz.

Oraintsuko Memoria izeneko aldia (1960-2015) denboran gertukoak diren gertaerekin eta sufrimendu pertsonal eta familiarrekin lotuta dago, baita oraindik dauden min sozial eta politikoen ere. Bertan, biktimen testigantzak garrantzi berezia hartzen du, eta balio handiko osagaia da bizikidetzara eraikitzeko. Memoriaren Plazak biktimen eta gizartearen arteko elkarrizketa ahalbidetu du, taldeko mahai-inguruak eta dinamikak programatuz; horietan, entzunaldia eta parte-hartzea tartekatzen dira.

Horrez gain, *Memoriaren Plazan*, DBHko 4. mailako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleentzako hezkuntza-tailerrak daude, ikastetxeekin lankidetzan. Helburua da biktimen testigantzen bidez indarkeriaren eragina ezagutzea eta iraganaren hausnarketa kritikoa egin ahalizatea. Ikasleek ere euren ekarpena egiten diote memoria eraikitzeari, euren mezua erakusketaren hormetan islatuz.

XI. legegintzaldian Memoriaren Plaza erakusketaren 18 edizio egin dira 15 udalerritan eta EAEko unibertsitateetako hiru campusetan: Deustun, Mondragon Unibertsitatean eta EHUren Donostiako Campusean.

Zarautz

Data: 2016ko urriaren 4tik 13ra.

Kokalekua: Munoa Plaza.

Urriaren 6an, Mikel Paredesen eta Arantza Oñederraren testigantzak ikusteko programazioa egin zen; Mikel Paredes frankismoan fusilatutako Jon Paredesen anaia da, eta Arantza Oñederra, GALEk hildako Ramon Oñederraren arreba.

Halaber, urriaren 10ean, Cristina Berzadiren testigantzaren ikustaldia programatu zen; Angel Berzadiren alaba da Cristina, ETak hildako lehen zarautzarrarena.

Zarauzko *Memoriaren Plazan* 2.177 lagunen bisita izan ziren. Horietatik 666 Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako 10 ikastetxetako ikasleak ziren, zeintzuek tailer didaktikoetan parte hartu baitzuten.

- Ikasberri Ikastola, Azpeitia. Ikastolen elkarte.
- Arantzazuko Andra Mari ikastetxea, Donostia. Kristau Eskola.
- Sustater Oinarrizko prestakuntzako Ikastetxea. Donostia.
- CPEIPS Ekintza ikastola HLBHIP. Donostia.
- La Salle. Zarautz. Kristau Eskola.
- Oteitza Lizeo Politeknikoa. Zarautz.
- Maria eta Jose Ikastetxea, Zumaia. Kristau Eskola.
- IES Lizardi Institutua BHI. Zarautz.
- Salvatore Mitxelena Ikastola, Zarautz. Ikastolen elkarte.
- ADSIS DONOSTIA OLHIP
- Antoniano Ikastetxea, Zarautz. Kristau Eskola.



Memoria Plaza:
Zarautz

Arrasate

Data: 2016ko azaroaren 28tik abenduaren 4ra.

Kokalekua: Herriko plaza.

Herriko biktima bik euren testigantza eskaini zuten: Olatz Etxabek, Batallon Vasco Españolen biktimak, eta Sandra Carrascok, ETaren biktimak.

Erakusketak 1.674 bisitari izan zituen; horien artean, 7 ikastetxetako 405 ikasle, Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako tailer didaktikoetan parte hartu zutenak.

- Mariaren Lagundia Ikastola, Bergara. Kristau Eskola.
- Arizmendi Ikastola, Arrasate-Mondragón. Ikastolen Elkarte.
- IES Kurtzebarri, Aretxabaleta.
- CPEIPS Aranzadi Ikastola, Bergara. Ikastolen Elkarte.
- Arizmendi Ikastola, IES Gaztelupe, Ikastolen Elkarte.
- IES ARRASATE, Arrasate
- CIFP Aretxabaleta Lanbide Heziketako Zentroa, Aretxabaleta.



Memoria Plaza:
Arrasate

Getxo

Data: 2017ko martxoaren 13tik 19ra.

Kokalekua: Geltokiko plaza.

Martxoaren 13an, Jordi Lidónen lekukotasuna eman zen, José M^a Lidónen semearena; José M^a Lidónen izan zen ETAk Getxon erail zuen azkena. Programazioa osatzeko, mahai-inguru bat egin zen, eta terrorismoaren eta indarkeriaren biktimek hartu zuten hitza: Carmen Galdeano, Alex Moreno, Jaione San Sebastian eta Pedro Roman.

1.956 lagun hurbildu ziren Getxoko *Memoriaren Plazara*, eta antolatutako ekitaldietan parte hartu zuten. Horietatik 302 Bigarren Hezkuntzako ikasleak dira, tailer didaktikoetan parte hartu dute, eta inguruko 9 ikastetxetatik etorri dira.

- Ibaiondo Lanbide Heziketako Zentroa, Areeta.
- Erandioko Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutua.
- Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Madre Del Divino Pastor ikastetxe pribatua, Areeta. Kristau Eskola.
- Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Jado ikastetxe pribatua, Altxaga. Kristau Eskola.
- Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Ntra. Sra. De Las Mercedes ikastetxe pribatua, Leioa.
- Uribe-Kosta Bigarren Hezkuntzako Institutua, Plentzia.
- Artaza-Romo Bigarren Hezkuntzako Institutua, Leioa.
- ADSIS Oinarrizko Lanbide Heziketako Zentroa, Leioa.
- Tartanga Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua, Erandio.



Memoria Plaza:
Getxo

Lasarte-Oria

Data: 2017ko apirilaren 3tik 9ra.

Kokalekua: Okendo plaza.

Apirilaren 4an, mahai-inguru bat egin zen erakusketan, eta terrorismoaren biktima hauek parte hartu zuten: Josu Elespe, Feli Goikoetxea eta Manoli Urritegi. Apirilaren 6an, oraintsuko memoriari buruzko bigarren mahai-ingurua antolatu zen: Jesus M^a Zaballos (Lasarte-Oria), Luis Intxauspe (Hernani) eta Mikel Pagola (Urnieta) alkateek parte hartu zuten.

Memoriaren Plaza 1.111 lagunek bisitatu zuten; horietatik 119 Bigarren Hezkuntzako ikasleak izan dira, inguruko 4 ikastetxetakoak.

- Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako San Ignacio De Loiola ikastetxe pribatua, Donostia.
- Hernaniko Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua.
- Lasarte-Oriako Bigarren Hezkuntzako Institutua.
- Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako Aita Larramendi ikastetxe pribatua, Andoain.



Memoria Plaza:
Lasarte-Oria

Gernika-Lumo

Data: 2017ko apirilaren 22tik 27ra.

Kokalekua: Pasealekua.

Gernikako *Memoriaren Plaza* bonbardaketaren 80. urteurreneko ospakizunekin batera egin zen, eta, beraz, ekitaldien programazio osagarria gertaera horren eta memoria historikoaren ingurukoa izan zen.

Erakusketan 1.968 bisitari izan ziren; horietatik 107 ingurumariko Bigarren Hezkuntzako 7 ikastetxetako ikasleak, erakusketa-guneko tailer didaktikoetan parte hartu zutenak.

- Berakruz Ikastola, Markina. Eliz Barrutiko Ikastetxeak.
- San Fidel Ikastola, Gernika-Lumo. Eliz Barrutiko Ikastetxeak.
- Bermeoko Oinarrizko Udal Lanbide Heziketako Ikastetxea.
- Barrutialde Bigarren Hezkuntzako Institutua, Gernika-Lumo.



Memoria Plaza:
Gernika

Santurtzi

Data: 2017ko maiatzaren 17tik 24ra.

Kokalekua: Arrantza-portua.

Oraingo honetan, erakusketaren programazio osagarriak Santurtziko portutik bertatik haurrak ebakuatu zituzten 80. urteurrenaren oroitzapena izan zuen ardatz.

Santurtzin, bisitari ugari izan dira, 4.109 guztira, herriko San José de Calasanz ikastetxeko ikasle batzuk barne.



Memoria Plaza:
Santurtzi

Portugaletete

Data: 2017ko irailaren 21etik 28ra.

Kokalekua: eguzki plaza

Erakusketaren gunean mahai-inguru bat egin zen, eta honako hauek parte hartu zuten: Nerea Barrios eta Ivan Ramos, ETaren biktimak, eta Fermin Perez Elexpe, indarkeria polizial ez-zilegiaren biktima. Horietako bik, Nereak eta Ferminek, lehen aldiz egin zioten aurre ikusleen aurrean euren bizi esperientzia kontatzeari. Ivan Ramosek, aldiz, bere jaioterrian egin zuen lehen aldiz.

2.824 lagunek bisitatu zuten *Memoriaren Plaza* gunea, eta jardueren programa osagarrian parte hartu zuten. Horien artean, Bigarren Hezkuntzako 214 ikaslek, inguruko 6 ikastetxetakoak.

- Santurtziko San Jose de Calasanz ikastetxea.
- Sestaoko Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutua.
- Portugaleteko Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutua.
- Xabier Ikastetxea, Portugaletete. Kristau Eskola.
- Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Ntra. Sra. Del Carmen ikastetxe pribatua, Portugaletete.
- Portugaleteko Antonio Trueba Ikastetxe Publiko Integratua.



Memoria Plaza:
Portugaletete

Sestao

Data: 2017ko azaroaren 6tik 12ra.

Kokalekua: San Pedro plaza.

Biktimen mahai-ingurua hiru emakumek osatu zuten. Carmen Torres kazetari eta idazleak senarraren hilketaz hitz egin zuen; ETak hil zuen senarra, Jose Maria Portell kazetaria, 1978an. Harekin batera egon ziren Ines Nuñez eta Nerea Barrios: Ines, indarkeria polizial ez-zilegiak 1977an eraildako Francisco Nuñezen alaba da, eta Nerea, ETak 1988an hildako Jose Luis Barriosen alaba.

Sestao *Memoriaren Plazako* ekitaldi osagarrietan 2.196 lagunek parte hartu zuten; horien artean, Santurtziko Oinarrizko Lanbide Heziketako ikastetxeko ikasle talde batek.



Memoria Plaza:
Sestao

Barakaldo

Data: 2017ko azaroaren 27tik abenduaren 3ra.

Kokalekua: Udaletxeko plaza.

Edizio honetan, urte horretako Memoriaren Egunaren ospakizunean grabatutako ikus-entzunezko pieza bat gehitu zitzaion erakusketari. Bertan, gazte talde batek memoriaren transmisioari buruz eta bere belaunaldiak gertatutakoa ezagutzeko duen beharrari buruz egindako hausnarketak eta eskaerak jasotzen dira. Gazte horiek, unibertsitate-adineko ikasleak, Eusko Jaurlaritzaren Adi-Adian programan parte hartu zuten Bigarren Hezkuntzako etapan, biktimei euren testigantza ikasgelan kontatzen entzunez.

Guztira 2.721 lagun joan ziren Barakaldoko *Memoriaren Plaza* bisitatzerara; horien artean, 127 ikasle, 2 ikastetxetakoak.

- Barakaldoko Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Salestarren ikastetxe pribatua. Kristau Eskola.
- Santurtziko Oinarrizko Lanbide Heziketako ikastetxea.



Memoria Plaza:
Barakaldo

Irun

Data: 2018ko urtarrilaren 22tik 28ra.

Kokalekua: Urdanibia plaza.

Urtarrilaren 24ko mahai-inguruan parte hartu zuten Maider Garciak, Alberto Muñagorrik, Maria Angeles Martínezek eta Maria Isabel Gonzalezek, terrorismoaren eta indarkeria polizial ez-zilegiaren biktimak. Maider García Juan Carlos García Goenaren hiru alabetatik zaharrena da; Juan Carlos García GALEk hil zuen, Maiderrek 5 urte besterik ez zituela. María Isabel González Alberto Soliñoren alarguna da; Alberto Soliño indarkeria polizial ez-zilegiaren biktima izan zen, kalez jantzitako guardia zibil batek hil zuen. María Ángeles Martínez Irungo Udaleko zinegotzi Julio Martinezen alaba da; Julio Martínez ETAk hil zuen, alabak 18 urte zituela. Eta Alberto Muñagorri ETAREN bonba batek zauritu zuen, 15 urte zituenean.

Ekitaldi horretara 165 lagun joan ziren, eta guztira, 1.800 lagunek bisitatu zuten erakusketa, Bigarren Hezkuntzako 2 ikastetxetako ikasleak barne.

- La Salle ikastetxea, Irun. Kristau Eskola.
- Irungo Bigarren Hezkuntzako Eguskitza Institutua.



Memoria Plaza:
Irun

Beasain

Data: 2018ko apirilaren 23tik 29ra.

Kokalekua: San Martin plaza.

Beasaingo *Memoriaren Plazan* mahai-inguru bat egin zuten Maribel Gonzalezek, Manoli Urriategik, M^a Carmen Hernandezek, Alberto Muñagorrik, Edurne Albisuk, Jose Miguel Gomez Elosegik eta Andoitz Alkortak, terrorismoaren eta indarkeriaren biktimek. Euren bizi-esperientzia kontatu zuten, eta bizikidetzari eta enpatiari buruzko elkarrizketa bat sortu zen bertaratutakoekin; horrela, bizitako sufrimenduaren inguruko isiltasuna haustea erraztu zen.

Ekitaldi horretara 130 lagun inguru joan ziren, eta nabarmentzekoak dira, aurtengo edizioan, tailer didaktikoetan parte hartu zuten 370 ikasle, ingurumariko 5 ikastetxetatik etorriak. Guztira, 1.010 lagunek bisitatu zuten erakusketa, eta ekitaldi osagarrietan parte hartu zuten.

- Haztegi Ikastola, Legazpi. Ikastolen Elkartea.
- Oinarrizko Lanbide Heziketa Goierri Eskola, Ordizia.
- Beasaingo Bigarren Hezkuntzako Institutua.
- La Salle, Beasain. Kristau Eskola.
- Jakintza ikastola, Ordizia. Kristau Eskola.



Memoria Plaza:
Beasain

Galdakao

Data: 2018ko maiatzaren 14tik 20ra.

Kokalekua: Muguru kalea.

Jardueren egitarauaren barruan, nabarmentzekoa da egindako mahai-ingurua, non parte-hartzaile izan baitziren Alex Moreno, Axun Olaeta, Nerea Batiz, Jaione San Sebastian, Abel Uceda eta Alberto Muñagorri, terrorismoaren eta indarkeriaren biktimak guztiak. 115 lagun izan ziren ekitaldian, eta, guztira, 1.269 lagunek bisitatu zuten erakusketa; horietatik, 128 ikaslek, ingurumariko 4 ikastetxetakoak.

- Galdakaoko Bengoetxe Bigarren Hezkuntzako Institutua.
- Basauriko Helduen Hezkuntza Iraunkorreko Ikastetxea.
- Etxebarriko Bigarren Hezkuntzako Institutua
- Basauriko Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Pribatua.



Memoria Plaza:
Galdakao

Amorebieta-Etxano

Data: 2018ko irailaren 24tik urriaren 3ra.

Kokalekua: Herriko plaza.

Erakusketaren irekiera-ekitaldian terrorismoaren eta indarkeriaren biktimek parte hartu zuten. Hitza hartu zuten, bertaratutakoekin euren bizi-esperientzia partekatuz, eta elkarrizketa sortu zen herritarrek indarkeriari dagokionez une historiko desberdinetan izan duten erreakzioaren inguruan.

Edizio horretan nabarmentzekoa da tailer didaktikoetan parte hartu zuten ikasleen kopurua: 593 ikasle, ingurumariko 7 ikastetxetakoak. Guztira, 1.666 bisitari izan zituen erakusketak.

- Zornotzako Urritxe Bigarren Hezkuntzako Institutua.
- Lauaxeta ikastola, Amorebieta-Etxano.
- San Jose – Jesuitak ikastetxea, Durango. Kristau Eskola.
- Andramari Ikastola, Amorebieta-Etxano. Ikastolen Elkartea.
- Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Karmengoama ikastetxe pribatua, Zornotza. Kristau Eskola.
- Fray Juan De Zumarraga Bigarren Hezkuntzako Institutua, Durango.
- Amorebieta-Etxanoko El Carmelo Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatua. Kristau Eskola.



Memoria Plaza:
Amorebieta

Laudio/Llodio

Data: 2018ko urriaren 15etik 21era.

Kokalekua: Aldaikoerreka.

Erakusketaren aurkezpen-ekitaldian gazteek memoriari buruz egindako gogoetak biltzen dituen bideoa proiektatu zuten. 2017ko Memoriaren Egunean grabatutako bideoa da, eta memoriaren transmisioa eta belaunaldi gazteenek Euskadiko azken aldiko historian gertatutakoa ezagutzeko duten beharra izan zituen ardatz.

1.153 lagunek bisitatu zuten erakusketa, eta horietatik 149 bigarren hezkuntzako ikasleak dira, 4 ikastetxetakoak.

- Laudio Ikastola. Ikastolen Elkartea.
- Bigarren Hezkuntzako Institutua.
- Laudioalde Lanbide Eskola (Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Zentroa).
- Basauriko Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutua.
- Amurrioko Virgen Niña "Amaurre" ikastetxea. Kristau Eskola.



Memoria Plaza:
Llodio

Basauri

Data: 2018ko urriaren 24tik 30era.

Kokalekua: San Fausto plaza.

Terrorismoaren eta indarkeriaren biktimek *Memoriaren Plazaren* aurkezpenean parte hartu zuten Basaurin, ekitaldian parte hartu zuten ehun bat herritarrekin batera. Biktimek hitza hartu zuten gertaera traumatiko bati buruzko lekukotasuna emateko, alegia, senide bat indarkeriaz galtzeari buruzkoa, eta elkarrizketa eraikitzailea sortu zen bizikidetzari buruz. Oraingoan, honako hauek parte hartu zuten: Pedro Roman, Iciar Esparta, Mari Carmen Hernandez, Dori Monasterio, Abel Uceda, Ivan Ramos eta Nerea Barrios.

Guztira, 1.084 lagunek bisitatu zuten *Memoriaren Plaza* Basaurin; besteak beste, ingurumari-ko ikastetxeetako 200 ikaslek.

- Otxarkoaga Oinarrizko Lanbide Heziketako Zentroa, Bilbo. Elizbarrutiko Ikastetxeak.
- Artxandape Ikastola, Bilbao. Elizbarrutiko Ikastetxeak.
- Basauriko Denon Eskola Helduen Hezkuntza Zentroa.
- Basauriko Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutua.



Memoria Plaza:
Basauri

Memoriaren plaza **Unibertsitatean**

2016-2020 aldian, bete egin da Eusko Jaurlaritzak eta EAEko hiru unibertsitateek 2017ko urriaren 4an sinatutako akordioa, unibertsitateen barruan giza eskubideen eta bizikidetzaren hezkuntzarekin lotutako jarduerak modu partekatuan sustatzeko eta dinamizatzeko. Akordioan jasotako jarduketetako bat *Memoriaren Plaza* ekimena unibertsitateera eramatea zen.

Jarduera honen helburua da ikasleen artean ikerketa kritikoa sustatzea herrialde honetan azken hamarkadetan gertatutakoari buruz, kontuan hartuta ikasleen belaunaldi horrek ez zuela lehen pertsonan bizi iragan hori. Bestalde, helburu du ekimenak piztea ikasleen eta irakasleen artean iraganari buruzko gogoeta kritikoa, partekatua eta belaunaldien artekoa egiteko, eta horrekin, memoriaren gaur egungo eta etorkizuneko esanahiari buruzko elkarrizketa pedagogikoa bilatzeko.

Memoriaren Plaza Unibertsitatean ekimenaren 3 edizioak data hauetan egin dira:

Mondragon Unibertsitatea, Arrasaten

Data: 2018ko maiatzaren 15etik 25era.

Kokalekua: Goi Eskola Politeknikoko liburutegia.

Denbora-tarte horretan, 135 lagunek bisitatu zuten erakusketa.



Memoria Plaza
Mondragon
Unibertsitatea

Deustuko Unibertsitatea, Bilbon

Data: 2018ko azaroaren 5etik 16ra.

Emplazamiento: Unibertsitateko klaustroa.

Erakusketa unibertsitate-komunitatearentzat ireki zen, azaroaren 10ean ospatzen den Memoriaren Egunaren testuinguruan. Azaroaren 8an, erakusketaren gunean, biktimen eta gizartearen arteko elkarrizketa egin zen, "*Memoriaren Pedagogia kritikoa*" izenburupean. Euskal gizartea: argiak eta itzalak ". Memoriari buruzko talde-dinamika horretan 200 lagunek pate hartu zuten —ikasleek, terrorismoaren eta indarkeriaren biktimek, erakundeetako ordezkariak, unibertsitateko ki-deek eta herritarrek—, gure hurbileko iraganari buruzko hausnarketa kritikoa egiteko.



Deustuko
Unibertsitatea,
Bilbao

EHU, Donostiako Campusean

Data: 2019ko martxoaren 21etik 29ra.

Kokalekua: Carlos Santamaria zentroa.

Oraingoan, Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko ikasleentzako tailer didaktikoak hitzartu zituzten, eta 225 lagunek parte hartu zuten. Guztira 359 lagunek bisitatu zuten erakusketa.



Memoriaren Plaza
Unibertsitatean
UPV-EHU Donostia

Parte-hartzeari buruzko datu orokorrak

XI. Legegintzaldiko *Memoriaren Plazaren* 18 edizioetan 29.998 bisitari izan ditu erakusketak. Horietatik 3.620 DBHko 4. mailako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleak dira, 70 ikastetxetatik etorritakoak. Unibertsitateko 405 ikaslek parte hartu dute tailerretan edo talde dinamiketan.

Edizioak	18
Udalerria	15
EAEko unibertsitateetako campusak	3
Bisitariak	29.998
DBHko 4. mailako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleak	3.620
Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak	70
Unibertsitateko ikasleak	405
Ikus-entzunezko lekukotasunak jendaurrean jartzea	4
Mahai-inguruak eta aurkezpenak terrorismoaren eta indarkeriaren biktimen parte-hartzearekin	9
Talde-dinamika: "Memoriaren pedagogia kritikoa. Euskal gizartea: argiak eta itzalak"	1
Oraintsuko Memoriari buruzko mahai-ingurua inguruko alkateekin	1

2. Oroitzapen-ekitaldiak

2.1. Memoriaren eguna

2017ko Memoriaren Eguna “Gazteak eta Memoria” izenburupean ospatu zen, hurrengo belaunaldiari memoriaren transmisioa helarazteko. Bertan, bere garaian Adi-Adian modulan parte hartu zuten hogeit hamar gaztek parte hartu zuten: hezkuntza-moduluaren helburua da ikasgeletan giza duintasuna, bizikidetzeta eta enpatia ikastea, biktimen testigantzen bidez.

Gazte horiek honako hauek partekatu zituzten: memoriaren inguruan egindako hausnarketak, biktima baten esperientzia gertutik ezagutzeak dakarrena, etorkizunari begiratzea edo hurrengo belaunaldiei memoriaren transmisioari buruz duten iritzia.



2017ko Memoriaren Eguna.
Ekitaldiaren emanaldi osoa.

2018ko Memoriaren Egunaren ardatza euskal gizarteak oraintsuko memorian jokaturako papera izan zen, “Memoriaren pedagogia kritikoa. Euskal gizartea: Argiak eta itzalak” lelopean. Oraingoan, terrorismoaren eta indarkeriaren lau biktimek eman zuten testigantza: Jaione San Sebastian, Sandra Carrasco, Mainer Garcia, Naiara Zamarreño eta Ainara Olaciregui.



2018ko Memoriaren Egunaren.
Ekitaldiaren emanaldi osoa.

2019an, Gogora Institutuak ez zuen egun hori egitea sustatu, hauteskunde orokorrekin bat zetorrelako.

Memoriaren Eguneko ekitaldi nagusia antolatzeaz gain, Gogora Institutuak urtero udal-letan Memoriaren Eguna ospatzea sustatu du. Horretarako, programazioa diseinatzen lagundu du, eta udalen esku jarri institutuaren ikus-entzunezko funtsa: biktimen testigantzen funtsa eta dokumentalen ikus-entzunezko funtsa.

2.2. 50. urteurreneko memoria ekitaldiak

Fermín Monasterio

2019ko apirilaren 9an Eusko Jaurlaritzak Fermin Monasterio gogoratu eta omendu zuen, ETAk hil eta 50. urtera. Ekitaldia Bilboko Casilda parkean egin zen, terrorismoaren biktimak omentzeko oroitarrian, eta Iñigo Urkullu lehendakaria izan zen buru; Jaurlaritzako kideez gain, Juan Mari Aburto Bilboko alkatea eta Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentea ere izan ziren ekitaldian.

Lehendakariak hurbiltasuna, afektua eta elkartasuna adierazi zizkion Fermin Monasterioren familiari eta eta solemnitaterik aldarririkatu zuen hilketa hura inoiz gertatu behar ez zen bidegabekeria bat izan zela. Fermin Monasterio ETAk hildako lehen zibila izan zen.



*Fermin Monasterioren
oroitzapen eta
omenaldi-ekitaldea*

Antonio Fernández eta Josu Murueta

Urte bereko urriaren 31n, Erandioko Udalak eta Gogorak Polizia Armatuaren tiroek hildako Antonio Fernández eta Josu Murueta gogoratu zituzten, 1969an. Erandioko alkate Aitziber Olibanek eta Gogora Institutuko zuzendari Aintzane Ezenarrok hartu zuten hitza ekitaldian, familiak aurre egin behar izan zioten babesgabetasuna aitortzeko. Gainera, Antonio Fernandez eta Josu Muruetaren memoria gordetzeko eta zaintzeko konpromisoa erakutsi zuten, etorkizuneko belaunaldiek inoiz gertatu behar ez zen eta errepikatu behar ez zen akatsa eta izugarrikeria ezagut dezaten.



*Antonio Fernández
eta Josu Muruetaren
oroitzapen eta
omenaldi-ekitaldea*

3. Testigantzen eta dokumentalen ikus-entzunezko funtsa

3.1. Lekukotzak

Biktimen grabazioen Gertu Programa garatzen jarraitu da, hildakoen, zaurituen eta/edo mehatxatutako biktimen lekukotza berriak jasoz, bai Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsonenak, bai beste autonomia-erkidego batzuetan bizi direnenak.

Guztira, 49 grabazio berri egin zaizkie atentatuen biktimei eta/edo mehatxatutako pertsoneri, 2 hildako biktimen senideei, eta 19 grabazio egin dira beste autonomia-erkidego batzuetan, bai hildakoen senideei, bai atentatuen biktima izan zirenei.

Gaur egun, terrorismoaren eta indarkeria polizial ez-zilegiaren 190 lekukotzek osatzen dute biktimen lekukotzen ikus-entzunezko funtsa.

Biktimen ikus-entzunezko funtsa hainbat alderditatik jarri da jendaurrean.

Alde batetik, *Memoriaren Plaza* ekimena, berez, ikus-entzunezko funts hori jendaurrean jar-tzean datza. Bestalde, 2018ko ekainean, *Gogora Liburutegia* jarri da martxan memorian espe-zializatutako dokumentazio-zentro gisa. Zerbitzu horrek sarbide publikoko ikusgela bat du, non herritarren eskura jarri baita terrorismoaren eta indarkeriaren biktimen ahozko memoriaren artxiboa.

3.2. Dokumentalak

a.- Gogora Institutuak Euskadiko mugimendu bakezaleekin lotutako bi dokumental egi-teko ardura hartu du.

- "Mugimendu bakezaleak Euskadin". Kronologikoki jasotzen ditu mugimendu horien so-rrera eta 1980ko hamarkadatik ETArek amaierara arte gizarteari egindako ekarpenak.
- "Euskal Herriko Bakearen aldeko Koordinakundea" dokumentalak elkarte horren histo-ria jasotzen du, elkarte hori osatu zuten pertsonekin egindako elkarrizketen bidez.

b.- Oraintsuko memoriari heltzen dioten eta diru-laguntzen deialdiaren bidez finantza-tzen diren dokumentalak

2017tik hiru deialdi egin dira (2020koa argitaratzeko dago, apirilera aurreikusita baitago). Deialdi horietan, Euskadiko oraintsuko memoriarekin lotutako 4 dokumental lagundu dira diruz.

- "Pasaiaiko Badia"
- "García Goena. Caso Abierto"
- "163 días: la huelga más larga del franquismo"
- "Ez, eskerrik asko! Gladysen leihoa".

4. Memoriaren hezkuntza-ekarpenak

4.1. Biktimen testigantzen funtsa hezkuntza-komunitatearen esku jartzea

2018az geroztik, webgune bat dago eskuragarri, erabiltzaile eta pasahitz bidezko sarbidearekin, non ikastetxeen eskura jarri baita oraintsuko memoriaren aldia lantzen ari diren biktimen ikus-entzunezko funtsa.

4.2. Herenegun!

“Herenegun!” unitate didaktikoak Oraintsuko Memoria (1960-2018) izenekoari dagokion aldia jorratzen du. Ekimenaren helburu nagusia da Bigarren Hezkuntzako ikasleek Euskadiko oraintsuko historiaren aldi bereziki asaldatu eta bortitza ulertzen laguntzea. Era berean, baliabideak eskaini nahi dira ikasleek euren buruari galderak egin ahal izateko eta iraganeko gertaerak nola eta zergatik gertatu ziren eta orainaldian nola eragiten duten jakiteko. Gaur egun, jasotako ekarpenak gehitu zaizkio unitateari.

2019/2020 ikasturtean, hamar ikastetxe inguru hautatu dira esperientzia pilotua garatzeko, DBHko 4. mailako eta Batxilergoko 2. mailako ikasleekin.

5. Dibulgazio-ekitaldiak

5.1. “Literatura eta Memoria”

Gogora Liburutegiaren irekiera-ekitaldiarekin bat etorrira, 2018ko ekainaren 27an, literaturak memoriari egindako ekarpenei buruzko hitzaldi bat programatu zen. Hitzlariak Katixa Agirre, Iban Zaldúa eta Edurne Portela izan ziren.



Konferentziak.
Literatura eta
Memoria

Gogora Institutuaren liburutegiak 2.300 tituluz osatutako funts bibliografikoa dauka, Memoria Historikoan eta oraintsuko Memorian espezializatua, non terrorismoaren eta indarkeriaren biktimen testigantzen ikus-entzunezko funtsa nabarmentzen den. Gogora liburutegia Euskadiko Liburutegien Sarekoa da, eta jende guztiari irekita dago, sare horretako gainerako liburutegiek dituzten mailegu-aukera berberekin.

5.2. “Ser mujer en la ESMA. Testimonios para volver a mirar” erakusketa eta hitzaldia

Gogora Institutuaren egoitzan, “Ser mujer en la ESMA. Testimonios para volver a mirar” erakusketa ikusgai egon da. Erakusketa horretan, Argentinako diktadura militarrean (1976-1983) atxiloteta, tortura eta sarraskiaren ESMA zentro klandestinoan sexu-indarkeriaren biktima izan ziren emakumeen testigantzak erakusten dira (ESMA, Escuela de Mecánica de la Armada; Armadaren Mekanika Eskola). Erakusketa 2019ko urriaren 30ean ireki zen jendaurrean hitzaldi batekin, eta bertan parte hartu zuten Alejandra Naftal museoko zuzendariak, Graciela García Romero antzinako atxilotze-zentroko biktimak eta Aintzane Ezenarro Gogora Institutuko zuzendariak.

Bi erakundeek ekimen bateratu hori Gogora Institutuak beste herrialde batean egindako memoriaren eraikuntza Euskadin ezagutzeko eta zabaltzeko nazioartean egin duen lehen ekimena izan da. Gainera, ekimenaren helburua da gizarteek giza eskubideen urraketak prebenitzeko, eurez ohartarazteko, eztabaidatzeko eta urraketoi aurre egiteko dituzten erronkei buruz hausnartzen laguntzea. Halaber, konferentzia baliagarri izan zen ezagutarazteko Argentinako testuinguru historikoa, krimenak epaitzeko garatutako prozesu judiziala, euren aurrerapenak eta atzerapausoak, eta memoriaren eraikuntzan adostasunak sortzeak duen garrantzia.

ESMA Memoriaren Gune Museoa, Argentinako diktadura militarrean (1976-1983), herrialdean izan ziren atxiloteta-, tortura- eta sarraski-zentro klandestinoetako bat izan zen, eta, beraz, erronka handia izan da espazioari beste esanahi bat ematea. Alejandra Naftal zuzendariak esan zuenez, espazio berri hori, neurri handi batean, adostasunerako gaitasunari esker sortu da: “Eraikuntzako esperientzia bat, adostasun politiko eta sozialetan oinarrituta, eta espazio horiek hezkuntza-tresna ez-formal gisa ulertuta, hausnarketarako eta eztabaidarako gune gisa, erreparazio sinbolikorako gune gisa eta, batez ere, orainaren eta belaunaldi berrien problematiketatik memoriak transmititzeko eta eraikitzeko espazio gisa”.

ESMAan, emakumearenganako indarkeria espezifikoak hainbat forma hartu zituen; hitzaldian, alderdi horri heldu zitzaion, ESMAtik bizirik atera zen Graciela García Romeroren kontakizun pertsonalaren bidez. Graciela García 27 urte zituela bahitu zuten eta torturatu egin zuten, eta azaldu zuen nolako bortxaketak jasan zituzten berak eta berekin batera gatibu egon ziren emakumeek, eta bortxaketa horiek izan zirela “emakumeen aurkako erasorako estrategia sistematikoa, ekintzaile politiko gisa gu hausteko”.

Erakusketa 2019ko azaroaren 12ra arte egon zen zabalik.



Lehendakariak
Buenos Airesko Museo
Sitio de Memoria
ESMAko arduradunak
hartu ditu

5.3. “Vivir sin miedo, vivir con memoria” erakusketa

2019ko azaroaren 18an, “Vivir sin miedo, vivir con memoria” erakusketa inauguratu zen, Terrorismoaren Biktimen Elkartearena. Gogora Institutuak AVTrekin lankidetzan jardun du erakusketa abian jartzeko.

Biktimen testigantzak biltzen zituen erakusketak, baita Espainiako atentatu terroristen kronologia ordenatuak ere, bisitaren amaieran haien gogoetarekin parte hartzeko aukera ematen zien bisitariei.

Erakusketa Gogoraren egoitzan egon zen 2019ko abenduaren 21era arte.



“Vivir sin miedo /
Vivir con memoria”
erakusketa
inauguratu du
Lehendakariak



A large, stylized grey number '5' is the central focus. To its right is a small grey dot, and further right is a large green circle. The background features abstract, overlapping white and light grey shapes that resemble torn paper or layered planes.

5. dokumentua

Erorien haranera Euskaditik eramandakoei eta
beste erkidegoetatik lekualdatutako euskal
herritarrei buruzko txostena

Edizio eguneratua eta berraztertua

Erorien haranera

Euskaditik eramandakoei
eta beste erkidegoetatik
lekualdatutako euskal
herritarrei buruzko txostena

Bilbo, 2019ko urria

Memoriaren,
Bizikidetzaren eta
Giza Eskubideen
Institutua

gogora

Instituto de la Memoria,
la Convivencia
y los Derechos Humanos

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Edukia

1. Sarrera

2. Aurretiazko azterkizunak

2.1. Azterlanaren xedea

2.2.- Kotsultatu diren iturriak

3. Emaitzak

3.1. Cuelgamuros haranaren historia, eta lekualdaketak egiteko sortutako araudia

3.2. Lekualdaketan *modus operandia*

3.3. Zenbat gorpuzki eraman ziren Euskaditik eta zenbat euskal herritar eraman ziren Euskadi ez beste nonbaitetik

3.3.1. EAetik eramandako gorpuzkiak

3.3.2. EAE ez beste nonbaitetik eramandako gorpuzkiak

3.4. Lekuz aldatzeko baimenak

3.4.1. EAEn emandako baimenak

3.4.2. EAE ez beste lekuetatik eramandakoen baimenak

4. Ondorioak

I. Eranskina: Errolda

II. Eranskina: Gorpuzkiak ateratzeko eskatu duten familiak eta Gogorak egindako gestioak

1. Sarrera

2018ko azaroaren 22an Eusko Legebiltzarrek legez besteko proposamen bat onetsi zuen, eta lehen puntuan Eusko Jaurlaritzari honako hau eskatzen zitzaion: «*Gogoraren bidez egin dezala premiaz ikerketa xehe bat, argitzeko zenbat euskaldun ehortzi zituzten bidegabeki 'Erorien Harana' deritzon tokian, eta horiek identifika ditzala, zehazturik noiz eta nola eraman zituzten, eta, bereziki, familiaren baimenik izan ote zuten (...)*».

Proposamenak, jarraian, honela zioen: «*Ikerketa hori amaitzean, eta hartatik ateratako ondorioak ikusi ondoren, behar diren izapide administratiboak egingo dira hobietatik atera eta Euskadira lekualda ditzaten Cuelgamurosko haranean –gaur egun 'Erorien Harana' deritzonean– dauden euskal jatorria duten errepublikarren, miliziarren, gudarien eta herritarren gorpuzkiak, familiek hala nahi badute, familiakorik baldin bada, eta betiere horretarako baldintza teknikoak baldin badaude. Gorpuzkiak –familia-koen borondatea errespetatuz eta biktimen elkarrekin eta memorialistak, erakunde historikoak eta tokiko erakundeak aintzat hartuz– kokagune egokietan ipiniko dira –hala behar bada, eraiki egingo dira–, biktima horiek ezagupena eta erreparazioa izan dezaten».*

Eusko Legebiltzarrek eskatzen zituen funtsezko hiru gaiei erantzuna eman ahal izateko egin den ikerlan historikoaren ondorioak jasotzen ditu txosten honek, lortu diren emaitzak mugatuak badira ere, udaletako eta probintzietako artxiboetako dokumentu gabezia dela eta: 1) zenbat gorpuzki dauden ehortzita Erorien Haranean, Euskaditik eramanak eta Euskadi ez beste nonbaitetik eramandako euskal herritarrenak; 2) haien identifikazioa; eta 3) lekualdatzeko familia-baimenen egoera zein den.

Sarreraren ondoren, hiru atal handitan banatuta dago dokumentu hau.

Lehendabizikoan, aurretiazko azterkizunak argitzen dira, hau da, ikerlanaren helburua eta kontsultatu diren iturriak, eta lanerako erabili den metodologia.

Bigarren atalean, lortu diren emaitzak deskribatzen dira: lekualdatzeen historia administratiboa eta normatiboa; Euskaditik eramandako gorpuzkien eta beste autonomia-erkidego batzuetatik eramandako euskal herritarren behin-behineko kopuru totala, eta haien identifikazioa; eta lekualdaketa egiteko erabilitako *modus operandi*.

Amaitzeko, azken atalean, txostenaren ondorio nagusiak jasotzen dira, zailtasunetatik hasi, eta gomendioetan amaituz, emaitzak aletuz tartean. Atal horretan, lortutako emaitza guztien laburpen-taula bat ere erantsi da.

Gainera, bi eranskin ditu txostenak. Lehenak, zendu guztien errolda jasotzen du. Hori osatu gabe dago; izan ere, agian Espainiako beste leku batzuetatik eraman zituztenak gehitzea falta delako oraindik, eta identifikatu gabe daudenetako asko ere bai.

Bigarren eranskinean, azaltzen da zenbat euskal familia ari diren gaur egun gestioak egin beren familiartekoen gorpuzkiak berreskuratzeko, bai Gogoraren bidez eta baita nork bere kabuz. Familia horiek beren helburua lor dezaten Gogorak arautu duen prozedura eta egin dituen gestioak ere zehazten dira atal horretan.

2. Aurretiazko azterkizunak

2.1. AZTERLANAREN XEDEA

Hauek dira ikerlan honen helburu nagusiak:

1. Cuelgamuros haranera gorpuzkiak eraman izanaren testuinguru orokorra, inguruabarrak eta sortutako araudi-gorputza ezagutzea.
2. Euskal Autonomia Erkidegotik hara eramandako gorputzen eta gorpuzkien eta EAE ez beste nonbaitetik eramandako euskal herritarren kopurua zehaztea, eta argitzea haietako zenbat dauden identifikatuta.
3. Lekualdaketak familiaren baimenarekin egin ziren argitzea.

Helburu nagusi horiek erdiesteko, beharrezkoa da *Erorien Haranera* Euskaditik eramandakoen eta Euskaditik kanpoko euskal herritarren gorpuzkiei buruz kontsultatu den dokumentazioarekin errolda eguneratua sortzea, honako hauek zehazturik: nortasuna, sorlekua, bizilekua, lekualdaketako data eta tokia, eta baimen-mota.

2.2. Kontsultatu diren iturriak

Jarraian, ikerlan hau egiteko erabili diren iturriak eta haien osagarriak zehazten dira. Hala-ber, adierazten da iturri historikoak erabiltzeko aurkitu diren erraztasunak edota zailtasunak, eta haietako bakoitzaren ekarpena eta izan duen garrantzia azterlanerako egin behar izan den informazio-bilketaren ariketa konplexurako. Hori guztia, zehaztasun osoko metodologia erabiliz, aztergai den auzia berariaz argitu ahal izateko.

Hain zuzen ere, ikerlana egiteko kontsultatu diren iturriak honela laburbil litezke:

Iturri dokumentalak: garaiari buruzko lan orokorrak, azterketaren testuingurua islatzea ahalbidetzen dutenak, eta Gerra Zibilari buruzko herri jakin batzuetako lan monografikoak¹.

Artxibo-iturriak: artxiboak bisitatu dira haietako bakoitzak duen informazioaren kantitatearen eta kalitatearen arabera sekuentziaturik. Irizpide horri jarraiki, Artxibo Historiko Probintzietara joatea lehenetsi da; izan ere, haietan egon beharko zuketzen gobernu zibilek Cuelgamuros haranera eramandakoen inguruan izan zitzaizketen funtsak. Ondoren, EAEko udal-artxiboetan lekualdaketa-espeditenteak kontsultatu behar zirela ebatzi zen, eta Administrazioaren Artxibo Nagusian gai horri buruz kontserbatu diren funtsak aztertu behar zirela. Azkenik, *Erorien Haranera* gorpuzkiak eraman zituzten euskal herrietako udal-artxiboak bisitatu ziren bertara joanda, sarrera-irteera erregistroetako informazioa, eta artxibo horien arteko sarrera eta irteeren arteko elkarrekotasunak aurkitzeko.

Era berean, EAEko hiru hiriburu-erakunde hilerrietako liburuak kontsultatu dira, eta haietan lekualdaketa lokalizatu ditugu eta erkatu ditugu ikerlan honen I. eranskinean zerrendatzen diren izenekin.

Erorien Haranera eramandakoen eta Gerra Zibileko biktimen datu-baseak, txostenak eta erroldak; dokumentu hauen bidez lortutako informazioaren erkaketa: *Gerra Zibilean eta*

¹ Horretarako, liburu hauek kontsultatu dira: ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel: Los nombres de la memoria, Tolosa 1936-1945 I eta II liburukiak, 304-305, Aranzadi Zientzia Elkarteak, 2013; ETXEBARRIETA MIRONES, Jesús eta ETXEBARRIETA MIRONES, Txomin: *Balmaseda, 1936-1938: Pleguerra, guerra, toma de Balmaseda y represión*, 1993, 202; IBARRETXE, Asier eta MOLINUEVO, Karlos: *Arrigorriaga 1931-1939. Errepublikaren eta Gerra Zibilaren*, Arrigorriagako Udala, 2009, 198; KORTAZAR BILLELABEITIA, Jon: *Beasain: Oroimen Historikoa. IV. liburukia, Guda ondorena Beasainen 1937-1945*, Aranzadi Zientzia Elkarteak, 2018, 342; LASA BERGARA, Xabier: *Historia Oral: La voz dormida en la memoria. El impacto de la Guerra Civil (1936-1939) en la vida social de un pueblo de Gipuzkoa*, Oroituz Andoainean, 2006; MUNARRIZ HERNANDO, Anastasio: *República y Guerra en Portugalete*, 2012; ZULOAGA MUXIKA, Ione: *Alegia 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan*, Aranzadi Zientzia Elkarteak, Bakio, 2019, 201-202.

frankismoan Euskadin izandako giza eskubideen urraketei buruzko Oinarrizko Txostena, zeina Gogora lantzen ari den; *Erorien Haranean ehortziei buruzko eskabideen txostena*, Aranzadi Elkartearena, eta *Erorien Haranean ehortzien Errolda Nazionala*, Justizia Ministerioak landua. Erkaketa horri esker, hildakoen sorlekuari eta bizilekuari buruzko informazioa osatu dugu, EAE ez beste leku batzuetatik *Erorien Haranera* eramandako euskal herritarren zerrenda bat egin dugu, eta Gerra Zibilean zendu eta azkenean Madrilera eraman zituztenak identifikatu ditugu.

Familia-iturriak: familiartekoen gehitutako informazioa; esate baterako, ondare nazionalaren egiaztagiriak edo dokumentazio biografikoa; horien erkaketari esker, ehorketei buruzko informazioa gehitu ahal izan dugu.

Baliabide digitalak: gero eta handiagoa da digitalizatuta dagoen eta plataforma informatikoen bitartez eskura daitekeen informazioa. Azken 50 urte hauetan, ohiko dokumentu idatzien aldean, informazio-iturriak ikaragarri gehitu dira iraultza teknologikoaren eta hedabideen garapenaren ondorioz; era guztietako iturrien agerpena erakarri du horrek, ikus-entzunezko irudietatik hasi, eta sare informatikoraino. Ikerlanerako tresna berrien agerpen etengabe horrek iraganera jotzeko era berriak sorrarazten ditu, eta horrek, ezbairik gabe, aldatu egiten du historiografia egiteko eta ulertzeko dugun modua².

Esan behar da artxiboetan bilaketak egiteko oso lanabes baliagarria izan direla datu-baseak, eta baita Gerra Zibileko biktimen zerrendak edo haiei buruzko era askotako dokumentazioa jasotzen duten web orriak ere. Guztira, beste behin ere, horrek ahalbidetu du gure informazioa egiaztatzea, eta baita Cuelgamuros haranera eramandakoen hasierako zerrendan ez zeuden euskal herritarrak aurkitzea ere³.

Erabili diren iturri osagarri eta askotarikoen hauta aurkeztu ondoren, jarraian, zehaztasun handiagoz, kontsultatu diren iturriak, egin diren gestioak eta haietako bakoitzetik lortu den dokumentazioa azaltzen dira:

Erorien Haranean ehortziei buruz egindako eskabideen txostena, Aranzadi Elkarteak egin

Eusko Jaurlaritzak eskatuta (Justizia Saila eta Gogora), 2003 eta 2018 artean Aranzadi Zientzia Elkarteak egindako txosten bat da⁴. Txosten horretan, EAetik *Erorien Haranera* egindako 1.051⁵ lekualdatze jasotzen dira. *Erorien Haraneko* Beneditarren Abadiako Artxiboan kontsultatutako dokumentazioan oinarritzen da errolda hori.

Funtsean, dosierak zerrenda bat dakar, non zehazten baita lekualdatzearen data, erregistro-zenbakia, izen-abizenak, nondik ekarri zuten (zein udalerrri eta probintzietatik bidalitako gorpuzkiak diren) eta kolunbarioa (zein horma-hobitan ipini ziren). Gainera, oharpenak egin ahal izateko atal bat du.

Txosten hori izan zen ikerlan honi ekiteko abiapuntu nagusia, eta haren gainean eratu zen proiektua.

2 CAPELLAN DE MIGUEL, Gonzalo: «Historia y 'presente'», in *Berceo*, 140 (2001), 293-325.

3 http://www.victimescuerracivilfranquisme.udl.cat/cem_ileida.php (2019/04/17an kontsultatua). Web orri horri esker aurkitu ahal izan dira hasierako zerrendan ez zeuden bederlatzi pertsona.

4 Gogoraren -Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua- eta Aranzadi Zientzia Elkartearen artean gerra zibilaren ondorioz desagertutako, fusilatutako edo preso egondako pertsonen buruzko ikerketak eskatu dituzten familien eskabideak aintzat hartu eta kudeatzeko hitzarmenaren barnean dago proiektu hori.

5 Identifikatu gabeko 433 pertsona jasotzen ditu txostenak.

Justizia Ministerioaren Erorien Haranean ehortzien Errolda Nazionala

52/2007 Lege Organikoak, abenduaren 26koa, Gerra Zibilean eta frankismoko diktadurapean pertsekuzioa edo indarkeria jasan zutenak lokalizatzeko eta identifikatzeko ematen duen agindua bete asmoz, *Erorien Haranean* ehortzita dauden pertsona identifikatuen errolda nazionalaren osaketa abiarazi zuen Justizia Ministerioaren Memoria Historikorako Zuzendaritza Nagusiak, bidenabar zehazturik nondik eraman zituzten eta zein hilobitan dauden ipinita⁶.

Halaber, errolda hori erabili da egiaztatzeko txosten honen I. eranskinean xehatuta ageri den zerrendako izenak *Erorien Haranean ehortzien Errolda Nazionalean* jasota daudela. Beraz, errolda horrekin erkatu dira izen guztiak.

Administrazioaren Artxibo Nagusia (AGA)

Artxibo horrek Espainiako probintzia guztietako Gobernu Zibilek igorritako dokumentazioa jasotzen du, hala nola lekualdatzeen gastuei eta beste argibide batzuei buruzko datuak, komunikazioak, minutak eta hobien lokalizazio-mapak.

Kontsultatu da garai bateko Gobernazio Ministerioko Barne Politikako Zuzendaritza Nagusiak sortutako dokumentazioa -1958tik 1968ra bitarteko kronologia biltzen du- jasotzen duen sei kaxako multzo bat⁷. Bestalde, aztertu dira Euskal Probintzien Erreferentzia Tresnen kaxak⁸, eta Madrilgo Gobernu Zibilaren kaxak⁹.

Artxibo probintzialak

- **Bizkaiko Artxibo Historiko Probintziala (BAHP-AHPB):** probintzia horretatik eramandakoen inguruan Bizkaiko Gobernu Zibilak sortutako espedientea jasotzen duen funtsa kontsultatu da, eta baita 1952an landutako *erori* bizkaitarren zerrendak ere. EAEn geratzen den gobernu zibilaren espediente bakarra da. Dokumentazio hori mikrofilmaturatu dago, eta bi mikrofilm-bobina ditu guztira¹⁰.

- **Arabako Artxibo Historiko Probintziala:** artxiboaren arduradunek irmoki diote ikerlan honetarako behar den dokumentazioa ez dagoela artxibo horretan. Ziurtatzen dute, halaber, artxiboak Gobernu Ordezkariordeztari eskatu ziola Arabako Gobernu Zibilaren dokumentazioa, baina trantsizioaz geroztiko dokumentazio labur bat soilik helarazi zaiela, 70eko hamarkadako memoria bakan batzuekin batera.

Bestalde, Arabako Gobernu Zibilaren memoriak kontsultatu dira, baina ez da batere etekinik lortu ikerlan honetarako. Halaber, 1961 eta 1965 arteko Arabako Gobernu Zibilaren memoriak ere kontsultatu dira, eta kasu horretan ere ez da etekinik lortu dokumentazio honetarako.

- **Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala (GAHP-AHPG):** haren datu-basean Gipuzkoako Gobernu Zibilaren funts handi bat -8.754 sarrera ditu- kontsultatu ahal izan da. Hala ere, sarrera horietako ezeinen deskripzioan ez da aipatzen ikerlan honen azterkizuna, baina sarrera guztiak ez daude deskribatuta.

6 Zerrenda, zeina aipatu memoria historikoaren legea betearazteko Justizia Ministerioak sortutako web orritik hartuta baitago, webgune honetan kontsulta daiteke: <https://www.epdata.es/datos/listado-enterrados-valle-caidos/137> (19/05/15ean kontsultatua).

7 Hain zuzen ere, 44/12114tik 44/12119ra bitarteko signaturak.

8 AGA (08) 003.002, (08) 031 eta (08) 023.001.

9 AGA (08) 026.004.

10 BAHP R725 eta R726 mikrofilmak.

Artxiboko zuzendari ohiak jakinarazi zuen Gobernu Zibilaren dokumentazioaren inbentario xume bat lantzen hasi zela. Gaur egun, artxiboko teknikariak irizpideak bateratzen eta funts horretako deskripzioak osatzen ari dira. Nolanahi ere, Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintzialaren egoitza berria abian jarri izanak eta dokumentazioa hara aldatzeko lanek moteldu egiten dute langintza hori.

Halaber, kontsultatu dira Gipuzkoako Gobernu Zibilaren memoriak¹¹, hainbat espediente¹², Gobernazio Ministerioko negoziatuak eta jaso izanaren adierazpenak¹³, Gobernazio – Barne Ministerioko informazioaren kaxa¹⁴ eta Gobernu Zibileko funtsen protokoloen kaxa¹⁵.

- **Bizkaiko Foru Artxibo Historikoa (BFAH-AHFB):** artxibo horretara eraman ziren Bizkaiko udal askotako funtsak; hala ere, muga kronologikoa gutxitan da 1940ko hamarkardatik gerokoa. Bizkaia da horrelako lekualdaketa egin duen euskal lurralde bakarra. Hala eta guztiz, *Erorien Haranera* eramandakoei buruzko informazioa kontsultatu ahal izan da Galdakao¹⁶, Gueñes¹⁷, Muskiz¹⁸ eta Sondikako¹⁹ kasuetan.

- **Arabako Lurralde Historiko Artxibo:** Artxibo horretara joanda, egiaztatu ahal izan genuen haren funtsen artean ez dagoela ikerlan honi dagokion inolako dokumentaziorik, eta, halaber, ez daukala Arabako udalek hara bidalitako funtsik ere.

Udal-artxiboak

Alor honetan, *Erorien Haranean ehortziei buruzko eskabideen txostenaren arabera Erorien Haranera* lekualdaketa egin ziren udaletako artxiboak bisitatu dira, sarrera eta irteerako erregistrotan informazioa bilatzeko eta artxibo horien arteko sarrera eta irteeren artean elkarrekotasunak lokalizatzeko.

- **Arabako udal-artxiboak:**

- **Gasteizko Udal Artxiboa:** 1957-1961 bitarteko ohiko batzarren akta-liburuak eta artxi-boaren irteera-elkarrekikotasuna kontsultatu da, baina ez da emaitzarik lortu.

- **Bizkaiko udal-artxiboak:**

- **Arrigorriagako Udal Artxiboa (AUA):** udalerritik egindako lekualdaketei buruzko espediente oso bat kontsultatu da²⁰.

- **Balmasedako Udal Artxiboa:** *Erorien Haranera* eramandakoei buruzko espediente labur bat kontsultatu da²¹. Halaber, herriko hilerriko liburua kontsultatu da, non hobi komunean ehortzitako pertsona batzuen izenak ageri diren; gero, hobi hartatik *Erorien Haranera* eraman ziren zenbait gorpuzki²².

11 GAHP 1525 eta 3673.

12 GAHP 1289, 406 eta 410.

13 GAHP 719.

14 GAHP 723.

15 GAHP 958.

16 BFAH GALDAKAO 13415.

17 BFAH GUEÑES 0115/018.

18 BFAH MUSKIZ 1158/012/004.

19 BFAH SONDIKA 0058/043.

20 Arrigorriagako Udal Artxiboa HISTORIKOA 0388.

21 Balmasedako Udal Artxiboa 1299-1.

22 Hilerriko liburuaren signaturak 621-1 eta 621-2 dira.

- **Bermeoko Udal Artxiboa:** korrespondentziaren sarrera-liburua kontsultatu da²³.
 - **Bilboko Udal Artxiboa:** Vista Alegre hilerriko liburuak kontsultatu dira, non *Erorien Haranera* eramandako hildakoen zerrenda agertzen den.
 - **Busturiko Udal Artxiboa:** korrespondentziaren sarrera eta irteerako erregistro-liburuetan idazpen batzuk aurkitu dira, baina dokumentuak falta dira.
 - **Karrantzako Udal Artxiboa (KUA):** sarrerako erregistro-liburua eta irteerako beste bi erregistro-liburu kontsultatu dira, baina ezin izan da artxiboa ikusi, oraindik haren inbentarioa egin gabe dagoelako.
 - **Durangoko Udal Artxiboa:** artxiboko langileek egin zuten bilaketak ez zuten emaitzarik ekarri.
 - **Fruizko Udal Artxiboa (FUA):** ezin izan da artxiboa ikusi, inbentarioa egin gabe dagoelako.
 - **Gamiz-Fikako Udal Artxiboa:** korrespondentziaren sarrerako eta irteerako erregistro-liburuetan idazpen batzuk baino ez dira aurkitu, baina dokumentuak falta dira.
 - **Gernikako Udal Artxiboa:** 1960az geroztiko dokumentazioa soilik ikusi ahal izan da.
 - **Gordexolako Udal Artxiboa:** *Erorien Haranera* eramandakoei buruzko espediente oso bat kontsultatu ahal izan da²⁴.
 - **Gueñesko Udal Artxiboa:** espediente osoa kontsultatu ahal izan da Bizkaiko Foru Artxiboan, han baitago jasota.
 - **Loiuko Udal Artxiboa:** garai hartan udalerria Bilboko parte zen; beraz, ez dago horri buruzko dokumentaziorik udal-artxiboan.
 - **Markinako Udal Artxiboa:** artxiboko langileek egindako bilaketak ez zuten emaitzarik ekarri.
 - **Muruetako Udal Artxiboa:** sarrerako erregistro-liburua eta irteerako beste bi erregistro-liburu kontsultatu dira, baina ezin izan da artxiboa ikusi oraindik haren inbentarioa egin gabe dagoelako.
 - **Muxikako Udal Artxiboa:** artxiboko langileek egindako bilaketak ez zuten emaitzarik ekarri.
 - **Urduñako Udal Artxiboa:** korrespondentziaren sarrera eta irteerako erregistro-liburuetan idazpen batzuk aurkitu dira, baina dokumentuak falta dira.
 - **Otxandioko Udal Artxiboa:** artxiboko langileek egindako bilaketak ez zuten emaitzarik ekarri.
 - **Santurtziko Udal Artxiboa (SUA):** *Erorien Haranera* eramandakoei buruzko espediente oso bat kontsultatu ahal izan da²⁵.
 - **Zallako Udal Artxiboa (ZUA):** artxiboko langileek egindako bilaketak ez zuten emaitzarik ekarri.
- **Gipuzkoako udal-artxiboak:**
- **Beasaingo Udal Artxiboa:** lekualdaketaren espedienterik ez dago jasota, eta artxiboaren arduradunak, irteerako korrespondentziaz galdetu zaionean, erantzun digu dokumentazio hori teknikari batek espurgatu zuela 2015ean.

23 Korrespondentzia bera ez dago jasota. 295-2 signatura kontsultatu zen; hor 1956 eta 1959 arteko urteak bilduta daude.

24 Gordexolako Udal Artxiboa 0058/011.

25 Santurtziko Udal Artxiboa 145-8 eta 1135-51.

- **Donostiako Udal Artxiboa:** *Erorien Haranera* eramandakoei buruzko espediente oso bat kontsultatu ahal izan da²⁶.
- **Elgoibarko Udal Artxiboa:** ez dago ikerlan honi lotutako dokumentaziorik, ezta ikerlan honen kronologiakoa den korrespondentziarik ere.
- **Eskoriatzako Udal Artxiboa:** ez dago jasota *Erorien Haranera* eramandakoei buruzko espedienterik, baina ikerlanari buruzko daturen bat badago korrespondentziaren funtsean²⁷.
- **Irungo Udal Artxiboa (IUA):** *Erorien Haranera* eramandakoei buruzko espediente oso bat kontsultatu ahal izan da²⁸.
- **Legazpiko Udal Artxiboa:** Gerra Zibilean hildako soldaduei buruzko espediente bat aztertu da, eta lekualdaketei buruzko daturen bat lortu da handik²⁹.
- **Oiartzungo Udal Artxiboa:** Gerra Zibilean *eroriei* buruz jasotzen duen sarrera bakarra, 1953koa, kontsultatu da³⁰. Bestalde, lekualdaketarako baimen bat aurkitu da³¹, eta 1961eko kopiatzaile-erregistroen funtsa kontsultatu da³².
- **Orioko Udal Artxiboa:** lekualdaketarako baimenei buruzko dokumentuak kontsultatu dira irteera-erregistroetan³³. Bestalde, irteerako korrespondentzia aztertu da, baina ez da emaitzarik lortu.
- **Tolosako Udal Artxiboa (TUA):** ez dago lekualdatzeei buruzko espedienterik.

Gerra Zibilean eta frankismoan Euskadin izandako giza eskubideen urraketei buruzko Oinarrizko Txostena

UPV/EHUko ikertzaileak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak, Gogoraren ikuskapen eta zuzendaritzapean, lantzen ari diren datu-base horrek EAEtik kanpo hildako euskal herritarrei buruzko informazioa eman du, eta Justizia Ministerioaren *Erorien Haranean ehortzien Errolda Nazionala* -rekin erkatu da. Horrez gain, informazioa eskaini du ikerlan honen I. eranskinean zerrendatzen diren pertsonen sorlekuaz eta bizilekuaz. Informazio hori osatu ahal izateko, izen guztiak datu-base horrekin erkatu dira.

EAEko hiru hiriburu eta hilerrietako erregistro-liburuak

Gasteizko Santa Isabel hilerria, Donostiako Polloe hilerria eta Bilboko Derioko edo Vista Alegre hilerria (gaur egun Zamudio eta Derioko udal-mugaratean dago) dira azterkizun, hilerrietako parrokia-liburuetan jasotzen baitziren ehorketak, gorpuzkien lekualdatzeak eta emakiden historiak. Erregistro-liburu horiek kontsultatu dira Aranzadiren txostenean agertzen diren lekualdaketei buruzko informazioa lortu ahal izateko, erkaketa egiteko asmoz.

26 Donostiako Udal Artxiboa H-03408-05.

27 Eskoriatzako Udal Artxiboa- ESK - AH - 409 - 01

28 Irungo Udal Artxiboa 964-7 eta 964-8

29 Legazpiko Udal Artxiboa C26/2.

30 Idazkaritzako zerbitzu orokorren funtsa, Oiartzungo Udal Artxiboa 1161-03.

31 Oiartzungo Udal Artxiboa 0949-01.

32 Oiartzungo Udal Artxiboa 0951-01, eta 1966, 0955-01 signatura.

33 Orioko Udal Artxiboa 10. liburua 1958-1966.

3. Emaizak

3.1.- Cuelgamuros haranaren historia, eta lekualdaketak egiteko sortutako araudia

Gerra Zibila amaitu eta berehala, Francok berak, bere garaipena ahalik eta arrandia handienaz goresteko asmo garbiarekin, hauxe ebatzi zuen 1940ko apirilaren 1eko Dekretuaren bidez: «Eraiki daitezela Basilika, Monasterioa eta Gazteriaren Kuartela, *Guadarrama mendilerroaren mazelatan (El Escorialen), Cuelgamuros deitzen den tokian, gure Gurutzada loriatsuan erori zirenen memoria betikotzeko*»³⁴.

Dekretu hori aintzat hartuz, agerikoa da hasiera batean nazionalen bandoan aritu ziren borrokalarien gorpuzkiak jasotzeko pentsatuta zegoela «tenplua». Beren-beregi esaten zen monumentua eraikiko zela «*Jainkoaren eta Aberriaren bidean erori zirenen alde*», «*Gurutzadako heroiak eta martiriak ehorzteko zelaia*» izan zedin³⁵.

Horrela hasi zen Cuelgamuros haraneko monumentu-multzoaren eraikuntza, nazionalen kausaren alde bizia eman zutenei ohore egiteko Francok berak asmatua³⁶.

1952an, probintzia bakoitzeko borrokalarien, *martirien eta erorien* errolda egiteko prozesua abiarazi zuen Gobernazio Ministerioak; 1959an amaituko zen. Nazionalen bandoan borrokatu zirenen zerrenda bat zen, eta, 1957an, errepublikanoen bandoan aritu zirenak ere bildu zituen³⁷.

Lehen zerrenda 1952 eta 1953 artean osatu zen. Gobernazio Ministerioak Espainia osoko probintzietako Gobernu Zibilei eskatu zien osa zezatela *eroritako* borrokalarien zerrenda bat, eta azaldu zezatela non ehortzita zegoen bakoitza, eta familiaren baimenik ba zegoen ala ez haiek lekuz aldatzeko. Lehen zerrenda horretan ez zitzairen aipamenik egiten errepublikanoen bandoan borrokatu ziren milizianoei; beraz, nazionalen bandoko *erorien* zerrenda bat zen. Gobernu Zibilek Udalei helarazi zieten eskakizuna, eta haiek familiartekoekin hartu-emanen jarri ziren, eskatzen zizkieten datuak lortzeko³⁸.

1957ra arte ez zen inolako aldaketarik egin borrokalari zenduak *Erorien Haranera* eramateari zegokionez. Urte hartan, 1957ko abuztuaren 23ko Lege Dekretua eman zen, zeinaren bidez *Erorien Haraneko* Gurutze Santuaren fundazioa eratzen baitzen³⁹. Dekretu horrek xedatzen zuen monumentuak bi aldeetako gorpuzkiak jasoko zituela, aitzakiatzat erabiliz «*espainiarren arteko batasun- eta anaitasun-sen goitarrenak gidatutako politika*» zela⁴⁰. Horrela, Cuelgamuros harana «*Erori guztien monumentu*» bihurtu behar zuen⁴¹.

57ko Lege Dekretu horren ondorioz, eta mausoleoa eraikitze lanak amaitzear zedenez, 1958an, Ministerioak 52an hasi zituen gestioei berrekin zien, baina aldaketa handiak zeduten gorpuzkien hautaketarako irizpideetan: espainiar herritartasuna zutenak eta erlijio katolikokoak izan

34 BOE 93. zk., 1940ko apirilaren 2koa.

35 *Ibidem*.

36 1941eko uztailaren 31ko beste Dekretu batek (BOE 218 zk., 1941eko abuztuaren 6koa) «Erorien Monumentu Nazionalaren» obren batzordea eratu zuen. Horrela, zuzendaritza-organo bat sortu zen, eraikuntza-lanetarako behar besteko aginpidea eta kudeaketa-autonomia zuena.

37 BOE 226 zk., 1957ko irailaren 5koa.

38 Prozedura hori dokumentuetan jasota geratu da udal hauetan: Durango (Durangoko Udal Artxiboa, 1952ko urri-abenduko korrespondenziaren karpeta), Galdakao (BFAH-AHFB GALDAKAO 13415), Gueñes (BFAH-AHFB GUEÑES 0115/018), Irun (IUA 964/7), Muskiz (BFAH-AHFB MUSKIZ 1158/012/004) eta Oiartzun (Oiartzungo Udal Artxiboa 1161-03). Galdakao, Gueñes eta Irungo udalek dokumentu estandar batzuk prestatu zituzten, familiartekoek bete behar zituzten eremu zehatzekin.

39 BOE 226 zk., 1957ko irailaren 5koa.

40 *Ibidem*.

41 *Ibidem*.

zitezela, zein bandotakoak ziren kontuan hartu gabe. Gobernu Zibilei 30 eguneko epean beste bi errolda egin zitatzela eskatu zien Erorien Monumentuko Obren Batzordeak⁴²: bat, probintzia bakoitzean zeuden hilobi kolektiboak buruzkoa (ezagutzen ziren ahalik eta datu gehienak jasota), eta bestea, hilerri katolikoetan, elizetan edo panteoi pribatuetan ehortsita zeuden eta familiartekoen lekuz aldatzea baimentzen zuten borrokalariak buruzkoa. Familiartekoen 15 eguneko epean eskatu behar zuten beren ahaideen lekualdatzea eta, lehen aldiz, Gerra Zibilean zenduen familiarteko guztiek egin ahaliko zuten eskabidea, borrokatu ziren aldean borrokatu zirela.

1958ko azkenaldian, lekualdatzeak egiteko prestamenak azken txanpan sartu ziren. 1958ko urriaren 31n, Gobernazioko ministro Camilo Alonso Vegak zirkular bat⁴³ sinatu zuen, jakinaraziz Gobernazio Ministerioari idazkariordea buru zuen batzorde bat sortzen zela, lekualdatzea nola egin sistematizatzeaz arduratuko zena: horma-hilobietako kutxen tamaina eta materiala, lekualdatuen errolda egiteko inprimaki-ereduak eta lekualdaketak egiteko epeak zehaztu ziren. Bestalde, Gobernu Zibilei berriro eskatu zitzaizkien *erorien* beste zerrenda bat, baina oraingoan bi taldetan banatua: batean, parrokia-hilerrietan, elizetan edo panteoietan ehortsita zeudenak, eta bestean, hilerri berezietan zeudenak. Halaber, talde bakoitza bi tipologiatan banatu zen, eta, hala, borrokalariak 4 kategoriatan sailkatzen ziren:

- a) Parrokia-hilerrietan, elizetan edo panteoietan ehortsita daudenak, identifikatuta daudenak eta familiaren baimena *badutenak lekuz aldatzeko, eta haien gorpuzkiak kutxa indibidualetan jaso daitezkeenak.*
- b) Parrokia-hilerrietan, elizetan edo panteoietan ehortsita daudenak, identifikatu gabeak edo, identifikatuta dauden arren, *hobi komunean zeudelako edo beste zio batzuegatik, haien gorpuzkiak indibidualizatu ezin direnak.*
- c) Hilerri berezietan, frontean erorien edo immolatuenetan, ehortsita daudenak, identifikatuta daudenak eta haien gorpuzkiak kutxa indibiduallean jaso daitezkeela irizten zaienak. (Ez dira sartzen atzerritarren hilerriak).
- d) Hilerri berezietan ehortsita daudenak, identifikatuta ez daudenak edo, identifikatuta dauden arren, *hobi komunean zeudelako edo beste zio batzuegatik, haien gorpuzkiak indibidualizatu ezin direnak eta, beraz, kutxa kolektiboetan eraman beharko direnak.*⁴⁴

Zerrendekin batera, Gobernu Zibilei eskatu zitzaizkien egin zezatela 60 x 60 cm-ko mapa bat hilerrien kokapena azalduz. Informazio hori guztia 1958ko azaroaren 20a baino lehen igorri behar zen, eta 1959ko otsailaren 1a ezarri zen data-mugatzat gorpuzki guztiak beren kutxetan jarrita eta aurretiaz ezarritako biltokietara eramanda egon zitezkeen⁴⁵.

1958ko urriaren 31ko zirkularraren osagarri modura, beste zirkular bat bidali zen handik aste gutxira⁴⁶, non Gobernu Zibilek, Udalek eta eliza-hierarkiak bete behar zituzten eginbeharretako batzuk zehazten ziren. Gobernu Zibilei lekualdatu behar zirenen zerrendak osatzeko eta udalei helarazteko ardura esleitu zitzaizkien. Udalei zegokien gorpuzkiak hobietatik ateratzea, eramaten ziren gorpuzki guztiak Udal Auzitegietako liburuetan erregistratuta jartzea, eta baita hobitik ateratzeko baimena ematea ere, baldin eta, igarotako denborarengatik, ez bazen beharrezkoa Osasun Agintariek esku hartzea. Azkenik, Zuzenbide Kanonikoko Kodeari men eginez, eliza-hierarkiari eskatu zitzaion eman zitzala beharrezko baimenak betiereko eliza-hobiratzea emandako gorpuzkiak atera ahal izateko.

42 BAHP-AHPB R 725 mikrofilma 300/2 karpeta. Gobernazioko ministroak, Erorien Monumentu Nazionalaren Obren Batzordeko presidentek, 1958ko maiatzaren 23an sinatutako dokumentua.

43 BAHP-AHPB R 725 mikrofilma. Eskaera hori web orri honetan ikus daiteke: <http://www.memoriahistorica.gob.es/es-es/vallecaidos/Documents/Circular31X1958vallecaidos.pdf> (2019/04/16an kontsultatua).

44 *Ibidem.*

45 *Ibidem.*

46 BAHP-AHPB R 725 mikrofilma 300/2 karpeta.

Lekualdatzeak egiteko xehetasun teknikoak jakinarazi zitzaizkien Gobernu Zibilei 1959ko hastapenetan⁴⁷. Hala, honako hauek zehazten ziren: horma-hilobietako kutxen ezaugarriak, gorpuzkiak nola atera behar ziren, lekualdatzeak egiteko inprimakiak (haietan jaso behar zen hila nor zen, nondik zetorren, jaioteguna, gurasoak nor ziren, zenduaren lanbidea, noiz hil zen eta zergatik, eta noiz ehortzi zuten), alderdi ekonomikoak eta lekualdatzea egiteko epeak. Epe hori luzatu egin zen, 1959ko otsailaren 1etik (1958an hala ezarri zuten) martxoaren 5era.

1959ko otsailaren 26an beste zirkular bat egin zen, non lekualdaketa-baimenetarako irizpi-deak finkatzen ziren. Horiek indarrean egon ziren 1960ko martxora arte, eta baita 1963ko otsailetik aurrera ere. Dokumentu horretan, familiartekoen baimena edukitzeko beharra aldatu egin zitekeela argitzen zen, eta hori tipologiaren, identifikazio-egoeraren eta gorpuzkien ehorzketa-lekuaren baitakoa zela. Lau kasuistika posible aurreikusi ziren, eta jakinarazi zen gorpuzkiak aterako zirela familiartekoen eskatu ahala. Lekualdatze-baimenei zegokienez, honako hauek ziren 4 ehorzketa-tipologiak⁴⁸:

1. Banakako ehorzketak, identifikatutako pertsonenak: «familiartekorik funtsezkoenaren berariazko baimenarekin».
2. Ehorzketa kolektiboak, zendu guztiak edo haietako batzuk identifikatuta daudenean: haietan identifikatuta dauden zendu guztien familien ahobatezko onarpenarekin; eta familiaren batek uko egingo balioke lekualdatzeari, gorpuzki guztiak bertan geratu behar zuten.
3. Identifikatu gabeko zenduen ehorzketa indibidual nahiz kolektiboak: ez zen beharrezkoa inolako baimenik, eta gorpuzkiak atera eta lekualda zitezkeen.
4. Ministerio Militarren mendeko edo zaintzapeko hilerriak: ministerio horiek emandako baimenetan oinarrituz jardungo zen soilik.

1960ko martxoaren 31n Gobernazio Ministerioak beste zirkular bat⁴⁹ igorri zuen, non ordura arte lekualdaketatarako erabilitako irizpideak aldatu egiten baitziren. Ebazpena hauxe izan zen: Udalek dohainik utzitako guneetan ehortzita zeuden borrokalarien familiartekoen edo Erorien Haranera eramateko eskatzen zuten, beren gain inolako gasturik hartu gabe, edo hilak beren hilobi partikular ordainduetara eramatearen kargu egin behar zuten. Bestela, Gobernazio Ministerioak beretzat gordetzen zuen gorpuzkiak Erorien Haranera eramateko eskubidea.

Zirkular hura betearazteko eskumena udal-gobernuen eskuetan geratu zen. Eskabideak betearazteko epea hasiera batean 3 hilekoa izan zen, 1960ko ekainaren 31 artekoa, baina handik gutxira hilabete luzatu zen.

Politika horrek 3 urte iraun zuen, 1963ko otsailaren 22ra arte, harik eta beste zirkular batek⁵⁰ berriro indarrean ipinarazi baitzituen lekualdatzeak egiteko 1959an finkatu ziren irizpideak. Hori da ezagutzen dugun azken zirkularra, eta *Erorien Haranera* gorpuzkien lekualdaketa egitea arautuko zuen azken arau izango zen.

3.2. Lekualdaketen *modus operandi*

1952 eta 1953 artean Bizkaiko Gobernu Zibilak egindako erroldan, zendutako 1.196 borrokalari eta 951 *martiri eta erori* zenbatu zituen; haietatik, 309 familiartekok eman zuten baimena gorpuzkiak lekualdatzeko Espainiako hainbat lekutatik⁵¹. Gipuzkoan, Irungo Udalak 48 *eroriren*

47 BAHP-AHPB R 725 mikrofilma. Gobernazio Ministerioaren 2. zirkularra, 1959ko otsailaren 11koa.

48 BAHP-AHPB R 725 mikrofilma. Gobernazio Ministerioaren 3. zirkularra, 1959ko otsailaren 26koa.

49 BOEa IKUSI

50 BOEa IKUSI

51 BAHP-AHPB R 725 mikrofilma.

berri eman zuen, eta haietatik 40k eman zuten lekuz aldatzeko baimena⁵²; Oiartzunen, 49 herri-tarretatik 35ek eman zuten baimena⁵³.

1957ko dekretuan egindako aldaketen ondorioz, errolda berriak egitera behartuta zeuden Gobernu Zibilak, oraingo honetan errepublikanoen bandoan borrokatu zirenak ere sartu behar zituzten, baldin eta kristauak baziren eta espainiar herritartasuna bazuten. Hala eta guztiz ere, familiaren baimena behar zen lekuz aldatzeko, eta, horretarako, informazio-jakinazpen bat helarazi zitzaion Gobernu Zibil guztiei, ahalik zabalkunde handiena eman diezaioten. Mezuan iragartzen zen mausoleoaren obrak amaitzear zedela, eta Gerra Zibilean zendutako guztien gorpuzkiak han ehorztea zela helburua. Familiartekoek 15 eguneko epean eskatu behar zuten beren ahaideen lekualdaketa⁵⁴.

Bizkaiko udalik gehienek erantzun zioten Gobernu Zibilari 1958ko maiatza eta ekainaren artean, adieraziz iragarkia jakinarazi zutela ohiko bideetatik⁵⁵. Iragarki hori bera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 65. zenbakian, 1958ko maiatzaren 30ean⁵⁶. Bizkaian, urtearen erdialderako 15 familia-baimen lortu ziren, probintzian ehortzita zeudenenak 5, eta probintziatek kanpo zeudenenak beste 10, baina familia horien izenak ez ziren zehazten⁵⁷. Bizkaiko ehorzketa kolektiboen behin betiko errolda 1958ko uztailaren 3an iritsi zen Ministeriora.

Urtearen amaiera aldera, probintzia guztietako Gobernu Zibilek igorri zituzten 1958ko urriaren 31ko zirkularrean eskatu zitzaizkien datuak. Probintzia bakoitzean lokalizatutako gorpuzkiak lau kategoriatan (a), b), c) eta d)- multzokatu zituzten, haien identifikazioan, indibidualizazioan, lekualdatzeko familia-baimenean eta ehorzlekuan oinarrituta.

Arabako Gobernu Zibilak lekuz aldatzeko familia-baimena zuten 96 zendu identifikaturen, eta identifikatu gabeko beste 117ren berri eman zuen; 213 pertsona guztira. Ez ziren zehaztu identifikatutako 96ren izenak, baina bai haien ehorzlekuak⁵⁸.

Bizkaian, 373 zenbatu ziren gutxi gorabehera; haietatik, 31 identifikatuta eta indibidualizatuta zeuden, eta bazuten familia-baimena lekuz aldatzeko. Zenbateko horri gehitu behar zitzaizkion multzoka edo identifikatu gabe ehortzitako beste 258, eta hilerri berezietan ehortzitako ezaugarri bereko beste 84.

Azkenik, Gipuzkoako Gobernu Zibilak guztira 32 hilen berri eman zuen: 18 identifikatuta eta indibidualizatuta zeuden eta familia-baimena zuten; eta 14 ez zeuden indibidualizatuta eta ezin ziren identifikatu⁵⁹. Datu horiekin batera, 60 x 60 cm-ko mapa bat igorri zen, non probintzia bakoitzeko ehorzlekuen kokapena zehazturik zegoen⁶⁰.

Urte amaieran emandako datuak 1959ko hastapenetan joan ziren zehatuz. 1959ko urtarri-laren 24an, Bizkaiko Gobernu Zibilaren kopuruak hauek ziren: 30 pertsona identifikatuta eta indibidualizatuta eta familia-baimenarekin; 148 identifikatu gabeak, hobi indibidualetan (24) zein hobi kolektiboetan (124); 117 identifikatu parrokia-hilerrietako hobi komunetan ehortziak; eta 84 pertsona identifikatu gabe, hilerri berezietako hobi indibidualetan (29) eta hobi komunetan

52 IUA 964/7. 1953ko apirilaren 20ko zerrrenda.

53 Oiartzungo Udal Artxiboa 1161-03.

54 BAH-P-HPB R 725 mikrofilma 300/2 karpeta. Gobernazioko ministroak, *Erorien* Monumentu Nazionalaren Obren Batzordearen buruak, 1958ko maiatzaren 23an sinatutako dokumentua.

55 BAH-P-HPB R 725 mikrofilma.

56 BOEa BERRIKUSI.

57 BAH-P-HPB R 725 mikrofilma 300/10 karpeta. 1958ko ekainaren 20ko dokumentua.

58 AGA 44/12115, 01. karpeta. Identifikatutako gorpuzkiak herri hauetan zeuden ehortzita: Alegria-Dulantzin (2), Amurrión (1), Aramaion (2), Egiletan (1), Ekoran (1), Gasteizen (68), Izarran (1), Lapuebla de Labarcan (1), Laudion (2), Legutioñ (5), Lukun (1), Moredan (1), Murgian (2), Olaetan (1), Añanan (1), Zestafan (2) eta Zigoitian (1). Identifikatu gabeko guztiak Gasteizen zeuden.

59 AGA 44/12114, 10. karpeta.

60 AGA (08) 003.002.

(55) ehortziak. Guztira 379 pertsona zenbatesten ziren⁶¹. Araba eta Gipuzkoako daturik ezin izan da jaso, kontsultatu diren artxiboetan ez dagoelako halako dokumentaziorik.

1959ko martxoan hasi ziren *Erorien Haranerako* lekualdaketak, Monumentua inauguratzeko egun gutxi geratzen zirela. Urte-hasieran Gobernu Zibilak gotzainekin harremanetan jarri ziren, gorpuzkiak ateratzeko baimenak ematen has zitezen⁶².

Gorpuzkiak ateratzeko baimenak Udalek ematen zituzten, eta familiartekoei jakinarazi behar zitzairen horretarako eguna eta lekua, beren hila familia-panteoira eraman nahi bazuten, operazio horrek sortzen zituen gastuen kargu egin zitezen. Monumentu Nazionalera eramateak sortzen zituen gastu guztiak, ordea, erregimenaren kontura ziren⁶³.

1959ko martxoaren 23rako egun batzuk falta zirenean, 316 hildako atera zituzten guztira Gasteizko San Isabel hilerrian. 316 horietatik, 146 lekualdatu ziren guztira: 29 identifikatuta eta 117 identifikatu gabe, Legutioko guduan *eroritakoak*, haiek baitziren familia-baimena zuten bakarrak. Gorpuzki haiek 29 kutxa indibidualetan eta 8 kutxa kolektibotan sartu zituzten. Gainerako 170ak hilerriko gorputegian biltegitatu ziren, haien familiartekoak bilatu, eta lekualdatzeko behar ziren baimenak lortzeko gestioak egiten ziren artean. Lekuz aldatu aurretik meza bat eman zen hilerrian bertan, agintariak, militarrek eta *erorien* familiartekoak bertan zirela⁶⁴. *Erorien* Monumentu Nazionalaren Obren Batzordeak azaldu zuen Arabako Gobernu Zibilak 1959ko maiatzaren 25ean 18.801,57 pezeta jaso zituela lekualdatzeen gastuengatik⁶⁵.

1959ko martxoaren 25ean egin ziren lehen lekualdatzeak Bizkaian. Guztira, 30 hildako bidali ziren, lekualdatzeko baimena zutenak denak, eta 183 identifikatu gabeak. 30, kutxa indibidualetan ipini zituzten, eta identifikatu gabeak, 13 kutxa kolektibotan.

Logistika-lanak errazteko, Derio, Gernika-Lumo eta Balmaseda herriak aukeratu zituzten probintziako gainerako eskualdeetatik ekarritako gorpuzkien bilgune izan zitezen. Horregatik, Derion bildu ziren Markina-Xemein, Otxandio, Durango, Arrigorriaga, Urduña, Loiu, Santurtzi eta Bilbokoak. Gernika-Lumon, berriz, Gernika, Busturia, Murueta eta Bermeotik ekarritakoak bildu ziren. Azkenik, Balmasedan batu ziren Gordexola, Karrantza, Gueñes eta Balmasedakoak bertakoak⁶⁶. Kutxen bilketa egun bateko lana izango zela aurreikusi zen, eta kamioia Bilbotik abiatu zen Balmasedara joateko; handik Deriora joan zen eta, azkenean, Gernikara⁶⁷.

Gipuzkoan, lehen lekualdaketa 1959ko martxoaren 24an egin zen. Guztira 16 pertsonaren gorpuzkiak eraman zituzten, identifikatuak eta familia-baimenarekin guztiak. Ignacio Telleria espedizioburu zela, gobernadore zibilak ezarritako ibilbidea egin zuen SS-20573 matrikula zuen Probintziako Diputazioaren kamioi batek, 16 kutxa indibidualak zein bere udalerrian jasotzeko. Irundik abiatu zen ibilgailua, lehenik Oiartzunera joateko, eta, ondoren, Donostia, Orio, Tolosa, Beasain, Elgoibar eta, azkenik, Eskoriatzara joateko. Handik Madrilerako bidea hartu zuen N-1etik, eta *Erorien Haranera* 19:00 inguruan iritsi zen. Lekualdatze horren gastuak, 2.226,68 pezetakoak guztira, Erorien Monumentu Nazionaleko Obren Batzordeari helarazi zitzaizkion⁶⁸.

61 BAHP-AHPB R725 mikrofilma.

62 Bizkaiko Artxibo Historiko Probintziala R 725 mikrofilma.

63 *Ibidem*.

64 AGA 44/12115, 01. karpeta.

65 AGA (8)026.004, 262 kaxa.

66 BAHP-AHPB R 725 mikrofilma. Bizkaiko gobernadore zibilak Gobernazioko idazkariordeari 1959ko martxoaren 11n igorritako telegrama ofiziala.

67 BAHP-AHPB R 725 mikrofilma. Bizkaiko gobernadore zibilak Gobernazioko idazkariordeari 1959ko martxoaren 11n igorritako telegrama ofiziala.

68 Donostiako Udal Artxiboa H-03408-05.

1960ko 1. zirkularrak eragin zuen testuinguru-aldaketa zela eta, Gobernu Zibilek Udalei eskatu zieten egin zezatela udalek dohainik utzitako lurzatietan ehortzita zeuden *erorien* beste zerrenda bat⁶⁹. 1961eko abenduaren 16an Gipuzkoako Gobernu Zibilak txosten bat igorri zion Gobernazio Ministerioari, ateratako gorpuzkien berri emanez. Udalen zerrenda bitan banatu zen. Batean, Gobernu Zibilaren ustez lekualdaketa egingarria zen kasuak jasotzen ziren⁷⁰. Bigarren multzoan, zalantzak sortzen zituzten kasuak zeuden. Kasu horietan, funtsezko arazoa hautako bat zen: edo zenduak multzoka ehortzita zeudela, *erorientzat* eraikitako udal-mausoleoetan, edo familiartekoek uko egiten ziotela lekualdatzeari⁷¹. Gobernadore Zibilari bidezkoa iruditu zitzaion bigarren talde horretakoak lekuz ez aldatzea, eta horrekin bat etorri zen Gobernazio Ministerioa ere⁷².

Tolosan⁷³, ekainaren 19an hasi ziren gorpuzkiak ateratzeko lanak, eta 1962ko uztailaren 4ra arte iraun zuten. Gorpuzkiak ateratzearen berri eman zitzairen honako hauen ahaideei: José Luis Villate Besga (Erreterian bizi ziren), Guillermo Arribas Madrazo (Ibarran bizi ziren), eta José Malcorra Gorostidi, Florencio Santasti Pérez de Villareal, Marcial Fernández Berroeta eta Tomás García Llanos (denak Tolosan bertan bizi ziren)⁷⁴.

1962ko uztailaren 4an atera zituzten Donostiako gorpuzkiak. 08:30ean hasi ziren, eta familiartekoei, hiriburuan bertan bizi zirenak bi eta Palentzian bestea, postaz jakinarazi zitzairen desobiratzearen lekua eta ordua. Hiru horien gorpuzkiak lurzati militar berritik atera zituzten, eta bat Polloeko lurzati militar zaharretik⁷⁵. Biharamunean atera zituzten Irungoak, eta 3 kutxa kolektibotan ipini zituzten, txartel bat erantsita haietako bakoitzean zenbat eta nortzuk zihoazen azalduz⁷⁶. Gipuzkoako gorpuzkiak zeramatzan kamioia 1962ko uztailaren 5ean iritsi zen *Erorien Haranera* 19:00 edo 20:00 inguruan⁷⁷.

1963an 120 gorpuzki eraman ziren Gipuzkoatik, hau da, probintzia horretan izandako lekualdaketa guztien % 50. Lezotik⁷⁸ Donostiara eramandako hildako bat izan ezik, gainerako gorpuzki guztiak Polloeko hilerriko lurzati militarretik eraman ziren. 1959ko otsailaren 26ko 3. zirkularrean agertzen zen bezala, lekualdatzeko baimenak Ministerio Militarretatik ematen ziren.

69 IUA 964/8. 1961eko urriaren 5ean, Irungo Udalak 27 gorpuzki identifikatu zituen, haiei buruz familiartekoek inolako neurririk hartu ez zutenak. Hala eta guztiz ere, Gobernadore Zibilari bidezkoa iruditu zitzaion argitzea familiartekoek onartzen ote zuten lekualdaketa, eta itaunketa bat egin zen. Kopurua, azkenean, 18an geratu zen, seiren familiartekoek 40na pezeta ordaindu baitzituzten beren ahaideak hilobi partikularretara eramateko, eta beste 3 zerrendatik kanpo geratu ziren istripuz hilak zirelako eta ez zirelako *erorientzat* jotzen.

70 AGA 44/12116, 14. karpeta. Bergaran eta Donostian, 1 eta 5 gorpuzkirekin hurrenez hurren, bazen lekualdatzeko onespina. Irunek 21 zendu zenbatu zituen, batzuek bazuten lekuz aldatzeko baimena, eta beste kasu batzuetan ez zekiten ahaideak nor ziren. Tolosako Udalarrena da kasurik esanguratsuena: 68 zendu identifikatu eta 12 identifikatu gabe zituen, eta jakinarazi zuten ez zekiela identifikatutako 68 zenduetatik 62ren ahaideak nor ziren. Seiren familiartekok soilik baimendu zuten lekualdatzea.

71 *Ibidem*. Bergarak 215 gorpuzki zenbatu zituen, multzoan hilobiratuak, bere garaian lekurik ez zegoelako hobi komunera eramanak. Donostiako Udalak argudiatu zuen Polloeko hilerriko *Erorien* Monumentuan ehortzitako 125ak familien eskariz eraman zirela hara, eta, beraz, ezinezkoa zela berriro beren ordainpeko hilobietara eramanaraztea. Arrazoibide hori bera erabili zuen Mutrikuko Udalak ere. Hernani, Legorreta, Zerain eta Zestoako udalek jakinarazi zuten familiartekoek uko egiten ziotela lekuz aldatzeari, baita Soralezeko Udalak ere, ahaideen artean ezadostasunen bat bazegoen ere. Polloeko hilerriri buruzko datuen jarraipen modura, bi lurzatitan ehortzita gorpuzki ugari zeudela aipatu zen (launa zendu zituzten hilobiak ere bazeuden), eta agintari militarren esku utzitakoak zirenez, udalak bere burua eskumenik gabekotzat jotzen zuen haien lekualdatzea baimentzeko.

72 *Ibidem*. Gobernazioko idazkariordearen erantzuna, 1962ko otsailaren 28koa.

73 ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel: *Los nombres de la memoria. Tolosa 1936-1945*, Aranzadi Zientzia Elkarte, 2013. Matxinatuen bandoan borroka eginez hildakoak ziren guztiak, eta gehienak hiriko Benefizentziako Ospitale Militarrean eta Odol Ospitalean zendu ziren.

74 Tolosako Udal Artxiboa 2064 1962ko irteerako korrespondentzia.

75 Donostiako Udal Artxiboa H-03408-05.

76 IUA 964/8. Urte horretako urriaren 27an jaso ziren Irungo Udalean *Erorien Haranean* ehortzi izana egiaztatzen zuten dokumentuak, familiartekoek helaraz ziezazkieten. Haietako seik ziurtagiria jaso izanaren adierazpena bidali zuten, eta udal-artxiboan jarraitzen dute oraindik beste batzuek.

77 AGA 44/12116, 14. karpeta.

78 Donostiako Udal Artxiboa H-03408-05.

1961eko abenduaren 16an Gobernazio Ministeriora igorritako txostenean, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak gorpuzki horien berri eman zuen. 1962ko otsailaren 28an, Gobernazio Ministerioa harremanetan jarri zen Ejertzitoko idazkariordearekin, galdetzeko ea baimena ematen zuen gorpuzkiak lekuz aldatzeko. Uztailaren 12an Ejertzitoak baimena eman zuen. Erabakiaren jakinarazpena 1962ko irailaren 1ean heldu zen Gipuzkoako Gobernu Zibilera⁷⁹, eta 1963ko maiatzaren 17an egin zen lekualdatzea.

3.3.- Zenbat gorpuzki eraman ziren Euskaditik eta zenbat euskal herritar eraman ziren Euskadi ez beste nonbaitetik

Erorien Haranean ehortzitako euskal herritarren kopurua zehazteko, euskal udalerrietatik eraman zirenez gain, Espainiako beste udal batzuetatik eraman zirenak zenbatu behar dira. Horretarako, bitan zatitu da ikerlana: EAE-Euskal Autonomia Erkidegotik eramandako hilak, eta gainerako autonomia erkidegoetatik eraman zituzten euskal herritarrak.

3.3.1.- EAetik eramandako gorpuzkiak

EAetik eramandako hilen kopurua zehaztu ahal izateko, honako bitarteko hauek baliatu dira: Aranzadi Zientzia Elkartek 2008an egin zuen txostena⁸⁰; Araba, Bizkai eta Gipuzkoako artxibo historiko probintzialak⁸¹; udal-artxiboak⁸²; Administrazioaren Artxibo Nagusian *Erorien Haranera* eraman zirenei buruz dagoen dokumentazioa⁸³, eta Justizia Ministerioak landu duen *Erorien Haranean Ehortzien Errolda Nazionala*⁸⁴.

EAetik Cuelgamuros haraneko monumentura 1.076 hildako lekualdatu zirela dokumentatu da; haietatik 314 identifikatu gabe daude oraindik

1. Araba:

1.1 Aranzadi Zientzia Elkarteen ikerlana, 2008.

Aranzadi Zientzia Elkartek egindako ikerlanaren arabera, Arabatik 617 pertsona eraman ziren guztira (497, identifikatuta, eta 120, identifikatu gabe); Gasteizko Santa Isabel hilerritik eraman zituzten guztiak.

1.2 Gogora Institutuaren ikerlana, 2019

Gogora Institutuak egindako ikerlanak pertsona bat gehitu die Aranzadik zerrendatu zituen Arabatik eramandako 617ei; guztira, beraz, 618 lirateke. Zerrenda horretara gehitutakoa Ángel Romero da, Madrilen jaioa, Arabako hiriburuko Manuel Iradier kalean zegoen espetxean preso zegoela hila, 1941ean. 1959 eta 1961 artean egindako 4 bidaiatan eraman zituzten pertsona horiek.

2. Bizkaia:

2.1 Aranzadi Zientzia Elkarteen ikerlana, 2008.

Aranzadi Zientzia Elkartek egindako ikerlanaren arabera, Bizkaitik 203 pertsona eraman ziren guztira (35, identifikatuta, eta 168, identifikatu gabe), 19 herritatik.

79 AGA 44&12116, 14. karpeta.

80 ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA: *Informe sobre solicitudes de Inhumados en el Valle de los Caídos*, Donostia-San Sebastián, 2008.

81 Ikus kontsultatu diren iturrien atala.

82 *Ibidem*.

83 AGA 44/12115; 44/12116; 44/12117, 44/12118 eta 44/12119 kaxak.

84 <https://www.epdata.es/datos/listado-enterrados-valle-caidos/137> (19/05/15ean kontsultatua).

2.2 Gogora Institutuaren ikerlana, 2019.

Gogora Institutuak egindako ikerlanak 16 pertsona gehitu dizkie Aranzadik zerrendatu zituen Bizkaitik eramandako 203ei; guztira, beraz, 219 lirateke. Antonio Gómez de Arce, 1967an eramana, eta Zallan ateratako identifikatu gabeko 15 dira zerrendara gehitutakoak. 1959an, 1960an eta 1967an egindako 3 bidaiatan eraman zituzten 219 pertsona horien gorpuzkiak.

3. Gipuzkoa:

3.1 Aranzadi Zientzia Elkartearen ikerlana, 2008.

Aranzadi Zientzia Elkartek egindako ikerlanaren arabera, Gipuzkoatik 231 pertsona eraman ziren guztira (220, identifikatuta, eta 11, identifikatu gabe), 8 herritatik.

3.2 Gogora Institutuaren ikerlana, 2019.

Gogora Institutuak egindako ikerlanak 8 pertsona gehitu dizkie Aranzadik zerrendatu zituen Gipuzkoatik eramandako 231ri; guztira, beraz, 239 lirateke. Hauek dira zerrendara gehitutakoak: Demetrio Cereda Martínez, Marcial Fernández Berroeta, Jesús Fernández Comblanca, Francisco Fernández Díaz, Jesús García Santiago, Juan Gómez Martín, Eusebio Martínez Sanz eta Evaristo Mozo Carranceja. 1959an, 1962an eta 1963an egindako 3 bidaiatan eraman zituzten *Erorien Haranera* 239 pertsona horiek.

PROBINTZIA	UDALERRIA	IDENTIFIKATU-TAKOAK	IDENTIFIKATU GABEAK	GUZTIRA
ARABA	Gasteiz	498	120	618
<i>Gutzizko partziala</i>	1	498	120	618
GIPUZKOA	Beasain	1	-	1
	Donostia / San Sebastián	127	-	127
	Elgoibar	2	-	2
	Eskoriatza	1	-	1
	Irun	20	-	20
	Lezo	1	-	1
	Oiartzun	1	-	1
	Orio	1	-	1
	Tolosa	74	11	85
<i>Gutzizko partziala</i>	9	228	11	239
BIZKAIA	Arrigorriaga	1	-	1
	Balmaseda	1	82	83
	Bermeo	4	12	16
	Bilbo	12	3	15
	Busturia	1	-	1
	Karrantza	1	-	1
	Durango	1	-	1
	Fruiz	-	6	6
	Gamiz-Fika	-	8	8
	Gernika	3	29	32
	Gordexola	1	-	1
	Gueñes	-	8	8
	Loiu	1	-	1
	Markina-Xemein	1	6	7
	Murueta	1	-	1
	Muxika	-	14	14
	Orduña	1	-	1
	Otxandio	1	-	1
	Santurtzi	6	-	6
	Zalla	-	15	15
<i>Gutzizko partziala</i>	20	36	183	219
GUZTIRA	30	762	314	1076

3.3.2.- EAE ez beste nonbaitetik eramandako gorpuzkiak

EAE ez beste nonbaitetik eramandako gorpuzkien kopurua zehaztu ahal izateko bitarteko hauek baliatu dira: artxibo historiko probintzialak⁸⁵; udal-artxiboak⁸⁶; AGA-Administrazioaren Artxibo Nagusian *Erorien Haranera egindako* lekualdaketei buruz dagoen dokumentazioa⁸⁷; «Victimes de la Guerra Civil i la repressió franquista a les terres de Lleida: morts, represaliats i deportats» zerrenda⁸⁸, Lleidako Unibertsitateak landua, eta *Erorien Haranean ehortzien Errolda Nazionala*⁸⁹, Justizia Ministerioak landua.

Ikerlan honetan, Euskadin jaiotako 158 pertsona, gutxienez, Cuelgamuros haraneko monumentura eramán zituztela jakin dugu. Oso litekeena da kopuru hori handiagoa izatea, dokumentazioa ez baita osoa, eta ez baitu lekuz aldatutakoen bizilekuari buruzko argibiderik ematen; gainera, ezinezkoa da jakitea identifikatu gabe eramandakoen artean euskal herritarrik ba ote dagoen.

1. Asturias⁹⁰:

Probintzia horretatik Euskadin jaiotako 7 pertsona eramán ziren guztira. Bi udalerritatik zetozen haien gorpuzkiak: Llanestik (5) eta Peñamellera Bajatik (2). Asturiastik *Erorien Haranera* eramandako 7 zenduak 4 bidaiatan eramán zituzten: 3 bidaia Llanestik (1959an bi, eta 1960an bat), eta bat Peñamellera Bajatik (1959an).

1. Badajoz⁹¹:

Probintzia horretatik Euskadin jaiotako pertsona bat eramán zuten. Torremejía herritik zetozen haren gorpuzkiak. Lekualdaketa hori 1981ean egin zen.

2. Bartzelona⁹²:

Probintzia horretatik Euskadin jaiotako pertsona bat eramán zuten. Bartzelona udalerritik zetozen haren gorpuzkiak. Gorpuzkien lekualdaketa bidaia bakarrean egin zen, 1959an.

3. Burgos⁹³:

Probintzia horretatik Euskadin jaiotako pertsona bat eramán zuten. Burgos udalerritik zetozen haren gorpuzkiak. Gorpuzkien lekualdaketa bidaia bakarrean egin zen, 1959an.

4. Cáceres⁹⁴:

Probintzia horretatik Euskadin jaiotako 3 pertsona eramán ziren guztira. Trujillo udalerritik zetozen haien gorpuzkiak. Gorpuzkien lekualdaketa bidaia bakarrean egin zen, 1959an.

5. Kantabria⁹⁵:

Probintzia horretatik Euskadin jaiotako 2 pertsona eramán ziren guztira. Santander

85 Ikus kontsultatu diren iturrien atala.

86 *Ibidem*.

87 AGA 44/12115; 44/12116; 44/12117, 44/12118 eta 44/12119 kaxak.

88 http://www.memorial.udl.cat/gcivil/cem_lleida.php (2019/04/17an kontsultatua).

89 <https://www.epdata.es/datos/listado-enterrados-valle-caidos/137> (2019/04/15ean kontsultatua).

90 AGA: 44/12117 kaxa, 13 eta 14. karpetak.

91 AGA 44/12115 kaxa, 08. karpeta.

92 AGA 44/12115 kaxa, 09. karpeta.

93 AGA 44/12115 kaxa, 10. karpeta.

94 AGA 44/12115 kaxa, 11. karpeta.

95 AGA 44/12118 kaxa, 10. karpeta.

udalerritik zetozen haien gorpuzkiak. Gorpuzkien lekualdaketa bidaia bakarrean egin zen, 1959an.

6. Castelló⁹⁶:

Probintzia horretatik Euskadin jaiotako 3 pertsona eraman ziren guztira. Castelló de la Plana, Morella eta Onda udalerrietatik zetozen haien gorpuzkiak. Gorpuzkien lekualdaketa bidaia bakarrean egin zen, 1959an.

7. Ciudad Real⁹⁷:

Probintzia horretatik Euskadin jaiotako pertsona bat eraman zuten. Daimiel udalerritik zetozen haren gorpuzkiak. Gorpuzkien lekualdaketa bidaia bakarrean egin zen, 1960an.

8. Cuenca⁹⁸:

Probintzia horretatik Euskadin jaiotako pertsona bat eraman zuten. Cuenca herritik zetozen haren gorpuzkiak. Gorpuzkien lekualdaketa bidaia bakarrean egin zen, 1959an.

9. Huesca⁹⁹:

Probintzia horretatik Euskadin jaiotako 2 pertsona eraman ziren guztira. Fraga eta Labuerda udalerrietatik zetozen haien gorpuzkiak. Gorpuzkien lekualdaketa bi bidaiatan egin zen, 1959an Labuerdatik eta 1960an Fragatik.

10. Jaén¹⁰⁰:

Probintzia horretatik Euskadin jaiotako pertsona bat eraman zuten. Jaén udalerritik zetozen haren gorpuzkiak. Gorpuzkien lekualdaketa bidaia bakarrean egin zen, 1959an.

11. Errioxa¹⁰¹:

Probintzia horretatik Euskadin jaiotako pertsona bat eraman zuten. Logroño udalerritik zetozen haren gorpuzkiak. Gorpuzkien lekualdaketa bidaia bakarrean egin zen, 1959an.

12. Lleida¹⁰²:

Probintzia horretatik Euskadin jaiotako 27 pertsona eraman ziren guztira. Gorpuzkiak honako udalerrri hauetatik zetozen: La Pobla de Segur (2), Lleida (10), Rialp (1) eta Tremp (14). Lleidatik lekuz aldatutako 27ak lau bidaiatan eraman zituzten *Erorien Haranera*: Bidaia bat La Pobla de Segurtik, 1959an; bat Rialpetik, 1962an; bat Trempetik, 1963an; eta beste bat Lleidatik, 1965ean.

13. Madril¹⁰³:

Probintzia horretatik Euskadin jaiotako 19 pertsona eraman ziren guztira. Honako udalerrri hauetatik zetozen haien gorpuzkiak: Boadilla del Monte (1), Brunete (2), La Almudena hilerria (4), Griñón (3), Madrid (1), Pinto (1), Valdemoro (5), Vallecas (1) eta Villaviciosa de Odón (1). Madrildik eramandako 17 zenduak 14 bidaiatan eraman zituzten Cuelgamurosera: bidaia bi Brunetetik abiatu ziren, 1959an; bi Valdemorotik, 1959an eta 1961ean; bat Boadilla del Montetik, 1960an; lau La Almudena hilerrietatik, bat 1960an eta hiru 1961ean;

96 AGA 44/12115 kaxa, 13. karpeta.

97 <https://www.epdata.es/datos/listado-enterrados-valle-caidos/137> (2019/04/15ean kontsultatua).

98 AGA 44/12116 kaxa, 08. karpeta.

99 AGA 44/12116 kaxa, 18 eta 21. karpetak.

100 AGA 44/12116 kaxa, 22. karpeta.

101 AGA 44/12116 kaxa, 28. karpeta.

102 AGA 44/12116 kaxa, 26 eta 27. karpetak; http://www.memorial.udl.cat/gcivil/cem_lleida.php (2019/04/17an kontsultatua).

103 AGA (08)026.4, 262 eta 263. kaxak.

bat Pintotik, 1960an; bat Vallecastik, 1965ean; hiru Griñóndik, 1968an; bat Madrildik, 1968an; eta bat Villaviciosa de Odóndik, 1968an.

14. Málaga¹⁰⁴:

Probintzia horretatik Euskadin jaiotako pertsona bat eraman zuten. Málaga udalerritik zetozen haren gorpuzkiak. Gorpuzkien lekualdaketa bidaiara bakarrean egin zen, 1959an.

15. Pontevedra¹⁰⁵:

Probintzia horretatik Euskadin jaiotako 2 pertsona eraman zituzten. Mondariz-Balneario udalerritik zetozen gorpuzkiak. Gorpuzkien lekualdaketa bidaiara bakarrean egin zen, 1959an.

16. Tarragona¹⁰⁶:

Probintzia horretatik Euskadin jaiotako 39 pertsona eraman ziren guztira. Ondorengo udalerrri hauetatik zetozen haien gorpuzkiak: Batea (6), Bot (18), Gandesa (7), Horta de Sant Joan (7) eta Villalba de los Arcos (1). Tarragonatik *Erorien Haranera* eramandako 39 pertsonak 4 bidaiara eraman zituzten: bidaiara bat Botetik abiatu zen, 1959an; bat Gandesatik, 1959an; bat Horta de Sant Joandik, 1959an; eta bat Bateatik, 1971n.

17. Teruel¹⁰⁷:

Probintzia horretatik Euskadin jaiotako 19 pertsona eraman ziren guztira. Haien gorpuzkiak ondorengo udalerrri hauetatik zetozen: Cella (8), Santa Eulalia hilerrria (10) eta Sarrión (1). Terueldik Cuelgamurosera eramandako 19 zenduak 4 bidaiara lekualdatu zituzten: bi bidaiara Santa Eulaliatik abiatu ziren, 1959an eta 1966an; bat Cellatik, 1966an; eta bat Sarrióndik, 1966an.

18. Valentzia¹⁰⁸:

Probintzia horretatik Euskadin jaiotako 2 pertsona eraman zituzten. Haien gorpuzkiak ondorengo udalerrri hauetatik zetozen: Gandia (1) eta Paterna (1).

Valentziatik *Erorien Haranera* eramandako 2 zenduak bi bidaiara eraman zituzten: Bat Gandiatik, 1959an eta bestea Paternatik, 1959an.

19. Zaragoza¹⁰⁹:

Probintzia horretatik Euskadin jaiotako 25 pertsona eraman ziren guztira. Uncastillo eta Zaragoza udalerrietatik zetozen gorpuzkiak. Zortzi bidaiara eraman zituzten Cuelgamurosera haien gorpuzkiak: bidaietako bat 1959ean egin zen, eta beste zazpiak, 1961ean.

104 AGA 44/12117 kaxa, 07. karpeta.

105 <https://www.epdata.es/datos/listado-enterrados-valle-caidos/137> (2019/04/15ean kontsultatua).

106 AGA 44/12118 kaxa, 16 eta 17. karpetak.

107 AGA 44/12118 kaxa, 18. karpeta.

108 AGA 44/12119 kaxa, 04. karpeta.

109 AGA 44/12119 kaxa, 11. karpeta.

PROBINTZIA	ZENBAT	UDALERRIA	ZENBAT
Asturias	7	Llanes	5
		Peñamellera Baja	2
Badajoz	1	Torremejía	1
Bartzelona	1	Bartzelona	1
Burgos	1	Burgos	1
Cáceres	3	Trujillo	3
Kantabria	2	Santander	2
Castelló	3	Castelló de la Plana	1
		Morella	1
		Onda	1
Ciudad Real	1	Daimiel	1
Cuenca	1	Cuenca	1
Huesca	2	Fraga	1
		Labuerda	1
Jaén	1	Jaen	1
Errioxa	1	Logroño	1
Lleida	27	La Pobla de Segur	2
		Lleida	10
		Rialp	1
		Tremp	14
Madril	19	Boadilla del Monte	1
		Brunete	2
		La Almudena hilerria	4
		Griñon	3
		Madril	1
		Pinto	1
		Valdemoro	5
		Vallecas	1
Villaviciosa de Odón	1		
Málaga	1	Málaga	1
Pontevedra	2	Mondáriz-Balneario	2
Tarragona	39	Batea	6
		Bot	18
		Gandesa	7
		Horta de San Joan	7
		Villalba de los Arcos	1

PROBINTZIA	ZENBAT	UDALERRIA	ZENBAT
Teruel	19	Cella	8
		Santa Eulalia	10
		Sarrión	1
Valentzia	2	Gandia	1
		Paterna	1
Zaragoza	25	Uncastillo	1
		Zaragoza	24
Total	158	43	158

3.4.- Lekuz aldatzeko baimenak

Erorien Haranean egindako ehorzketen arazoari heltzen zaionean, lekualdaketa horiek familien baimenarekin egin ote ziren da gako erabakigarrietako bat, edo, aldiz, agintariek ahai-deei lekualdaketa berri jakinarazi gabe egin ote ziren.

Aurretiaz esan dugun bezala, administrazio frankistak prozedura administratibo bat, asko edo gutxi arautua, erabili zuen familiartekoen baimenak lortzeko. Gobernazio Ministerioak tokian tokiko Gobernu Zibilei eskatu zien nork bere probintziako udalerrietako zenduen zerrenda osa zezala. Gobernu Zibilak, orduan, probintziako Udal bakoitzari helarazi zion herriko zenduen zerrenda osatzeko agindua, eta adierazteko non zeuden ehortzita eta ea familiartekoek baimena ematen zuten haien gorpuzkiak *Erorien Haranera* lekualdatzeko. Beraz, Udalak ziren azken buruan familiekin harremanetan jarri behar izaten zutenak.

Prozedura hori, jakina, ez zen erabiltzen identifikatu gabe zeuden hilekin, eta halakoetan gorpuzkiak inolako eragozpenik gabe *eramaten ziren Erorien Haranera*; Hilerri Militarretan ehortzita zeudenekin ere ez zen prozedura hori erabiltzen, ministerio militarrek agintzen zuenari men egiten zitzaion haien kasuan.

Behin honetara iritsita, esan behar da Udal Artxiboetan dokumentu-hutsune bat dagoela zenduen familiartekoen eta Udalen artean izandako komunikazioei dagokienez. Dokumentatuta dago, bai, udal-korrespondentziaren sarrera- eta irteera-liburuetan, Udalaren eta Gobernu Zibilaren arteko komunikazioa lekualdatze-prozesuei buruz; baina kontsultatu diren Udal Artxibo gehienetan Gobernu Zibila, Udala eta familiartekoen arteko komunikazio horiek galdu egin dira. Udaletako dokumentazio-hutsune hori neurri batean konpondu ahal izan da beste artxibo batzuetatik lortutako informazioarekin.

Hori guztia aintzat hartuz, artxiboetatik erdietsi den informazioa honela sailkatu da:

- a) Ahaideek izenpetutako gutunak: familiartekoek beraiek idatzi eta izenpetutako gutunak, edo Udalek idatzi, eta familiartekoek sinatzen dituzten dokumentu ereduak dira. Dokumentu fidagarrienak dira. «Familiarren baimena» kodea dute txosten honen I. eranskinean.
- b) Udalen izenean egindako gutunak: Udalek sinatzen edo zigilatzen zituzten dokumentuak dira, normalean alkateak izenpetuak, non adierazten baita herriko bizilagun batek, lekuz aldatu behar den zenduaren familiartekoa, baimena eman duela. Ez dute familiarteko inoren sinadurarik. «Udala» kodea dute txosten honen I. eranskinean.
- c) Gobernu Zibilek beraiek egindako dokumentuak: Gobernu Zibilek sinatu edo zigilatutako dokumentuak dira, non jakinarazten baitzaie Gobernazio Ministerioari edo beste Gobernu Zibil batzuei probintzia horretako bizilaguna den familiarteko batek lekualdatzeko baimena ematen duela. Ez dute familiarteko inoren edo inongo alkatearen sinadurarik. «Gobernu Zibila» kodea daramate txosten honen I. eranskinean.
- d) Ejertzitoko Ministerioa: Ejertzitoko Ministeriotik emandako baimenak dira, zeinak hilerri militarretan soilik zuen eskuduntza. Ministerio horretako arduradunaren sinadura besterik ez dute. «Ejertzitoko Ministerioa» kodea dute txosten honen I. eranskinean.
- e) Familiarren aurkakotasuna: txosten honen I. eranskinean «Familiarren aurkakotasuna» kodea erabili da, aipatzen duen organoak aipatzen duela, ezagutzen den datu bakarria familiartekoak lekualdaketa aurka daudela hilerri militarretan soilik eskuduna den.
- f) Gauzatu gabeko baimenak: horrelako kasuetan familiartekoek adierazten dute ezin dutela lekualdaketa eskatu ez dakitelako non dauden ehortzita beren ahaideen gorpuak. «Gauzatu gabeko baimena» kodea dute txosten honen I. eranskinean.

g) Identifikatu gabeko pertsonak: identifikatu gabe ehortzitako pertsonak dira, eta, horrenbestez, indarrean zegoen araudi frankistaren arabera, lekuz aldatzeko baimenik behar ez zutenak. «Identifikatu gabea» kodea dute txosten honen I. eranskinean.

Horrela, bada, kontsultatu den dokumentazioaren arabera, *Erorien Haranera* aldatzeko baimenei buruz erdietsi diren emaitzak ondorengo hauek dira:

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAetik KANPO	GUZTIRA
Familiaren baimena	-	19	8	1	28
Udala	-	1	9	3	13
Gobernu Zibila	29	15	18	35	97
Ejertzitoko Ministerioa	-	-	119	-	119
Familiaren aurkakotasuna	-	-	-	2	2
Gauzatu gabeko baimenak	-	-	-	1	1
Identifikatu gabe	120	183	11	-	314
Zehaztu gabe	469	1	74	116	660
GUZTIRA	618	219	239	158	1.234

3.4.1.- Euskadin emandako baimenak

• Arabako baimenak:


Alor horretan ere hutsune handia dago Araban. Lortu den datu bakarra da Arabako Gobernadore Zibilak 1959ko martxoaren 23an izenpetutako dokumentu bat, non jakinarazten baitziztaion Ministerioari 29 zenduk zutela familiaren baimena lekualdaketa egiteko; 1959an eraman ziren haiek guztiak. Dokumentu horretan bertan argitzen zen beste 170 gorpuzki atera zirela Santa Isabel hilerrian, eta banakatuta utzi zirela hilerriko gorputegian, familiartekoen aldetik behar ziren baimenak lortu bitartean¹¹⁰.

Horrez gain, identifikatu gabe zeuden 120 zendu eta, beraz, ez zuten baimen beharrik haiek lekualdatzeko; gainerako kasuetan ez dakigu familiaren baimenarekin edo hura gabe eraman zituzten.

Arestian azaldu ditugun baimen-moten arabera, agertzen diren datuak honako hauek dira:

BAIMEN-MOTA	ZENBAT
Gobernu Zibila	29
Identifikatu gabe (baimen beharrik ez)	120
Zehaztu gabe	469
GUZTIRA	618

110 AGA, 44/12115, 01. karpeta.



• **Bizkaiko baimenak:**

Lekuz aldatzeko baimenei buruzko informazioen bat eskaintzen duen lehen dokumentua 1952ko abenduaren 30ekoa da¹¹¹. Gobernadore Zibilak izenpetuta, Gobernazio Ministerioari igorri zitzaion dokumentu bat da. Azaroaren 19an Bizkaiko Gobernu Zibila probintziako Udal guztiekin harremanetan jarri zen, eta eskatzen zien 1952ko abenduaren 1a baino lehen egin zezatela herriko bizilagunak ziren *erori* guztien zerrenda, eta hor adierazteko non zeuden ehortzita eta familiartekoei baimena ematen zuten gorpuzkiak lekualdatzea¹¹². Lehenago adierazi den moduan, dokumentu horretan 951 *martiri* eta *erori* ageri dira, eta, guztira, 1.196 zendutako borrokalari. Txostenean zehazten denez, guztira 309 familiartekok eman zuten baimena gorpuztzak *Erorien Haranera* eramateko; Espainiako hainbat lekutan zeuden ehortzita haietako asko¹¹³.

Lekualdaketei buruzko dokumentazioak 1958tik aurrera du jarraipena. Ikusten ahal da probintzietatik bertatik eramane behar ziren gorpuzkientzako baimenak kudeatzen ari zirela eta, horrez gain, Estatuko gainerako probintzietatik eramango ziren bizkaitarren kasuak ere aintzat hartzen zirela. 1958ko ekainaren 20an, ikuskatzaileak dokumentu bat helarazi zion Bizkaiko Gobernu Zibilari, jakinaraziz ordura arte 15 familia-baimen jaso zituela, haietako 5 Bizkaian ehortzita zeuden gorpuztzenak, eta beste 10, Bizkaitik kanpo ehortzitzenak¹¹⁴.

Lekualdaketa egiteko egunerako, 1959ko martxoaren 25erako, hainbat dokumentu batu ziren familiartekoei gorpuzkiak lekualdatzeko emandako baimenen berri emanez. Hori bera gertatzen da 1962ko eta 1967ko lekualdaketetan¹¹⁵.

111 AHPB-BAHP, R725 mikrofilma.

112 Adibidea: Gordexolako Udal Artxiboa, 0058/011.


113 AHPB-BAHP, R725 mikrofilma. 309 baimen horiek egon arren, zerrenda hartan ageri ziren izenik gehienak ez ziren azken buruan Cuelgamurosera eramane, ez baita haien izena ageri Justizia Ministerioak egindako erroldan.

114 AHPB-BAHP, R725 mikrofilma, 300/10 karpeta.

115 AHPB-BAHP, R725 mikrofilma, 301/1 karpeta eta R726 mikrofilma, 301/1 eta 301/2 karpetak.

Aipatu ditugun baimen-motak konuan hartuta, hauek dira agertzen diren datuak:

BAIMEN-MOTA	ZENBAT
Familiaren baimena	19
Gobernu Zibila	15
Udala	1
Identifikatu gabe (baimen beharrik ez)	183
Zehaztu gabe	1
GUZTIRA	219



Dokumentu-egiaztapena dago Bizkaitik eraman ziren gorputz i identifikatu eta indibidualizatu guztiek bazutela lekualdaketa egiteko baimen-motaren bat; 35 ziren guztira. Haietatik 19, familiaren baimen zuzenarekin eraman ziren, eta 20k alkateek edo gobernu zibilek sinatutako dokumentuak zituzten baimentzat.

Horiez gain, identifikatu gabeko zendu kopuru aipagarria ageri da, hau da, *Erorien Haranera* eramateko baimenik behar ez zutenak¹¹⁶, eta kasuetako batean soilik ez dakigu zein izan zen lekuz aldatzeko prozedura.

• Gipuzkoako baimenak

Gipuzkoa da familia-baimenei buruzko datu gehien eskaintzen duen lurraldea. Gobernu Zibilek 1952an eskatu zuten *erorien* zerrenda bera osatu behar izan zuten Gipuzkoako udalerriek, baina Irun eta Oiartzungo kasuetan soilik agertzen da dokumentu-egiaztapena. Irungo udalak 48 *erori* zenbatu zituen 1953ko apirilaren 20an; haietatik 40ren familiek uko egin zioten lekuz aldatzeari¹¹⁷. Irungo Udal Artxiboko espedientean jaso ziren lekualdatzeari uko eginez familiartekoez izenpetu zituzten dokumentuak. Oiartzunen, 49 herritar zenbatu zituzten *erorien* artean; haietatik, 19ren familiek uko egin zioten lekualdatzeari, eta 35ek baimena eman zuten¹¹⁸.

116 Zendu horiek, batik bat, Balmaseda, Bermeo, Zalla, Gueñes, Fruiz, Gamiz-Fika edo Muxikatik zetozen.

117 IUA 964/7.

118 Oiartzungo Udal Artxiboa 1161-03.

1958ko azaroaren 20an Irungo Udalak Gipuzkoako Gobernadore Zibilari jakinarazi zion 53 *erori* zeudela bertako hilerrian, guztiak identifikatuak, eta haien familiek uko egiten ziotela lekuz aldatzeari. Hala ere, Irundik 1959an eraman zirenek 1953tik jada bazuten familiaren baimena. 1959ko martxoaren 24ko lekualdaketa gainerakoen kasuan, Gipuzkoako gobernadore zibilak sinatutako dokumentuak ageri dira, non adierazten baita lekuz aldatu behar diren gorpuzkiek badutela familiaren baimena horretarako¹¹⁹.

1960ko 1. zirkularrak eragin zuen egoera berria zela eta, Gipuzkoako Gobernu Zibilak txosten bat helarazi zion Gobernazio Ministerioari 1961eko abenduaren 16an, Udalek dohainik utzitako lurzatietan ehortzita zeuden gorpuzkien berri emanez, haiei buruz nola jokatu zalantzak zituztelako. Gobernu Zibilak erabaki zuen probintziako doako lurzatietan ehortzita zeuden gorpuzkiak bi multzotan banatzea. Lehen multzoa, lekuz alda zitezkeela ebatzen zenena, 107 zenduk osatzen zuten¹²⁰; bigarren multzoan, berriz, zalantzak sortzen zituzten kasuak edo zioen batengatik lekualdaketa ezegokitzat jotzen zirenak biltzen ziren¹²¹.

Dokumentu horretan jakinarazten zen 1962ko uztailaren 5ean eramandako gorpuzki guztiek bazutela familiaren baimena, edo, bestela, familiartekoak nor ziren ez zekitela. Tolosako Udalarena da kasurik deigarriena, adierazi baitzuen ez zekiela nor ziren identifikatutako 68 zenduetako 62ren familiartekoak.

1963ko lekualdaketa da Gipuzkoatik egindako nabarmenena, probintziatik egindakoen % 50 izan baitziren ordukoak. Ejertzitoko Ministerioak baimendutakoak izan ziren ia lekualdaketa horiek guztiak, Polloeko hilerriko lurzati militarretik baitzetozen gorpuzkiak. Soldadu haien gorpuzkiak lekuz aldatzeko egin ziren gestioetan esku hartu zuten hilerriaren arduradunak, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak, Gobernazio Ministerioak eta Ejertzitoko eta Aireko ministerioek; baina dokumentuetan ez da ageri haietako inor familiartekoekin harremanetan jarri izana, hilak nor ziren jakin arren eta, kasurik gehienetan, nondik zetozen ere bai.


Kapitulu honetan azaldu ditugun baimen-moten arabera, agertzen diren datuak honako hauek dira:

BAIMEN-MOTA	ZENBAT
Familiaren baimena	8
Gobernu Zibila	18
Ejertzitoko Ministerioa	119
Udala	9
Identifikatu gabe (baimen beharrik ez)	11
Zehaztu gabe	74
GUZTIRA	239

119 AGA 44/12116.

120 Haietatik 80 Tolosatik zetozen, 21 Irundik, 5 Donostiatik eta 1 Bergaratik.

121 Zenbait udalek, Donostia, Mutriku eta Zestoa kasu, argudiatzen zuten gorpuzkiak bere garaian norbere herriko Erorien Monumentura eraman zirela, eta jada ezin zirela indibidualizatu; Bergarak ere halaxe zioen, gorpuzkiak hobi komunera eraman zirela eta ezinezkoa zela indibidualizatzea; Hernanik, Legorretak, Soraluek eta Zerainek, berriz, ezegokitzat jotzen zuten gorpuzkiak Cuelgamurosera eramatea familiak aurka zeudelako.



Hala, bada, 154 zendu eraman zituzten nola edo halako baimenen batekin Gipuzkoatik; 11 inolako baimenik behar ez zuten identifikatu gabeak ziren, eta eramandako 74 zenduri buruz ez dakigu familiaren baimenarekin egin zen lekualdaketa.

3.4.2.- EAE ez beste lekuetatik eramandakoen baimenak

Euskal probintziak ez beste batzuetatik egin zen kasuetan, oraindik zailagoa suertatu da lekualdaketa familiaren baimenarekin egin zen ala ez argitzea. Zailtasun handiena da kontsultatu diren artxiboetan dagoen dokumentazio gehiena herri jakin batetik eraman behar ziren zendei buruzkoa dela, hau da, bertan ehortzita zeudenei buruzkoa, eta ez EAetik kanpoko beste leku batzuetatik *Erorien Haranera* eraman behar zituzten herri horretan jaioei edo bertako bizi-lagunak zirenei buruzkoa.


Horrez gain, kontsultatu den dokumentazioaren arabera, bada zalantzarik bertakoak izan gabe hilerrietan ehortzita zeuden zenduen familiartekoekin harremanetan jartzeko udalek eta Gobernu Zibilek egin zituzten gestioei buruz. Horrela, adibidez, Lleida eta Zaragozako probintzietatik Gobernazio Ministeriora helarazitako informazioan adierazten zen beren probintzietan zendu asko zeudela familiarteko ezagunik ez zutenak, eta gehitzen zuten haiek ehortzita zeuden hilobiak utzita zeudela ahaideek ez zutelako haiek zaintzeko interesik azaldu¹²².

Horiek hala, familiartekoei beren ahaideak non zeuden ehortzita jakinarazi, eta haiek Cuelgamuros haranera eramateko baimena ematen zuten ala ez galdetzeko egin behar zen esfortzua egingo zela pentsatzea zail samarra egiten da. Probintzia horietan ehortzita zeudenen kopurua kontuan izanda, oso litekeena da zuzemenak egoki egiteko denbora gehiago behar izatea; alabaina, irtenbiderik azkarrenaren eta kosturik gutxienekoaren aldeko hautua egin zen, hau da, hartu, eta *Erorien Haranera* eraman.

122 AGA, 44/12116 kaxa, 26 eta 27. karpetak.

Kapitulu honetan azaldu ditugun baimen-moten arabera, agertzen diren datuak honako hauek dira:

BAIMEN-MOTA	ZENBAT
Familiaren baimena	1
Gobernu Zibila	35
Udala	3
Familiaren aurkakotasuna	2
Gauzatu gabeko baimena	1
Zehaztu gabe	116
GUZTIRA	158



Horrela, hauxe dakigu bakarrik: 39 zendu eraman zituztela nola edo halako baimen batekin, bi familiaren baimenik gabe lekualdatu zituztela, eta bat gauzatu gabeko baimenean geratu zela. Gainerako 116 kasuetan, ez daukagu informaziorik lekualdatzeari buruz.

Guztira 1.234 lekualdatze egin ziren, hauetatik 920 identifikatuta zeuden eta 314 identifikatu gabe. Dokumentatuta dauden lekualdatzeen baimenak honela sailkatzen dira:

	Euskaditik (identifikatuta)	Beste Erkidegoetatik (identifikatuta)	GUZTIRA
Lekualdatzeak	762	158	920
Baimenak	218	40	258

4. Ondorioak

1. **Erorien Haranera** egindako lekualdaketak eta horretarako prozedurak aldatu egin ziren denboran zehar, eta ez ziren beti berdin gauzatu. Aldaketarik funtsezkoenetako bat 1957ko abuztuaren 23ko Lege Dekretuak ezarri zuen, zeinaren bidez, nazionalen bandokoez gain, errepublikanoen bandokoak ere bilduko ziren.

Funtsezko aldaketa horrek eragina izan zuen lekualdaketa-baimenetan. 1960ko martxoaren 31tik aurrera, 1963ko otsailaren 22ra arte, erregimenak beretzat hartu zuen Udalek dohainik utzitako lurzatieta ehortzita zeuden gorpuzkiak lekuz aldatzeko eskubidea, baldin eta familiar-tekoek ez bazituzten ordainpeko hilobi partikularretara aldatzen.

2. **Ministerioak gorpuzkiak lekualdatzeko ezarri zituen jarraibideak ez ziren beti zorrotasun berarekin bete.** Garrantzitsua da hori, batez ere, *erori* asko zuten udalerrietan; esate baterako, Zaragozan eta Lleidan. Zenduei eta haien familiar-tekoiei buruzko informazioa lortzeko gestioek denbora eta ahalegin handiagoa eskatzen zuten, eta, horregatik, ohikoa zen lekualdatu behar zen zenduaren izen-abizenak soilik adieraztea, beste inolako daturik gabe.

3. **Artxiboetan dokumentu-hutsuneak daudela ikusi ahal izan dugu, eta horrek zailtasun gehiago erakarri ditu ikerlan honetako helburuak erdietsi ahal izateko.** Probintzia guztietako Gobernu Zibilek Gobernazio Ministeriora bidali zuten dokumentazioa Administrazio Artxibo Nagusian (AGA) jasota dago, baina funtsa ez dago osorik. Horren adibide argia da Arabako probintzia: 618 zendu eraman zituzten lau fasetan 1959 eta 1961 artean, eta haietako 498 identifikatuta zeuden, baina AGAn 13 dokumentu baino ez daude jasota.

Bizkaian izan ezik, arazo bera gertatzen da Araba eta Gipuzkoako artxibo historiko probintzietan ere. Bizkaiko Artxibo Historiko Probintzialak jasota daukan funtsak erakusten du Gobernazio Ministerioaren eta Udalen arteko erdibidean zuten kokapenagatik, Gobernu Zibilek dokumentazio ugari sortu zutela lekualdatzei eta haiek egin ahal izateko baimenei buruz, baina dokumentazio hori ez da kontserbatu beste bi euskal probintzietan.

Udal-artxiboen egoera heterogeneoa da. Haietako batzuek, lekualdatzeen espediente osoak daukate jasota, eta horrek datu berriak lortzeko bidea eman du. Beste kasu askotan, ordea, korrespondentzien funtsetara jo behar izan da daturen bat edo beste eskuratu ahal izateko, kontserbatu badira, betiere.

4. **Orain arte lortu diren datuak aintzat hartuz, esan liteke 1.076 gorpuzki eraman zirela Euskaditik Erorien Haranera; haietatik, 762 identifikatuta zeuden, eta 314, identifikatu gabe.** Arabatik 618 gorpuzki eraman ziren guztira (498, identifikatuta, eta 120, identifikatu gabe); Bizkaitik 219 gorpuzki eraman ziren (36, identifikatuta, eta 183, identifikatu gabe); Gipuzkoatik 239 eraman ziren (228, identifikatua, eta 11, identifikatu gabe). Ikerlan honi esker, EAetik eramandakoen 10 izen gehitu dira, eta 15 identifikatu gabekoren lekualdaketa.

PROBINTZIA	UDAL KOPURUA	IDENTIFIKATUAK	IDENTIFIKATU GABEAK	GUZTIRA
Araba	1	498	120	618
Bizkaia	20	36	183	219
Gipuzkoa	9	228	11	239
GUZTIRA	29	762	314	1076

5. Euskadi ez beste nonbaitetik eramandako euskal herritarrei dagokienez, **jatorria edo bizilekua Euskadin zuten 158 eraman zituzten gutxienez**; gehienak, Ebroko frontea egon zen probintzietatik.

PROBINTZIA KOPURUA	IDENTIFIKATUAK	IDENTIFIKATU GABEAK	GUZTIRA
20	158	-	158

6. **Guztira, 1.234 zendu bederen lekualdatu zituzten**; haietatik, 920 identifikatuta eta 314 identifikatu gabe.
7. **Kasurik gehienetan ezin izan da argitu lekualdaketa horiek familien baimenarekin egin ziren ala ez.** Egiatzatu ahal izan da nolabaiteko baimena bazegoela **257** kasutan, eta aurkakotasuna **2** kasutan, EAetik edo beste nonbaitetik dokumentatu ahal izan diren **1.234** kasuen artean. Haatik, identifikatu gabeko 314ren kasuan, agerikoa da inolako baimenik gabe egin zirela lekualdaketak.
8. **Hain zuzen ere, azpimarragarria da identifikatu gabeak asko zirela lekuz aldatuen artean (1.234tik 314).** Nabarmena da Bizkaiko probintziaren kasua, identifikatu gabeko 183 zendu eraman baitziren. Arabatik ere 120 zendu lekualdatu zituzten identifikatu gabe, baina Bizkaian % 83,6 dira horiek.

	FAMILIAREN BAIMENA	FAMILIAREN AURKAKOTASUNA	GAUZATU GABEKO BAIMENA	UDALA	GOBERNU ZIBILA	EJERTZITOKO MINISTERIOA
Araba	-	-	-	-	29	-
Bizkaia	19	-	-	1	15	-
Gipuzkoa	8	-	-	9	18	119
EAE ez beste nonbaitetik	1	2	1	3	34	-
GUZTIRA	28	2	1	13	96	119

Balmasedako eta Gernikako hilerrietako erregistro-liburuetan askoz ehortzi gehiago daude identifikatuta, lekualdaketarako inprimakietan baino. Beste ikerlan batek lagun dezake in-kognita hori argitzen, eta izen-abizenak ipintzen identifikaziorik eta inolako baimenik gabe lekualdatu zituztenei.

9. **Aurkezten dugun hau bezalako ikerlanak beste autonomia erkidegoetan ere egiteak elkar osatuko luketen emaitzak erakarriko lituzke, eta ikerlan hau gehiago argitzeko balioko luke.** Estatuko ia probintzia guztietatik egin ziren lekualdaketak, eta haietatik eramandakoen sorlekua aski heterogeneoa zen; beraz, ikerketa gehiago sustatu behar dira, eta izenik gabe eta familiar-tekoek haien atarramentuaren berririk izan gabe Cuelgamuros haranean ehortzita daudenen kopurua eta, batez ere, identifikazioa zehaztasun handiagoz jakitea zilegituko duten sinergiak sortu behar dira.

Oharra: Ikerketa honi atxikita dagoen zerrenda, Gogora Institutuko webgunean eskuragarri dago.





6

dokumentua



Gerra Zibilean eta frankismoan
Euskadin izandako giza eskubideen
urraketei buruzko Oinarrizko
Txostenaren lehen fasea

Edizio eguneratua eta berraztertua

Gerra Zibilean eta frankismoan Euskadin izandako giza eskubideen urraketei buruzko Oinarrizko Txostenaren lehen fasea:

Gerra Zibilean eta lehen frankismoan izandako hildakoak (1936-1945)

Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

Gogora. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua

UPV/EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedra

Aranzadi Zientzia Elkartea

Bilbo, 2020ko martxoa

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZA
Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia



GOBIERNO VASCO

PRESIDENCIA
Secretaría General de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua
gogora
Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos

UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNESCO Katedra
Zientzia eta Kulturaren Nazio Batuen Erakundea
Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura
Eziz Eskubideen eta Botere Publikoen UPV/EHUko UNESCO Katedra - Cátedra UNESCO de Derechos Humanos y Poderes Públicos de la UPV/EHU

ARANZADI
zientzia elkartea - sociedad de ciencias
society of sciences - société de sciences



Aurkibidea

1. Sarrera

2. Atariko gaiak

2.1. Txostenaren helburua

2.2. Lantaldea

2.3. Aztertutako iturriak

2.3.1 Artxiboak

2.3.2 Bibliografia

2.4 Ikuspegi juridikoa

2.4.1 Testuinguru juridikoa

2.4.2 Kategorien zerrenda: Terminologiaren erabilera, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen arabera.

2.4.3 Azken gogoeta

3. Emaitzak

3.1 Hildakoak (1936-1945)

3.1.1 Guda-ekintzan hildako ez-borrokariak

3.1.1.1 Bonbardaketak (gizateriaren aurkako krimena, erailketarena)

3.1.1.2 Beste kasu batzuk (gizateriaren aurkako krimena, erailketarena)

3.1.2 Judizioz kanpoko exekuzioak (gizateriaren aurkako krimena, behartutako desagertzearena)

3.1.3 Exekuzio sumarismoak: Heriotza-zigorra (gizateriaren aurkako krimena, erailketarena)

3.1.4 Kartzelan hildakoak (gizateriaren aurkako krimena, erailketarena)

3.1.5 Borrokan hildako gudariak eta milizianoak

3.1.6 Errepublikanoek borrokatik kanpoko ekintzan eragindako hildakoak

3.1.7 Borrokan hildako matxinoak

3.1.8 Laburpen gisa

3.2 Datu-basea

4. Ondorioak

Aipaturiko bibliografia

1. Sarrera

1936ko uztaileko altxamendu militar faxistak eta bere ondorioek, Gerra Zibilak eta 40 urteko Diktadura Frankistak, injustizia bikoitza eragin zuten: alde batetik, gizarte osoarekiko bidegabekeria historiko eta politikoa, oinarriko askatasunik gabe eta errepresio erregimen baten menpean mantendu zutena; eta, bestetik, frankismoaren biktimek jasan zituzten giza eskubideen urraketa masiboen injustizia.

Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren 2013-2017 aldiko Bake eta Bizikidetzaren Planak eta Gogoraren 2017-2020 aldiko Jarduera Planak ondorengo helburu bikoitza jasotzen dute: Memoria Historikoaren egiaren aintzatespen instituzionala burutzen laguntzea eta frankismoaren biktimek memoriaren erreparazio morala burutzen laguntzea. Horretarako, lehenetsuneko proiektu bezala ezartzen dute ikerketa egitea, Gerra Zibilean eta Diktadura Frankistan gertatutakoaren hurbilketa zehatz eta zorrotza izango den egiaren mapa egitea, giza eskubideen urraketen arloan.

Ikerketa bultzatzeko eta *1936-1978 aldian izandako oinarrizko eskubideen urraketei buruzko txostena* egiteko helburuarekin, 2016ko uztailearen 13an hitzarmen bat sinatu zuten Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak-Gogorak, Euskal Herriko Unibertsitateak UPV/EHUk, eta Aranzadi Zientzia Elkarteak, "arreta berezia jarriz, exekuzioetan, behartutako desagertzeetan, atxilotetetan, behartutako lanean eta eta erbestean"

Txosten hau hitzarmenaren lehen faseari dagokio, Gerra Zibilean eta gerra ostean hildako pertsona guztiei dagokion zatia garatzen da bertan, eta horrek azaltzen du izenburuaren amaierako eranskina: «Gerra Zibilean eta lehen frankismoan izandako hildakoak (1936-1945)». Hau da: Gerra Zibilaren eta honen osteko errepresio frankistaren ondorioz, 1936tik 1945era Euskadin izandako hildakoen eroldari ahalik eta fidagarritasun handiena ematea.

Iturriak biltzeko eta aztertzeko lan hau datu-base batean jaso da, diziplina historikoaren berezko terminologia erabiliz, baina baita giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearena eta, zehatzago, nazioarteko zigor-zuzenbidearena ere.

Gainera, txostenak datu-base informatikoaren oraingo eta etorkizuneko lanaren oinarri metodologikoak eta terminologikoak ere finkatu nahi ditu.

Txosten hau lantzeko garaian, historialariak eta legegileak harremanetan egon dira; hala, bada, harreman horren bidez, lanerako oinarriak ezarri nahi dira, izenburu orokorrak aipatzen duen 1936tik 1978ra arteko oinarriko txostena zehatz-mehatz eta arian-arian osatuz joan dadin.

Horrenbestez, lehen txosten honek hiru atal ditu:

Lehenengoan (II. atala), ikerketaren gaia finkatu, eta lantaldea aurkeztu ondoren, artxi-boak eta bestelako iturri bibliografikoak nola aztertu diren azaltzen da zehatz-mehatz. Ondoren, «ikuspegi juridiko» deitutakoan, giza eskubideen urraketen kategoriak identifikatzeko erabilitako terminologia zergatik aukeratu den azaltzen da.

Ondorengoan, (III. atala) emaitzei buruzkoa da. Ikerketa historikoen balantzea ematen du, kategorien arabera sailkatuta, eta, kategoria horiek, hala dagokionean, nazioarteko zigor-zuzenbidearen kategoriekin gurutzatuta. Emaitzak, eta hau nabarmendu behar da, ez dira inoiz behin betikotzat hartu behar, ekarpen gehiago izan ditzakeen zerrenda irekitzat baizik. Emaitza hori, erantsitako datu-basean jaso da, eta horren barruan Gerra Zibilean eta gerraostean Euskadin hildako 20.747 lagun izenak bildu dira.

Azkenik, IV. atalean jasotzen dira ikerketa honen ondorio nagusiak eta etorkizunean egia historikoa ofizialki aintzatesteko eta gerra zibilean Euskadin hildako biktimek aitortzeko eta erreparaziorako jarraitu beharreko pausuak.

2. Atariko gaiak

2.1. Txostenaren helburua

Aurretik adierazi den bezala, txostenaren helburua da 1936tik 1945ra arte Euskadin izandako giza eskubideen urraketan aztertzea; aldi horren barruan Gerra Zibila eta lehen frankismoa sartzen dira, baina, ikerketaren lehen etapa honetan, gerraren eta ondorengo errepresioaren ondorioz izandako hildako guztien azterketa baino ez da egin. Halaber, aldi horretan Euskadin hil ziren pertsona guztiak, euskal herritarra izan edo ez, zein hiru lurralde historikoetatik kanpo hildako euskal herritarra jaso dira azterlan honetan.

Aldez aurreko azalpen horren ondoren, jarraian labur-labur lan-metodologia azaldu beharra dago. Metodologia hori erabili da, batetik, lantaldeak koordinatzeko, informazioa biltzeko eta antolatzeko (artxiboak eta bibliografia), eta, bestetik, lege-testuingurutik abiatuta terminologia-esparrua oinarritzeko eta mugatzeko, giza eskubideen urraketan kategoriak identifikatzeko proposamen zehatz batekin.

2.2. Lantaldea

Txostena egiteko, lankidetzak-esparru bat zehaztu zen honako erakunde hauen artean: Giza Eskubide, Bizikidetzak eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia, Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua, UPV/EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedra eta Aranzadi Zientzia Elkarteak.

Esparru horren barruan, lantaldea sortu zen, Gogorak koordinaturik. Ikerketa historikoaz Jon Penche doktorea, Aritz Onaindia doktorea eta Mikel Diego arduratu dira. Zati juridikoa Jon-Mirena Landa irakasleak egin du, eta Lourdes Herrasti eta Josu Chueca irakasleek, berriz, historiaren arloko aholkulari-lana egin dute. María José Villa doktoreak datu-baseak garatu ditu. Azkenik, landa-lanaz honako hauek arduratu dira: Javier Bucos, Etxahun Galparsoro, Jimi Jiménez, Karlos Almorza, Olatz Retegi, Eneko Sanz, Amaia Macazaga, Joanes Carrera, Amaia Rodríguez eta Jon Moñux.

2.3. Aztertutako iturriak

2.3.1 Artxiboak

Lehen fase honen helburua Gerra Zibilaren eta gerraosteko errepresio frankistaren ondorioz Euskadin izandako hildakoen errolda egitea zenez, horri erantzungo zioten artxiboetara jo da.

Erregistro Zibilak

Lehenik, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak azterlanari laguntza ematea erabaki zuen haren gobernu-salaren 2017ko abenduaren 22ko bileran, eta hiru lurralde historikoetako udalerrri guztietako Erregistro Zibilak 1936-1945 aldiko heriotza-aktak eskuratu ahal izan dira laguntza horri esker. Era berean, eta Euskaditik kanpo errepresio frankista borrokatu edo pairatu zuten euskal herritarrekin zer gertatu zen jakite aldera, besteak beste, Santander, Jaka eta Antsoaingo erregistro zibilak ere aztertu dira, adibide batzuk jartzearren.

Elizako Artxibo Historikoak

Bigarrenik, EAEko hiru elizbarrutietako gotzainek eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako elizako artxibo historikoen arduradunek agertutako lankidetzari esker, EAEko hiru herrial-

deetako eliza gehienetako 1936-1945 aldiko heriotza-liburuak aztertu ahal izan dira. Izan ere, 2018aren hasieran eginiko bilera batean, ikerketari erraztasunak ematea erabaki zuten elizbarrutiek¹.

Artxibo Historiko Probintzialak

Hirugarrenik, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Kantabriako Artxibo Historiko Probintzietan kontsultak egin dira. Horietan, lurralde bakoitzeko antzinako espetxe probintzietako artxi-boak zaintzen dira, heriotzara kondenatutako pertsona guztien espetxe-espeditenteak aurkitzeko, zigorra azkenean exekutatu edo kommutatu zen jakiteko. Hain zuzen ere, Bizkaiaiko Artxibo Historiko Probintziala, kanpainan hildakoen erregistroa aztertu zen. Artxibo horretan inskribatuta daude Gerra Zibilean, batez ere Bizkaian, borrokan eta bonbardaketen ondorioz hil ziren ehunka gudari, miliziano eta zibil.

Udal Artxi-boak

Horrez gain, udal-artxi-boak ere aztertu dira, hilerriko liburuetan begiratzeko, horrelakorik baleude. Hori horrela, EAEko hiru hiriburu-herrietako liburuak aztertu ahal izan dira, bai eta beste udal-herri batzuetakoak ere (Gernika, Turtzioz, Sestao, Balmaseda eta Tolosakoak, besteak beste). EAEtik kanpo, gauza bera egin da Santander eta Gijóngo hilerrietako liburu-herrietan, besteak beste. Helburua gerrarekin edo errepresioarekin lotutako indarkeriazko arrazoien ondorioz hildako gisa inskribatuta zeuden pertsona guztien izenak kontsultatzea zen.

Ipar-mendebaldeko Bitarteko Artxibo Militarra

Bestalde, 1936 eta 1945 artean, gutxi gorabehera, auzitegi frankistek emandako epaiei buruzko espeditente judizialak kontsultatu dira Ipar-mendebaldeko Bitarteko Artxibo Militarrean, Ferrolen. Bilbo, Donostia, Gasteiz, Santander eta Logroñoko auzitegi-herrietan heriotza zigorra zigortutako euskal herritar guztien espeditenteak hustu dira.

Espetxeetako Artxi-boak

Era berean, Probintziaiko Artxibo Historikoei dagokienez aurretik adierazi bezala, Santoñako (Kantabria) eta Burgosko espetxeetako artxi-boak ere kontsultatu dira. Espetxe horietan euskal herritar ugari egon zen, eta, horri esker, espetxe horietan zenbat euskal herritar exekutatu zituzten edo hil ziren jakin ahal izan da².

Alderdi politikoen fundazioak

Horrez gain, ikerketa-proiektu honen xedearekin lotutako funts historikoak dituzten EAEko alderdi politikoen fundazioen lankidetzaren eskatu da. Hala, Sabino Arana Fundazioak datu-baseak jarri ditu proiektu honen eskura; Eusko Ikasketen Fundazio Popularrak Gipuzkoako Karlisten Batzarrari buruz duen dokumentazioa eskaini du, eta Ramón Rubial Fundazioak, berriz, proiektuaren helburuarekin lotutako funtsik ez duela adierazi du.

Beste proiektu batzuen datu-baseak

Artxibo iturriez gain, borrokan hildakoen edo errepresaliatuen izenak biltzen dituzten beste proiektu memorialistiko batzuen datu-baseak ere kontsultatu dira. Hala, EAERI dagokionez,

¹ Arabako eta Bizkaiko heriotza-liburu guztiak aztertu ahal izan ditugu, baina Bizkaiko liburuaren % 25 inguru daude kontsultatzeko oraindik, parrokiatan gordeta baitaizkate, eta ikertzaileek ezin izan baitituzte eskuratu.

² Era horretan, eta Espetxe Erakundeetako Idazkaritza Nagusiari eskaera eginda, El Duesoko espetxeko (Santoña, Kantabria) heriotza-liburua baino ezin genuen *in situ* aztertu; Burgosko espetxeari eskatutako espetxe-espeditenteak, berriz, postaz igorri zizkiguten.

Donostia 1936-1945³ eta Euskal Memoria⁴ webguneak aztertu dira, eta EAetik kanpo hil ziren euskal herritarrak aurkitzeko, berriz, honako proiektu hauetara jo da: Nafarroako Oroimen Historikoari buruzko Dokumentazio Fonda⁵, Nomes e Voces⁶, Todos los Nombres⁷, Todos los nombres de Asturias⁸, La Memoria Recuperada⁹, Cost Humà de la Guerra Civil, Víctimes de la Guerra Civil i la repressió franquista a las terres de Lleida¹⁰, Víctimas de la Dictadura en Castilla La Mancha¹¹ eta Innovation and Human Rights¹².

Ekintza horien guztien datuak gurutzatzeari esker, Gerra Zibilaren ondorioz gertatutako hildakoen kopuruari buruzko hurbilketa nahiko zehatza egin ahal izan da, eta emaitza hori beti ireki da ikerketa eta ekarpen berrietara edo aztertu ezin izan diren funtsak eskuratzearen ondorioz.

Hala ere, zenbait pertsonaren heriotza ez zen artxibo-iturri kontsultagarrian erregistratu; horregatik, azterlan hau ez da txosten honen argitalpenarekin ixten; aitzitik, Gerra Zibilean eta lehen frankismoan hildakoen eta errepresaliatuen familiei dei egiteko balio behar du, Gogora Institutura lekukotza eman eta haien senideei buruzko informazioa eskain dezaten. Hori dela eta, biktimen erroldan sartu dira Gogora Institutura eta Aranzadi Zientzia Elkartera gerraren eta errepresioaren ondorioz desagertutako senideekin zer gertatu zen jakiteko laguntza eske etorri diren pertsona guztiak.

2.3.2 Bibliografia

Artxibo-lanaren ostean, Gerra Zibilari eta Euskadiko errepresio frankistari buruz argitaratutako guztiaren gaineko bibliografia-bilaketa sakona egin da, batez ere gatazkan eta errepresioaren ondorioz hildakoen izenak dituzten argitalpenei dagokienez.

Gerra Zibilaren aldi osoa jorratzen duten lan entziklopedikoei dagokienez, Iñaki Egañak¹³ eta José Antonio Urgoitiak¹⁴ zuzendutakoak erkatu dira.

Gerra Zibilaren Euskadiko gertakari edo alderdiren bati heltzen dioten lanei dagokienez, Sancho de Beurko Elkarteak Legutioko¹⁵, Saibiko¹⁶ eta Arabako iparraldeko¹⁷ batailei buruz edo diziplina-batailoari¹⁸ buruz egindakoak hartu dira kontuan, eta horiei gehitu behar zaiz-

3 <https://www.donostia1936.eus/eu/>, Aranzadi Zientzia Elkarteak Donostiako Udalarentzat egina.

4 http://www.euskalmemoria.eus/es/db/borrokan_hildakoak

5 <http://memoria-oroimena.unavarra.es/es/buscar>

6 <http://www.nomesevoces.net/>, Galiziako unibertsitatearteko proiektua.

7 <http://www.todoslosnombres.org/>, Andaluziari buruz.

8 Ikerketa hau desagertu egin da, baina Luis Miguel Cuervok, adeitasunez, haren zerrenda utzi digu.

9 <https://memoriarecuperada.ua.es/>, Alacanteko Unibertsitateak egina, non Valentziako Komunitateko errepresaliatuak biltzen diren.

10 <http://memoria.gencat.cat/ca/que-fem/cost-huma-de-la-guerra-civil/>.

11 <http://www.victimasdeladictadura.es/>

12 <https://scwd.ihr.world/es/>, webgune honek beste proiektu batzuen ikerketak biltzen ditu, hala nola Madril, Girona eta beste leku batzuetan fusilatutakoak.

13 EGAÑA, Iñaki: *La guerra civil en Euskal Herria*, 8 libk., Andoain, Aralar Liburuak, 1999-2004.

14 URGOITIA, José Antonio (zuz.): *Crónica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi peninsular*, Oiartzun, HAAE eta Sabino Arana Fundazioa, 2002.

15 AGUIREGABIRIA PARRAS, Josu M.: *La Batalla de Villarreal de Álava. Ofensiva sobre Vitoria-Miranda de Ebro. Noviembre y diciembre de 1936*, Beta, Bilbo, 2014.

16 TABERNILLA, Guillermo eta LEZAMIZ, Julen: *Saibigain. El monte de la sangre*, Bilbo, Beta, 2013.

17 AGUIREGABIRIA, Josu M. y TABERNILLA, Guillermo: "Seis días de guerra en el norte de Álava. Comienza la ofensiva de Mola (31 de marzo - 5 de abril de 1937)", *Saibigain. Revista digital de la Asociación Sancho de Beurko*, 6 (2018).

18 TABERNILLA, Guillermo eta LEZAMIZ, Julen: *El cuerpo disciplinario de Euzkadi*, Bilbo, Sancho de Beurko Elkartera, 2004.

kie Aranzadi Zientzia Elkarteak Eusko Gudarosteari buruz¹⁹ eta Sasetako defentsa-sistemari buruz²⁰ egindakoak, bai eta euskal batailoiei buruz²¹ eta euskal itsas armadari buruz²² egindako lan klasikoak ere. Aire armadak populazio zibilaren aurka egindako bonbardaketen inguruan, Durango²³, Gernika²⁴ eta Otxandioko²⁵ gertakariei buruzko liburuak erabili dira.

Errepresio frankistaren toki-eremu zehatza ardatz duten lanen artean, esan behar da Araba ongi aztertuta dagoela Javier Gómez Calvok egindako azterlanari esker²⁶, eta horri Iruña Okari buruz berriki egindako argitalpena gehitu dio²⁷; Gipuzkoari buruzko beste liburu batzuk ere badaude, Elgoibar²⁸, Hernani²⁹ eta Pikoketako³⁰ fusilamenduak lantzen dituztenak.

Gatibu zeudenean hildakoei dagokienez, Euskadiko espetxe eta kontzentrazio-esparruei buruzko lanak aztertu dira; besteak beste, Bizkaiko probintziari buruzkoa³¹, Urduñako kontzentrazio-esparruari eta espetxeari buruzkoa³² eta Saturrarango espetxeari buruzkoa³³, baina badira beste lan batzuk euskal herritarrak gatibu izan ziren zentroak aztertzen dituztenak, hala nola San Kristobal gotorlekua³⁴, El Dueso espetxea³⁵, Puerto de Santa Mariakoa³⁶ edo Miranda de Ebroko³⁷, San Marcoseko³⁸ eta San Simón uharteko kontzentrazio-esparruak.

Atzeguardiako indarkeriaren ondorioz hil zirenei dagokienez, berriz, kartzelai eta itsasontzi-espetxeei egindako erasoak eta exekuzioak³⁹ jorratzen dituzten lanak aztertu dira.

Udalerrri batean Gerra Zibilean eta/edo errepresio frankistaren garaian gertatutakoa lantzen duten tokiko monografiari dagokienez, oso baliagarriak dira, ahozko iturriak ematen dituzte-

19 BUCES CABELLO, Javier: *Eusko Gudarostea. Eusko abertzaleak, armak eskuan, Espainiako militarren altxamenduaren aurka*, Azpeitia, 1936, Aranzadi Zientzia Elkarte, Azpeitia, 2017.

20 ALMORZA ARRIETA, Karlos eta BUCES CABELLO, Javi: *Saseta defentsa-sistema: armatutako erresistentzia antifaxista Adunan, Asteasun eta Zizurkilen*, Donostia, Aranzadi Zientzia Elkarte, 2016.

21 AMILIBIA, Miguel: *Los batallones de Euskadi*, Donostia, Txertoa, 1978.

22 PARDO SAN GIL, Juan: *Euskadiko Gudontzidia. La Marina de Guerra Auxiliar de Euzkadi (1936-39)*, 2. argit. Untzi Museoa, Donostia, 2008.

23 IRAZABAL AGIRRE, Jon: *1937 martxoak 31 Durango 31 de marzo de 1937*, Gerediaga Elkarte, Abadiño, 2001.

24 DEL PALACIO SÁNCHEZ, Vicente et al.: *Sustrai erreka 2. Guernica 1937*, Aldaba, Gernika, 2012.

25 IRAZABAL AGIRRE, Jon: *Otxandio en la Guerra Civil: 1936-1937*, Otxandioko Udala, Otxandio, 2006; OLABARRIA OLEAGA, Zigor: *Gerra Zibila Otxandion*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 2011.

26 GÓMEZ CALVO, Javier: *Matar, purgar, sanar. La represión franquista en Álava*, Tecnos, Madril, 2014.

27 GÓMEZ CALVO, Javier: *La represión franquista en Iruña de Oca*, Iruña Oka, Iruña Okako Udala, 2019.

28 OTEGI, Hodei: *Elgoibar 1936. Zentral elektrikoetako fusilamenduak / Fusilamientos en las centrales eléctricas*, Aranzadi Zientzia Elkarte, Elgoibar, 2018.

29 AIZPURU, Mikel (zuz.): *El Otoño de 1936 en Guipúzcoa. Los Fusilamientos de Hernani*, Alberdania, 2007.

30 USABIAGA, Miguel: *Flores de la República. Los olvidados de Pikoketa*, Libros de la Catarata, Madril, 2015, 135.

31 BADIOLA ARIZTIMUÑO, Ascensión: *Cárceles y campos de concentración en Bizkaia (1937-1940)*, Txertoa, Donostia, 2011.

32 EGIGUREN, Joseba: *Prisiones en el Campo de Concentración de Orduña (1937-1939)*, TTartalo, Donostia, 2011.

33 GONZÁLEZ GOROSARRI, María eta BARINAGA, Eduardo: *No lloréis, lo que tenéis que hacer es no olvidarnos: La cárcel de mujeres de Saturrarán y la represión franquista contra las mujeres, a partir de los testimonios de supervivientes*, Donostia, Ttartalo, 2010; DE LA CUESTA, José Luis eta ETXEBERRIA, Paco (zuz.): *Situación penitenciaria de las mujeres presas en la cárcel de Saturrarán durante la Guerra Civil española y la primera posguerra: hacia la recuperación de su memoria*, Donostia, Emakunde eta Kriminologiaren Euskal Institutua, 2012.

34 ETXEBERRIA, Francisco eta PLA, Koldo (zuz.): *El cementerio de las botellas. El fuerte de San Cristóbal en la memoria: de prisión a sanatorio penitenciario*, Iruña, Pamiela, 2014; ALFORJA, Iñaki eta SIERRA, Félix: *Fuerte de San Cristóbal, 1938. La gran fuga de las cárceles franquistas*, Iruña, Pamiela, 2006.

35 *Espetxean 1937-1942. Semilla de Libertad / Bizitza eta heriotza giltzapean*, Sabino Arana Fundazioa, 1998.

36 *Archivo Histórico Provincial de Cádiz. Prisión Central de El Puerto de Santa María. Catálogo de expedientes de reclusos por rebelión 1936-1955*, Andaluziako Batzordea, Kultura Saila.

37 FERNÁNDEZ LÓPEZ, José Ángel: *Historia del Campo de Concentración de Miranda de Ebro (1937-1947)*, Miranda de Ebro, 2003, p. 454.

38 LÓPEZ ALONSO, Tania y GALLO RONCERO, Silvia: *San Marcos. El campo de concentración desconocido*, El Forastero, León, 2012.

39 ECHEANDIA, José: *La persecución roja en País Vasco. Estampas de martirio en los barcos y cárceles de Bilbao. Memorias de un excautivo*, Bartzelona, 1945; AZCONA PASTOR, José Manuel: *Los desastres de la Guerra Civil española. La represión en Bilbao (julio de 1936-junio 1937). Sobre el testimonio inédito «Los crímenes del Quilates. Recuerdos de mi cautiverio» de José María Vicario Calvo*, Madril, Juan Carlos Erregea Unibertsitatea, 2007; AZCONA PASTOR, José Manuel: «Los asaltos a las cárceles de Bilbao el día 4 de enero de 1937», in *Investigaciones Históricas*, 32 (2012), 217-236.

lako; monografiko horiek izan ezean, ezaugarri hauetako proiektu bat ezingo litzateke iturri horietara iritsi. Hori horrela, nabarmentzekoa da azken urteotan Aranzadi Zientzia Elkarteak Gipuzkoako eta Bizkaiko zenbait udalen aginduz egiten ari den lana.

Hala, Arabarako era horretako argitalpenik ez badago ere (baina Gómez Calvoren liburuarekin betetzen da hutsune hori), Gipuzkoarako monografia ugari daude, hala nola herri hauek lantzen dituztenak: Aia⁴⁰, Alegia⁴¹, Amasa-Villabona⁴², Andoain⁴³, Aretxabaleta⁴⁴, Arrasate⁴⁵, Astigarraga⁴⁶, Azpeitia⁴⁷, Beasain⁴⁸, Bergara⁴⁹, Deba⁵⁰, Donostia⁵¹, Eibar eta Elgeta⁵², Errenteria⁵³, Getaria⁵⁴, Hondarribia⁵⁵, Legazpi⁵⁶, Lezo⁵⁷, Oiartzun⁵⁸, Oñati⁵⁹, Ordizia⁶⁰, Orío⁶¹, Soraluze⁶², Tolosa⁶³, Zarautz⁶⁴, Zumaia⁶⁵, Zumarraga⁶⁶ eta Urretxu⁶⁷.

-
- 40 SANZ GOIKOETXEA, Eneko: *Aia 1936. Gerra Zibila, errepresio frankista eta Giza Eskubideen urraketa*, Aranzadi Zientzien Elkartea, 2015.
- 41 ZULOAGA MUXIKA, Ione: *Alegia 1936-1945. Giza eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan*, Aranzadi Zientzia Elkartea, Alegia, 2019.
- 42 *Amasa-Villabona 1936-2011: construyendo el mapa de la memoria*, Aritza Kultur Elkartea, 2016.
- 43 LASA BERGARA, Xabier: *Historia Oral: La voz dormida en la memoria. El impacto de la Guerra Civil (1936-1939) en la vida social de un pueblo de Gipuzkoa*, Oroituz Andoainen, Andoain, 2006.
- 44 INTXAUSPE LÓPEZ, José R. (koord.): *Gerra Zibila Aretxabaletan. Ezin Ahaztu! / La Guerra Civil en Aretxabaleta. Ezin Ahaztu!*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 2011.
- 45 ALTUNA RECIO, Miren eta GARAI BENGEOA, Juan Ramón: *Hacia una Memoria Compartida. Mondragón 1936-1956. Guerra, Resistencia y Franquismo*, Intxorta 1936, Oñati, 2018.
- 46 LABURU, Maddalen: *Espainiako Gerra Zibila eta lehen frankismoa Astigarragan (1936-1945)*, Astigarrako Udala.
- 47 BUCES CABELLO, Javier: *Azpeitia 1936-1945. Los nombres de la memoria*, II. libk., Aranzadi Zientzia Elkartea, Leioa, 2016.
- 48 KORTAZAR BILLELABEITIA, Jon: *Beasain: Oroimen Historikoa, IV. Liburukia, Guda ondorena Beasainen 1937-1945*, Aranzadi Zientzia Elkartea, 2018.
- 49 GARAI, Juan Ramón eta MURGIZU, Josuren: *Bergara 1930-1940. Gerra eta errepresioa*, Intxorta 1937 Kultur Elkartea, 2013; GARAI, Juan Ramón eta MURGIZU, Josu: *1936ko Gerra Bergaran*, Bergarako Udala, Bergara, 2015.
- 50 ARIZABALETA GANTXEGI, Iraitz: *Deba 1936-1945*, Aranzadi Zientzia Elkartea, 2019.
- 51 EGAÑA, Iñaki: *Frankismoa Donostian. Las víctimas del genocidio franquista en Donostia*, Gipuzkoako Foru Aldundia, 2011.
- 52 GUTIÉRREZ AROSA, Jesús: *La Guerra Civil en Eibar y Elgeta*, Eibarko Udala/Elgetako Udala, Eibar/Elgeta, 2007.
- 53 RODRÍGUEZ OÑATIBIA, Amaia: *Errenteria 1936-1945*, Errenteriako Udala, Errenteria, 2019.
- 54 *Guerra, represión y memoria en Getaria*, Aranzadi Zientzia Elkartea, 2019. (prentsan)
- 55 BARRUSO BARÉS, Pedro: *Lo que el río también vio. Guerra y represión en Hondarribia (1936-1948)*, Hondarribia, Ayuntamiento de Hondarribia, 2019.
- 56 IURREBASO BITERI, Iñaki (koord.): *Legazpi 1936*, Legazpiko Udala, 2011.
- 57 AGIRRETXE MITXELENA, Joxe Luix; PONTESTA, Agustina; LEÓN MANCLARES, Ander: *Zigortuak. Ilunpetik argitara. Frankismoen biktimak Lezon (1936-1945)*, Lezoko Unibertsitateko Udala, 2008.
- 58 KATTIN-TXIKI TALDEA: *Isiltzen ez den isiltasuna. Lurpetik Berreskuratutako Memoria*, Oiartzun, Oiartzungo Udala, 2009.
- 59 GOGORATU GURAN TALDEA: *Gerrako garrak Oñatin*, Intxorta 1937 kultur elkartea, Oñati, 2011.
- 60 AGIRRE ITURRIOTZ, Julen et al.: *Ahaztuen mindura. 1936ko Gerra eta lehen frankismoa Ordizian*, Ordizia, 2014.
- 61 ITURAIN AZPIROZ, Iñaki: *1936ko gerraren ubera Orion. Guerra bat barruan degula*, Orioko Udala, Orío, 2014.
- 62 SORALUZE 1936 LAN-TALDEA: *Isiltasuna Hausten. 1936ko Gerra Soraluzen*, Soraluze, 2015.
- 63 ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel: *Los nombres de la memoria, Tolosa 1936-1945. Listado de personas represaliadas y participantes durante la Guerra Civil y Primer Franquismo, II. lib.*, Aranzadi Zientzia Elkartea/Tolosako Udala, Tolosa, 2013.
- 64 GURRUTXAGA URANGA, Amagoia: *Zarauzko postalak. 36ko gerra*, Zarauzko Udala, Zarautz, 2013.
- 65 SANZ GOIKOETXEA, Eneko: *Zumaia 1936-1945*, Zumaia, Aranzadi Zientzia Elkartea, 2019.
- 66 PRADA SANTAMARÍA, Antonio; ARANGUREN ALONSO, Maialen; PEÑA FERNÁNDEZ, Ana: *Gerra zibila eta frankismoa Zumarragan*, Zumarragako Udala, 2014.
- 67 MEMORIAN ATZERA: *1936ko Gerraren eta ondorenen testigantzak Zumarragan eta Urretxun*, Urretxuko eta Zumarragako Udalak, Donostia, 2017.

Bizkaian, berriz, honako hauek daude: Arrigorriaga⁶⁸, Bakio⁶⁹, Balmaseda⁷⁰, Barakaldo⁷¹, Bermeo⁷², Berriatua eta Lekeitio⁷³, Busturia⁷⁴, Deusto-Bilbao⁷⁵, Galdames⁷⁶, Gautezig Arteaga⁷⁷, Leioa⁷⁸, Portugalete⁷⁹, Markina-Xemein⁸⁰ eta Urduliz⁸¹.

Halaber, Euskaditik kanpo hil ziren euskal herritarrek bilatzeko, Gerra Zibilari eta errepresioari buruz Kantabrian argitaratutako bibliografia ugari kontsultatu da; liburuok Fernando Obregón Goyarrolak⁸², Jesús Gutiérrez Floresek⁸³ eta Antonio Ontañónek⁸⁴ idatzi dituzte, besteak beste. Era berean, Nafarroa⁸⁵, Burgos⁸⁶, Palentzia⁸⁷, Errioxa⁸⁸, Huesca⁸⁹, Ciudad Real⁹⁰, Bartzelona⁹¹, Valentzia⁹² edo Sevillari⁹³ buruzko monografiak ere kontsultatu dira. Helburu berarekin, nazien kontzentrazio-esparruetan hildako euskal herritarren errola ere kontsultatu da orobat⁹⁴.

-
- 68 IBARRETXE, Asier eta MOLINUEVO, Karlos: *Arrigorriaga 1931-1939. Errepublikak eta Gerra Zibila*, Arrigorriagako Udala, 2009.
- 69 GOITIA BILBAO, Zuriñe: *Bakio 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan*, Aranzadi Zientzia Elkarte, Bakio, 2019.
- 70 ETXEBARRIA MIRONES, Jesús eta ETXEBARRIA MIRONES, Txomin: *Balmaseda, 1936-1938: preguerra, guerra y toma de Balmaseda y represión*, Erandio, 1993.
- 71 LÓPEZ GRANDOSO, Koldobika: *La Guerra Civil en Barakaldo: once meses de resistencia*, Beta III Milenio, 2016.
- 72 DELGADO CENDAGORTAGALARZA, Ander: *Bermeo en el siglo XX. Política y conflicto en un municipio pesquero vizcaíno (1912-1955)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1998.
- 73 JUARISTI LARRINAGA, Patxi: *Gerra Zibila Berriatua eta Lekeitioko frontean*, Bilbo, UPV/EHU, 2014.
- 74 EGIZABAL, Maribel eta SERRANO, Unai: *Busturia 1937-1977. Represión y resistencia de un pueblo*, Laia Kultur Elkarte eta Ahaztuak 1937-1977, 2018; HERRERO ACOSTA, Xabier: *Busturia (1916-1937): Restauración, dictadura, II República y Guerra Civil*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 2019.
- 75 SARRIONANDIA-IBARRA FERNANDEZ, Borja: *La II República y la Guerra Civil en Deusto*, Ahaztuak 1936-1977, Getxo, 2012.
- 76 *Lluvia de verano en Galdames*, Ayuntamiento de Galdames, 2017.
- 77 BUCES CABELLO, Javier: *Gautezig Arteaga 1936-1945*, Aranzadi Zientzia Elkarte, Gautezig Arteaga, 2017.
- 78 BUCES CABELLO, Javier: *Leioa 1936-1945. Los nombres de la memoria*, II. lib., Aranzadi Zientzia Elkarte, Leioa, 2014.
- 79 MUNARRIZ HERNANDO, Anastasio: *República y Guerra en Portugalete*, 2012; LÓPEZ DÍEZ, José Manuel: *Portugalete y los muertos de la Guerra Civil: milicianos y gudarís (1936-1937)*, Portugalete, Oroituz Elkarte, 2018.
- 80 JUARISTI LARRINAGA, Patxi: *Markinako frontea. Markinako eta Xemeingo egoera politikoa eta soziala bigarren Errepublikan eta Gerra Zibilean (1931-1939)*, Bilbo, UPV/EHU, 2011.
- 81 SOMOKUETO PÉREZ, Koldo: *Urduliz: Euskal udalerrri baten historia Gerra Zibilaren garaian*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 2018.
- 82 Obregón Goyarrolaren lanen zerrenda oso luzea da, eta Enkarterriko mendebaldeko eremua ikertzera ere iritsi da. Orotara, 22 argitalpen dira Kantabriako zenbait herri eta ibarri, Burgos iparraldeko merindadeei eta, esan bezala, Bizkaiko mendebaldeko muturrari buruz, eta gerran hildakoen eta errepresaliatuen balantzea egin dute horietan.
- 83 GUTIÉRREZ FLORES, Jesús: *Guerra Civil en Cantabria y pueblos de Castilla*, Libros en Red, 2006.
- 84 ONTAÑÓN, Antonio: *Rescatados del olvido. Fosas comunes del cementerio civil de Santander*, Guarnizo, 2004.
- 85 SIERRA, Félix eta ALFORJA, Iñaki: *Fuerte de San Cristóbal, 1938. La gran fuga de las cárceles franquistas*, Pamiela, Iruñea, 2006; ETXEBERRIA, Francisco eta PLA, Koldo (zuz.): *El cementerio de las botellas. El fuerte de San Cristóbal en la memoria: de prisión a sanatorio penitenciario*, Iruñea, Pamiela, 2014.
- 86 RILOVA PÉREZ, Isaac: *Guerra Civil y violencia política en Burgos (1936-1943)*, Editorial Aldecoa, Burgos, 2016.
- 87 GUTIÉRREZ FLORES, Jesús: *Vida y muerte en el norte de Burgos y Palencia en la Guerra Civil y posguerra (1936-1950)*, Librucos, Torrelavega, 2017.
- 88 AGUIRRE GONZÁLEZ, Jesús Vicente: *Aquí nunca pasó nada. La Rioja 1936*, Ochoa Editores, Logroño, 2007.
- 89 PARDO LANCINA, Víctor eta MATEO OTAL, Raúl: *Todos los nombres. Víctimas y victimarios (Huesca, 1936-1945)*, Huesca, Aragoiko Gobernua / Huescako Diputazioa, 2016.
- 90 LÓPEZ GARCÍA, Julián et al.: *Para hacerte saber mil cosas nuevas. Ciudad Real 1939*, Madrid, UNED, 2018.
- 91 BERNAL CERCÓS, Àngels (dir.): *Procedimientos Judiciales militares (Sumaríssims). De Lárxiu del Tribunal Militar Territorial Tercer de Barcelona*, Generalitat de Catalunya, 2015.
- 92 GABARDA CEBELLÁN, Vicent: *Els ofusellaments al País Valencià (1938-1956)*, Valentzia, Universitat de València, 2007.
- 93 GARCÍA MÁRQUEZ, José María: *Las víctimas de la represión militar en la provincia de Sevilla (1936-1963)*, Sevilla, 2012.
- 94 BERMEJO, Benito eta CHECA, Sandra: *Libro Memorial. Españoles deportados a los campos de concentración nazis (1940-1945)*, Kultura Ministerioa, Madril, 2006.

2.4 Ikuspegi juridikoa

2.4.1 Testuinguru juridikoa

Gerra Zibileko eta haren ondorengo errepresioaren lege-testuingurua arras konplexua da. Guillermo PORTILLAK egoki erabiltzen du «amaraun erraldoia» esapidea errepresiorako balio behar zuen tresna definitzeko. Errepresio hori, fisikoa ez ezik, ekonomikoa ere izan zen, eta arau-hauslea umiliatzeko asmo aitortu eta berariazkoa zuen⁹⁵. Amaraun hori ikusarazi eta ordenatzeko⁹⁶, ulertu behar da errepresioa eta frankistek egindako giza eskubideen urraketa sistematikoak egitatez zein legezkotasun formalaren zenbait estalkiren pean gauzatu zirela, non zigor-arloko jurisdikzio arrunta, militarra eta jurisdikzio bereziak uztartzen eta pilatzen ziren. Oro har ikusita, haren funtzionamendua Estatu errepresioegile batena zen aldetik, esan daiteke haren jarduna *Unrechtstaat* deritzonaren jarduna dela (Zuzenbiderik Gabeko Estatu edo Bidegabekeria Estatu), non legezkotasun formalaren itxurak ez dien izaera bidegabe eta kriminala (egiturazkoa) kentzen giza eskubideen urraketa larri eta sistematikoei. Edo, beste modu batera esanda, erregimenak giza eskubideen urraketak egiteko aurrera atera zuen plan sistematikoaren beste tresna bat gehiago dira lege-estaldura eta haren aplikazioa.

Legezkotasun hori funtsezko mugarri hauetan oinarritzen zen:

1. Lehenik eta behin, adierazi behar da 1932ko Zigor Kodeari (errepublikanoa) eutsi zitzaio- la, harik eta, 1944an, modu autoritario batez erreformatu zuten arte⁹⁷. Paradoxikoa bada ere, ez zen beharrezkoa izan Kode errepublikano hori indargabetzea, eta haren erreforma adierazitako urte horretara arte geroratu ahal izan zen. Izan ere, egiaz, «alderantzizko justizia»⁹⁸ gisa ezagutzen dena aplikatu zuten zenbait modutan; hala, bada, matxinada -delitu *sui generis* batera jo zuten, eta, hain zuzen ere, delitu hori leporatu zieten legezko- tasun konstituzionala defendatu zutenei haren kontra altxatutakoen aurka.

«Alderantzizko justizia» horrek atzerako eragina izan zuen hasieratik, Defentsa Batzorde Na- zionalak 1936ko uztailaren 28an emandako Bandoarekin bat etorriz, non gerra-egoera adie- razten zuen. Matxinatuen Bandoa, zeinak jurisdikzio arruntetik militarrean aldatzen zituen hainbat delitu, eta guztia biltzen zuen matxinada-delitua ezarri zuen, eta hor sartzen zituzten, altxamendu armatuaren unetik legezkotasun konstituzionala defendatu zutenez gain, arra- zoi politiko edo sozialengatik pertsonen eta gauzen kontrako delituren bat egin zuen edo- nor, bai eta gezurrezko albisteak zabaltzea, armak legez kanpo edukitzea, baimenik gabeko bilerak edo konferentziak egitea, prezioak justifikaziorik gabe igotzea eta lana besterik gabe uztea ere⁹⁹. Atzerako eraginaren aplikazio-bide berari jarraitu zioten Defentsa Batzorde Na- zionalaren zenbait Dekretuk¹⁰⁰ eta 1939ko Erantzukizun Politikoen Legeak, besteak beste.

95 PORTILLA, Guillermo: *La consagración del derecho penal de autor durante el franquismo. El Tribunal Especial para la represión de la Masonería y el Comunismo*, Comares, Granada, 2009, 5. or.

96 Horretan gehiago sakonduko ez badugu ere, amarauna osatzen eta areagotzen duen funtzionarioen garbiketa masiboa ere aipatu beharra dago, ezin konta ahala xedapen, dekretu, agindu eta zirkularretan oinarrituta, BLASCO GIL, Yolanda adierazi eta aztertu duen bezala: «Soprote jurídico de las depuraciones», *La depuración de funcionarios bajo la dictadura franquista (1939-1975)*, CUESTA BUSTILLO, Josefina (koord.): Largo Caballero Fundazioa, Madril, 2009, 28. or. eta hurrengoak.

97 Zigor-kode arruntean, esaterako, heriotza-zigorra gehitu zuten, zeina jurisdikzio militarrean jada aplikatzen zen. Zigor hori, egiaz, era partzial batez jurisdikzio arruntera jada erantsia zegoen delitu arrunt batzuetarako (parrizidua, hilketak, lapurreta...) 1938ko uztailaren 5eko Legearen bidez. Halaber, aipatu egin behar dugu 1941eko martxoaren 29ko Estatuko Segurtasunaren Legeak aurreratu egin zuela geroago, 1944ko erreforman, hortik Zigor Koderan eramango zen delitu politikoen erreforma. Ikus zehatz-mehatz PORTILLA, Guillermo: *La consagración del derecho penal...*, op. cit., 9. or. eta hurrengoak.

98 Ikus, guztiengatik, BARBERO SANTOS, Marino: *Política y Derecho Penal en España*, Tuscar Ediciones, Madril, 1977, 68.

99 PORTILLA, Guillermo: *La consagración del derecho penal...*, op. cit., 7.

100 Hala, 1936ko irailaren 12ko Defentsa Batzorde Nazionalaren 101. dekretuak agindu zuen eremu askatuko funtzionario guztiek nahitaez aurkeztu beharra zutela Agintaritzaren edo kategoria handiagoko funtzionarioaren aurrean, eta hori ez betetzea lanpostua berehala kentzearekin zigortuko zen; 1936ko irailaren 16ko Defentsa Batzorde Nazionalaren 108. Dekretuak legez kanpokotzat jo zituen Fronte Popularrak osatu zuten erakunde guztiak eta mugimendu nazionalaren aurka zeudenak, eta haien ondasunak konfiskatzeko agin- du zuen; eta 1937ko urtarrilaren 10eko Lege Dekretuak Konfiskatutako Ondasunak Administrazio Batzorde Zentrala sortu zuen, eta,

2. Adierazitako guztiagatik, errepresioan, Zigor Kode Arruntaren gainetik eta hura alde batera utzita, funtsezko eginkizuna Gerra Jurisdikzio¹⁰¹ deitutakoaren aplikazioari dagokio, Justizia Militarreko Kodean eta dagozkien legeetan¹⁰² eta jurisdikzio berezietan oinarrituta. Gerra-jurisdikzioari dagokionez, Francoren 1936ko uztailaren 18ko lehen Gerra Bantotik bertatik ezarri zen; jurisdikzio horren ezaugarria gerra-kontseiluak dira, prozedura labur guztiz sumarioen bitartez bideratuak¹⁰³. Horrelakoak milaka izan ziren gerran eta haren ondoren, harik eta, 1963ko abenduaren 5eko Legearen bidez, ordena publikoaren jurisdikzioa sortu zen arte¹⁰⁴. Orduz geroztik, ordena publikoko Epaitegiak eta Auzitegiak hartu zuten (OPE eta OPA) protagonismoa, baina ez zioten inola ere utzi gerra-kontseiluak egiteari –dena den, gutxiago izan ziren–, harik eta diktadura amaitu zen arte¹⁰⁵.

Jurisdikzio hertsiki militarraz gain, jurisdikzio bereziak ere kontuan hartu behar dira, eta, bereziki, bai 1939ko otsailaren 9ko Erantzukizun Politikoen Legearen bidez sortutakoa¹⁰⁶, zigor ekonomikora bideratuagoa, bai 1940ko martxoaren 1eko Masoneriaren eta Komunismoaren Errepresioari buruzko Legeak eraturakoa, zeinak 12 urte eta egun batetik 30 urtera arteko espetxe-zigorak biltzen zituen¹⁰⁷.

Hori zen, horrenbestez, Estatuan zegoen lege-egoera, zeina Euskadin ere aplikatu zen¹⁰⁸. Testuinguru horrek biztanleriaren sektore handien giza eskubideen urraketa sistematikorako egiazko estatu-politika bat finkatzen lagundu zuen, jarraian adierazitako den bezala.

horren bitartez, matxinatuen aurka egin zuten era guztietako erakundeen eta pertsonen ondasunak konfiskatu zituzten.

101 DEL AGUILA TORRES, Juan José: «La represión política a través de la jurisdicción de guerra y sucesivas jurisdicciones especiales del franquismo», in *Hispania Nova*. Revista de Historia Contemporánea 1. zenbakia, berezia (2015), 213. or. eta hurrengoak. (<http://e-REVISTAS.uc3m.es/index.php/HISPNOV/issue/archive>)

102 Gerra Zibilean aldiaren funtsean Justizia Militarreko Kodea, 1890eko irailaren 27ko EDz onartua; Itsas Armadaren Zigor Kodea, 1888ko abuztuaren 24koa; Itsas Armadako Auzitegien Antolamenduaren eta Eskudantzien Legea, 1894ko azaroaren 10ekoa; eta Itsas Armadako Prozedura Militarren Legea, 1894ko azaroaren 10ekoa. Arau multzo hori, azkenik, bateratu egin zen 1945eko uztailaren 17ko Justizia Militarreko Kode berrian. Ikus ANDRES LASO Antonio: «Legislación penal, procesal penal y penitenciaria tras la guerra civil española», in *Revista jurídica de Castilla y León* 35 (2015), 13.

103 DEL AGUILA TORRES, Juan José: «La represión política...», *op. cit.*, 214. or. eta hurrengoak.

104 Aztergai honi dagokionez, 1937ko ekainetik aurrera ekin zitzaizkien, Bilbo erortzearekin batera, zenbait espetxe eta kontzentrazio-esparrutan zeuden euskal herritarren aurkako gerra-kontseilu gehienek. Legea frankistak honako hau jasotzen zuen: «...armadak azken uztailaren 17an armak hartu zituzten unetik egitatez eta zuzenbidez bereganatu zuten botere legitimoa, bai haren jatorrian bai betearazpenean, eta, ondorioz, matxino bihurtzen ditu mugimendu horren aurka dauden guztiak...». Horregatik, akusatuen aurkako akusazio arruntenak «matxinada militarreko» ustezko delitua, «matxinadari laguntzea» eta antzeko beste tipologia batzuk ziren. Ikus COLLADO QUEMADA, Raquel: *Colonia penitenciaria de El Dueso (Santoña). Papel político-penal durante la guerra civil y el franquismo (1937-1975)*. Doktorego-tesi argitaragabea, Valladolideko Unibertsitatea, 1992, 244. Hemen aipatutako testua: SÁNCHEZ RECIO, Glicerio: *De las dos ciudades a la resurrección de España. Magisterio pastoral y pensamiento político de Enrique Pla y Deniel*, Valladolid, Ámbito, 1995, 88.

105 Besteak beste, 1970eko Burgosko Gerra Kontseiluak, ETako kideen aurkakoak; 1974koak Salvador Puig Antich eta Heinz Chezen aurkakoak; 1975ekoa, non bost heriotza-zigor eman zituzten (Baena, Sánchez Bravo, García Sanz, Paredes Manot –Txiki– eta Otaegi). Ikus zehatz-mehatz DEL AGUILA TORRES, Juan José: «La represión política...», *op. cit.*, 217. Egile honek dio gerra-jurisdikzioari, neurri batean, 1977ko urtarrilerako arte eutsi zitzaioela, hau da, terrorismo-delituen eskumena Auzitegi Nazionalaren esku utzi zen arte, Ordena Publikoko jurisdikzioa ordeztuta eta OPE eta OPA indargabetuta, 1977ko urtarrilaren 4ko 1., 2. eta 3. Errege Lege Dekretuen bitartez.

106 Estatuko Aldizkari Ofiziala, 44. zenbakia, 1939ko otsailaren 13koa, 824-847. II. Errepublikaren zilegatasuna babestu zuten guztien aurkako errepresioa legeztatu zuen lege horrek. Lege hori 1942ko otsailaren 19ko Erantzukizun Politikoen Legearen bidez aldatu zen, zeina 1966ra arte egon zen indarrean. Iturria: 1939ko otsailaren 9ko Erantzukizun Politikoen Lege Osagarria, zehapen ekonomikoaren eraginkortasunari dagokionez (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 278. zenbakia, 1940ko urriaren 4koa, 6.870-6.872) / Erantzukizun Politikoen Erreformari buruzko Legea (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 66. zenbakia, 1942ko martxoaren 7koa, 1.646-1.653).

107 Estatuko Aldizkari Ofiziala, 62. zenbakia, 1940ko martxoaren 02koa, 1.537-1.539. Zabal aztertu dute hauek: ALVARO DUEÑAS, Manuel: «Por ministerio de la ley y voluntad del caudillo». *La jurisdicción especial de responsabilidades políticas (1939-1945)*, Politika eta Konstituzio Ikasketen Zentroa, Madril, 2006, *passim*; eta PORTILLA, Guillermo: *La consagración del derecho penal...*, *op. cit.*, *passim*.

108 Ez dago araudiaren xehetasun guztiei heltzerik, baina adierazi behar da, zehaz-mehatz azaltzeko asmorik gabe, preso errepublikanoak, gainera, diktadura frankistaren beste araudi edo xedapen arbitrario batzuen mende ere egon zirela, hala nola Gerra Egoeraren deklarazioaren mende, zeinak 1936ko abuztuaren 28tik 1948ko apirilaren 7ra iraun zuen; 1940ko ekaineko Legearen mende (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 158. zenbakia, 1940ko ekainaren 6koa, 3.862-3.871), baldintzapeko askatasuna emateari buruzkoa; eta Zaintzapeko Askatasunaren zerbitzua sortzeari zegokionaren mende (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 161. zenbakia, 1943ko ekainaren 10ekoa, 5.594-5.596.) eta beste hainbat.

2.4.2 Kategorien zerrenda: Terminologiaren erabilera, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen arabera.

Txosten honetan aurkeztuko diren giza eskubideen urraketak identifikatzeko terminologiaren erreferentziako iturri nagusia nazioarteko zuzenbidearen penalean dago, eta, zehazki, Erromako Estatutuaren 7. artikuluan¹⁰⁹ eta Auzitegiko krimenen elementuen dokumentuari dagozkionetan¹¹⁰.

Giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea, 1945ean Nazio Batuak eratu zirenez geroztik, eta II. Mundu Gerraren ondoren –eta horri erantzunez–, sendotuz joan den ordenamendu juridikoaren –eta zehazki nazioarteko zuzenbide publikoaren– sektore bat da¹¹¹. Giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak biltzen dituen urraketaren eremua, baita haren bertsio nuklearranean ere, oraindik gehiago zehaztu eta murriztu ahal da, jokabide larriaren batzuk bakarrik biltzeko, nazioarteko zigor-zuzenbidearen ikuspegiarekin elkartzeko bada. Izan ere, nazioarteko zigor-zuzenbideak erreferentzia egiten die, duten larritasunagatik, nazioarteko arauen arabera erantzukizun penal indibiduala sortzen duten jokabideen debekuei¹¹². Giza eskubideen urraketa guztiek ez dute nazioarteko erantzukizun penal indibidualik sortzen halakoak egiten dituztenengan, baizik eta larriak, sistematikoak eta masiboak izateagatik nazioarteko krimen izan daitezkeenek bakarrik, hala nola genozidio-delituek, gizadiaren aurkako krimenek eta gerra-krimenek, besteak beste. Azken horiek, aldi berean, nazioarteko zuzenbide humanitarioaren arau-hauste oso larriak ere badira. Nazioarteko zuzenbide humanitarioa, diziplina independente gisa, gerra-garaiko borrokak, borrokatzeko metodoak eta kategoria babestu jakin batzuk (gerrako presoak, zibilak...) mugatzen dituzten arauz arduratzen da.

Nazioarteko zigor-zuzenbidea, bere oinarriko edukia, prozesalak eta antolamendukoak giza eskubideen nazioarteko zigor-zuzenbidean biltzeko, nazioarteko zuzenbide humanitarioan oinarritzen da, baina baita zuzenbide nazionaletan ere, eta, horietatik abiatuta, joan dira mamitzen haren erreferentzia argienak. Horrek jada adierazten du plano ebakitzailen baten gisako lotura dagoela diziplinen artean; hori horrela, jokabide edo debeku batzuk delitu izango dira Estatu bakoitzaren planoan, eta, aldi berean, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen, nazioarteko zuzenbide humanitarioaren eta nazioarteko zuzenbidearen urraketa ere izango dira, eta beste batzuetan, berriz, arau-hauste bakoitza ez da zertan hala izan aipatutako diziplina bakoitzean. Baina nazioarteko krimenek, hain zuzen ere, nazioarteko komunitateari eragiten dioten ondaren aurkako eraso larrienak izanik, estatus berezia izango dute, hala nola preskribatu ezina, justizia unibertsalaren mende egotea, nazioarteko zigor-azitegiaren bidez epaitu ahal izatea eta, azkenik, azterketa handiago eta zorrotzagoa giza eskubideak ikuskatzen dituzten nazioarteko erakundearen aldetik.

Laburbilduz, nazioarteko zigor-zuzenbidearen, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren intersekzioak larritasun handieneko jokabide debekatuen eremua marrazten du, eta horrek arau-estandar bat ematen du, zeinak, txosten honen ondorioetarako, nazioarteko krimen larrienak ez ezik (genozidioa, adibidez), gizate-

109 Nazioarteko Zigor Auzitegiaren Erromako Estatutua Berresteko Tresna, Erroman egina 1998ko uztailaren 17an; BOE, 126. zk., 2002ko maiatzaren 27a.

110 Krimenen Elementu horien testua hemen jasota dago: *Nazioarteko Zigor Auzitegiaren Erromako Estatutuko Estatuaren Biltzarren Dokumentu Ofizialak, lehen bilkura-aldia, New York, 2002ko irailaren 3tik 10era* (Nazio Batuen argitalpena, Ez saltzeko, S.03.V.2 eta zuzenketa), bigarren zatia. B. 2010eko Berrikusteko Konferentzian hartutako Krimenen Elementuak hemen daude jasota: *Nazioarteko Zigor Auzitegiaren Erromako Estatutuko Estatuaren Biltzarren Dokumentu Ofizialak, lehen bilkura-aldia, Kampala, 2010eko maiatzaren 31tik ekainaren 11ra* (Nazioarteko Zigor Auzitegiaren argitalpena, RC/11).

111 Nazio Batuen Gutuna, San Frantziskon (Estatu Batuak) sinatua 1945eko ekainaren 26an, 1945eko urriaren 24an indarrean jarri baitzen, 110. artikularekin bat etorritik.

112 Ikus, halaber, gainerakoan, CASSESE, Antonio: *International Criminal Law*, Oxford, 2. argit., 2008, 6. eta hurrengo orriak eta *passim*.

riaren aurkako krimenak eta gerra-krimenak ere biltzen dituen. Giza eskubideen urraketei buruzko txosten bat, horrenbestez, funtsezko erreferentziatzat urraketen multzo larriena hartuta diseina daiteke, eta aipatutako diziplinen terminologia erabil daiteke haiek era konbentzional batez identifikatzeko.

Soldadu frankistek gerra zibilean eta gerra irabazi zutenek ondoren egindako krimenak ez dira gertaera bakanak edo deskontrolatuak gerrako edo gatazka osteko testuinguru batean, baizik eta, iturri historikoen ebidentziari jarraikiz, «populazio zibilaren aurkako erasotzat» jo daitezke 1998ko Erromako Estatuaren 7. artikulua zentzu materialean, hau da, honen barruan sartutako krimentzat jo daitezke:

«(...) 1. lerrokadan aipatutako egintzak [hilketa, sarraskia, esklabotza, deportazioa, espetxeratzea...] populazio zibilaren aurka askotan gauzatzea dakarren jokabide-ildoan, Estatu batek edo erakunde batek eraso hori egiteko ezarritako politikari jarraikiz edo politika hori sustatzeko»¹¹³.

«Erasoaren» definizioa krimenen elementuen dokumentuaren azalpen honekin osatzen da:

«Ez da beharrezkoa egintza horiek eraso militarra izatea. Ulertzen da “eraso hori egiteko politikak” behar duela Estatuak edo erakundeak modu aktiboan sustatu edo bultzatzea populazio zibilaren aurkako era horretako eraso bat».

113 7. artikulua. Gizateriaren aurkako krimenak

1.- Estatu honen ondorioetarako, «gizateriaren aurkako krimentzat» hartuko da honako egintza hauetako edozein, baldin eta populazio zibilaren aurkako eraso orokor edo sistematiko baten parte gisa egiten bada, eta eraso horren jakitun izanik:

- a) Hilketa
- b) Sarraskia
- c) Esklabotza
- d) Biztanleen deportazioa edo lekualdaketa behartua
- e) Espetxeratzea edo askatasun fisikoaren bestelako gabetze larria, nazioarteko zuzenbidearen oinarritzko arauak urratuta
- f) Tortura
- g) Bortxaketa, sexu-esklabotza, prostituzio behartua, haurduntza behartua, antzutzte behartua edo antzeko larritasuna duen beste edozein sexu-indarkeria
- h) Berezko nortasuna duen talde edo kolektibitate bat esestea, politika, arraza, nazioa, etnia, kultura, erlijioa, 3. lerrokadan definitutako generoa direla-eta, edo nazioarteko zuzenbidearen arabera unibertsean onartezin irizitako beste edozein arrazoi-rengatik, lerrokada honetan aipatutako edozein egintzari edo Auzitegiaren eskumeneko edozein krimeni lotuta
- i) Pertsonen desagertze behartua
- j) Apartheid-krimena
- k) Antzeko beste egintza gizagabe batzuk, nahita sufrimendu handiak eragiten badituzte edo osotasun fisikoari edo osasun mental edo fisikoari kalte larria egiten badiote

2.- 1. lerrokadaren ondorioetarako:

- a) «Populazio zibilaren aurkako erasotzat» hartuko da 1. lerrokadan aipatutako egintzak populazio zibilaren aurka askotan gauzatzea dakarren jokabide-ildoan, Estatu batek edo erakunde batek eraso hori egiteko ezarritako politikari jarraikiz edo politika hori sustatzeko.
- b) «Deuseztatzearen barruan» bizi-baldintzak nahita inposatzea ere sartzen da; elikagaiak edo sendagaiak eskuratzen eragozte, besteak beste, populazio baten zati bat suntsitzeko helburuarekin.
- c) «Esklabotzat» hartuko da pertsona baten gainean jabetza-eskubidearen ezaugarriak, edo horietako batzuk, gauzatzea, bai eta ezaugarri horiek pertsonen trafikoan gauzatzea ere, bereziki emakume eta umeei dagokienez.
- d) «Populazioaren deportazio edo lekualdaketa behartutzat» hartuko da pertsonak behartuta lekualdatzea, legez dauden eremutik egotziz edo bortxazko bestelako egintzen bitartez, nazioarteko zuzenbideak baimendutako arrazoirik gabe.
- e) «Torturatzat» hartuko da akusatuen zaintza edo kontrolpean duen pertsonari mina edo sufrimendu larriak nahita eragitea, fisikoak nahiz mentalak; ez da torturatzat hartuko, ordea, bidezko zehapenetatik bakarrik datorren mina edo sufrimendua, edo horien ondorio normal edo ustekabekoa dena.
- f) «Haurduntza behartutzat» hartuko da indarrez haurduntutako emakume bat bidegabe konfinatzea, populazio baten osaera etnikoa aldatzeko edo nazioarteko zuzenbidearen bestelako urraketa larriak egiteko. Ez da inola ere ulertuko definizio horrek haurduntzari buruzko barneko zuzenbide-arauei eragiten dienik.
- g) «Esestetzat» hartuko da nazioarteko zuzenbidea urratuta oinarritzko eskubideak nahita eta larriki kentzea, talde edo kolektibitate baten nortasuna dela-eta.
- h) «Apartheid-krimentzat» hartuko da 1. lerrokadan aipatutakoen antzeko egintza gizagabeak egitea, arraza talde batek beste arraza talde baten edo gehiagoren gainean opresio- eta menderatze-erregimen instituzionalizatu duenean, erregimen horri eusteko asmoz badira.
- i) «Pertsonen desagertze behartutzat» hartuko da Estatu edo erakunde politiko batek, edo haren baimen, laguntza edo onarpenarekin, pertsonak atzeman, atxilotu edo bahitzea, eta ondoren askatasun-gabetze hori onartzei edo pertsona horien egoerari edo lekuari buruzko informazioa emateari uko egitea, legearen babesetik kanpo luzaroan uzteko asmoz.

3.- Estatu honen ondorioetarako, ulertuko da «genero» hitza bi sexuei dagokiela, maskulino eta femeninoari, gizartearen testuinguruan. «Genero» hitzak aurrekoa ez beste adierarik ez du izango.

Horrenbestez, esan daiteke alderdi frankistaren krimenak gizateriaren aurkako krimen baten testuinguruan egin zirela; alde batera utzi behar da, halere, ez baitagokigu hemen auzi hori ebaztea, kalifikazio juridiko horrek ahalbidetu beharko lukeen gaur egun gertaera horiek giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen ondoriozko betebeharrekin bat etorri auzipetzea, nazioarteko zigor-zuzenbidea eta nazioarteko zuzenbide humanitarioa barnean hartuta¹¹⁴.

Adierazitako guztiagatik, giza eskubideen urraketa larrienak identifikatzeko kategoria orokor hauek erabiltzea proposatzen da, baina testuan zehar, Espainiako gerra zibilari eta ondorengo errepresioari buruzko azterlan historiografikoetan tradizioz erabilitako beste hitz batzuekin konbinatu ahal izatea baztertu gabe.

a) Gizateriaren aurkako krimena, erailketarena

Kategoria honen barruan sartuko dira populazio zibilaren aurkako eraso orokor edo sistematiko baten barruan gertatutako heriotza guztiak (gizateriaren aurkako krimenaren testuingurua: alderdi frankista), baina bereiz identifikatuko dira horiek nola egin ziren kontuan hartuta: hau da, gerra-ekintzen testuinguruan (armak baztertu dituzten gudarien aurka edo gerrako presoen aurka egindako biziaren kontrako krimenak...) edo horietatik kanpo (frontetik urruti egindako biziaren kontrako krimenak); horiek formaltasun judizialen bat duten (gerra-kontseiluak) edo ez (judizioz kanpoko exekuzioak). Horietatik kanpo gelditzen dira, kategoria bereiz batean, eta giza eskubideen urraketatzat hartu gabe, gerra-borroken ondorioz izandako hildakoak edo alderdi errepublikanoak borroka-testuingurutik kanpo egindako bizitzeko eskubidearen urraketak.

b) Gizateriaren aurkako krimena, behartutako desagertzearena

Kategoria honen barruan sartzen dira atxilotu eta/edo gerra-gatazkaren barruan preso hartu ondoren gaur egun oraindik non dauden ez dakigun pertsona guztien kasuak.

c) Gizateriaren aurkako krimena, presoaldiarena edo askatasun fisikoaz gabetzekoa

Gerra-kontseiluek ebatzitako askatasun-gabetze arbitrario eta bidegabe guztiak biltzen ditu, dela espetxeetan, dela kontzentrazio-esparruetan, langileen batailoietan, diziplina-batailoietan, zigor-kolonietan eta beste.

Espetxeratze edo atxilotze arbitrario gisa ere jasotzen dira herri-epaitegiek egindakoak, baina ez gizateriaren aurkakotzat.

d) Gizateriaren aurkako krimena, pertsekuzioarena: garbiketak

Lan honen ondorioetarako, inhabilitazioak eta/edo lanbidean legez jarduteko ahalmena kentzea jasoko dira, bai funtzio publikoan bai arlo pribatuan, behin betikoak edoaldi batekoak izan, diskriminazio funtsean ideologikoko estatu-politika baten parte izan baitziren, eta, gainera, bestelako krimen larri batzuei lotuta ere egon ziren. Estatu-politika edo jokabide-ildo sistematiko hori aipatutako garbiketetatik harago doa, eta baliteke etorkizunean eseste-delituaren beste modalitate batzuen modura ikusia izatea, baita kategoria orokor ireki eta biltzaile gisa ere¹¹⁵.

114 Ezaguna da auzipetze horren kontra Auzitegi Gorenak, zigor-arloko salak, hartutako jarrera 2012ko otsailaren 27ko 101/2012 zenbakiko epaian (20048/2009 zenbakiko auzi berezia). Horren arabera, Garzón epaileak gerra zibilean eta 1952ra bitarte izandako desagertze behartuengatik egindako izapidetzea «akatssez» beterik egon zen (Horren alde, argudio sendoekin, guztiak CHINCHON ALVAREZ, Javier, VICENTE MARQUEZ, Lydia eta MORENO PEREZ, Alicia: «La posición del Tribunal Supremo respecto a la aplicación del derecho internacional a los crímenes del pasado en España: Un análisis jurídico tras los informes del Grupo de Trabajo sobre Desapariciones Forzadas, el Comité contra la Desaparición Forzada y el Relator Especial sobre Justicia Transicional de las Naciones Unidas», in Anuario Iberoamericano de Derecho Internacional Penal (ANIDIP), Bogotá, 2. liburukia, 2014, 66-101.

115 Eseste-delituaren definizioa (Erromako Estatutuaren 7.2.g artikulua), behin testuingurua egiaztatuta, honela zehazten da: nazioarteko zuzenbidea hautsiz, oinarritzko eskubideez nahita eta era larrian gabetzea, baldin eta gizateriaren aurkako edo Auzitegiaren esku-meneko beste krimen batzuei lotuta gertatzen bada.

2.4.3 Azken gogoeta

Aurretik adierazitako kategoriek gauza on bat dute: «gauzei beren izenez deitzen» diete. Azkenik, Zuzenbidearen eboluzioak berak sortu ditu larritasun handieneko masa-krimenen fenomenoak identifikatzeko hitz zehatzak, eta horien artean daude alderdi matxinatuak Gerra Zibilean eta gerraostean etsaia deuseztatzeko bere plan aitortuaren arabera egindakoak.

Hori bai, Espainiako gerra zibilean eta horren ondoren (1950era bitarte, lehen aldi honetan) izandako judizioz kanpoko exekuzioak, lesio larriak, torturak, tratu txarrak, diskriminazio sistematikoa eta eseste ideologikoa, garbiketak, ondasunen desjabetzea eta gainerako jokabide kriminalak kategorizatzen diren orduan, nazioarteko zuzenbide humanitarioa (NZH), giza eskubideen nazioarteko zuzenbidera eta nazioarteko zigor-zuzenbidera (NZZ) jo da, zentzu mugatua bada ere. Jakina da arau-corporis horiek gatazkaren garaian (1936-1939) garapen-egoera askoz eskas eta mugatuagoa zutela gaur egun baino. Espainiako Gerra Zibilaren ondoren garatu ziren 1949ko Genevako Hitzarmenak, NZHaren estandarrak estatu barneko gatazka armatuetara zabaltzeko aukera, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (1948) eta estandarraren ondorengo inplementazioa (1966ko Itunak), nazioarteko zigor-zuzenbidearen esku-hartzea (Nazioarteko Auzitegi Militarrek: Nurenberg -1945- eta Tokio -1946-) eta haren finkapena (1990eko hamarkadatik aurrera: Jugoslavia ohiako Ad Hoc Nazioarteko Zigor Auzitegia -1993-; Ruandarako Nazioarteko Zigor Auzitegia -1994-; Nazioarteko Zigor Auzitegi Iraunkorra ezartzeko Erromako Estatutua -1998- eta abarrak). Horrenbestez, horiek juridikoki ezin dira hartu NZParen krimenez, NZHaren urraketa larritzat edo giza eskubideen nazioarteko eskubidearen urraketa larri eta agerikotzat (sistematikoak eta masiboak barne) ñabardurarik gabe eta ondorio guztietarako, balizko auzipetzeren baterako barne. Baliagarria da, ordea, arau-gorputz horien krimen larrienen eta urraketa handien balorazioaren oraingo egoera gerra zibilaren eta haren ondorengo garaiaren gainera proiektatzea, era horretan halakoen izaera zuzenbidearen aurkakoa eta justiziaren zentzu ororen aurkako subertsio-izaera jasota gera dadin, eta horretan oinarrituta, bidezko kontakizuna eraiki ahal izateko, zoru demokratikoa ezartzeko eta etorkizunean ez errepikatzen bermeak edukitzeko.

Aurretik adierazitakoak eragina du matxinatuen errepublikaren aurka etsaia deuseztatzeko estatu-politika gisa planifikatutako jarduna, aldaerak aldaera, gerra-krimen edo gizateriaren aurkako krimenez hartzeko garaian. Eta hori gerra zibilak iraun bitartean zein haren ostean. Egia da nazioarteko zuzenbidearen eboluzioa dela eta, 1936tik 1960ko hamarkadara bitarte, eta batez ere 1970eko hamarkadan, denboran aurrera egin ahala, orduan eta erraztasun handiagoa eta zoru juridiko handiagoa dagoela adierazitako arau-gorputz horien hedapena gero eta handiagoa oinarritzeko.

Eta horrek berdin balio du borrokan hildakoen balorazioa egiteko, zeina ondoren bereziki azalduko baita.

Espainiako gerra zibila hasita, gatazka armatu batean (-barnekoa, estatu barnekoa- baina gatazka armatua azken batean) gerran aurrez aurre jarri ziren bi alderdi eratu ziren; hau da, *de facto* egoera bat sortu zen, non elkarren kontra indarra erabiltzen hasi ziren indar armatu antolatutako zeuden. *De facto*, gaur egungo ikuspegitik esango litzateke barneko gatazka armatu bat zela, eta bertan nazioarteko zuzenbide humanitarioa (mugatua¹¹⁶) aplikatu daiteke, nahiz eta une hartan, 1936an, nazioarteko zuzenbidearen eboluzio-egoerak, konbentzionalak (ez zeuden oraindik 1949ko Genevako Hitzarmenak) zein ohiturazkoak, bere aplikazio-eremutik kanpo utzi ohi zituen nazioartekoak ez ziren gatazkak¹¹⁷.

116 1949ko Genevako Hitzarmenaren 3. artikulua komuna; 1977ko II. Protokoloa, Genevako Hitzarmenatarako Gehigarria; 2005eko III. protokoloa, enblemaren erabilerari buruzkoa; 1954ko Hagako Hitzarmena, kultura-ondasunei buruzkoa.

117 Hori horrela, matxinatuen jardunari matxinada-, sedizio- eta traizio-delituak egotz dakizkioke, dagozkien korrelatiboak barne,

Ondorio guztietarako gatazka armatutzat hartuta, aurrez aurre dauden alderdiek borrokariaren estatutua eska dezakete beren indar armatuentzat edo baliokideentzat, eta babes-tutako pertsoneri babesa aplikatzen zaie. Beste hitz batzuek esanda, badago borrokatzeko eskubidea, horrek erantzukizun penalik ekarri gabe, barneko zigor-arloko ordenamendua-ren aplikazio arrunta bertan behera utzita. Eta hori matxinatuen indarrentzat zein errepublikanoentzat.

Nazioarteko zuzenbide humanitariotik beretik harago doan ikuspegitik, ordea, argudiatu ahal eta behar da indar errepublikanoek eta haietako borrokalariek indarrean zen legezkotasunaren alde egin zutela eta, ondorioz, –haietako soldaduak eta borrokan hildakoak– legezkotasun demokratikoaren aldeko borrokalariek/hildakoak dira, eta matxinatuak, aldiz, demokraziaren aurka altxatu eta borrokatu ziren borrokalariek/hildakoak izango lirateke.

Matxinatutako borrokalaria hilek, errepublikaren aurka altxatutako indarrek guda irabazi zuten eta beren legezkotasuna diktadura luze baten bitartez ezarri zuten, ohorezko tratamendua jaso zuten eta haien jarduna goraipatu zen: heroi gisa. Eta hori ondorio guztiekin, hau da, hilobiratze duina izateko eta hiltzak aurkitzeko behar besteko ahalegina egiteko. Hildako errepublikanoak, ordea, nazioarteko zuzenbide humanitarioaren kontra (testuinguru hartan indarrean zegoela ulertuz gero) edo errepublikaren legezkotasun arruntaren eta giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen kontra edozelan ere (orduan indarrean zegoela ulertuz gero¹¹⁸), nolabaiteko alderantzizko zuzenbidez baliatuta, erreboltari, matxino eta traidoretzat hartu zituzten, eta, ondorioz, pertsona-duintasunean gaizki tratatuak izan ziren borrokalarien estatutua erabiltzeagatik. Biziei eta bizirik iraun zutenei emandako tratatu txar hori giza eskubideen askotariko urraketa larrietan gauzatu zen, bai eta nazioarteko zigor-zuzenbideko krimenetan ere (langile-batailoak –esklaboak–, espetxeratzea, tortura, ondasunen desjabetzea, isunak eta errepresalia ekonomikoak, barneko erbesteratzeak Espainiako beste eremu geografiko batzuetara, garbiketak... baita judizioz kanpoko exekuzioak ere, tortura...), baina hildakoei dagokienez, era berean, erakundeen tratatu txar sistematiko eta kolektiboa egon zen, eta horrek eragotzi egin zuen hiltzak non zeuden jakitea (bide-bazterretan jaurtiak eta ezkutatuak), nazioarteko zuzenbide humanitarioa urratuak.

Horren guztiaren ondorioz, demokraziaren aldeko borrokan hil ziren borrokalarientzat erreparazioa eskatzeko nahi legitimoa dago, hil ziren borrokalaria matxinoen kasuan ez dagoena, eta, horregatik, izaera ezberdina dute (estatusa) haien egoera bidegabea baiez-tatzeko orduan, alde batera utzita hiltzea, berez, ez dela nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa. Ondoren eman zitzaien tratamendua da, oro har, gaur egungo ikuspegitik, nazioarteko zuzenbide humanitarioa urratzen duena (non zeuden sistematikoki ezkutatzeko), baita giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea ere (haien ohoreari irainak eta kalumniak egitea, eta haien duintasunaren eta osotasun moralaren aurkako atentatuak, bai eta zigor-arloko atzerako eraginik ezaren printzipioaren urraketa ere –matxinada eta sedizioa krimenak egotzi, eta halakotzat tratatuak– indarrean zegoen ordena demokratikoa defendatzeagatik).

Azkenik, komeni da adieraztea oso ezaguna dela errepublikaren aldekoek giza eskubideen urraketak eta krimen larriak egin zituztela; horien berri jaso zuten, eta berrogei urtean, haien biktimei arreta, aitortza eta omenaldi ofiziala eman zitzaientzen, erregimen diktatorialaren zerbitzurako propaganda-tresna modura. *Auzi Orokorra*¹¹⁹ aipatzea besterik ez dago.

aplikatu beharreko barneko ordenamendu juridiko-penalarekin bat etorritik (jurisdikzio militarra, arrunta...).

118 Legezkotasun juridiko-penal berri bat atzerako eraginez aplikatzea giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen zigor-arloko legearen atzerako eraginik ezaren oinarritzko printzipioaren urraketa larria da (legezkotasun-printzipioa). Urraketa hori lotuta dago, gainera, bidezko epaiketa baterako berme penalei.

119 Prozesu judizial luze bat izan zen, eta haren izen osoa hau da: *Eremu gorriko delitu-ekintzen eta bizitzako bestelako alderdien in-*

Egia ere bada, PRESTONek adierazi bezala, alderdi kuantitatibotik harago¹²⁰, alderdi errepublikanoan gertatu ziren giza eskubideen urraketak, frankistarenean izandakoak ez bezala, ez ziren plan sistematiko baten ondorio izan, aitzitik baizik, agintariek horiek eragozteko egingandako ahaleginen kontra gertatu ziren, oro har, kontrol eraginkorrik ezaren ondorioz¹²¹. Alde kualitatibo handia da hori. Gerra zibila irabazi zutenen giza eskubideen urraketa *sistemati-koak*, ordea, etsaia deuseztatzeko estatu-plan landu baten emaitza izan ziren¹²². Plan horrek gerraren ostean ere iraun zuen diktaduraren 40 urtean, non, zoritxarrez, denbora sobera egon zen errepresio erak aldatuz eta eraldatuz joateko, eta egindako bidegabekeria guztien zigorgabetasuna eta memorizidua ziurtatuz joateko. Horregatik, hain zuzen ere, txosten honen dena bilduko du giza eskubideen urraketa larri guztien berri jasotzeko orduan, baina ahalegin berezia egingo du, alderdi frankistari leporatutakoei dagokienez, behar den egiari buruzko politika laguntzeko oinarriak jartzen saiatzeko, gaur egun oraindik ezezaguna baita azken horren errealitate osoa. Errealitate hori ezkutatuta, isilduta eta/edo erregimenak eta haren jarraitzaileek, bai diktadorea hil zen arte, baita gerora ere, demokraziarako trantsizioaren bidez helarazitako eragozpenen bitartez, jarri ahal izan zituzten zailtasun eta oztopo guztiez inguratuta baitago (amnistiak, isiltasun- eta ahaztura-itunak, erregistroetara jotzea galaraztea, inertzia judizialak...).

formazio-auzi orokorra, 1936ko uztailaren 18tik askapenera arte. Auzi horri jada ekin zioten iparraldea 1937an konkistatu zutenetik, baina 1940ko apirilaren 26ko Dekretuaren bidez formalizatu zen, Auzitegi Goreneko Fiskaltzak errepublikanoen delituei buruzko informazioa biltzeko agindua jaso baitzuen, eta biltzeko lan horrek 1960ko hamarkadara arte iraun zuen. PRESTON, Paul: *El Holocausto español. Odio y exterminio en la guerra civil y después*, Martínez Muñoz, Catalina eta Velázquez Nacarino, Eugenia (itzul.), Debate, Villatuerta, 2011, 651. or. eta hurrengoak.

120 PRESTON, Paul: *El Holocausto español...*, *op. cit.*, 23, lanean adierazten da matxinoen errepresioa gutxi gorabehera hiru aldiz handiagoa izan zela eremu errepublikanoan izan zena baino.

121 PRESTON Paul: *El Holocausto español...*, *op. cit.*, 20, «(...) la caótica violencia del otro bando tuvo a pesar de las autoridades republicanas, no gracias a ellas».

122 PRESTON Paul: *El Holocausto español...*, *op. cit.*, 18, Molaren hitz hitzeko hitzak aipatzen ditu: «Eliminar sin escrúpulos ni vacilación a todos los que no piensen como nosotros» (Deuseztatu, eskrupulu eta zalantzarik gabe, guk bezala pentsatzen ez duten guztiak).

3. Emaitzak

3.1 Hildakoak (1936-1945)

Hasieratik esan den bezala, lehen fase honetan, ahaleginak 1936tik 1945era bitartean izandako hildakoen kategoria ikertzera bideratu dira nagusiki, artxiboetan egindako kontsultak, aurretik zehaztuak, abiapuntutzat hartuta, eta horri buruz dagoen bibliografiaz lagunduta. Ikerketa horren guztiaren emaitza datu-base batera irauli da.

Halaber, ikerketaren ondorioz ematen diren zenbakiak dokumentuetan oinarrituta daude, baina ekarpen berrietara zabalik daude. Ezin da inoiz kopuru itxiez hitz egin hildakoei dagokienez; izan ere, beti gerta liteke Espainiako Gerra Zibilaren eta errepresio frankistaren inguruko artxibo-funts berriak kontsultatzea, eta etorkizunean ahozko iturrietan oinarritutako ikerketa berriak egitea edo senideekin elkarlanean aritzea.

Hori horrela, jarraian zazpi atal aurkeztuko dira Gerra Zibilean eta lehen frankismoan hildakoak sailkatzeko: guda-ekintzan hildakoak baina borrokalariak ez zirenak, judizioz kanpoko exekuzioak, exekuzio sumarisimoak, espetxean hildakoak, borrokan hildako errepublikanoak, errepublikanoek eragindako hildakoak eta borrokan hildako matxinoak; Nazioarteko Zuzenbide Penalaren arabera pairatutako urraketa mota esleitu zaie horiei.

3.1.1 Guda-ekintzan hildako ez-borrokalariak

3.1.1.1 Bonbardaketak (gizateriaren aurkako krimena, erailketarena)

Batez ere, populazio zibil ez- borrokalariaren aurkako hegazkinen, itsas indarren eta artilleriaren bombardaketen ondorioz hildakoak dira. Nazioarteko zigor-zuzenbidearen arabera, gizateriaren aurkako erailketa-krimenaren kategoria dagokio.

Ikerketatik ondorioztatzen denez, guztira bombardaketen ondorioz hildakoak 1.417 dira, horietatik 110 identifikatu ezin izan direnak. Azpimarratu behar da erregistratutako pertsonen zerrenda dela, eta ez bombardaketa horietan hildako pertsonen guztizko kopurua. Euskadiko Gobernuak 1937ko ekainean egindako zerrendak, soilik apirileko matxinoen hegazkinen erasoaldietan, 2.445 heriotza eragin zituztela zerrendatu zuen. Bestalde, garrantzitsua da kontuan izatea zerrenda horren arduradunek ohartarazi zutela gutxienekoen zifrak zirela; izan ere, erreskatatu ezin izan ziren gorpua ez ziren inoiz erregistratu, eta, beraz, ez ziren zerrenda horretan sartu. Hala, geroagoko ikerketek erakutsi dute Eusko Jaurlaritzak eman zituen kopuruak baxuak zirela Durango, Gernika edo Otxandioko kasuetarako.¹²³

Bonbardaketa gehienak Bizkaian izan ziren, eta lurralde historiko horretako biztanleak izan ziren hildako gehienak. Bonbardaketa horietan 855 gizonezko eta 561 emakumezko hil ziren, baita generoa identifikatzea ezin izan den pertsona bat ere.

Matxinoen hegazkinek, armadak eta artilleriak egin zituzten bombardaketa gehienak; nolana ere, errepublikaren aldeko indarrek egin zituzten ezohiko kasu batzuk ere dokumentatu ahal izan dira, hala nola Gasteizen eta Bermeoko Ospitale Psikiatrikoan egindakoak.

123 Xabier Irujok erreferentzia eta testigantza ugari biltzen ditu, bere lanetan, Gernikako bombardaketa mila hildako baino gehiago izan zirela aipatzen dutenak, eta biktima horiek ez ziren inoiz artxiboetan erregistratu. Kontsultatu besteak beste, IRUJO, Xabier: Gernika. 26 de abril de 1937, Barcelona, Crítica, 2017, 181-201 orr.; La verdad alternativa. 30 mentiras sobre el bombardeo de Gernika, Donostia, Txertoa, 2017, 165-174 orr.; Bombardeos en Euskadi 1936-1937, Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa, 2017, 193-216, orr.

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Beste batzuk	Ezezaguna	Guztira
Bonbardaketetan hildakoak, udalerrriaren arabera (nongoa den)	34	867	167	60	289	1.417
Bonbardaketetan hildakoak, non izan zen kontuan hartuta	24	1.182	99	99	13	1.417

3.1.1.2 Beste kasu batzuk (gizateriaren aurkako krimena, erailketarena)

Atal honetan, «halabeharrezko» zergatiek populazio zibilean eragindako heriotzak bildu ditugu. Guda-zelai inguruan zeuden gizabanako ez-borrokalaria jotako bala galduek eragindako heriotzak eta borroketan lehertu ez ziren bonba, obus eta esku-granadek eragindakoak dira gehienak; haurrei eragin zieten gehienbat.

Era horretako 244 kasu daude guztira, 191 gizon eta 53 emakume.

3.1.2 Judizioz kanpoko exekuzioak (gizateriaren aurkako krimena, behartutako desagertzearena)

Alderdi frankistak epai judizialik gabe egindako fusilamenduak jorratu dira atal honetan, «paseatuak» izenarekin ezagutzen direnak, alegia. Nazioarteko zigor-zuzenbidearen arabera, gizateriaren aurkako desagertze behartuko krimenaren kategoriari dagokio.

Ahozko iturriez baliatu diren tokiko ikerketetan egiaztatu den bezala, judizioz kanpo exekutatuen kopurua zehaztugabe dago erregistro zibiletan edo parrokia-liburuetan jaso gabe, edo, jasota daudenean, heriotzaren egiazko zergatia ezkututzen duten kontzeptu batzuen barruan daude, eta horrek asko zailtzen du ikertzailearen lana. Horregatik, kasu horietan oso beharrezkoa da ahozko iturriak kontsultatzea.

Horrenbestez, eta alderdi argitu arte, erabilgarri dauden artxiboetan eta bibliografian egin den ikerketaren ondorioz, 1.157 lagun fusilatu zituzten judizioz kanpo, horietatik 54 ezezagunak izanik. 42 emakumeak dira eta 1.110 gizonak.

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Beste batzuk	Ezezaguna	Guztira
Judizioz kanpoko exekuzioak (non izan ziren)	202	70	524	273	88	1.157

3.1.3 Exekuzio sumarisimoak: heriotza-zigorra (gizateriaren aurkako krimena, erailketarena)

Euskal herritarrei dagozkien gerra-kontseiluak Ipar-mendebaldeko Eskualde Militarreko Bitarteko Artxibategian (AIRMN) daude. Aranzadi Zientzia Elkarteko ikertzaileek 2006 eta 2007 artean Araban, Bizkaian, Gipuzkoan, Burgosen, Logroñon eta Kantabrian jardun zuten auzitegiei zegozkien espedienteak berreskuratu zituzten, auzipetze bakoitzaren lehen orrialdearen eta epaien argazkiak eginez (150.000 argazki inguru); auzitegi horietan epaitu zituzten euskal herritar gehienak. Ondoren, irudi horiek datu-base batera irauli ziren (55.546 izen guztira).

Hori horrela, ikerketa-lan honetan informazio hori berrikusi da, Euskadin bizi ziren herritarren aurkako heriotza-zigorra eman zuten epai guztiak biltzeko.

Epai judiziala emanda exekutatu zituzten 995 lagunen berri jaso da, 19 emakume eta 976 gizon. Horien artean daude, batetik, EAEn fusilatutako guztiak, eta, euskaditik kanpo, heriotza-zigorra ezarrita hil zituzten euskal herritar guztiak. Gizateriaren aurkako hilketa-krimenaren kategoria dagokie horiei.

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Kantabria	Beste batzuk	Guztira
Exekuzio sumarisimoak (non izan ziren)	30	566	84	112	203	995

3.1.4 Kartzelan hildakoak (gizateriaren aurkako krimena, erailketarena)

Askatasun-gabetze behartuko egoeran zeudenean hildako pertsonak dira. Askotariko kasuak daude (gerra-zaurituak, espetxez aldatzean hildakoak, espetxean gaixotasun infekziosoak hartutako presoak...). Espetxeratze bidegabeagatik, halere, haien heriotza sar daiteke populazio zibilaren aurkako eraso orokor edo sistematiko baten barruan, baita borrokalari dagokienez ere, askatasunaz gabetzean borrokalari izateari utzi baitzioten.

Horien artean daude EAEn zeuden espetxeetan hil ziren pertsona guztiak, euskal herritarrik izan edo ez, bai eta Estatuko beste espetxe batean hil ziren EAEko hiru probintzietako biztanleak ere. Nazioarteko zuzenbidearen arabera, gizateriaren aurkako hilketa-krimenaren kategoria dagokie.

Orotara, 2.276 pertsona izan ziren, 5 izengabeak, honela banatuta:

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Beste batzuk	Guztira
Kartzelan hildakoak (non izan ziren)	289	1.312	297	378	2.276

KARTZELAN HILDAKOAK	ZENBAT
Gizonak	2.048
Emakumeak	228
GUZTIRA:	2.276

3.1.5 Borrokan hildako gudariak eta milizianoak

Kategoriak zehazteko orduan adierazi den bezala, gerra-borroken ondorioz hildakoak ezin dira hartu giza eskubideen urraketatzat.

Azken batean, gatazka armatu baten barruan hildako pertsonak dira, eta ez dago nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketarik ekintza hori gerra-krimetzat edo gizateriaren aurkako krimetzat jo ahal izateko.

Hori esanda, Espainiako Gerra Zibila errepublikako gobernu legitimoaren aurkako matxinada baten ondorioa izan zen, eta, guda galduta, hil ziren borrokalari errepublikanoak era guztietako aitortzarik gabe gelditu ziren, eta deabrutu, abandonatu, iraindu eta kriminalizatu zituzten; horregatik, justiziarren eta duintasunaren izenean, nahitaezkoa da haien izena oroimen historikorako berreskuratzea. Era honetako txosten batek ezinbestean aitortu behar ditu guda-zelaian, gatazka armatu baten barruan gobernu legitimoa defendatzeko, bizia galdu zuten haiek, zeinak, gatazkaren emaitzagatik, -eta alderantzizko nolabaiteko mundu batean- matxinoen traidore bihurtu ziren. Garaituak -bidegabe ki- berreskuratu behar dira, eta orainaren oroimen demokratikoan haiek jasotzea demokratikoa eta zuzenbidekoa izan nahi duen estatu ororen botere publikoen betebeharrak saihestezina da.

Hori argituta, esan, guztira hildako 7.058 gudari eta miliziano aurkitu ditugula, 154 ezezagunak, Gerra Zibileko aldiaren Euskadin, euskaldunak edo kanpotarrak, zein 3 lurralde historikoetatik kanpo hildako gudulari. Gudulari hauen artean 13 emakumezkoak dira. Eta kopuru hori honela banatzen da.

Borrokan hildako gudariak eta milizianoak (heriotza zein probintzian gertatu zen)	
Araba	598
Bizkaia	4.427
Gipuzkoa	723
Kantabria	193
Asturias	429
Beste batzuk	157
Ezezaguna	531
GUZTIRA	7.058

Datu horiek kontuan hartuta, ondorioztatzen da errepublikaren aldeko borrokalari ia guztiak iparraldeko frontean hil zirela 1936tik 1937ra bitartean; izan ere, argitu beharra dago heriotzaren tokia jasota ez daukaten 531 horietatik gehienak 3 lurralde historikoetako batean hil zirela, toki zehatza jakin ez arren.

3.1.6 Errepublikanoek borrokatik kanpoko ekintzan eragindako hildakoak

Eremu errepublikanoan izandako era horretako indarkeriaren kasu nabarmenenak honako hauek izan ziren: Donostiako eta Bilboko espetxeen aurkako erasoak, Altuna Mendi eta Cabo Quilates itsasontzi-espetxeen aurkako erasoak (Bilboko itsasadarrean ainguratuta) eta Elosuko fusilamenduak.

992 hildako eragin zituen atzealde errepublikanoan, 4 pertsonen daturik ezagutzen ez direlarik. Horietatik, 47 Araban gertatu ziren, 594 Bizkaian eta 257 Gipuzkoan; gainerakoak, berriz, euskal lurraldetik kanpo gertatu ziren.

Errepublikanoek eragindako hildakoak ezin dira gizateriaren aurkako krimenez hartu. Izan ere, egindako delitu horiek teknikoki ez datoz bat gizateriaren aurkako krimenez hartzeko behar den testuingurua osatzea ekarriko lukeen oinarri faktikoarekin. Errepublikanoen errepresiozko indarkeriak ez zion erantzuten plan ezarri eta antolatu bati, botere frankistako goi-karguek gauzatutako errepresioarekin gertatu ez bezala; azken horrek, izan ere, izu sistematikoko eta aurkaria deuseztatzeko estrategia, jokabide-ildo edo estatu-plan bati erantzuten zion.

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Beste batzuk	Guztira
Errepublikanoek borrokatik kanpoko ekintzan eragindako hildakoak (non izan ziren)	47	575	257	94	973

Hauei gehitu behar zaizkie 1936 bukaera eta 1937 hasiera bitartean Euzkadiko Herri Auzitegiaren aginduz fusilatu zituzten 18 lagun eta beste pertsona bat 1937ko apirilean exekutatu zutena Euzkadiko Auzitegi Militarren aginduz¹²⁴.

124 Euzkadiko Herri Auzitegiak 457 lagun auzipetu zituen, 156ri heriotza-zigorra jarri zien, eta horietatik 19 exekutatu zituzten. Barruso, Pedro, «La represión en las zonas republicana y franquista del País Vasco durante la Guerra Civil», in *Historia Contemporánea*, 35 (2007), 660-662.

3.1.7 Borrokan hildako matxinoak

Gerra Zibilak iraun bitartean borrokan hil ziren armada frankistako soldaduen berri emango da hemen. Horri dagokionez, esan beharra dago datu-basean daudela gatazkak iraun zuen garaian euskal lurretan hil ziren matxinoak zein Aragoi, Katalunia, Valentzia, Madril eta Extremadurako fronteetan parte hartu zuten euskal herritarrak, gehienetan Euskadin gerra amaitu ondoren.

Puntu honi dagokionez, zehaztu behar da matxinoen armadako soldadu guztien kopurua ez datorrela bat Gerra Zibilean Euskadin hil zirenekin bakarrik, Kantabrian eta Asturiasen 1937an eta Estatuko zenbait frontetan 1938an eta 1939an hil ziren borrokalariak ere jasota baitaude. Gainera, urte horietan beraietan, Teruel edo Ebroko fronteetan zauritutako soldadu frankista asko Euskadiko ospitaleetara aldatzen zituzten, eta bertan hil ziren. Halaber, kasu batzuetan egiaztatu da Aragoi, Katalunia eta Valentziako fronteetan 1938an eta 1939an hildakoak aurretik errepublikanoen aldean borrokatu zirela, eta armada frankistarekin bat egitera behartu zituztela. Horregatik, geroago datuak bereizi egingo dira, Gerra Zibilean Euskadin edo Euskaditik kanpo hil ziren matxinoen armadako kideak zehazteko.

Guztira, era horretako 5.626 hildako jaso ditugu, horietatik 346 ezezagunak dira. Hemen, zaila da horietako asko Euskadin gerra egon zenean benetan zein probintzian hil ziren jakitea, non hilobiratu zituzten jakin arren. Ohikoa zen hilotzak atzealdera eramatea erreferentziako udalerrri bateko hilerrri batean uzteko.

Era berean, Euskaditik kanpo hildakoen artean, kasu askotan, soldadua «frontean» hil zela adierazten da, hilotza gerora Euskadiko jatorrizko tokira eramaten zuten arren.

Horregatik, ematen diren datuak osatugabeak dira:

Borrokan hildako matxinoak (heriotza zein probintzian gertatu den)	
Araba	939
Bizkaia	863
Gipuzkoa	883
Kantabria	41
Asturias	96
Burgos	25
León	17
Madril	168
Lleida	203
Tarragona	144
Zaragoza	116
Teruel	374
Huesca	44
Castelló	157
Beste batzuk eta ezezagunak	1.556
GUZTIRA	5.626

3.1.8 Laburpen gisa

Gure datu-basean une honetan 20.747 erregistro daude, honela banatuta:

Heriotzaren zergatia	Erregistro kopurua
Bonbardaketak	1.417
Borrokatik kanpoko bestelako zergati batzuk	244
Judizioz kanpoko exekuzioak	1.157
Exekuzio sumarisimoak: Heriotza-zigorak	995
Kartzelan hildakoak	2.276
Borrokan hildako gudari eta milizianoak	7.058
Errepublikanoek borrokatik kanpoko ekintzan eragindako hildakoak	992
Borrokan hildako matxinoak	5.626
Sailkatu gabe	982
GUZTIRA	20.747

Ikus daitekeenez, kopuru horretan jasotako 982 pertsonari buruzko dokumentu-euskarri bat dago, baina iturriak ez dira taulan jasotako kategorietako batean bildu ahal izateko behar bezain esplizituak. Horien arteko borrokalari batzuek ez dago zehazterik zein alderditakoak izan ziren, eta, fusilatu batzuei dagokienez, gertatutakoa jakin ez arren.

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzaren aurreko zerrendan ageri ziren 1.139 izenek, oraingoz, ez dute artxibo, biografia edo familiako oinarririk; hori horrela, izen horiei jarraipena egingo zaie zer iturritatik atera zituzten zehaztu ahal izateko.

3.2 Datu-basea

Proiektu honen helburua da herritarren eskura egongo den datu-banku zabal bat edukitzea. Horregatik, artxibo eta bibliografiako ikerketarekin batera, datu-base bat ere diseinatu da, Euskadin aztertutako aldiari gertatu ziren giza eskubideen urraketa guztiak biltzeko.

Nolanahi ere, nabarmendu behar da ez dela behin betiko datu-base bat; hori horrela, tresna bizia izan behar da, datuak zuzendu ahal izateko eta iturri dokumental edo bibliografiko berrien emaitzak jaso ahal izateko, bai eta hildakoen familiek ematen duten informazio guztia ere.

Handitzeko prestaturik dagoen datu-base bat da, gainera, horren gainean proiektuak igaro beharreko ondoz ondoko ikerketa-fase guztiak irauli ahal izateko; hau da, askatasunaz gabetutako pertsonak, lan bortxatuak pairatu zituztenak eta abar.

Txosten honen kasuan, hildako bakoitzaren fitxa pertsonal bat sortu da; izenen datu-base bat da, pertsona bakoitzaren *bizitzaren istorioa* biltzea duena xedetzat, baina, era berean, *istorio kolektibo*akenez neurri handiagoko kontsultak eta ikerketak egiteko aukera ere ematen duena.

Datu-base horren barruan, pertsona bakoitzaren fitxak lau ataletan bereizi dira:

Lehenengoan, arlo pertsonal eta familiarrari buruzko erreferentziak biltzen dira, baita dokumentazioaren arloa ere, zeinetan informazio hori eta beste batzuk jaso diren, eta heriotzaren txostenaren arloa, non nola hil zen eta pairatutako giza eskubideen urraketa mota adierazten den. Orobat jasota dago pertsona horren senideek Gogorari txosten indibidualizatua eskatu dioten edo DNA probak egin dituzten, baita Gogorak hildakoa lurpetik atera duen ere.

Bigarrenean, gerra-kontseilu baten ondoren exekutatu zuten pertsona bakoitzak izandako prozesu judizialetik etorritako informazioa jaso da, halakorik egon bazen.

Hirugarrenik, frankismoan espetxean izan ziren pertsonen kartzela-espeditateetatik ateratako informazio guztia ere jasota dago datu-basean.

Azkenik, datu-basearen atal administratiboan Gogora institutuak hildako bakoitzari buruz egindako ekintza guztiak biltzen dira, hala nola txosten indibidualizatuak, DNA probak eta hoberik ateratzea.

Azken batean, hauxe da informazioaren egitura:

1. Datu pertsonalak:

- Abizenak
- Izena
- Sexua
- Adina
- Jaiotekua
- Jaioteguna
- Udalerrria
- Helbidea
- Gurasoen izenak
- Egoera zibila
- Seme-alaba kopurua
- Lanbidea
- Ideologia politikoa
- Fakzioa
- Batailoia

Dokumentazio-arloa:

- Iturriak
- Zehaztapenak: bestelako informazio garrantzitsu osagarriak
- Txosten indibidualizatua
- DNA
- Desobiratzea

Heriotza-txostena:

- Heriotzaren zergatia: Guda-ekintzan hildako ez-borrokalariak/Judizioz kanpoko exekuzioak/exekuzio sumarisimoak: heriotza-zigorra/Kartzelan hildakoak/Borrokan hildako gudari eta milizianoak/Errepublikanoek borrokatik kanpoko ekintzan eragindako hildakoak/Borrokan hildako matxinoak.
- Non hil zen
- Noiz hil zen
- Pairatutako urraketa mota
- Non ehortzi zuten
- Desobiratzea

2. Prozesu judizialak:

- Datu pertsonalak
- Dokumentazioa: Artxiboa, signatura.
- Delitua
- Delituzko jarduerak
- Epaia

- Zigorra
- Exekuzioa
- Espetxea

3. Espetxe-espeditenteak:

- Datu pertsonalak
- Dokumentazioa: Artxiboa, signatura
- Espetxea
- Sartze/ateratze data
- Exekuzioa
- Epaia
- Espetxe-aldaketak

4. Administrazio-informazioa

- Datu pertsonalak
- Kasuaren laburpena
- Familiarekiko kontaktua
- DNA
- Desobiratzea
- Dokumentazio-eskaera
- Espedientea

Lan honen bitartez Estatuan jada abian jarri dituzten beste ekimen batzuen lortzari jarraitu nahi zaio¹²⁵, etorkizunean Gerra Zibilean eta gerraostean izandako hildakoei buruzko Estatuko datu-base handi bat eduki ahal izateko, baina, horrez gain, Giza Eskubideen ikuspegia gehituta egiten da hori, eta hildako guztiak salbuespenik gabe erantsita (horiek guztiek oinarri dokumentala dute, bibliografikoa edo ahozkoa).

125 Esate baterako, aurretik jada aipatu ditugun proiektu hauek: *Nomes e voces* (<http://www.nomesevoces.net/gl/>), *Todos los nombres* (<http://www.todoslosnombres.org/>), *Nafarroako Oroimen Historikoari buruzko Dokumentazio Funtza* (<http://memoria-oroimena.unavarra.es/index>), *Memoria Recuperada* (<https://memoriarecuperada.ua.es/>), *Víctimes de la guerra civil i la repressió franquista a les terres de Lleida: morts, represaliats i deportats* (<http://www.victimesguerracivilfranquisme.udl.cat/>), eta jada desagertu diren beste proiektu batzuk, *Todos los nombres de Asturias*, adibidez.

4. Ondorioak

Dokumentu honetan “Gerra Zibilean eta lehen frankismoan izandako hildakoak (1936-1978)” jasotzen dira, hau da, 1936-1978 aldian izandako oinarrizko eskubideen urraketei buruzko txostenaren lehen fasean jasotakoak. Lanaren heldulekua Eusko Jaurlaritzako Bakegintzako eta Bizikidetzako Idazkaritza Nagusiak, Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak, Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UPV/EHUko Unesco Katedrak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak sinatutako hitzarmena izan zen eta, orain arte, ikerketaren ondorio nagusiak hauek dira:

1. Lehenengo fase honetan, txosten honek, Euskadin eta Euskaditik kanpo 1936-1945 bitartean gerra zibilaren eta gerraostearen ondorioz hil ziren euskaldunen izenen zerrenda eskaintzen du.
2. Ikerketaren ondorioak datu-base batean jaso dira eta guztira 20.747 hildakoren fitxak daude. Horietan, eskuragarri dauden biktimen datu pertsonalak, heriotzaren zergatia, datuak atera diren artxibo edo/eta bibliografia iturriak eta baita erakundeek euren jardunean batu dituzten datu guztiak ere; hala nola, desobiratzeak, gertukoek eskatutako banakako txostenak, familien DNA jasoketak eta beste ikerketa batzuk. Horrela, datu-base bakarrean gerra zibilean Euskadin hildako persona bakoitzari buruz eskuragarri dagoen informaziorako sarbidea ematen da.
3. Lan-metodologia hauxe izan da: Euskadiko erregistro zibilen, parrokiako heriotza-liburuen eta hilerrietako liburuan ikerketa zorrotza egitea. Halaber, datu horiek beste artxibo-iturri batzuekin alderatu dira, baita orain arte egindako tokiko ikerketekin eta familiaren lekukotasunekin ere.
4. Ikerketan ikuspegi historikoa eta nazioarteko giza eskubideen nazioarteko ikuspegia uztartu dira, eta kategoria historikoak Nazioarteko Zigor Zuzenbidekoekin gurutzatu ditu. Horrela, sortutako biktimen datu historikoak nazioarteko zigor zuzenbideak heriotzaren zergatiari emandako kalifikazioarekin batera azaltzen dira, baldin eta arrazoi hori nazioarteko giza eskubideen zuzenbidean islatzen bada. Borrokan hildakoak, adibidez, ez daukate kalifikaziorik nazioarteko giza eskubideen zuzenbidean.
5. Datu basean guztira jasotzen diren. 20.747 fitxen artean 19.720 gizonak dira eta 987 emakumeak, eta, 40 kasutan, ordea, ezin izan da generoa zehaztu.
6. Bildutako informazio multzoak honako datuen laburpena eskaintzen du:

Heriotzaren zergatia	Erregistro kopurua	Nazioarteko Zigor Zuzenbideak emandako kalifikazioa
Bonbardaketak	1.417	Gizateriaren aurkako krimena, erailketarena
Borrokatik kanpoko bestelako zergati batzuk	244	Gizateriaren aurkako krimena, erailketarena
Judizioz kanpoko exekuzioak	1.157	Gizateriaren aurkako krimena, behartutako desagertzearena
Exekuzio sumarisimoak: heriotza-zigorak	995	Gizateriaren aurkako krimena, erailketarena
Kartzelan hildakoak	2.276	Gizateriaren aurkako krimena, erailketarena

Borrokan hildako gudari eta milizianoak	7.058	
Errepublikanoek borrokatik kanpoko ekintzan eragindako hildakoak	992	
Borrokan hildako matxinoak	5.626	
Sailkatu gabe	982	
GUZTIRA	20.747	

Kopuru oso horren barruan 982 pertsona jaso dira; dokumentu-euskarria dute horiek, baina iturriak ez dira taulan jasotako kategorietako batean sailkatu ahal izateko behar bezain esplizituak.

7. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzaren aurreko zerrendan ageri ziren 1.139 kasu daude, baina, oraingoz, izen horiek ez dute artxibo, biografia edo familiako oinarririk. Hori horrela, izen horiei jarraipena egingo zaie zein iturritatik atera ziren zehaztu ahal izateko.
8. Ikerketa bizia da, eta haren emaitzak behin-behinekoak dira, eta ekarpen berriak izan daitezke; izan ere:
 - a. Gerra Zibilean Euskaditik kanpo hil ziren euskal jatorriko pertsonen kasu asko aurkitu gabe daude oraindik. Ikerketa honek antzeko beste proiektu batzuk kontsultatuz lortutako datuak bildu ditu, baina eskualde asko ikertzeko daude oraindik.
 - b. Era berean, erregistro zibiletan inskripzio batzuk askoz geroago egin zirela erreparatu da, 1970eko hamarkadaren amaieran eta 1980koaren hasieran, eta, oraingoz, ezin izan da horietara jo.
 - c. Azkenik, Gerra Zibileko hildako asko ez zituzten artxibo-erregistroetan inskribatu. Horixe da, hain zuzen ere, exekutatu eta borrokalari errepublikanoen kasua, baina baita bonbardaketetan hildakoena ere; izan ere, gorago esan bezala, Eusko Jaurlaritzako iturri garaikideek askoz zifra handiagoak ematen zituzten bonbardaketen ondorioz hildako biktimei buruz hemen jasotakoak baino. Dokumentu-hutsune hori ahozko eta familiako iturrien bitartez baino ezin da bete. Horrela sartu dira datu-base honetan 470 kasu.

Hori horrela, Gerra Zibilean hildako senideren bat duten familia guztiei dei egin behar zaie horren lekukotasuna emateko eta ikerketa honetan informazioa emateko.

Ikerketa hau Eusko Jaurlaritzaren eta Gogoraren memoria historiakoaren arloan jasotzen duen lehentasunezko helburua betetzeko lehen pausoa da: Memoria Historikoaren egiaren aitazatespen instituzionala lortzen laguntzea. Oinarri sendoa ezartzen da erakundearteko akordioa sustatzeko, babes zabalena eta plurala izango duen adierazpen baten inguruan, Memoria Historikoaren egia ofizialaren erreparazioa instituzionalizatuko duena eta, hala, itxi Euskadin Gerra Zibilaren biktimen erreparazio moralaren zikloa.

Aipaturiko bibliografia

AGIRRE ITURRIOTZ, Julen; GARMENDIA HERNANDEZ, Beñat et al.: *Ahazturen mindura. 1936ko gerra eta lehen frankismoan Ordizian*. Oridizia, 2014.

AGIRRETXE MITXELENA, Joxe Luix; PONTESTA, Agustina; LEÓN NANCLARES, Ander: *Zigortuak. Ilunpetik argitara. Frankismoen biktimak Lezon (1936-1945)*, Lezoko Unibertsitateko Udala, 2008.

AGUIRRE GONZÁLEZ, Jesús Vicente: *Aquí nunca pasó nada. La Rioja 1936*, Ochoa Editores, Logroño, 2007.

AGUIRREGABIRIA, Josu M. y TABERNILLA, Guillermo: "Seis días de guerra en el norte de Álava. Comienza la ofensiva de Mola (31 de marzo - 5 de abril de 1937)", en *Saibigain. Revista digital de la Asociación Sancho de Beurko*, 6 (2018).

AGUIRREGABIRIA PARRAS, Josu M.: *La Batalla de Villarreal de Álava. Ofensiva sobre Vitoria-Miranda de Ebro. Noviembre y diciembre de 1936*, Beta, Bilbao, 2014.

AIZPURU, Mikel (dir.): *El otoño de 1936 en Guipúzcoa: los fusilamientos de Hernani*, Irún, Alberdania, 2007.

ALFORJA, Iñaki y SIERRA, Félix: *Fuerte de San Cristóbal, 1938. La gran fuga de las cárceles franquistas*, Pamplona, Pamiela, 2006.

ALMORZA ARRIETA, Karlos y BUCES CABELLO, Javier: *Saseta defenza-sistema: armatutako erresistentzia antifaxista Adunan, Asteasu eta Zizurkil*. Aduna-Asteasu-Zizurkil, 2016.

ALTUNA RECIO, Miren y GARAI BENGEOA, Juan Ramón: *Hacia una Memoria Compartida. Mondragón 1936-1956. Guerra, Resistencia y Franquismo*, Intxorta 1936, Oñati, 2018.

ALVARO DUEÑAS, Manuel: "Por ministerio de la ley y voluntad del caudillo". *La jurisdicción especial de responsabilidades políticas (1939-1945)*, Centro de estudios políticos y constitucionales, Madrid, 2006.

Amasa-Villabona 1936-2011: construyendo el mapa de la memoria, Aritza Kultur Elkarte, 2016.

AMILIBIA, Miguel: *Los batallones de Euskadi*, San Sebastián, Txertoa, 1978.

ANDRES LASO, Antonio: "Legislación penal, procesal penal y penitenciaria tras la guerra civil española", *Revista jurídica de Castilla y León* 35 (2015), pp. 1-44.

Archivo Histórico Provincial de Cádiz. Prisión Central de El Puerto de Santa María. Catálogo de expedientes de reclusos por rebelión 1936-1955, Junta de Andalucía, Consejería de Cultura.

ARIZABALETA GANTXEGI, Iraitz: *Deba 1936-1945*, Aranzadi Zientzia Elkarte, 2019.

ARRAZOLA, Nekane; GOMENDIO, Beatriz et. al.: *Gerrako garrak*. Oñati, 2011.

AZCONA PASTOR, José Manuel: "Los asaltos a las cárceles de Bilbao el día 4 de enero de 1937", *Investigaciones Históricas*, 32 (2012), pp. 217-236.

— *Los desastres de la Guerra Civil española. La represión en Bilbao (julio de 1936-junio 1937). Sobre el testimonio inédito "Los crímenes del Quilates. Recuerdos de mi cautiverio" de José María Vicario Calvo*. Madrid, Universidad Rey Juan Carlos, 2007.

BADIOLA ARIZTIMUÑO, Ascensión: *Cárceles y campos de concentración en Bizkaia (1937-1940)*, Donostia, Txertoa, 2011.

BARBERO SANTOS, Marino: *Política y Derecho Penal en España*, Tuscar Ediciones, Madrid, 1977.

BARRUSO BARÉS, Pedro: *Lo que el río también vio. Guerra y represión en Hondarribia (1936-1948)*, Hondarribia, Ayuntamiento de Hondarribia, 2019.

BARRUSO, Pedro: "La represión en las zonas republicana y franquista del País Vasco durante la Guerra Civil", *Historia Contemporánea*, 35 (2007), pp. 653-681.

BERMEJO, Benito y CHECA, Sandra: *Libro Memorial. Españoles deportados a los campos de concentración nazis (1940-1945)*, Ministerio de Cultura, Madrid, 2006.

BERNAL CERCÓS, Àngels (dir.): *Procediments Judicials militars (Sumaríssims). De Lárxiu del Tribunal Militar Territorial Tercer de Barcelona*, Generalitat de Catalunya, 2015.

BLASCO GIL, Yolanda: "Soporte jurídico de las depuraciones", *La depuración de funcionarios bajo la dictadura franquista (1939-1975)*, CUESTA BUSTILLO, Josefina (coord.), Fundación Largo Caballero, Madrid, 2009, pp. 28-51

BUCES CABELLO, Javier: *Eusko Gudarostea. Eusko abertzaleak, armak eskuan, Espainiako militarren altxamenduaren aurka. Azpeitia, 1936*, Azpeitia, Sociedad de Ciencias Aranzadi, 2017.

— *Gaitegiz Arteaga, 1936-1945. Conculcación de los Derechos Humanos y represión durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo*, Donostia, Aranzadi Zientzia Elkarte, 2017.

— *Azpeitia, 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoko garaian. Azpeitia*, 2016.

— *Leioa 1936-1945*, Leioa, 2014.

CAPELLA, Margalida y GINARD, David: *Represión política, justicia y reparación. La memoria histórica en perspectiva jurídica (1936-2008)*, Palma de Mallorca, Documenta Balear, 2009.

CASSESE, Antonio: *International Criminal Law*, Oxford, 2nd Ed., 2008.

CUESTA, José Luis de y ETXEBERRIA, Paco (dirs.): *Situación penitenciaria de las mujeres presas en la cárcel de Saturraran durante la Guerra Civil española y la primera posguerra: hacia la recuperación de su memoria*, Donostia, Emakunde e Instituto Vasco de Criminología, 2012.

CHINCHÓN ÁLVAREZ, Javier, VICENTE MÁRQUEZ, Lydia y MORENO PÉREZ, Alicia: "La posición del Tribunal Supremo respecto a la aplicación del derecho internacional a los crímenes del pasado en España: Un análisis jurídico tras los informes del Grupo de Trabajo sobre Desapariciones Forzadas, el Comité contra la Desaparición Forzada y el Relator Especial sobre Justicia Transicional de las Naciones Unidas", *Anuario Iberoamericano de Derecho Internacional Penal (ANIDIP)*, Bogotá, Vol. 2, 2014, pp. 66-101.

DEL AGUILA TORRES, Juan José: "La represión política a través de la jurisdicción de guerra y sucesivas jurisdicciones especiales del franquismo", *Hispania Nova. Revista de Historia Contemporánea Número 1 Extraordinario (2015)*, pp. 211-242

DEL PALACIO SÁNCHEZ, Vicente et. Al.: *Sustrai erreak 2. Guernica 1937*, Aldaba, Gernika, 2012.

DELGADO CENDAGORTAGALARZA, Ander: *Bermeo en el siglo XX. Política y conflicto en un municipio pesquero vizcaíno (1912-1955)*, San Sebastián: Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos, 1998

ECHEANDIA, José: *La persecución roja en País Vasco. Estampas de martirio en los barcos y cárceles de Bilbao. Memorias de un excautivo*, Barcelona, 1945.

EGAÑA, Iñaki: *Frankismoa Donostian. Las víctimas del genocidio franquista en Donostia*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia-San Sebastián, 2011.

— *La guerra civil en Euskal Herria*, 8 vols., Andoain, Aralar Liburuak, 1999-2004.

EGIGUREN, Joseba: *Prisioneros en el campo de concentración de Orduña (1937-1939)*, Donostia, Ttarttalo, 2011.

EGIZABAL, Maribel y SERRANO, Unai: *Busturia 1937-1977. Represión y resistencia de un pueblo*, Laia Kultur Elkarte y Ahaztuak 1937-1977, 2018.

ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel: *Los nombres de la memoria, Tolosa 1936-1945*. Tolosa 2013

ETXEBARRIA MIRONES, Jesús, and ETXEBARRIA MIRONES, Txomin: *Balmaseda, 1936-1938: preguerra, guerra, toma de Balmaseda y represión*. Edición propia: Bilbao, 1993.

- ETXEBERRIA, Francisco y PLA, Koldo (dirs.): *El cementerio de las botellas. El fuerte de San Cristóbal en la memoria: de prisión a sanatorio penitenciario*, Pamplona, Pamiela, 2014.
- FERNÁNDEZ LÓPEZ, José Ángel: *Historia del Campo de Concentración de Miranda de Ebro (1937-1947)*, Miranda de Ebro, 2003, p. 454.
- GABARDA CEBELLÁN, Vicent: *Els afusellaments al País Valencià (1938-1956)*, Valencia, Universitat de València, 2007.
- GARAI, Juan Ramón y MURGIZU, Josu: *1936ko Gerra Bergaran*, Bergarako Udala, Bergara, 2015.
— *Bergara 1930-1940. Gerra eta errepresioa*, Intxorta 1937 Kultur Elkarte, 2013.
- GARCÍA MÁRQUEZ, José María: *Las víctimas de la represión militar en la provincia de Sevilla (1936-1963)*, Sevilla, 2012.
- GOGORATU GURAN TALDEA: *Gerrako garrak Oñatin*, Intxorta 1937 kultur elkarte, Oñati, 2011.
- GOITIA BILBAO, Zuriñe: *Bakio 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan*, Aranzadi Zientzia Elkarte, Bakio, 2019.
- GÓMEZ CALVO, Javier: *La represión franquista en Iruña de Oca*. Iruña de Oca, Ayuntamiento de Iruña de Oca, 2019.
— *Matar, purgar, sanar. La represión franquista en Álava*, Madrid, Tecnos, 2014.
- GONZÁLEZ GOROSARRI, María y BARINAGA, Eduardo: *No lloréis, lo que tenéis que hacer es no olvidarnos: La cárcel de mujeres de Saturrarán y la represión franquista contra las mujeres, a partir de los testimonios de supervivientes*, Donostia, Tartalo, 2010.
— *Guerra, represión y memoria en Getaria*, Aranzadi Zientzia Elkarte, 2019. (en prensa)
- GURRUTXAGA URANGA, Amagoia: *Zarauzko postalak. 36ko gerra*, Zarauzko Udala, Zarautz, 2013.
- GUTIÉRREZ FLORES, Jesús: *Vida y muerte en el norte de Burgos y Palencia en la Guerra Civil y posguerra (1936-1950)*, Librucos, Torrelavega, 2017.
— *Guerra Civil en Cantabria y pueblos de Castilla*, Libros en Red, 2006
- HERRERO ACOSTA, Xabier: *Busturia (1916-1937): Restauración, dictadura, II República y Guerra Civil*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 2019.
- IBARRETXE, Asier y MOLINUEVO, Karlos: *Arrigorriaga 1931-1939. Errepublika eta Guerra Zibila*, Arrigorriagako Udala, 2009.
- INTXAUSPE LÓPEZ, José R. (Coord.): *Gerra Zibila Aretxabaletan. Ezin Ahaztu ! / La Guerra Civil en Aretxabaleta. Ezin Ahaztu!*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 2011.
- IRAZABAL AGIRRE, Jon: *Otxandio en la Guerra Civil: 1936-1937*. Ayuntamiento de Otxandio, Otxandio, 2006
— *1937 martxoak 31 Durango 31 de marzo de 1937*, Gerediaga Elkarte, Abadiño, 2001.
- IRUJO, Xabier: *Gernika. 26 de abril de 1937*, Barcelona, Crítica, 2017
— *La verdad alternativa. 30 mentiras sobre el bombardeo de Gernika*, Donostia, Txerto, 2017.
— *Bombardeos en Euskadi 1936-1937*, Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa, 2017.
- ITURAIN AZPIROZ, Iñaki: *1936ko gerraren ubera Orion. Guerra bat barruan degula*, Orioko Udala, Orío, 2014.
- IURREBASO BITERI, Iñaki (coord.): *Legazpi 1936*. Legazpiko udala, 2011.
- JUARISTI LARRINAGA, Patxi: *Gerra Zibila Berriatuan eta Lekeitioko frontean*, Bilbao, UPV/EHU, 2014.
- JUARISTI LARRINAGA, Patxi: *Markinako frontea. Markinako eta Xemeingo egoera politikoa eta soziala Bigarren Errepublikan eta Gerra Zibilean (1931-1939)*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2011.

KATTIN-TXIKI TALDEA: *Isiltzen ez den isiltasuna. Lurpetik Berreskuratutako Memoria*, Oiartzun, Oiartzungo Udala, 2009.

KORTAZAR BILLELABEITIA, Jon: Beasain: Oroimen Historikoa. IV. Liburukia, Guda ondorena Beasainen 1937-1945, Aranzadi Zientzia Elkartea, 2018.

LABURU, Maddalen: *Espainiako Gerra Zibila eta lehen frankismoa Astigarragan (1936-1945)*, Astigarrako Udala.

LANDA GOROSTIZA, Jon-Mirena: "Políticas de víctimas de la violencia política en España y el País Vasco: una reflexión a la luz del holocausto", *Revista General de Derecho Penal*, nº 29 (2018), pp. 1-50.

— *Institut Universitaire Varenne, Collection Transition & Justice*, 3, 2014, pp. 341-355; 63-76; 201-214; 483-495.

— "Decretos de víctimas de violaciones de derechos humanos: balance y perspectivas de futuro"/"Giza-eskubideen urraketen biktimei buruzko dekretuak: balantzea eta etorkizuneko perspektibak"/"Décrets sur les victimes de violations des droits de l'Homme-Bilan et perspectives d'avenir"/"Decrees on Victims of Human Rights Violations: Decree 107/2012. Balance and Prospects for the future" en Justicia Transicional: propuestas para el caso vasco/Justizia Trantsizionala: proposamenak Euskal Herriarentzat/Justice Transitionnelle: propositions pour le Pays Basque/Transitional Justice: proposals for the Basque case, LANDA GOROSTIZA, Jon-Mirena (Director), Institut Universitaire Varenne, Collection Transition & Justice, 3, 2014, pp. 341-355; 63-76; 201-214; 483-495.

— "Human Rights and Politically-Motivated Violence in the Basque Country», *Journal on Ethnopolitics and Minority Issues in Europe (JEMIE)* Vol 12, No 2, 2013, 7- 29.

LANDA, Arrate; BALANZATEGI, Jabi et. al.: *Arrasate 1936. Belaunaldi etena*. Arrasate, 2003.

LASA BERGARA, Xabier: *Historia oral: la voz dormida. El impacto de la Guerra Civil (1936-1939) en la vida social de un pueblo de Gipuzkoa*. Andoain, 2006.

LÓPEZ ALONSO, Tania y GALLO RONCERO, Silvia: *San Marcos. El campo de concentración desconocido*, El Forastero, León, 2012.

LÓPEZ DÍEZ, José Manuel: *Portugaleta y los muertos de la Guerra Civil : milicianos y gudarís (1936-1937)*, Portugaleta, Oroituz Elkartea, 2018.

LÓPEZ GARCÍA, Julián et. Al.: *Para hacerte saber mil cosas nuevas. Ciudad Real 1939*, Madrid, UNED, 2018.

LÓPEZ GRANDOSO, Koldobika: *La Guerra Civil en Barakaldo. Once meses de resistencia*. Bilbao, Beta, 2016.

Lluvia de verano en Galdames, Ayuntamiento de Galdames, 2017.

MEMORIAN ATZERA: *1936ko Gerraren eta ondorenen testigantzak Zumarragan eta Urretxun*, Urretxuko eta Zumarragako Udalak, Donostia, 2017.

MOLINUEVO, Karlos: *Arrigorriaga. República y Guerra Civil, 1931-1939*. Arrigorriaga, Arrigorriagako Ahaztuak, 2009.

MUNÁRRIZ HERNANDO, Tasio: *República y guerra en Portugaleta*. Portugaleta: edición propia, 2012.

OBREGÓN GOYARROLA, Fernando: *República, Guerra Civil y Posguerra en Santander (1931-1948)*, Santander, 2014.

— *República, Guerra Civil y Posguerra en Espinosa de los Monteros y Meridades de Montija, Sotoscueva y Valdeporres (1931-1950)*, Santander, 2014.

— *República, Guerra Civil y Posguerra en Trasmiera Occidental (1931-1947)*, Santander, 2012.

— *República, Guerra Civil y Posguerra en Castro Urdiales y los valles del Agüera (1931-1957)*, Santander, 2011.

— *República, Guerra Civil y Posguerra en el valle de Mena (1931-1955)*, Guarnizo, 2011.

— *República, Guerra Civil y Posguerra en Trasmiera Oriental (1931-1947)*, Maliaño, 2010.

- *República, Guerra Civil y Posguerra en la costa occidental de Cantabria (1931-1957)*, Maliaño, 2010.
 - *República, Guerra Civil y Posguerra en los valles de Buelna y Cieza (1931-1947)*, Maliaño, 2010.
 - *República, Guerra Civil y Posguerra en Laredo, Colindres y Liendo (1931-1947)*, Santander, 2009.
 - *República, Guerra Civil y Posguerra en los valles del Pas (1931-1950)*, Maliaño, 2009.
 - *República, Guerra Civil y Posguerra en los valles del Nansa (1931-1957)*, Maliaño, 2009.
 - *República, Guerra Civil y Posguerra en los valles de Iguña y Anievas (1931-1947)*, Maliaño, 2008.
 - *República, Guerra Civil y Posguerra en los valles del Saja (1931-1957)*, Maliaño, 2008.
 - *República, Guerra Civil y Posguerra en los valles del Asón (1931-1948)*, Maliaño, 2007.
 - *República, Guerra Civil y Posguerra en los valles de Liébana y Peñarrubia (1931-1957)*, Maliaño, 2007.
 - *República, Guerra Civil y Posguerra en Astillero y Guarnizo (1931-1947)*, Maliaño, 2006.
 - *República, Guerra Civil y Posguerra en el valle de Penagos y Pámanes (1931-1947)*, Maliaño, 2006.
 - *República, Guerra Civil y Posguerra en el valle de Cayón y Castañeda (1931-1947)*, Santander, 2005.
 - *República, Guerra Civil y Posguerra en el valle de Villaescusa (1931-1947)*, Asociación para la Defensa del Patrimonio de Villaescusa, Santander, 2004.
- ONTAÑÓN, Antonio: *Rescatados del olvido. Fosas comunes del cementerio civil de Santander*, Guarnizo, 2004.
- OTEGI, Hodei: *Elgoibar 1936. Zentral elektrikoetako fusilamenduak / Fusilamientos en las centrales eléctricas*, Aranzadi Zientzia Elkarte, Elgoibar, 2018.
- PARDO LANCINA, Víctor y MATEO OTAL, Raúl: *Todos los nombres. Víctimas y victimarios (Huesca, 1936-1945)*, Huesca, Gobierno de Aragón / Diputación de Huesca, 2016.
- PARDO SAN GIL, Juan: *Euzkadiko Gudontzidia. La Marina de Guerra Auxiliar de Euzkadi (1936-39)*, 2º ed. Untzi Museoa - Museo Naval. Donostia-San Sebastián, 2008.
- PORTILLA, Guillermo: *La consagración del derecho penal de autor durante el franquismo. El Tribunal Especial para la represión de la Masonería y el Comunismo*, Comares, Granada, 2009
- PRADA SANTAMARÍA, Antonio; ARANGUREN ALONSO, Maialen; PEÑA FERNÁNDEZ, Ana: *Gerra zibila eta frankismoa Zumarragan*, Zumarragako Udala, 2014.
- PRESTON, Paul: *El Holocausto español. Odio y exterminio en la guerra civil y después*, Martínez Muñoz, Catalina y Velázquez Nacarino, Eugenia (trad.), Debate, Villatuerta, 2011.
- RILOVA PÉREZ, Isaac: *Guerra Civil y violencia política en Burgos (1936-1943)*, Editorial Aldecoa, Burgos, 2016.
- RODRÍGUEZ OÑATIBIA, Amaia: *Erreterria 1936-1945*, Erreterriako Udala, Erreterria, 2019.
- SÁNCHEZ RECIO, Glicerio: *De las dos ciudades a la resurrección de España. Magisterio pastoral y pensamiento político de Enrique Pla y Deniel*, Valladolid, Ámbito, 1995.
- SANZ GOIKOETXEA, Eneko: *Zumaia 1936-1945*, Zumaia, Aranzadi Zientzia Elkarte, 2019.
- *Aia, 1936. Gerra Zibila, erreprezio franquista eta Giza Eskubideen urraketa*. Aia, 2015.
- SARRIONANDIA-IBARRA FERNANDEZ, Borja: *La II República y la Guerra Civil en Deusto*, Ahaztuak 1936-1977, Getxo, 2012.
- SOMOKUETO PÉREZ, Koldo: *Urduliz: Euskal udalerrri baten historia Gerra Zibilaren garaian*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 2018.
- SORALUZE 1936 LAN-TALDEA: *Isiltasuna Hausten. 1936ko Gerra Soraluzen*, Soraluze, 2015.
- TABERNILLA, Guillermo y LEZAMIZ, Julen: *Saibgain. El monte de la sangre*, Bilbao, Beta, 2013.
- *El cuerpo disciplinario de Euzkadi*, Bilbao, Asociación Sancho de Beurko, 2004.

URGOITIA, José Antonio (dir.): *Crónica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi peninsular*, Oiarzun, IVAP y Sabino Arana Fundazioa, 2002.

USABIAGA, Miguel: *Flores de la República. Los olvidados de Pikoketa*, Libros de la Catarata, Madrid, 2015.

VV.AA.: *Espetxean 1937-1942. Semilla de libertad. Bizitza eta heriotza giltzapean*, Bilbao, Sabino Arana Fundazioa, 1998.

ZULOAGA MUXIKA, Ione: *Alegia 1936-1945. Giza eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan*, Aranzadi Zientzia Elkartea, Alegia, 2019.



A large, bold, grey number '7' is the central focus of the page. It is positioned in the middle of the page, with a horizontal bar at the top and a curved stem extending downwards.

● dokumentua



Euskadin ikur frankistak kentzeko
ekimenaren egoerari buruzko txostena



Euskadin
ikur frankistak kentzeko
ekimenaren egoerari
buruzko txostena

Bilbao, 2019ko urria

Memoriaren,
Bizikidetzaren eta
Giza Eskubideen
Institutua

gogora

Instituto de la Memoria,
la Convivencia
y los Derechos Humanos

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Sarrera

1936ko uztailleko altxamendu militarren ondorioz sortutako Estatu frankistak hainbat elementu identitario prestatu zituen bere identitate kolektiboa egonkortze aldera, eta ikur errepublikano, liberal eta, Euskadiren kasuan, euskal nazionalismoarekin lotura zuen ikur oro ezabatu nahian. Elementu horiek Gerra Zibilean agertu ziren, eta batez ere Diktaduraren lehen hamarkadetan ugaritu ziren gizarteko eta espazio publikoko alor guztietan. Horien artean daude erregimen frankistaren armarrak ofizialak, alderdi frankistako *martirren* eta *erorien* memoria goresteko monumentu eta hilarriak, etxebizitzetako plakak *Instituto Nacional de la Vivienda* delakoaren ikur falangistarekin, erregimen frankistarekin lotura duten kale izenak, eta Frankismoren babesleei emandako dominak edo sariak, edota haiei egindako erretratuak. Horietako asko errepublika garaian ere mantendu izan direna, eta egun oraindik gure kale eta mendietan daude.

Abenduaren 26ko 52/2007 Legea betetz, eta parlamentu-mandatuari erantzunez, bai Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikide-

tzarako Idazkaritza Nagusiaren 2013-2016ko Bake eta bizikidetzaren planak bai Gogora Institutuaren 2017-2020ko Jarduketa Planak beren helburuen artean dute Euskadiko kale eta hirietan dauden ikur frankista guztiak desagerraraztea. Horretarako, Gogorak, hots, Memoria, Elkarbizitza eta Giza Eskubideen Institutuak, ikur horiek kentzeko lanen jarraipena egin du, eta lan horiek sustatu ere bai, udalei dirulaguntzak emanez.

Txosten honek

- Euskadin kendu diren ikurrak kontabilizatzeko dituzten, guztira **1.523** edo gehiago (1. eranskina).
- Ikur frankistak kentzeko 2016. urtetik aurrera egin diren lanak deskribatzen ditu. Epe horretan, 1.022 kendu dira, guztira, eta horien artean elementuak, ohorezko tituluak eta kaleen izenak daude.
- Eta, bukatzeko, oraindik ere ikur frankistaren bat duten udalerriak zerrendatzen ditu; guztira **15** udalerririk dira, 3 Araban, 8 Bizkaian eta 3 Gipuzkoan.

1. Aurrekariak

2011ko urrian *Gerra Zibila eta Diktadura goraipatzen duten Euskadiko ikur eta monumentu publikoen Katalogoa* izeneko katalogoa aurkeztu zen, Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzak eskatuta, lehen aipatutako abenduaren 26ko 52/2007 Legearen 15. artikuluan xedatutakoa betez¹. Halaber, Euskadiko Parlamentuak premiatu zuen, lege besteko 28/2011 proposamenaren bidez, Memoria Historikoaren Legean aipatutakoa erregistratzeari buruzkoa². Azpimarratu behar da katalogo horrek une hartan zenbait muga izan zituela, izan ere, aztarna eta ikur frankistarik adierazgarrienak besterik ez baitzituen barne hartu. Alabaina, geroago katalogoan jasotako informazioa osatu zen, Eusko Jaurlaritzaren eta tokian tokiko erakundeen arteko elkarlanari esker.

2012. urtean, katalogoak argi utzi zuenez Euskadiko zenbait udalerritan oraindik ikur frankistak zeudela, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzak ***Euskadin ikur frankistak kentzeko Batzorde Teknikoa*** sortu zuen bost kiderekin. Batzordearen helburu nagusia zen katalogo hori aztertzea eta erakunde publikoei gomendio zehatzak ematea Euskadin zeuden ikur frankistak kentzeko. **2012ko urrian**, Batzordeak ***Euskal Autonomia Erkidegoko ikur frankistak kentzeko batzordearen gomendio irizpena*** aurkeztu zuen, ikur horiek kentzerako orduan jarduketa-eredu bezala erabiltzeko.

2014ko urtarrilean, Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak eta EUDELe Euskadiko udal guztiei eman zieten bi tresna horien berri, eskutitz bidez, beren udalerritan zeuden ikur frankistak kentzeko, eta irizpen horretan adierazitakoa betetzeko eskatu zitzaien.

2014ko abenduan, Eusko Jaurlaritzak ***lehen txosten*** bat aurkeztu zuen, ***Euskadin ikur frankistak kentzeari buruzko txostena***, telefonoz eta posta elektronikoz 251 udalek emandako datuetan oinarrituta. Txosten horren arabera, Euskadiko 115 udaletan ikur frankistak zeuden oraindik, horietako 19 Araban, 42 Bizkaian eta 54 Gipuzkoan.

2016ko otsailean, *Memoria historikoaren arloko lehentasunen oinarri programa 2015-2016* agiriaren esparruan, Gogorak, hots, Memoria, Elkarbizitza eta Giza Eskubideen Institutuak, ***Ikur frankistak kentzeko prozesuaren egoerari buruzko txostena*** aurkeztu zuen, eta bertan ondorioztatu zuen 59 udalerririk dagoeneko ikur frankista guztiak kendu zituztela. Halaber, txosten horretan jaso zen 56 udalerritan (8 Araban, 25 Bizkaian eta 23 Gipuzkoan) oraindik ikur edo monumentu frankistaren bat geratzen zela.

¹ "Gobernuak, Autonomia Erkidegoekin eta Tokiko Erakundeekin batera, Gerra Zibileko eta Diktadurako aztarnen katalogoa prestatuko du, aurreko atalean aurreikusitako helburuarekin", 310. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2007ko abenduaren 27koa, 15.3 artikulua, 10. orria.

² 89. Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofiziala, 2011ko otsailaren 24koa, 44-54. orr.; 101. zenbakia, 2011ko martxoaren 4koa, 20.251-20.252 orriak.

2. Gogorak egindako lana

Ikur frankistak kentzeko ekimenaren egoera oinarri, 2016ko otsailekoa, Memoria, Elkarbizitza eta Giza Eskubideen Gogora Institutuak bere 2017-2020ko Jarduketa Planari heldu zion berriro, honako helburu honekin: legegintzaldi honetan "Euskadiko kale eta hirietan dauden ikur frankistak kentzea, Euskadiko udalen laguntzarekin". Hori lortzeko, Gogora bi lan-ildotan aritu da: batetik, udalerrri bakoitzean egin diren ekintzen jarraipena egin du; eta, bestetik, ikurrak kentzeko dirulaguntza eman die eskaera egin duten udalei.

a) Ikur frankistak kentzeko ekintzen jarraipena

2016an, Gogora Euskadiko 56 udalekin jarri zen harremanetan, bertan oraindik ikur frankistarik geratzen zela jakinarazteko eta horiek kentzeko prozeduran laguntzeko. Azpimarratu behar da jarraipena egin ahala jakin dugula zenbait udalerritan ikur frankistarik bazegoela, nahiz eta udal horiek esan zuten ez zutela horien berri. Zehazki, Arabako 2 udalerritan (Amurrio, Laudio), Bizkaiko 4tan (Larrabetzu, Mungia, Ondarroa, Portugaleta) eta Gipuzkoako 4tan (Andoain, Irun, Mutriku, Oiartzun). Hortaz, Euskadiko 66 udalerritan egin da jarduketan jarraipena.

Horretarako, Gogoraren kudeaketa lanak honako hauek izan dira:

- Telefonoz edo posta elektronikoz udalekin harremanetan jartzea eta informazioa biltzea, bertan zeuden ikurrei buruz eta horiek kentzeko egindako edo egiteke zeuden lanei buruz.
- Ikur horiek kentzeko prozedurari lotuta aholkatzea.
- Udalei azaltzea nola bideratu den beste udalerrri batzuetan, eta Gogorak eskainitako dirulaguntzei buruz informatzea.

b) Ikur frankistak kentzeko dirulaguntzak

Euskadiko kale eta hirietan dauden ikur frankista guztiak desagerrarazteko, Gogorak dirulaguntzak eskaini ditu urtero, ikur horiek kentzeko lanak diruz laguntze aldera.

Guztira, 30.000 euro bideratu ziren 2017. urtean; 2018an eta 2019an, berriz, 60.000 euro urtean. Hori argitu ondoren, gogorarazi behar da 2017an emandako dirulaguntzen helburu bakarra ikur frankistak kentzea izan zela, baina 2018ko eta 2019ko deialdietan dirulaguntzak beste helburu batzuk barne hartzen zituela, alegia, memoria historikoa berreskuratzeko eta udal mailan ikerketa sustatzeko proiektu zehatzak diruz laguntzea, Euskal Autonomia Erkidegoen 1936-1977 epean bizitako demokraziaren eta askatasunaren aldeko borrokari lotuta.

2017tik, Gogorak **15.200,94 euro** bideratu ditu, dirulaguntzen bidez, Euskadiko 6 udalerritan ikur frankistak kentzera. (II. eranskina)

3. Emaitzak

Egungo egoera hauxe da, 2016ko txostenarekin alderatuta:

	Ikur frankistak zituzten udalerriak 2016	Ikur frankistak zituzten udalerriak 2019
ARABA	10	3
BIZKAIA	29	9
GIPUZKOA	27	3
EUSKADI	66	15

ARABA

	Udalerrria	2016ko otsaila	2019ko urria
1	Agurain/ Salvatierra	13 plaka etxeetan.	Kenduta.
2	Amurrio	32 plaka etxeetan.	Kenduta.
3	Artziniega	Etxeetako plakak.	Kenduta.
4	Zieko	Sindikatu bertikalaren plaka 1.	Kenduta.
5	Lantaron	<i>Erorien</i> gurutzea, Caicedo plazan.	Kenduta.
		<i>Corpo Truppe Volontaire</i> -en harrizko plaka, Fontetxan.	Oraindik hor dago.
6	Lapuebla de Labarca	4 plaka etxeetan.	Kenduta.
7	Legutio	Nafarroako dibisioko <i>erorien</i> omenezko monumentua.	Kenduta.
		1937an Urbinan hildako hiru militar alemanen omenezko hilarria.	Kenduta.
		2 plaka etxeetan.	Kenduta.
8	Laudio/Llodio	31 plaka etxeetan.	Oraindik plaka gutxi batzuk geratzen dira.
9	Okondo	Etxeetako plakak.	Kenduta.

10	Vitoria-Gasteiz	Armarri ofiziala antzinako Justizia Jauregian, Olaguibel kalean.	Oraindik hor dago.
		Armarri ofiziala katedral berrian.	Oraindik hor dago.
		Olarizu mendiko gurutzea.	Oraindik hor dago ³ .
		149 plaka etxeetan.	Oraindik 87 plaka daude.
		Hiriak Faustino Ortiz de Zarate Beitiari eta Luis Orgazi eskainitako ohorezko sariak eta dominak.	Baliogabetu dira.
		9 kaleren izenak.	Oraindik hor daude. ⁴

BIZKAIA

	Udalerrria	2016ko otsaila	2019ko urria
1	Alonsotegi	Etxeetako plakak.	Kenduta.
2	Areatza	2 plaka etxeetan.	Kenduta.
3	Barakaldo	Armarri frankista postetxean.	Kenduta.
		Cabo Quilates itsasontziari egindako erasoaren gurutzea.	Oraindik hor dago. Kentzeko edo berradierazteko prozesuan.
		7 plaka etxeetan.	Kenduta.
4	Basauri	66 plaka etxeetan.	Oraindik 55 plaka daude.
5	Bedia	Etxeetako plakak.	Oraindik hor daude.
6	Bilbo	Armarri Ogasunaren Ordezkaritza Berezian.	Kenduta.
		Egiritako gurutzea, Santo Domingon.	Kenduta.
		<i>Bilboko martirren omenezko kripta-monumentua</i> , hilerrian.	Ikur frankistak kendu dira.
		<i>Fusilamenduen harresiaren gaineko monumentua</i> , hilerrian.	Ikur frankistak kendu dira.
		<i>Inork erreklamatu ez dituen bando nazionaleko erorien omenezko monumentua</i> , hilerrian.	Ikur frankistak kendu dira.
		137 plaka etxeetan.	Kenduta.
		10 kaleren izenak.	Kenduta.
7	Durango	21 plaka etxeetan.	Kenduta.

3 2018ko irailean, udalak plaka bat jarri zuen inguruko lur eremuetan, monumentuaren testuingurua azaltzeko, hau da, zein den bere jatorria eta diktadura garaian izandako erabilera politikoa, LÓPEZ DE MATURANA, Virginia, *Informe técnico sobre los vestigios de la Guerra Civil y la dictadura en Vitoria-Gasteiz*.

4 Kasu bakoitza aztertu eta hausnartu ondoren oraindik kentzeaz geratzen dira.

8	Erandio	<i>Erorien</i> gurutzea Altunamendin, Axpeko dartsenan.	Oraindik hor dago. Kentzeko edo berradierazteko prozesuan.
		22 plaka etxeetan.	Oraindik 9 plaka daude.
		2 kaleren izenak.	Oraindik hor daude. Kentzeko prozesuan.
9	Ermua	17 plaka etxeetan.	Kenduta.
10	Etxebarri	10 plaka etxeetan.	Kenduta.
11	Galdakao	59 plaka etxeetan.	Kenduta.
12	Getxo	Hilarrria, "Caídos por Dios y por España en Guecho" ("Getxon eroriak Jainkoaren eta Espainiaren alde").	Oraindik hor dago.
		13 plaka etxeetan.	Oraindik 3 plaka daude.
13	Igorre	Etxeetako plakak.	Oraindik hor daude.
14	Larrabetzu	Gaztelumendiko gurutzea.	Kenduta.
		Tumulua Condor Legioko kide baten omenez.	Kenduta.
15	Leioa	18 plaka etxeetan.	Kenduta.
16	Lemoa	Gurutze-bidea eta gurutzea <i>erorien</i> omenez Lemoatxen.	Oraindik hor dago. Berradierazteko prozesuan.
		Etxeetako plakak.	Oraindik hor daude.
17	Lemoiz	Ez dago informaziorik.	Ez dago ikur frankistarik.
18	Mungia	53 plaka etxeetan.	Kenduta.
19	Muxika	Francisco Francoren erretratua Artxiboan.	Kenduta.
		Francisco Franco, ohorezko alkate.	Kenduta.
20	Ondarroa	Baleares itsasontzian hildakoen omenezko gurutzea.	Ekintza bandalikoaren bidez botata.
		Baleares itsasontziaren omenezko aldea hilerrian.	Idazkuna ezabatuta dago.
		4 plaka etxeetan.	Kenduta.
21	Ortuella	Etxeetako plakak.	Kenduta.
22	Plentzia	Erretratuak eta ohorezko 3 domina.	Kenduta.
23	Portugalete	<i>Erorien omenezko monumentua</i> , hilerrian.	Oraindik hor dago. Berradierazteko prozesuan.
		138 plaka etxeetan.	Kenduta.
24	Santurtzi	"Grupo Riestra" hizkien markak	Kenduta.
		117 plaka etxeetan.	Kenduta.
		3 kaleren izenak.	Kenduta.

25	Sestao	32 plaka etxeetan.	Kenduta.
		Ohorezko titulu 1.	Kenduta.
26	Sopela	Etxeetako plakak.	Kenduta.
27	Urduña/Orduña	“Grupo Genaro Riestra” plaka.	Kenduta.
		Luis Ausín Bolloqui plaka.	Kenduta.
		26 plaka etxeetan.	Kenduta.
		Pintaketak eraikin zehatzetan: “Arriba España, Grande y Libre” eta bestelako ikur falangistak	Kenduta.
28	Zaldibar	Etxeko plaka 1.	Oraindik hor dago.
29	Zamudio	3 plaka etxeetan	Kenduta.

GIPUZKOA

	Udalerrria	2016ko otsaila	2019ko urria
1	Aduna	Belokaineko gurutzea.	Oraindik hor dago. ⁵
2	Andoain	Buruntza mendiko gurutzea.	Ikur frankistak kendu dira.
		15 plaka etxeetan.	Kenduta.
3	Beasain	Etxeetako plakak.	Kenduta.
		Kale baten (1) izena.	Aldatuta.
4	Donostia / San Sebastián	16 plaka etxeetan.	Oraindik hor daude.
5	Eibar	2 plaka etxeetan.	Kenduta.
6	Elgoibar	Morkaiko mendiko gurutzea.	Oraindik hor dago. Berradierazteko prozesuan.
		Delegación Nacional de Sindicatos taldearen plaka, Pedro Muguruza taldea.	Kenduta.
		Delegación Nacional de Sindicatos taldearen plaka, Íñiguez de Carquizano taldea.	Oraindik hor dago. Kentzeko prozesuan.
		49 plaka etxeetan.	Kenduta.
		Kale baten (1) izena.	Oraindik hor dago. Kentzeko prozesuan.
7	Errenteria	2 plaka etxeetan.	Kenduta.
		Oroimen plaka Alaberga auzoan.	Kenduta.

⁵ Sublebatuen aurkako erresistentziari buruzko informazio panel bat jarri dute Belokain mendian.

8	Eskoriatza	Tumulua Condor Legioko kideen omenez (Zarimutz).	Kenduta.
		Etxeetako plakak.	Kenduta.
9	Gaztelu	Ez dago informaziorik.	Ez dago informaziorik.
10	Ibarra	Wenceslao Mayora-ren bustoa, Izaskungo ermitan.	Oraindik hor dago. ⁶
11	Irun	46 plaka etxeetan.	Kenduta.
12	Lazkao	Etxeetako plakak.	Kenduta.
13	Leintz-Gatzaga	Ez dago informaziorik.	Ez dago ikur frankistarik.
14	Mendaro	9 plaka etxeetan.	Kenduta.
15	Mutiloa	Ez dago informaziorik.	Ez dago ikur frankistarik.
16	Mutriku	4 kaleren izenak.	Oraindik hor daude.
17	Oiartzun	<i>Erorien</i> omenezko monumentua hilerrian.	Ikur frankistak kendu dira.
18	Segura	Plaka Gipuzkoako armarriarekin.	Oraindik hor dago. ⁷
19	Urnieta	Etxeetako plakak.	Oraindik hor daude.
20	Urretxu	Ez dago informaziorik.	Ez dago ikur frankistarik.
21	Villabona	13 plaka etxeetan.	Kenduta.
22	Zarautz	12 plaka etxeetan.	Kenduta.
23	Zegama	2 kaleren izenak.	Kenduta.
24	Zerein	Plaka Gipuzkoako armarriarekin.	Oraindik hor dago. ⁸
25	Zestoa	Etxeetako plaka 1.	Kenduta.
26	Zizurkil	3 plaka etxeetan.	Kenduta.
27	Zumarraga	Delegación Nacional de Sindicatos taldearen plaka, Legazpi taldea.	Kenduta.
		15 plaka etxeetan.	Kenduta.

4. Ondorioak

1. Euskadin 1.523 ikur frankista kendu dira gutxienez; horien artean elementuak, kaleen izenak eta ohorezko tituluak daude. **2016tik 1.021 ikur kendu dira:** 125 Araban, 716 Bizkaian eta 180 Gipuzkoan.

Kendu diren elementu gehienak etxeetako plakak izan dira (985 edo gehiago). Alabaina, **erregimen frankistaren 2 armari ofizial** ere kendu dira, zehazki, Bilboko Ogasunaren Ordez-

⁶ Jarraipen honetatik kendutako elementua.

⁷ Jarraipenetik kendutako elementua, probintziako armari tradizionala izan baitzen 1513 eta 1979 bitartean; urte horretan ordezkatu zen egun dagoenarekin.

⁸ Jarraipenetik kendutako elementua, probintziako armari tradizionala izan baitzen 1513 eta 1979 bitartean; urte horretan ordezkatu zen egun dagoenarekin.

karitza Berezian eta Barakaldoko postetxean zeudenak. Horrez gain, **sublebatutako alderdiko martirren eta erorien omenezko 8 monumentu** ere kendu dira, hots, Bilbon, Eskoriatzan, Lantaronen, Larrabetzun, Legution eta Ondarroan zeudenak. Horiei gehitu behar zaizkie oraindik kendu gabe dauden, baina frankismoaren gorespen elementuak kendu zaizkien monumentuak, Andoainen, Bilbon eta Oiartzunen gertatu den bezala. Halaber, **9 sari, domina eta erretratu** kendu dira, hala nola, Francoren erretratua eta bere izendapena ohorezko alkate gisa Muxikan, edo ohorezko izendapenak eta dominak Faustino Ortiz de Zarate Beitiari eta Luis Orgazi Gasteizen. Amaitzeko, erregimen frankistarekin lotura zuten kaleen izenak kendu dira, guztira **16 kale** edo gehiago, adibidez, 3 Santurtzin (Capitán Mendizabal, Daniel Pereda eta José María Larrea izenekoak) eta beste 2 Zegaman.

2. Udalerriak aztertuta, 2014an 128 udalerritan ez zegoen ikur frankistarik; 62 udalerrik 2016ra bitartean kendu zituzten bertan zeuden ikurrak; eta 46 udalerrik azken hiru urteetan kendu dituzte.

	Udalerrri kopurua	Ikur frankistarik ez 2014	Ikur frankistarik ez 2016	Ikur frankistarik ez 2019
ARABA	51	31	41	48
BIZKAIA	112	66	83	103
GIPUZKOA	88	31	61	85
EUSKADI	251	128	190	236

3. Oraindik elementu frankistak geratzen dira Euskadiko 15 udalerritan sakabana-tuta. Gehinak etxeetako plakak dira, baina beste batzuk ere badaude: erregimen frankistaren bi armarri ofizial Gasteizen (katedral berrian eta antzinako Justizia Jauregian, Olaguibel kalean); 2 gurutze Barakaldon eta Erandion bi ontzi-espexitan hildako presoaren omenez; medietan bi gurutze erorien omenez, bata Lemoatxen eta bestea Morkaiko mendian; bi monumentu-panteoi erorien omenez Getxoko eta Portugaleteko hilerrietan. Katalogoan agertzen diren kaleen izenei dagokionez, hainbat udalerrik mantendu egin dituzte, horrela erabaki dutelako.

ARABA

	Udalerrria	Oraindik hor dauden ikurrak
1	Lantaron	<i>Corpo Truppe Volontaire</i> -en harrizko plaka, Fontetxan.
2	Laudio/Llodio	Etxeetako plakak.
3	Vitoria-Gasteiz	Armarri ofiziala antzinako Justizia Jauregian, Olaguibel kalean.
		Armarri ofiziala katedral berrian.
		87 plaka etxeetan.

BIZKAIA

	Udalerrria	Oraindik hor dauden ikurrak
1	Barakaldo	Cabo Quilates itsasontziari egindako erasoaren gurutzea. Kentzeko edo berradierazteko prozesuan.
2	Basauri	55 plaka etxeetan.
3	Bedia	Etxeetako plakak.
4	Erandio	Erorien gurutzea Altunamendin, Axpeko dartsenan. Kentzeko edo berradierazteko prozesuan. 9 plaka etxeetan.
5	Getxo	Hilarria, "Caídos por Dios y por España en Guecho" ("Getxon eroriak Jainkoaren eta Espainiaren alde"). 3 plaka etxeetan.
6	Igorre	Etxeetako plakak.
7	Lemoa	Gurutze-bidea eta gurutzea erorien omenez Lemoatxen. Berradierazteko prozesuan. Etxeetako plakak.
8	Portugalete	<i>Erorien</i> omenezko monumentua, hilerrian. Kentzeko edo berradierazteko prozesuan.
9	Zaldibar	Etxeko plaka.

GIPUZKOA

	Udalerrria	Oraindik hor dauden ikurrak
1	Donostia / San Sebastián	16 plaka etxeetan.
2	Elgoibar	Morkaiko mendiko gurutzea. Berradierazteko prozesuan. Delegación Nacional de Sindicatos taldearen plaka, Íñiguez de Carquizano taldea. Kentzeko prozesuan. Kalearen izena.
3	Urnieta	Etxeetako plakak.

Onartu beharra dago udalerrri gehienetan interesa erakutsi dutela elementu horiek kentzeko ekimenak sustatzeko.

I. eranskina.

Euskadin kendutako ikur frankistak

ARABA

	Udalerrria	Kendutako ikurrak
1	Agurain/ Salvatierra	13 plaka etxeetan.
2	Amurrio	32 plaka etxeetan.
3	Artziniega	Etxeetako plakak.
4	Zieko	Sindikatu bertikalaren plaka 1.
5	Laguardia	Etxeetako plaka 1.
6	Lantaron	<i>Erorien</i> gurutzea, Caicedo plazan.
7	Lapuebla de Labarca	4 plaka etxeetan.
8	Legutio	Nafarroako dibisioko <i>erorien</i> omenezko monumentua.
		1937an Urbinan hildako hiru militar alemanen omenezko hilarria.
		2 plaka etxeetan.
9	Laudio/Llodio	Etxeetako plakak.
10	Okondo	Etxeetako plakak.
11	Vitoria-Gasteiz	<i>Erorien</i> omenezko monumentua.
		Olarizu mendiko gurutzea (plaka azalpenarekin).
		220 plaka etxeetan.
		Hiriak Faustino Ortiz de Zarate Beitiari eta Luis Orgazi eskainitako ohorezko sariak eta dominak.

BIZKAIA

	Udalerrria	Kendutako ikurrak
1	Abadiño	7 plaka etxeetan.
2	Abanto-Zierbena	18 plaka etxeetan.
3	Alonsotegi	Etxeetako plakak.
4	Areatza	2 plaka etxeetan.
5	Balmaseda	<i>Erorien</i> omenezko monumentua.
		Etxeetako plakak.

6	Barakaldo	Armarri frankista postetxean.
		<i>Erorien</i> omenezko monumentua.
		7 plaka etxeetan.
7	Basauri	140 plaka etxeetan eta antzekoak.
8	Bilbo	Armarri Ogasunaren Ordezkaritza Berezian.
		<i>Erorien</i> omenezko monumentua Doña Casilda Iturrizar parkean.
		Egiletako gurutzea, Santo Domingon.
		<i>Bilboko martirren omenezko kripta-monumentua</i> , hilerrian.
		<i>Fusilamenduen harresiaren gaineko monumentua</i> , hilerrian.
		<i>Inork erreklamatu ez dituen bando nazionalako erorien omenezko monumentua</i> , hilerrian.
		<i>Martirren eta erorien</i> izenak Bizkaian, Jesusen Bihotzean dagoen monumentuko idulkian.
		<i>Martirren eta erorien</i> izenak Arkitektoen Elkargo Ofizialean.
		<i>Martirren eta erorien</i> izenak eskola publikoetan eta unibertsitateetan.
		Fernando María de Ibarren inskripzioa Miserikordiako etxeke lorategietan.
		Hiru horma-irudi zeramiko Bilboko zezen-plazako kuadrilla-patioan.
		Ikur frankista Sorkunde kaleko Udal Musika Eskolako barruko patioan, lurrean.
		Ikur frankista Sorkunde kalean, lurrean.
		137 plaka etxeetan.
Francisco Franco, ohorezko alkate.		
10 kaleren izenak.		
9	Durango	Kanpainako <i>martirren</i> eta <i>erorien</i> omenezko kapera-mausoleoa.
		21 plaka etxeetan.
10	Erandio	13 plaka etxeetan.
11	Ermua	17 plaka etxeetan.
12	Etxebarri	10 plaka etxeetan.
13	Galdakao	59 plaka etxeetan.
14	Gernika-Lumo	<i>Erorien</i> omenezko gurutzea.
15	Getxo	<i>Martirren eta erorien</i> omenezko monumentua.
		10 plaka etxeetan.
16	Larrabetzu	Gaztelumendiko gurutzea.
		Tumulua Condor Legioko kide baten omenez.

17	Leioa	18 plaka etxeetan.
18	Mañaria	Saibigaingo gurutzea (Ikur frankistak kendu dira).
19	Mungia	53 plaka etxeetan.
20	Muxika	Francisco Francoren erretratua Artxiboan.
		Francisco Franco, ohorezko alkate.
21	Ondarroa	Baleares itsasontzian hildakoen omenezko gurutzea.
		Baleares itsasontziaren omenezko aldea hilerrian (inskripzioak ezabatu dira).
		4 plaka etxeetan.
22	Ortuella	Etxeetako plakak.
23	Plentzia	Erretratuak eta ohorezko 3 domina.
24	Portugalete	138 plaka etxeetan.
25	Santurtzi	“Grupo Riestra” hizkien markak
		117 plaka etxeetan.
		3 kaleren izenak.
26	Sestao	32 plaka etxeetan.
		Ohorezko titulu 1.
27	Sopela	Etxeetako plakak.
28	Urduña/Orduña	“Grupo Genaro Riestra” plaka.
		Luis Ausín Bolloqui plaka.
		26 plaka etxeetan.
		Irudia Udaletxearen fatxadan.
		Osoko bilkuren aretoko zazpi aulkitan grabatuta dauden armarrak frankistak ezkutatu dira.
		Pintaketak eraikin zehatzetan: “Arriba España, Grande y Libre” eta bestelako ikur falangistak.
29	Zalla	48 plaka etxeetan.
30	Zamudio	3 plaka etxeetan

GIPUZKOA

	Udalerrria	Kendutako ikurrak
1	Andoain	Buruntza mendiko gurutzea (Ikur frankistak kendu dira).
		15 plaka etxeetan.
2	Aretxabaleta	16 plaka etxeetan.

3	Arrasate/ Mondragón	7 plaka etxeetan.
4	Beasain	Etxeetako plakak. Kale baten (1) izena.
5	Bergara	14 plaka etxeetan.
6	Donostia / San Sebastián	Armarri Itsas Komandantzian. Erorien omenezko monumentua San Telmo plazan. Fusilatuen omenezko monolitoa Ondarretan. Balears itsasontzia hondoratu zenean hil zirenen omenezko ermita.
7	Eibar	Akondia mendiko gurutzea. 2 plaka etxeetan.
8	Elgoibar	Delegación Nacional de Sindicatos taldearen plaka, Pedro Muguruza taldea. 49 plaka etxeetan.
9	Erreterria	2 plaka etxeetan. Oroimen plaka Alaberga auzoan.
10	Eskoriatza	Tumulua Condor Legioko kideen omenez (Zarimutz). Etxeetako plakak.
11	Hernani	2 plaka etxeetan.
12	Hondarribia	<i>Erorien</i> omenezko gurutzea.
13	Irun	Erorien omenezko gurutzea San Martzial mendian. 46 plaka etxeetan. 4 kaleren izenak.
14	Lazkao	Etxeetako plakak.
15	Mendaro	9 plaka etxeetan.
16	Oiartzun	<i>Erorien</i> omenezko monumentua hilerrian (Ikur frankistak kendu dira).
17	Pasaia	7 plaka etxeetan.
18	Tolosa	<i>Erorien</i> omenezko monumentua. 15 plaka etxeetan. Plaka Nafarroako etorbidean. Delegación Nacional de Sindicatos taldearen plaka, Capitán P. Zabala taldea.
19	Urretxu	Kale baten (1) izena. Francisco Franco, ohorezko alkate.
20	Villabona	13 plaka etxeetan.

21	Zarautz	12 plaka etxeetan.
22	Zegama	2 kaleren izenak.
23	Zestoa	4 plaka etxeetan eta antzekoak. Erreketen erorien omenezko monumentua Iraetan.
24	Zizurkil	3 plaka etxeetan.
25	Zumarraga	Delegación Nacional de Sindicatos taldearen plaka, Legazpi taldea. 15 plaka etxeetan.

II. eranskina.

Gogorak emandako dirulaguntzak

URTEAK	Udalerriak	Emandako dirulaguntza
2017	3	6.724,79 €
2018	3	7.970,85 €
2019	1	505,30 €
Guztira	6⁹	15.200,94 €

Dirulaguntzen banaketa urtez urte:

2017

Udalerria	Kontzeptua	Eskatutako dirulaguntza	Emandako dirulaguntza
Larrabetzu	Gaztelumendiko gurutzea kentzea	2.676,00 €	2.676,00 €
Legutio	Tumulua	1.743,27 €	567,89 €
Amurrio	Plaka frankistak kentzea Goikolarra auzoan	5.434,45 €	3.480,90 €
Vitoria-Gasteiz	Ikur frankistak kentzea	600,00 €	600,00 € ¹⁰
Guztira		10.453,72 €	7.324,79 €

2018

Udalerria	Kontzeptua	Eskatutako dirulaguntza	Emandako dirulaguntza
Santurtzi	Ikur frankistak zituzten etxeetako plaken zerrenda eta horiek kentzea	2.900,00 €	2.427,36 €
Legutio	Tumulua	1.175,39 €	1.175,39 €
Irun	Etxeetako plaka frankistak kentzea	5.753,55 €	4.368,10 €
Guztira		9.828,94 €	7.970,85 €

9 Legutioko udalak (Araba) dirulaguntza jaso zuen bai 2017an bai 2018an; horregatik, dirulaguntza jaso zuten udalerriak guztira 6 dira, ez 7.

10 Gasteizko udalari emandako 600 euroak bueltan jaso ziren, udalak ez baitzuen lortu pentsatuta zeukan esku-hartzea bideratzea.

2019

Udalerrria	Kontzeptua	Eskatutako dirulaguntza	Emandako dirulaguntza
Urduña/ Orduña	Foru Plazako inskripzio frankistak kentzea	505,30 €	505,30 €
Guztira		505,30 €	505,30 €





8

● dokumentua

Euskal Erkidegoko Memoria Historikoaren
eta Demokratikoaren arloko Legearen
aurreproiektuaren zirriborroa



Euskal Erkidegoko **Memoria
Historikoaren eta
Demokratikoaren arloko
Legearen** aurreproiektuaren
zirriborroa

Bilbo, 2019ko iraila

Memoriaren,
Bizikidetzaren eta
Giza Eskubideen
Institutua

gogora

Instituto de la Memoria,
la Convivencia
y los Derechos Humanos

Euskadi, auzolana, bien común



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**



Euskal Erkidegoko **Memoria**
Historikoaren eta
Demokratikoaren arloko
Legearen aurreproiektuaren
zirriborroa

Bilbo, 2019ko iraila

Edukia

Zioen azalpena.

Xedapen Orokorrak.

1. artikulua. Xedea.
2. artikulua. Printzipio Orokorrak.
3. artikulua. Hartzaileak.

I. kapitulua: Egia jakiteko eskubidea.

4. artikulua. Egia ezagutzeko ikerketa.
5. artikulua. Gerra Zibilean eta diktadura frankistan, 1936-1978 epean, Euskal Autonomia Erkidegoan urratutako giza eskubideei buruzko oinarritzko txostena.

II. kapitulua: Justizia izateko eskubidea.

6. artikulua. Elkarlana Justizia Administrazioarekin.
7. artikulua. Zantzuak egonik, egindako delituen berri ematea.
8. artikulua. Prozesu-egintzak.
9. artikulua. Nazio mailako eta nazioarteko organismoen gomendioen sustapena eta jarraipena.

III. kapitulua: Aitortza eta erreparazioa izateko eskubidea.

10. artikulua. Aitortza orokorra.
11. artikulua. Erakundeen neurriak eta egintzak, gerra zibileko eta diktaturako biktimak gogoratzeko eta aitortzeko.
12. artikulua. Kaltea konpontzeko neurriak.

IV. kapitulua: Dibulgazioa eta hezkuntza.

13. artikulua. Memoria Historikoaren dibulgazioa.
14. artikulua. Memoria Historikoaren ekarpenak hezkuntzan.

V. kapitulua: Pertsona desagertuak bilatzeko eta identifikatzeko neurriak.

15. artikulua. Gerra Zibilean eta diktadura frankistaren garaian desagertutako pertsonen bilaketa.
16. artikulua. Gorpu-hondarren kokapenaren mapa.
17. artikulua. Biktimen bilaketa, hobitik ateratzea eta identifikazioa.
18. artikulua. Gorpuzkiak ustekabean aurkitzea.
19. artikulua. Proba genetikoak eta DNA-bankua.
20. artikulua. Elkarlana beste gobernu batzuekin eta EAETik kanpoko erakundeekin.
21. artikulua. Erorien Harana (Cuelgamuros).
22. artikulua. Duintasunaren Kolunbarioa.

VI. kapitulua: Memoriako lekuak, guneak eta ibilbideak.

23. artikulua. Euskadiko Memoria Historikoko lekuak, guneak eta ibilbideak.

VII. kapitulua: Memoria Historikoaren kontrako elementuak.

24. artikulua. Euskadiko Memoria Historikoaren kontrako elementuak.
25. artikulua. Memoria Historikoaren kontrako elementuak kentzea.

26. artikulua. Sari, izendapen, titulu eta ohore instituzionalak kentzea.

27. artikulua. Laguntzak eta diru-laguntzak.

VIII. kapitulua: Euskadiko Memoria Historikoari buruzko dokumentuak.

28. artikulua. Euskadiko Memoria Historikoari buruzko dokumentuak eta beren babesa.

29. artikulua. Euskadiko Memoria Historikoari buruzko dokumentuak gorde-tzea eta eskuratzea.

30. artikulua. Dokumentu-funtsak berreskuratzea.

31. artikulua. Dokumentuak atzitzeko eskubidea.

32. artikulua. Euskadiko Memoria Historikoaren Dokumentazio Zentroa.

IX. kapitulua: Erakunde memorialisten onarpena, sustapena eta partaidetza.

33. artikulua. Mugimendu memorialistaren onarpena.

34. artikulua. Erakunde memorialisten jardueraren sustapena.

35. artikulua. Euskadiko Memoria Historikoko Erakundearen Erregistroa.

36. artikulua. Euskadiko Memoria Historikoko Erakundearen partaidetza.

X. kapitulua: Jarduera eta antolakuntza administratiboa.

37. artikulua. Gogora, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua.

38. artikulua. Lau urterako Jarduera Plana.

39. artikulua. Elkarlana tokian tokiko elkarteekin.

XI. kapitulua: Zehapen araubidea.

40. artikulua. Araubide juridikoa.

41. artikulua. Arau-haustea.

42. artikulua. Kalifikazioaren astungarria.

43. artikulua. Zehapenak.

44. artikulua. Prozedura.

45. artikulua. Zehatzeko eskumena.

Xedapen gehigarriak.

Lehenengo xedapen gehigarria. Diruzko erreparazio-neurriak.

Bigarren xedapen gehigarria. Memoria Historikoaren Lekuak, Guneak eta Ibilbideak.

Lehenengo xedapen iragankorra. Izapidetutako prozedurak.

Bigarren xedapen iragankorra. Dokumentu-funtsak berreskuratzea.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Azken xedapenetan lehena. Araudiaren garapena.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarrean sartzeari.

Zioen Azalpena

I.

Euskadin demokrazia jardundako berrogei urtetik gora esperientziak eta memoria historikoa eta demokratikoa (2014an Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzearen une gogoangarriarekin) berreskuratzeko erakunde-konpromisoa hartu den hamabost urtetik gorako esperientziak aukera ematen dute heldutasunez idazteko gerra zibilaren eta diktadura frankistaren memoria historikoaren berreskurapena finkatzeko eta burutzeko xedea duen lege hau. Inoiz gertatu beharko ez zitezkeen eta berriro errepikatu behar ez diren gertakarien bidegabekeria jasan zuten biktimak gogoratuz egingo dugu. Memoria berreskuratzea, aldi berean, etorkizunerako ariketa bat da. Memoriak hartzen duen ondare demokratikoa egungo eta etorkizuneko bizikidetzaren demokratikoaren oinarri gisa hartu behar da, baita balio etikoak eta oinarri demokratikoak sustatzeko bultzatzaile gisa ere.

Euskadik 1936an Bigarren Errepublikaren kontra egindako kolpe militarren eta ondoren etorri zen gerra zibilaren ondorioak jasan zituen. Epe honetan, Euskadiko Autonomia Estatutua gauzatu zen, 1936ko urriaren 1ean Gorteek onartu zutena, eta ondorioz, lehen Eusko Jaurlaritza eratzea 1936ko urriaren 7an.

Kolpe militar honek, gerra zibila eragin eta estatu ilegala ezartzeaz gain, diktadura garai luze baten aurrekaria izan zen, zurrun mantendu zena 1978an Konstituzioa onartu zen arte. Bi gertakariak, gerra zibilak eta diktadurak, eragin traumatikoa izan zuten euskal gizartearen eta gerraren eta diktadura frankistaren biktimengan, ikuspegi demokratiko batetik begiratuta, nazioarteko zuzenbidearen bortxaketa eta giza eskubideen urraketa ekarri zituzten.

Euskadiko memoria demokratikoa eraikitzea, lehenaldiaren oroimen horretatik eta ezagutza historiko zehatzenetik abiatuta kultura demokratikoa indartzeko modu sendoena da, ukapen diskurtsoei, bazterkeriari eta tolerantzia ezari aurre egiteko, bizikidetzaren demokratikoaren oinarritutako etorkizuna ziurtatuz.

II.

Euskadiko Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren Legea giza eskubideen nazioarteko zuzenbidean sartzen da eta Euskal Autonomia Erkidegoaren beraren jardueraren esparruan errotzen diren diziplina hartako betebeharreri erantzungo eta edukia emango die.

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaz (1948) eta eskubide zibilen eta politikoen nazioarteko itunez harago, batetik, eta eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen harago, bestetik (1966), benetako konstituzionalitate-bloke unibertsal gisa, arlo honetako ezinbesteko erreferentzia-puntua 60/147 Ebazpena da, Batzar Nagusiak 2005eko abenduaren 16an onartua. Ebazpen hori oinarrizko printzipioei eta jarraibideei buruzkoa da, giza eskubideen nazioarteko arauen ageriko urraketari eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketari begira, biktimek errekurtsioak jartzeko eta ordainak jasotzeko duten eskubideari buruz. Ebazpen horretan, egitarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubidearen tripodea egituratzen hasten da oinarri demokratikoaren eta zuzenbidezkoaren nazioarteko zuzenbide penaleko eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren krimen larrienek suntsitutako edozein gizarteri sortzen lagundu beharko luketen gutxienekoen programa arauemaile gisa.

Aipatutako *Oinarriek* biktimei eta gizarte osoari laguntzen dioten eskubideen dimentsio bikoitz batera zuzentzen dute, banakoena eta taldekoa, giza eskubideen urraketa sistematikoaren patroiak zein izan ziren ezagutzeko elementu gako gisa. Elementu horretatik abiatuta, etorki-

zunean, krimen horiek saihesteko programa arauemaileak ezarri nahi dira, eta, aldi berean, bizikidetzaren oinarri demokratikoak finkatuz eta indartuz joan nahi da. Erreparatu daitekeena erreparatzea da helburua, zer gertatu zen jakitea hura errepikatzea saihesteko, eta, halako moduz, non egiak nazioartean hazten ari den eskubide gisa biktimei eta gizarte osoari lagun diezaion Zuzenbideko Estatuaren filosofian egituratutako itun sozial berri baten eragiletzat. Ondorio horietarako, 2011ko irailaren 29an Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluaren 18/7 Ebazpenak *egiaren, justiziaren, erreparazioaren eta berriz ez gertatzeko bermeen sustapenerako errelatore bereziaren* mandatua ezarri zuen. Horrek agerian jartzen du estatu demokratiko orok premia saihetsezina duela aurre egiteko, baita legegintzako neurriekin ere, giza eskubideen nazioarteko arauen ageriko urraketak eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larriak gertatu diren egoerei. Egia, justizia eta erreparazioa, horrela, behin betiko lotuta geratuko dira berriz ez gertatzeko neurriei ahaleginak etorkizunaren aldeko memoria demokratiko bate-rantz bideratzeko bektore gisa.

Programa arauemaile hau hazten ari den nazioarteko estandar gisa Espainiako ordenamendura eskualdatzen da Espainiako Konstituzioaren 10.2 artikulua bitartez. Artikulu horrek oinarriko eskubideei eta askatasunei buruzko arauak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalarekin eta Espainiak berretsitako gaiei dagokienez nazioarteko itun eta akordioekin bat etorrita interpretatzera behartzen du. Hori dela eta, abenduaren 26ko 52/2007 Legeak, Gerra zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak onartzen eta zabaltzen dituena, eta haien aldeko neurriak ezartzen dituena, Memoria historikoaren Legetzat ezaguna, nazioarteko estandarrekin zuzenean lotuta dago eta barne-jurisdikziora ekartzen du programa arauemaile hura.

Euskadiko Memoria historikoaren eta demokratikoaren Legeak jarduera-ildo horretan jarraitzen du eta hura garatzen du, bere eskumenen arabera. Autonomia Estatutuaren 9. artikulua printzipio gidari gisa ezartzen du botere publikoek hiritarren oinarriko eskubide eta betebeharren erabilpen egokia zaindu eta bermatuko dutela eta bizitzeko kondizioen hobekuntza ekar dezakeen politika bultzatuko dutela bereziki. Botere publikoei dagokie, baita ere, gizabanakoaren eta berori sartuko den taldeen askatasuna eta berdintasuna zinezkoa eta egiazkoa izan daitezen, liriatekeen oztopoak erauzteko eta aldeko kondizioei eragiteko neurriak hartzea. Betebehar hori Espainiako Konstituzioaren 9.2 artikulua edukiarekin lotuta dago, eta, neurri horretan, gizabanakoaren eta, azken finean, gure gizartearen babes- eta erreparazio-esparrua, eztabaidarik gabe denboragabea dena. Aurretiko oinarri horren gainean, Euskadiko Memoria historikoaren eta demokratikoaren Legea Gernikako Estatutuaren 10.39 artikulua bitartez Euskal Autonomia Erkidegoari dagokion eta garapen komunitarioa bereziki aipatzen duen eskumen-tituluan oinarritzen da. Euskal lege horrek nazioarteko estandarrak eta estatuko oinarri arauemaileak areagotzen eta zabaltzen ditu, osagarri moduan, bere arloan, eta bere erreferentziazko komunitatean proiektatzen ditu, kalitate handiagoko kultura demokratiko baten eta giza eskubideak betetzeko estandarrak igotzearen alde.

III.

Euskadiko Memoria historikoaren eta demokratikoaren Legeak, ordea, ez du arlo horretako jardun publiko eta instituzionala hutsetik hasten. Aldiz, urrats berria da eta orain arte garatutako ekintzen bolumena bultzatu, zabaldu eta segurtasun juridikoa ematen dio. Laurogeiko hamarkadaz geroztik, gerra zibilak eta ondorengo errepresioak kaltetutako pertsonak kontuan zituzten jarduerak hasi ziren:

- 11/1983 Legea, ekainaren 22koa, Euskal Herriko Autonomia-Arduralaritzari zerbitzu egindako lanarien lanbide eta gozamen-eskubideekikoa;
- 8/1985 Legea, urriaren 23koa, Euskal Herriko Autonomiazko Arduralaritzan zerbitzu egin zuen langilegoaren lanbide eta gozamen-eskubideei buruzko ekainaren 22ko 11/1983 Legea osatuzkoa;
- 1/1986 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 13koa, Euskal Herriko autonomia-administrazioan bere zerbitzuak egin zituen langilegoaren lanbide eta gozamen-eskubideei buruzko eraberritutako idazkera onartuzkoa;
- 8/1994 Legea, maiatzaren 27koa, Euskal Autonomi Elkarrekin kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanetarako (3.2 eta 11 artikulua);
- 3/2002 Legea, martxoaren 27koa, ikastolak legez normalizatu aurretik ikastetxe horietan irakasten aritutakoak aintzat hartzeari eta ordaina emateari buruzkoa;
- 280/2002 Dekretua, azaroaren 19koa, Amnistiari buruzko Legean jasotako kasuen ondorioz askatasun-gabetzea jasan zuten pertsonentzako konpentsazioari buruzkoa;
- 99/2003 Dekretua, maiatzaren 6koa, ikastolak legez normalizatu aurretik ikastetxe horietan irakasten aritutakoak aintzat hartzeari eta ordaina emateari buruzko martxoaren 27ko 3/2002 Legea garatzen duena;
- 22/2006 Dekretua, otsailaren 14koa, askatasun-gabetzea jasandako pertsonen, Langile Soldaduen Diziplina Batailoietan egondakoei barne, konpentsazio ekonomikoak emateko ebazpenak ezartzen dituena, Amnistiari buruzko Legean jasotako kasuen ondorioz askatasun-gabetzea jasan zuten pertsonentzako konpentsazioari buruzko azaroaren 19ko 280/2002 Dekretuan araututako baldintza eta betebeharrak izan ditzaten, arau honetan aurreikusitako prozedura-aldaketak salbu.

Baina mende-aldaketarekin areagotu ziren, ordea, politika publiko mota horiek eta ikusgarritasun handiagoa hartu zuten begirada hondakinak berreskuratzean eta hobiak irekitzean jarri zenean 2002ko abenduaren 10ean; une bereziki sinbolikoa izan zen Gobernu Kontseiluak sailen arteko batzorde bat eratu zuenean gerra zibilean desagertutako pertsonen hobiak ikertzeko eta lokalizatzeko. Horrek erakusten zuen eta finkatu egiten zuen Euskal Autonomia Erkidegoaren lidergo-kokapena memoria historikoa berreskuratzearen arloan, ordurako norabide argia zuena justizia, egia eta erreparazioa hartzigarri demokratikoa izan zitezen. Horren ondorio garrantzitsuena 2003an Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailaren eta Aranzadi Zientzia Elkarrekin artean lankidetzaren hitzarmen bat sinatzea izan zen. Elkarrekin hori aitziindaria izan zen estatu osoan gerra zibileko hobi komunak desehorztzen eta errepresio frankista ikertzen. Hitzarmen horri esker, memoria-ekintzei etenik gabe eman zaie jarraipena eta erreferentzia izan da Estatu mailan.

Une horretatik aurrera, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek edo udalek ezin konta ahala ekimen jarri dituzte abian, antolatutako gizarte zibilaren beraren eta gerra zibilaren eta diktadura frankistaren biktimen familiartekoen lankidetzarekin eta, askotan, gizartearen bultzadarekin. Modu horretan, askotariko ekimenak hedatuz joan dira, hala nola, diktadura frankistaren kontrako borrokaren leku sinbolikoak berreskuratzeko ekimenak, gorpuzkiak berreskuratzeakoak, artxiboak berrantolatzeakoak, ikerketak eta gertakari historikoen dibulgazioa, datu baseak egitea, testigantzak jasotzea, eta abar luze bat.

Memoria historikoa eta bereziki biktimen erreparazioaren bidean beste salto kualitatiboa, izan da 107/2012 Dekretua, ekainaren 12koa, onartzea, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak emateko.

Memoriari buruzko politika publikoen instituzionalizazioaren beste urratsa garrantzitsua izan zen azaroaren 27ko 4/2014 Legea, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua (Gogora) sortzen zuena. Hain zuzen ere, erakunde hori izango da euskal erakunde-arloan politika mota horiek sistematikoki bultzatzeko organo zentrala.

Bere sorreratik, Gogora Institutuak lau urtetarako plana onartu eta garatu du memoria historikoa ikertzeko eta zabaltzeko hainbat ekimenekin eta gerra zibilaren eta diktadura frankistaren biktimak aitortzeko eta omentzeko hainbat ekitaldirekin. Hori guztia bere Administrazio Kontseiluan ordezkaturako aniztasunaren akordio-maila handiarekin egin du. Hasieran egindako bide honetan Gogorak, parte-hartzeko espazioak bultzatu ditu, biktimen familiekin, memoriaren aldeko elkarteekin eta tokiko erakundeekin etengabeko harremana izatea finkatuz, batez ere, hezkuntza arautuko ikasleekin. Ildo berean, bere Dokumentazio Zentroa erreferentziazkoa bilakatu da, gai hauekin lotutako gordailutze eta kontsultarako.

IV.

Gogoraren sorrera Legeak eratu zuen memoriaren politika publikoak garatzeko sujetu instituzionala eta helburu horiek aurrera eramateko beharrezkoak zituen eskumenak. Modu osagarrian, orain garatzen den baliabide legalak bateratu eta zehaztu egiten ditu jarduerak.

Azken bi hamarkadetan gerra zibilaren eta diktadura frankistaren biktimen errekonozimendua eta memoria historikoaren egiaren erreparazioa gizarte eragile eta erakundeen misio partekatua izan da eta adostasun zabalarekin garatu da. Lege hau misio horren ispilu normatiboa da eta amaieraraino modu partekatuan egiteko asmoaren islada.

Lege horrek Euskal Autonomia Erkidegoko memoria historikoko politikak bateratu eta harmonizatzeko behar den lege-egitura integrala sortzearen beharrari erantzun nahi dio.

Hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Memoria historikoaren eta demokratikoaren Legeak, politika publikoak bateratzeaz gain, horien edukiei zehaztasuna eta segurtasun juridikoa ematen laguntzen du. Eta horrek guztiak iraganeko Memoria kritikoa finkatzen laguntzen du, bere beharrezko etorkizuneko bokazioarekin.

Euskal Autonomia Erkidegoko Memoria historikoren eta demokratikoaren Legeak ez du atzerantz begiratzen Gerra Zibilak eta ondorengo errepresioak Euskal Herrian sortu zuten bidegabeko sufrimendu eta suminean harrapatuta, atera ezinik geratzeko. Legearen xedea, atzera begira, Memoria Historikotik dator, baina, bere begirada, eta, helburu nagusia, Demokrazia-rantz doa. Koherentzia, sakontasuna eta sustapen instituzionala eman nahi die egia, justizia eta erreparazioa gauzatzen lagundu dezaketen politika publikoei; barne hartuko ditu berriz ez gertatzeko neurriak eta 1936. eta 1978. urteen artean gertatutako giza eskubideen urratze larriak ez errepikatzeke neurriak. Gizarteek fenomeno makrokriminalak jasaten dituztenean, bai gizarteriaren aurkako delituak direnean, bai gerrako krimen larriak direnean, Justizia Administrazio-ko eskema tradizionalak ez dute indarrik izaten eta bereziki blokeaturik egoten dira. Adibidez, hori gertatu da Espainiako Gerra zibilaren kasuan; gerraren ondoren, diktadura-garai luze bat izan zen, eta horrek errepresioa luzatu zuen Demokrazia iritsi arte.

Gizarte justu, bakegile eta bizitzeko harmonia duenak, halabeharrez, dena zaintzen duen tentsio bat behar du, denbora luzez egongo dena, eta ezinbesteko justizia-ekintza gisa gizartearen zauri larriak sendatzen lagunduko duena. Izan ere, demokrazia ezin da ezarri bere berme guztiekin eta modu indartsu eta iraunkorrean, ezin badu aniztasun ideologikoko eztabaida publiko legitimoa egiteko baldintzarik sortu, betiere iraganeko giza eskubideen urratze larri eta sistematikoen kausak eta efektuak ezagutuko diren esparru batean, gizarte zibilarentzako an-

tidotoa izateko. Horrela, Zuzenbide Estatuari errespetua izango dio gizarteak, eta giza eskubi-deak ezinbesteko abiapuntu nuklearra izango dira, horietan oinarrituta, bere desadostasunak demokratikoki antolatzen.

V.

Memoria historikoaren eta demokratikoaren Legeak hamaika atal ditu, eta orain hasten den testua amaitzen duten xedapen multzoa. Legearen xedea eta helburua, horren oinarri diren printzipio orokorrak eta hartzaileak jasotzen dituzte hasierako Xedapen Orokorrak.

I. atalak Egiarako Eskubidea jasotzen du. Gizarteak bere osotasunean duen eskubide bat da, eta, batez ere, biktimek. Helburu du gerra zibilean eta diktadura frankistan gertatutakoa ezagutaraztea. Horretarako, ekimen publikoko hainbat ildo zehatz lanean hasi dira, gerra zibileko eta diktadura frankistaren biktimek identifikatzeko ikerketak sustatzeko. Ekimen horiek errepresio-ko erregimen batek, oinarrizko askatasunik ez zuenak, gizartearen osotasunean gauzatutako bidegabekeria politikoa eta historikoa argituko dute.

II. atalak Justiziarako Eskubidea jasotzen du; Justizia Administrazioaren laguntzarekin batera zenbatutako biktimek justiziarako eskubidearen alde, edo gorpuzkiak aurkitzean delituren bat egon dela adierazten duen aztarnaren bat dagoen edo ez jakinaraztea. Hori guztia, Arartekoren eta nazioarteko instituzioen gomendioak jarraituta, justiziarako eskubidea eraginkorra egiteko eta inpunitatea ekiditeko sustapen-neurrien arloan.

III. atalak biktimen eskubidea arautzen du, beren aitortza- eta erreparazio-eskubidea bermatzeko. Atalak aitortza orokorrerako eskubidea arautzen du, izaera instituzionala duen pertsonalizatutako dokumentu baten bitartez; azken hori Eusko Jaurlaritzak ematen du. Gainera, Gerra Zibilaren eta Frankismoko biktimen oroimenerako eta omenaldirako egun bat ezartzeko beharra adierazten du; Gogorari dagokio biktimen aitortza- eta omenaldi-ekintzak egitea; eta instituzioen arteko akordio bat bultzatzeko beharra adierazi du. Akordioa ahalik eta indar politiko gehienek eta ahalik eta anitzenez osatu eta babestu beharko lukete, eta Memoria Historikoaren erreparazioa instituzionalizatuko duen adierazpen bat oinarri izanda egin beharko litzateke.

IV. atalak dibulgazio- eta hezkuntzako zereginen erreparatzen die. Zeregin horiek ezinbestekoak dira lege honetan, memoria bermatzeko eta gertatutakoaren inguruko hausnarketa kritikoa sortzeko. Horretarako, lehenik eta behin, memoriaren dibulgazio-neurriak landu behar dira; adibidez, Gogoraren Dokumentazio Zentroa sendotzea, erakusketa eremu bat sortzea Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko egoitzan bertan edo "Gernika 1937 Bakearen Museoa" museoari bultzada berri bat ematea. Gainera, ondorengo arloetan jarduerak antolatzen beharra azpimarratzen da; hala nola, Bigarren Errepublikatik Demokraziarako aldiari buruzko ikerketak, biltzarrak, jardunaldiak, erakusketak eta Euskal Autonomia Erkidego-ko memoria historiko eta demokratikoa hedatuko duten edozein ekintza.

Bigarrenik, Hezkuntza Sailarekin lankidetzaz ezinbestekoa da, euskal curriculumean Memoria Historikoa sartzeko euskarri didaktikoak osatzeko. Heziketa-lan hau beste jardueren mota batzuekin osatu beharko da; adibidez, ikasleei zuzendutako erakusketak, ibilbideak edo eremuak bisitatzea. Horrela, ikasleek Euskal Autonomia Erkidegoan garai hartan gertatutakoa dakitela berma daiteke.

Lege honen V. atalak diotenaren arabera, Gogorari dagokio Gerra Zibilean desagertutako pertsonak aurkitu eta identifikatzeko ekitea, eta aurkitzean, identifikatzea. Prozesu horiek ezarritako protokoloari jarraituz egingo dira. Gainera, aipatutako institutuari dagokio hobien mapa

egitea, desagertutako senideekin komunikatzea eta desagertutako pertsonen gorpuzkiei zuzendutako kolunbarioak gogoratzea eta omentzea.

Halaber, Legeak ezartzen du beste autonomia-instituzioekin edo Espainiako Gobernuarekin hitzarmenak sinatu behar direla, ahalik eta desagertutako pertsona gehien berreskuratzeko, eta zehazki, Erorien Haranean dauden gorpuzki hobiratuak berreskuratzeko beraien senitartekoek horrela eskatzen dutenean.

VI. atalak Euskal Autonomia Erkidegoko Memoria Historikoaren ibilbide eta espazioen gaiei heltzen die. Atalak orokorki definitzen ditu toki horiek eta arau-garapena egin ondoren, katalogo bat sortuko da eta babes eta kontserbaziorako erregimena zehaztuko da.

Memoria Historikoaren aurkako sinbologiak ere atal berezia du lege honetan: VII. atala. Azkeneko urteetan mota honetako ohore instituzional, sari eta elementu gehienak kendu diren arren, badaude oraindik guztiz desagertu beharreko arrastoak.

VIII. atalak Euskal Autonomia Erkidegoko Memoria Historikoko dokumentuak lantzen ditu. Euskal Autonomia Erkidegoko dokumentu-ondarearen parte ez diren dokumentuak memoria historikoko dokumentuak direla aitortu ahalgo da, betiere sail eskudunak hori adierazten badu. Gainera, gomendatzen da beharrezko ekintzak egitea Euskal Autonomia Erkidegorako interesgarriak izan daitezkeen funts dokumental eta ahozko testigantza guztiak biltzeko eta berreskuratzeko, baita Memoria Historiko eta Demokratikoko dokumentuak biltzeko ere. Batez ere, azpimarratzen da Eusko Jaurlaritzak gerra zibilean eta diktadura frankistan ebatsitako dokumentuak berreskuratzeko beharrezko neurriak bultzatuko dituela.

IX. atalak mugimendu asoziatiboari Euskal Autonomia Erkidegoko Memoria Historiko eta Demokratikoa berreskuratzeko eta biktimen defentsarako egin duen lana aitortzen dio. Gainera, Memoria Historikoko entitateetan parte-hartzea sustatzeko erregistro bat sortu da, eta Aholkularitza Batzordea eratu.

X. atalak administrazio-jarduera eta -antolamenduari zuzendutako artikulua garatzen ditu. Gogorari dagokio lege honetan ezarritako neurriak bultzatzea eta gauzatzea, eta legealdia hasten den bakoitzean lau urteko plan bat sortu beharko du. Era berean, Gogorako Zuzendaritza Batzordeari urtero institutuaren aurrekontuen aurreproiektua onartzea baimentzen zaio, baita bere jardueraren ildo orokorrak zehaztea ere, betiere 4/2014 Legeak dioenaren arabera.

XI. atalak, azkenik, zehapen-araubidea ezartzen du; eta legearen amaierako atalak bi xedapen gehigarri ditu, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

Lehenengo xedapen gehigarriak orain arte biktimak erreparatzeko hartu diren erabaki eta arauen gainean azterketa egiteko eskatzen dio Gogorari, izan daitezkeen hutsuneak konpontze aldera. Bigarren xedapen gehigarriak, Memoria Historikoko Lekuen Katalogoa dekretuz onartuko dela arautzen du. Lehenengo trantsizio-xedapenak izapidetzen ari diren prozeduren bidea zehazten du. Bigarren trantsizio-xedapenak jasotzen du Eusko Jaurlaritzak jarduerak egingo dituela Euskadiko Memoria Historikoari buruzkoa den eta Estatuko Administrazioaren jabetzako den funts-ondarea berreskuratzeko. Xedapen indargabetzaileak lege honen kontrako arau oro indargabe uzten du; azken xedapenetan lehenak lege honen araudi garapena zehazten du eta azken xedapenetan bigarrenak legearen indarrean sartzea ezartzen du.

Xedapen Orokorrak

1. artikulua: Xedea.

Lege honen xedea da Euskadiko Memoria Historikoaren aldeko politika publikoak arautzea, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.19. artikuluen babesean, eta Gerra Zibilean eta diktadura garaian arrazoi politiko zein ideologikoengatik edo erlijioagatik jazarpena edo indarkeria pairatu zuten pertsonen kalte moralak erreparatzeko helburuarekin, eta beren memoria pertsonal eta familiarra berreskuratzeko; horrez gain, balio eta printzipio demokratikoak bulztatu nahi dira, eta ezagutzera eman Gerra Zibilean, diktadura frankistan eta trantsizioan gertatutakoa, Euskadiko Autonomia Estatutua indarrean sartu zen arte.

2. artikulua: Printzipio orokorrak.

1. Legeak Legeak oinarri hartzen ditu egia, justizia, erreparazioa eta egoera hori ez erreparatzeko bermea. Halaber, balio demokratiko hauetan oinarrituta dago: elkartasuna, bizikidetzeta, pluraltasun politikoa, giza eskubideen babesa, bakearen kultura eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna.
2. Legea, Konstituzioaren 10.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren eta Espainiak gai horren inguruan berretsi dituen nazioarteko hitzarmen eta akordioen arabera aplikatu eta interpretatuko da.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak behar adina neurri hartuko ditu, ordenamendu juridikoan jasotako bermeak ertsiki errespetatuz, honako eskubide hauek bermatzeko:
 - a) Egia jakiteko eskubidea. Gerra Zibilean eta diktadura frankistan gertatutako giza eskubideen urraketa ezagutzeko eta ikertzeko eskubidea, bai eta, egoerarik latzenetan ere, askatasuna eta demokrazia defendatzeko ahalegina ere.
 - b) Justizia izateko eskubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eskumene baitan, gerra zibila, diktadura frankista eta Euskadiko Autonomia Estatutua indarrean sartu arteko trantsizio demokratikoaren denboraldiari dagokiona.
 - c) Aitortza eta erabateko erreparazio eraginkorra izateko eskubidea, urraketaren larritasunari eta pairatutako kalteei dagokien neurrian; horretarako, beharrezkoak dira neurri indibidual eta kolektiboak, erreparazio moralak, eta itzultzearekin, kalte-ordainarekin, errehabilitazioarekin eta poztasunarekin lotutako neurriak.

3. artikulua: Hartzaileak.

Arreta berezia jarriko zaie pertsona eta kolektibo hauei:

- a) Estatu-kolpe militarren aurrean diktadura frankistan legezkotasun demokratikoa defendatzearen ondorioz hildako edo desagertutako pertsonen.
- b) Errepublikaren defendatzeagatik edo, demokrazia berrezarri nahian, erregimen frankistari aurka egiteagatik Euskadin zein kanpoan espetxeratu, torturatu, deportatu, jazarri eta nahitaezko lanak egitera behartu edo kontzentrazio-esparruetan sartu zituzten pertsonen.
- c) Estatu-kolpe militarren eta diktadura frankistaren ondorioz erbesteratu ziren pertsonen.
- d) Diktadura frankistaren ondorioz jazarpen ekonomikoa, konfiskatzeak eta isunak pairatu zituzten pertsonen.

- e) Bigarren Errepublikan kargu edo lanpostu publikoren bat izateagatik errepresaliak jasan zituzten pertsonen.
- f) Diktadura frankistaren garaian errepresaliak jasan zituzten alderdi politiko, sindikatu, gutxiengo etniko, logia masoniko, mugimendu feminista eta talde kulturalen.
- g) Diktadura frankistan sexu-orientazioa dela-eta jazarpena sufritu zuten pertsonen.
- h) Diktadura frankistan euskaraz mintzatzeagatik jazarpena sufritu zuten pertsonen, hizkuntza hori erabiltzeko debekua zela eta.
- i) Beren egoera berezia dela eta 38. artikuluan aipatzen diren planetan sartzen diren beste kolektiboen.

I. Kapitulua. Egia jakiteko eskubidea

4. artikulua: Egia ezagutzeko ikerketa.

1. Eusko Jaurlaritzak behar adina ekintza sustatuko ditu eta beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu, Gerra Zibilean eta diktadura frankistan Euskadin izandako biktimek identifikatzeko.
2. Halaber, ikerketak bultzatuko ditu, diktadura frankistan oro har gizartean gertatutako injustizia historiko eta politikoa ezagutarazteko, izan ere, erregimenak jazarpena eta oinarrizko askatasunik eza bultzatu zituen.

5. artikulua: Gerra zibilean eta diktadura frankistaren garaian, 1936-1978 epean, Euskal Autonomia Erkidegoan urratutako giza eskubideei buruzko oinarrizko txostena.

1. Eusko Jaurlaritzak, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Gogora Institutuaren bitartez (aurrerantzean, Gogora), beharrezkoak diren ikerketak sustatuko ditu, gerora "Gerra zibilean eta diktadura frankistaren garaian, 1936-1978 epean, Euskal Autonomia Erkidegoan urratutako giza eskubideei buruzko oinarrizko txostena" izeneko txostena prestatzeko.
2. Lortutako emaitzak publikoak izango dira, datu-base baten bitartez. Datu-base horretan sartuko dira, jatorriz euskaldunak izan eta oinarrizko eskubideen urraketa jasan duten pertsonak eta, halaber, lege honen xede diren gertakariak jazo zirenean Euskadin hil ziren pertsonak.
3. Datu-basea publikoa izango da, betiere biktimek baimena ematen badute, eta, hildako edo desagertutako pertsonen kasuan, ondorengo zuzenen uko egitea hartuko da kontuan.
4. Datu-basean erregistratuko da, besteak beste, pertsona hiltzeko edo desagertzeko arrazoia, lekua, egoera eta jazarpena noiz jasan zuen, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko legeak xedatutakoa betez.
5. Ikerketak ikuspegi historikoa eta giza eskubideen nazioarteko ikuspegia uztartuko ditu; hala, kategoria historikoak alderatuko ditu Nazioarteko Zigor Zuzenbidearen kategoriekin.

II. Kapitulua. Justizia izateko eskubidea

6. artikulua: Elkarlana Justizia Administrazioarekin.

Memoria Historikoaren arloan eskuduna den organismoa, hots, Gogora Institutua, Justizia Administrazioarekin elkarlanean arituko da biktimek justizia izateko duten eskubidea defendatzeko.

7. artikulua: Zantzuak egonik, egindako delituen berri ematea.

Eusko Jaurlaritzak Ertzaintzari, fiskaltzari eta organo judizialei jakinaraziko dizkie ikerketen emaitzak, hala dagokionean, baldin eta egindako ikerketetan deliturik egin izanaren zantzurik badago.

8. artikulua: Prozesu-egintzak.

Gogora institutuak proposamena egin diezaioke Legelarien Euskal Kontseiluari prozesuren bat martxan jartzeko edo dagoeneko martxan dauden horietan pertsonatzeko, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeke Legean xedatutakoari jarraikiz, jurisdikzio-organoen aurrean prozesu-egintzak gauzatzeko, arlo horretan deliturik egin izanaren zantzurik balego.

9. artikulua: Nazio mailako eta nazioarteko organismoen gomendioen sustapena eta jarraipena.

Gogora Institutuak Arartekoaren ekimenetan eta gomendioetan lagunduko du, bai eta zigorgabetasuna ez instituzionalizatzeko eta justizia izateko eskubidea bultzatzeko neurriak sustatzen dituzten nazioarteko erakundeek ekimen eta gomendioetan ere.

III. Kapituluak. Biktimen aitortza eta erreparazioa izateko eskubidea

10. artikulua: Aitortza orokorra.

1. Abenduaren 26ko 52/2007 Legearen 4. artikuluan aipatzen den adierazpena eskuratzeko biktimek eta haien senideek laguntzeko duten eskubideari kalterik egin gabe, biktimek eskubidea dute aitortza dokumentu pertsonalizatu eta instituzionala eskuratzeko, Eusko Jaurlaritzak igorria, beren ohorea eta poztasun morala birgaitzea helburu duena.
2. Ziurtagiri hori bateragarria izango da ordenamendu juridikoan aurreikusita dagoen beste edozein aitortzarekin, baina ez du Administrazio Publikoen ondare-erantzukizunik aitortzen, hortaz, ez du inolako kalte-ordain ekonomiko edo profesionalik eragingo.

11. artikulua: Erakundeek neurriak eta egintzak, gerra zibileko eta diktadurako biktimak gogoratzeko eta aitortzeko.

1. Gogora institutuak erakunde arteko akordio bat sustatuko du, ahalik eta alderdi politiko gehienek babesarekin, erakundeek Memoria Historikoa erreparatze aldera ekarpena egin dezaten.
2. Estatu-kolpe militarren zein diktaduraren biktimak, urtero, oroitu eta aitortzeko egun bat zehaztuko da.
3. Egundorretan, euskal erakunde publikoek, tokian tokiko erakundeek laguntzarekin, aitortzarako eta omenaldia egiteko jarduerak antolatuko dituzte, biktimen memoria bizirik mantentzeko, balio demokratikoak aldarrikatzeko eta euskaldunek askatasunaren alde bitzako borroka gogora ekartzeko.

4. Euskal botere publikoek, halaber, bestelako neurri aktiboak eta egintza instituzionalak sustatuko dituzte, 3. artikuluan definitutako biktimak gogoratzeko eta aitortzeko.

Horiek guztiak Gogora institutuaren lau urterako planetan garatu eta jasoko dira; plan horiek lege honen 38. artikuluan aipatzen dira.

12. artikulua: Kaltea konpontzeko neurriak.

Gogora institutuak, lege honen xedapen gehigarrietan lehenak xedatzen duenari jarraikiz, kaltea konpontzeko neurri ekonomikoak aztertu behar ditu –biktimei zuzenduak, eta bai estatu mailako araudian bai autonomikoan aitortuak–; hala, Gogora institutuaren Zuzendaritza Kontseiluak erabakiko du egokia eta posiblea den bestelako kalte-ordain osagarriak ematea, eta, hala bada, horiek proposatu eta martxan jarriko ditu.

IV. Kapitulua. Dibulgazioa eta hezkuntza

13. artikulua: Memoria Historikoaren dibulgazioa.

Gogora institutuak Euskadiko Memoria Historikoaren hedapena bultzatuko du, memoriaren eraikuntzan herritarren partaidetza areagotzeko eta gertatutakoari lotuta hausnarketa kritikoa egitera animatzeko. Besteak beste, neurri hauek sustatuko dira:

- a) Gogora institutuaren Dokumentazio Zentroa eta Liburutegia sortzea, eta denon eskura egotea.
- b) Ikus-entzunezko eta dokumentazio funtsa sortzea eta hedatzea, batez ere gerra zibileko eta diktadura frankistaren garaiko biktimen lekukotzak.
- c) Gogora institutuaren erakusketa martxan jartzea Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren egoitzan.
- d) Euskadin Memoria arloa lantzen duten museoak berritzea eta sustatzea, bereziki "Gernika 1937. Bakearen Museoa".
- e) Memoria Historikoa zabaltzearekin lotura duten kongresuak, jardunaldiak, topaketak, erakusketak eta bestelako jarduerak antolatzea.
- f) Ikerketa historikoak sustatu eta bultzatzea Unibertsitateekin eta/edo Unibertsitate Institutuekin, hala nola, hala nola adituak diren historialariek.

14. artikulua. Memoria Historikoaren ekarpenak hezkuntzan.

Gogora institutuak, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin elkarlanean, tresna didaktikoak eskainiko ditu Memoria Historikoa hezkuntza curriculum-ean txertatzeko eta hauek egiteko prozedurak zehaztasun historikoan eta pluraltasunean oinarrituko direla bermatuko du.

Halaber, Hezkuntza Sailarekin koordinatuta, bisita didaktikoak sustatuko ditu erakusketetara, museoetara eta Memoria Historikoko leku eta ibilbideetara.

V. Kapituluua. Pertsona desagertuak bilatzeko eta identifikatzeko neurriak

15. artikulua: Gerra zibilean eta diktadura frankistaren garaian desagertutako pertsonen bilaketa.

1. Gogora institutuak behar adina neurri hartuko ditu gerra zibilean eta diktadura frankistan Euskadin desagertutako pertsonak bilatzeko eta identifikatzeko, eta, posible bada, pertsona horien gorpuzkiak berreskuratzeko eta identifikatzeko.
2. Gogora institutuak komunikazio kanal egokiak ezarriko ditu bermatzeko biktimek eta beren senideek badakitela eskubide hori dutela, eta gorpuzkiak bilatzeko, desobiratzeko eta identifikatzeko prozesua ezagutzen dutela.
3. Gerra zibilean desagertutako pertsonak bilatzeko, desobiratzeko eta, hala dagokionean, gorpuzkiak identifikatzeko ekintzak jarduketa zientifikoko eta diziplina anitzeko protokoloaren arabera egingo dira (abenduaren 26ko 52/2007 Legearen 12.1 artikuluan deskribatuta).

Halaber, hobietan esku hartzeko protokolo horiek aplikatuko dira gudarien, milizianoen edo Gerra Zibilean ekintza militarretan hil ziren pertsonen hobi komunetan esku hartzeko, ekintza hori programatuta egon zein ustekabeko aurkikuntza baten ondorioz egin.

16. artikulua: Gorpu-hondarren kokapenaren mapa.

1. Gogora institutuak eguneratuta izango du desagertutako biktimak aurkitu diren Euskadiko lekuen mapa, edo, eskuragarri dauden datuen arabera, ustez gorpuzkiak egon daitezken lekua.
2. Mapako informazio hori bidali egingo da, estatu espainiar osoko mapa bateratuan txertatzeko, abenduaren 26ko 52/2017 Legearen 12. artikuluan xedatutako prozedurei jarraikiz.
3. 1. atalean azaldutako kokapenak dituen dokumentazio kartografikoa eta geografikoa, eta eskuragarri dagoen bestelako informazio osagarria, nahi duenak kontsultatu ahal izango du.

17. artikulua. Biktimen bilaketa, hobitik ateratzea eta identifikazioa.

1. Gerra zibilean eta diktadura frankistan desagertutako pertsonak bilatzeko, desobiratzeko eta, hala dagokionean, gorpuzkiak identifikatzeko ekintzak Gogora institutuak baimendu behar ditu, lege honetan aurreikusitako protokoloekin bat eta araudiak jasotzen dituen berme eta prozeduren arabera.
Halaber, Gogorak jakinaraziko dio prozedura hasi duela gorpu-hondarrak aurkitu diren lekuari dagokion barruti judizialeko Instrukzio Epaitegiari,
2. Gogora institutuak kudeatuko ditu jarduketa-prozesuen azterketa, balorazioa, koordinazioa eta jarraipena.
3. Antolatutako prozesuei esker zein ustekabean aurkitutako gorpuzkiak lekualdatzeko, Gogora institutuaren baimena behar da, agintari judizialak agintzen duenari kalterik egin gabe.
Gorpuzkiak lekualdatu ondoren inork erreklamatzeko ez baditu, agintzen den kolonbarioan hobiratu beharko dira, edota gorpuzkiak aurkitu ziren udalerriko hilerrian.
4. Ikerketa-prozesua bukatutakoan, txosten bat prestatu beharko da prozesuan parte hartu duten aditu guztien txostenekin, eta Gogora institutuari bidali beharko zaio.

5. Eusko Jaurlaritzak, Gogoraren bitartez, tokiko erakundeekin adostuta, deshobiratzeak tekniki ezinezkoak direnean, biktimen hobiak duin egingo ditu.

18. artikulua. Gorpuzkiak ustekabean aurkitzea.

1. Norbaitek ustekabean gorpuzkiak aurkitzen baditu, berehala jakinarazi behar dio Eusko Jaurlaritzako Administrazioari, aurkitzen diren lekuko Udalarari edo Ertzaintzari, eta haiek aurkikuntzaren berri eman behar diote, ahal bezain laster, Gogora Institutuari.
2. Udalak, bere eskumenen baitan eta lege honetan memoria historikoaren arloan aurreikusitako elkarlanaren esparruan, gorpuzkiak dauden lekua babestu, mugatu eta zainduko du.

19. artikulua. Proba genetikoak eta DNA-bankua.

1. Gorpuzkiak hobitik ateratzen direnean, hezurretatik lagin genetikoak ateratzeko, 16.3 artikuluan adierazitako protokolo gidalerroei jarraitu behar zaie.
Ondorio horietarako, euskal Administrazioak DNA-bankuen sistema ezarri eta kudeatuko du. Bertan, hobitik ateratako hezurren datuak eta biktimen senideak direla frogatu ondoren laginak ateratzeko eskaera egin duten pertsona boluntarioen datuak erregistratuko dira. Hala, DNA sekuentziatu eta biltegitratutako laginekin alderatu ahal izango da.
2. Euskadiko Administrazioak Euskal Herriko Unibertsitatearekin lan egingo du, arlo horretan dauden baliabiderik egokienak eta aurreratuenak erabiltzen direla bermatzeko.

20. artikulua. Elkarlana beste gobernu batzuekin eta EAEtik kanpoko erakundeekin.

Eusko Jaurlaritzak lankidetzarako hitzarmenak sina ditzake Espainiako Gobernuarekin, beste autonomia-erkidego batzuekin eta erakunde publiko zein pribatuekin, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo indarkeriaren ondorioz desagertutako euskaldunak bilatzeko eta identifikatzeko.

21. artikulua. Erorien Harana (Cuelgamuros).

Eusko Jaurlaritzak Estatuko Administrazio Orokorrekin lankidetzan arituko da Erorien Haranean (Cuelgamuros) hobiratutako euskaldunen auziari dagokionez, hala nahi duten familiek gorpuzkiak hobitik atera ahal izateko.

Halaber, Gogora Institutuak laguntza emango die hobitik ateratzeko prozesua abian jarri eta gorpuzkiak berreskuratu nahi dituzten familiei.

22. artikulua. Duintasunaren Kolunbarioa.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak dauden eta sortzen diren kolunbarioak mantenduko ditu, tartean Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioa, biktimak omentzeko eta gogoratzeko, bai eta antzeko beste leku batzuk ere; bertan hobiratutako dira gerra zibilean desagertu ziren eta identifikatu ez diren pertsonen gorpuzkiak, edo, identifikatuta daudenak, baldin eta senideek erabakitzen badute bertan hobiratzea.

VI. Kapitulua. Euskadiko Memoria Historikoko lekuak, guneak eta ibilbideak

23. artikulua. Euskadiko Memoria Historikoko lekuak, guneak eta ibilbideak.

1. Euskadiko Memoria Historikoko lekuak dira autonomia erkidegoarentzat interesgarriak diren gune, eraikin edo inguruak, bertan berezko garrantzia historiko edo sinbolikoa izan duten gertakariak egon direlako, edo memoria kolektiboan eragin nabaria izan dutenak, balio eta askatasun demokratikoaren defentsarekin lotuta daudenak.
2. Memoria Historikoko ibilbide deritze Euskadiko Memoria Historikoko bi leku edo gehiagok osatutako multzoei, espazio berean daudenak eta historikoki nahiz sinbolikoki antzera interpretatu ahal direnak, bestelako balio esanguratsuei kalte egin gabe: arkitektonikoak, paisaiari edo ingurumenari lotutakoak, etnografikoak edota antropologikoak.
3. Burdinazko Gerrikoa izeneko Euskadiko Memoria Historikoko lekutzat hartuko da. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak beharrezkoak diren neurriak bultzatuko ditu Burdinazko Gerrikoa zabaltzeko, horren inguruan sentsibilizatzeko, seinaleztatzeko eta bere balioa azpimarratzeko, Memoria Historikoa berreskuratzeko ibilbide gisa. Horretarako, inguruko udalerrien eta foru-aldundien laguntza izango du, kultura-ondareari buruzko araudiaren arabera aplikagarriak diren babes-neurriei kalte egin gabe; araudi horrek kultura-ondasun izaera aitortzen dio lekuari, Monumentu Multzo kategoriarekin.
4. Horrez gain, Euskadiko Memoria Historikoko lekutzat hartuko dira 1. atalean deskribatutako gertaerekin lotura zuzena eta historikoa izan ez arren gerora jazarpen horren biktimak gogoratzeko, aitortzeko eta zauriak sendatzeko biktimen senideek, elkarte memorialistek, erakundeek edota administrazio publikoek sortu dituzten espazioak.

Memoriako Lekuen, Guneen eta Ibilbideen Katalogoa prestatuko da, publizitate eta kontrol helburuekin, eta ondo araututa egongo da zer leku edo ibilbide erregistratzen diren, prozedura eta horiek babestu eta zaintzeko modua.

VII. Kapitulua. Memoria historikoaren kontrako ikurrak

24. artikulua. Euskadiko Memoria Historikoaren kontrako elementuak.

1. Euskadiko Memoria Historikoaren eta biktimen duintasunaren kontrakoa da 1936ko estatu-kolpea edo diktadura frankista, horien arduradunak edo diktaduraren alde jokatu zuten elkarteak publikoki gorestea, banaka zein kolektiboki, adibidez honako hauen bitartez:
 - a) Eraikin publikoetan edo kalean begien bistan jarritako plakak, ezkutuak, intsigniak, inskripzioak, anagramak edo bestelako elementuak.
 - b) 1936ko altxamendu militarreko eta diktadura frankistako partaideak, bultzatzaileak edo babesleak aipatzea, eta legezkotasun demokratikoa eta bere babesleak gutxiestea.
 - c) Estatu-kolpea edo diktadura frankista babestu zuten militarrek edo politikariak omentzen dituzten kaleen edo leku publikoen izenak.
2. Aurreko atalean ezarritakoaren ondoretarako, publikoak dira edozein eraikin publikotan edo erabilera publikoko eraikin pribatutan jarritako elementuak, edota sarbide eta erabilera publikoko espaziora begira dauden eraikinetan jarritakoak.

25. artikulua. Memoria Historikoaren kontrako elementuak kentzea.

1. Administrazio edo erakunde publiko eskudunek berenak diren eraikinetan aurkitzen dituzten eta Euskadiko Memoria Historikoaren kontrakoak diren elementu guztiak kenduko dituzte.
2. Euskadiko tokiko administrazioek, beren eskumenen baitan, eta aurreko artikuluan xedatutakoari jarraikiz, beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte beren udalerrietan Memoria Historikoaren kontrakoak diren elementuak kentzeko. Elementuok eraikin pribatuetan badaude baina sarbide eta erabilera publikoko espaziora begira, Udalak neurriak hartuko ditu jabeek kendu ditzaten.
Eusko Jaurlaritzak, halaber, Gogoraren bitartez, modu subsidiarioan ekimenak aurrera eramateko ahalmena izango du, Memoria Historikoaren kontrako elementuak kentzeko eta ezabatzeko, tokiko erakundeek ekimen hori aurrera eraman ezin dutela arrazoitua dagoenean.
3. Euskadiko Udalek, xedapen hau indarrean sartu eta urtebeteko epean, txosten bat bidali beharko diote Gogora institutuari, beren udalerrietako bide eta espazio publikoen izenak Lege honetan xedatutakora egokitzeko egin duten lana azalduz.

26. artikulua. Sari, izendapen, titulu eta ohore instituzionalak kentzea.

Euskadiko tokiko Administrazioek sariak, izendapenak, ohorezko tituluak eta 1936ko altxamendu militarren, gerra zibilaren eta diktadura frankistaren babesleak goresteko bestelako moduak aztertu eta baliogabetuko dituzte, urtebeteko epean, eta egindakoa ziurtatuko dute. Administrazioek edonoren eskura jarriko dituzte ziurtapen horiek, eta behar bezala igorriko dizkiete Gogora institutuari, webgunean argitaratzeko.

27. artikulua. Laguntzak eta diru-laguntzak.

Ordenamendu juridikoak horrela jasotzen duenetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak ez ditu diruz lagunduko, ez hobaririk emango edota laguntza publikorik emango, Euskadiko Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren kontra egiteagatik ebazpen administratiboz zigortuak izan diren, pertsona fisikoak edo juridikoak, izan publikoak zein pribatuak.

VIII. Kapitulua. Euskadiko Memoria Historikoari buruzko dokumentuak

28. artikulua. Euskadiko Memoria Historikoari buruzko dokumentuak eta beren babesa.

1. Lege honen ondoretarako, Euskadiko Memoria Historikoari buruzko dokumentutzat hartuko da edozein izaerako pertsona fisiko nahiz juridikoek sortutako informazioa, beren edo hirugarren pertsonen ekintzen lekukotza gisa. Informazioa euskarri batean jaso behar da, edozein adierazpen modutan eta testuinguru teknologikotan sortu dela ere, eta lotura izan behar du Euskadiko Memoria Historikoak biltzen duen garaian euskaldunek beren eskubide eta askatasunak defendatzeko bitarteko borrokarekin, historiaren zati hori babesteko, ezagutarazteko eta zabaltzeko.
2. Kultura ondarearen arloko Sail arduradunak Euskadiko kultura-ondaretzat hartu ahal izango ditu kategoria horretan sartzen ez diren Euskadiko Memoria Historikoari buruzko dokumen-

tuak, Gogora institutuak hala eskatzen badu, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean edo horren ordezkotako arauan ezarritako prozedurei jarraikiz.

3. Abenduaren 26ko 52/2007 Legearen 21.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, artxibo pribatu nahiz publikoetan dauden Gerra Zibilari edo diktadura frankistari buruzko dokumentuak dokumentazio-ondarea eta ondare bibliografikoa dira.
4. 38. artikuluan aipatutako Planaren esparruan, beharrezkoak diren neurriak hartuko dira Autonomia Erkidegoarentzat garrantzitsuak diren dokumentuak eta ahozko lekukotzak biltzeko eta berreskuratzeke, Euskadiko Memoria Historikoko dokumentuak baitira.

29. artikulua. Euskadiko Memoria Historikoari buruzko dokumentuak gordetzea eta eskuratzea.

1. Botere publikoek behar adina neurri hartuko dituzte Euskadiko Memoria Historikoari buruzko dokumentuak babesteko, deskribatzeko, identifikatzeko eta zabaltzeko, batez ere hondatuta edo degradatzeko arriskuan daudenak, eta behar bezala zainduko ditu lapurreta, suntsipen edo ezkututzerik ez izateko.
2. Euskal Administrazioak, aurrekontuaren arabera eta 38. artikuluan jasotako jarduketa-plana kontuan hartuz, programa bat onetsiko du urtero, artxibo publiko zein pribatuetan (nazionalak zein nazioartekoak) dauden Euskadiko Memoria Historikoari buruzko dokumentuak –originalak zein originalen kopia leialak izan– eskuratzeko edo kopiatzeko, edota horiekin lotura duten hitzarmenak sinatzeko.

30. artikulua. Dokumentu-funtsak berreskuratzea.

1. Gogora institutuak, dokumentazio-ondarearen eremuko sail eskudunarekin elkarlanean, lege honek biltzen duen epean Euskadiko dokumentu-funts publikoen desagertzearen ikerketa bultzatuko du.
2. Eusko Jaurlaritzak, administrazio publikoekin elkarlanean, behar adina neurri sustatuko ditu Memoria Historikoarekin lotura duen eta Gerra Zibilean zein diktadura frankistan matxintatutako militarrek Euskadin konfiskatutako dokumentazio-ondarea berreskuratzeke, eta Euskadiko Artxibo Historikora transferitzeko.

31. artikulua. Dokumentuen berri izateko eskubidea.

1. Euskal dokumentazio-ondarea osatzen duten Euskadiko Memoria Historikoari buruzko dokumentuak eskuragarri daude, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean eta aplikagarriak diren bestelako arauetan ezarritakoarekin bat.
2. Herritarrek, eta batez ere ikerketa historikoaren arduradunek, dokumentu horiek errazago eskuratu ahal izateko, dokumentu horien digitalizazioa sustatuko da.

32. artikulua. Euskadiko Memoria Historikoaren Dokumentazio Zentroa.

1. Gogora institutuak Memoria Historikoaren Dokumentazio Zentro bat izango du, Euskadiko Memoria Historikoari buruzko dokumentuak biltzeko, berreskuratzeke, ikertzeke, zabaltzeko eta nahi duenaren eskura jartzeko; halaber, Dokumentazio Zentro horrek babestu eta oinarri dokumental eta historikoa eman nahi die Eusko Jaurlaritzak, beste edozein administra-

zio publikok, horren menpeko erakunde independenteren batek edo elkarte pribatuek, Lege honen antzeko helburu sozialekin, Memoria Historikoari lotuta sustatzen dituzten ekintza, ekimen eta estrategiei.

Dokumentazio Zentroak Euskadiko Memoria Historikoari lotuta iker daitezkeen dokumentuak sortzen dituzten erakunde eta organismo guztiak erregistratuko ditu; hala, dokumentuak identifikatuko dira, eta zein artxibotan adieraziko, kontrol- eta hedapen-helburuetarako.

2. Ondore horietarako, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua administrazio publikoekin, pertsona fisiko zein juridikoekin –publiko nahiz pribatuak–, Euskadiko artxiboaren sistemako organo eta zentroekin, eta, oro har, artxibo publiko eta pribatuekin lankidetzan arituko da, Euskadikoak zein kanpokoak, baldin eta Euskadiko Memoria Historikoarekin lotura duten dokumentuak badituzte.

IX. Kapitulua. Erakunde memorialisten onarpena, sustapena eta partaidetza

33. artikulua. Mugimendu memorialistaren onarpena.

Elkarte memorialistek gizartea kontzientziatzen laguntzen dute, Euskadiko Memoria Historikoa babesteko eta biktimen eskubideak defendatzeko; hortaz, lege honek biktimen interes legitimo kolektiboen titular gisa aitortzen ditu erakundeok.

34. artikulua. Erakunde memorialisten jardueraren sustapena.

Gogora institutuak, elkartegintza sustatzeko, honako hauek sustatuko ditu, besteak beste:

- a) Memoria Historikoari buruzko programetan elkarlana eta herritarren partaidetza sustatzeko neurriak.
- b) Euskadiko Memoria Historikoko Erakundearen Erregistroan inskribatuta dauden elkartei zuzendutako laguntza-programak eta laguntzak, lege honetan ezarritakoa betetzeko, aurrekontu-aukeren arabera.

35. artikulua. Euskadiko Memoria Historikoko Erakundearen Erregistroa.

1. Euskadiko Memoria Historikoko Erakundearen Erregistroa sortu da, izaera publikokoa. Bertan inskribatu ahal dira Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten elkarte memorialistak, horien eta erregistratutako jardueren ezagutza, hedapena eta publizitatea errazteko; hala, Gogora Institutuarekin duten harremana ere arinduko da.
2. Erregistroan inskribatu ahal dira honako baldintza hauek betetzen dituzten elkarte, fundazio eta bestelako erakunde sozialak: legez eratuta egotea; Estatutuetan, helburuen artean, Euskadiko Memoria Historikoa edo biktimen eskubideen babesa agertzea; irabazi-asmorik ez izatea; Euskal Autonomia Erkidegoan jardutea, eta egoitza ere EAEn izatea.
3. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Gogora Institutua izango da Euskadiko Memoria Historikoko Erakundearen Erregistroaren arduraduna.

36. artikulua. Euskadiko Memoria Historikoko Erakundeen partaidetza.

1. Euskadiko Memoria Historikoko Erakundeen Aholku Batzordea sortuko da, Gogorara atxikita, Euskadin diharduten erakunde memorialisten kontsulta eta parte-hartze organo kolegiatua izango dena. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendaritzak zehaztuko du zeintzuk diren kontsulta organoan izena eman eta parte-hartzeko mekanismoak.
2. Sei hilabetero, Gogora institutuak Euskadiko Memoria Historikoko Erakundeen Aholku Batzordearen bilera deialdia egingo du informazioa emateko eta batzorde honen parte-hartzea bermatzeko memoria historikoko politika publikoen garapenean.

X. Kapituluua. Jarduketa eta antolakuntza administratiboa

37. artikulua. Gogora, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua.

1. Gogora, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuari dagokio lege honetan xedatutako neurriak sustatzea, bere ardura baita memoriari buruzko politika publikoak koordinatzea eta garatzea, azaroaren 27ko 4/2014 legean, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzekoan, ezarritakoarekin bat.
2. Haren egitura, funtzioak, antolakuntza eta araubide juridiko eta ekonomikoa 4/2014 Legean eta Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren Estatutuei buruzko azaroaren 3ko 204/2015 Dekretuan araututa daude.
3. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren Zuzendaritza Kontseilua da urtero institutuaren aurrekontuen aurreproiektua, ekitaldi bakoitzerako jardueren plangintza eta jarduketa-ildo eta -gidalerro nagusiak onartzen dituen organoa, 4/2014 Legean xedatutakoari jarraikiz.

38. artikulua. Lau urterako Jarduketa Plana.

1. Gogora institutuaren Zuzendaritza Kontseiluak, legegintzaldi bakoitzaren hasieran, lau urterako plan bat onetsiko du, zeinak, besteak beste, Memoria Historikoari buruzko politika publikoak gidatuko dituen, eta horiek aurrera eramateko finantza-baliabideak zehaztuko.
2. Jarduketa Planak neurri zehatzak jasoko ditu kudeaketarako, ikerketarako eta dibulgaziorako, ekintza bakoitzaren denbora zehaztuta eta betetzen diren egiaztatzeko adierazleak ezarrita.
3. Halaber, Gogora institutuak, urtero, lege honen xede diren jardueren berarizko ebaluaketa egingo du eta urteko planak prestatuko ditu, hurrengo ekitaldirako helburuak eta lehen-tasunak finkatzeko. Urteko txostena Zuzendaritza Kontseiluari bidaliko zaio, hark aztertu, eztabaidatu eta baloratu dezan. Era berean, Eusko Legebiltzarrari eta Euskadiko Memoria Historikoko Erakundeen Aholku Batzordeari bidaliko zaizkio, urteko plana eta urteko txostena, beraien ezagutzarako.

39. artikulua. Elkarlana tokian tokiko elkarteekin.

1. Tokiko euskal elkarteak Gogora Institutuarekin lankidetzan arituko dira beren eskumen-egikaritza lagungarria izan dadin lege honetan xedatutakoa betetzeko eta erakundearen helburuak erdiesteko.

2. Gogora institutua tokiko euskal elkarteekin lankidetzan arituko da haien eskualdeetan Memoria Historikoa ezagutarazteko, babesteko, sustatzeko eta dibulgatzeko, lege honetan xedatutako baldintzetan.

XI. Kapitulua. Zehapen araubidea

40. artikulua. Araubide juridikoa.

1. Lege honetan ezarritako obligazioak ez betetzea dakarten egiteak edo ez-egiteak kapitulu honi jarraikiz zehatuko dira, bestelako erantzukizunak alde batera utzi gabe.
2. Lege honetan tipifikatutako arau-haustek zehatzeko orduan, kontuan hartuko dira lege hau eta administrazio publikoen eta zehapen-prozedura administratiboaren araudi juridikoa, bai eta gure ordenamendu juridikoaren arau orokorrak ere.
3. Erantzule izango dira –egile moduan–, doloz edo zuhurtziagabekeriaz lege honen kontrako egiteak edo ez-egiteak burutzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak. Halakorik balego, lege honetan aurreikusitako arau-hausteen erantzule solidario izango dira egite edo ez-egite horiek burutzea agindu duten pertsonak, edo ezinbesteko laguntzaile izan direnak.

41. artikulua. Arau-haustek.

1. Lege honetan xedatutakoari jarraikiz, arau-haustek oso larriak, larriak zein arinak izan daitezke.
2. Arau-hauste oso larriak dira:
 - a) Indusketak egitea 17.1 artikuluan aurreikusitako baimenik gabe.
 - b) Biktimen hobiak suntsitzea 16. artikuluan aipatutako lokalizazio-mapetako lursailetan, edo Euskadiko Memoria Historikoaren Leku batean.
3. Arau-hauste larriak dira:
 - a) Ustekabean gorpuzkiak aurkitu izana jakinarazteko obligazioa ez betetzea, arrazoi justifikaturik gabe, 18. artikuluan araberan.
 - b) Gorpuzkiak lekualdatzea, 17.3 artikuluan aurreikusitako baimenik gabe.
 - c) Edozein obra edo esku-hartze egitea Euskadiko Memoria Historikoaren Leku batean, biktimen hobei eraginez, 17.1 artikuluan aipatutako baimenik gabe, non eta ez den arau-hauste oso larria.
 - d) Memoria Historikoaren kontrako elementuak kentzeko ebazpena ez betetzea, 24. artikuluan araberan.
 - e) Gerra Zibileko edo diktadura frankistako biktimen edo haien senideen duintasunaren kontrako adierazpen iraingarri edo laidogarriak egitea edo zabaltzea edozein hedabide, hitzaldi edo agerraldi publiko edo plataforma digitaletan, bai eta diktadura frankista edozein modutan gorestea ere, non eta jokabideen kategoria horiek ezin diren tipifikatu gorrotoa bilatzen duten delitutzat.
 - f) Autonomia Erkidegoko ordezkari publikoek eta funtzionarioek 1936ko kolpe militarra eta diktadura gorestea, edo haren apologia egiten duten adierazpen edo erakustaldiak egitea.
 - g) 1936ko kolpe militarra eta diktadura frankista, haren buruzagiak edo erregimen diktatorialaren erakundeak modu indibidualean edo kolektiboan ospatzea, gorestea edo goraiapatzea bilatzen duen edonolako ekitaldi eta omenaldi gauzatzea.

h) Erregimen diktatorialari eutsi zioten pertsona, entitate edo erakundeen onarpena edo aitortza sustatzea.

4. Arau-hauste arinak dira:

- a) Euskadiko Memoria Historikoaren Lekuak bisitatzen uzteko obligazioa ez betetzea, 23. artikuluan aurreikusia.
- b) Euskadiko Memoria Historikoaren Leketako guneak edo altzariak kaltetzea, non eta ez den arau-hauste larria edo oso larria.

42. artikulua. Kalifikazioaren astungarria.

Arau bat berriro hautsiz gero, zehapen-ordenamendu juridikoari jarraikiz, hasieran arintzat jotako arau-haustea larri bihurtuko da, eta larria oso larri.

43. artikulua. Zehapenak.

- 1. Lege honetan tipifikatutako arau-hausteen zehapenak diruzkoak nahiz ez-diruzkoak izan daitezke.
- 2. Diruzko zehapenak isunak izango dira, arau-haustearen larritasuna aintzat hartuz, eta proportzionaltasun-printzipioa betez:
 - a) Arau-hauste oso larriak: 10.001 eta 150.000 euro arteko isuna.
 - b) Arau-hauste larriak: 2.001 eta 10.000 euro arteko isuna.
 - c) Arau-hauste arinak: 200 eta 2.000 euro arteko isuna.
- 3. Zehapen ez-diruzkoak osagarriak izango dira; hain zuzen ere, memoria historikoaren arloko dirulaguntza, hobari edo laguntza publikoak jasotzeko eskubidea galtzea gehienez bi, hiru edo bost urtean –arau-haustek arinak, larriak edo oso larriak diren, hurrenez hurren–, eta memoria historikoaren arloan emandako dirulaguntza itzuli beharra, osoa edo zati bat. Zehapen osagarri hauek ezartzeko eta mailakatzeko, ordenamendu juridikoa betez egoki direnean eta bermeak errespetatuz, aintzat hartuko da ekintzen larritasuna eta oihartzuna, proportzionaltasun-printzipioaren arabera.

44. artikulua. Prozedura.

- 1. Memoria Historikoaren arloko arau-haustek publikoki salatuko dira.
- 2. Lege honi jarraikiz arau-hauste izan daitekeen ekintza baten berri duten agintariek nahitaez jakinarazi behar diote memoria historikoaren arloan eskudun den Departamentuari.
- 3. Prozedurari hasiera emango zaio memoria historikoaren arloan eskudun den ofiziozko pertsona titularren erabakiz, goiko aginduz, beste organo batzuen eskaera arrazoituz edo herritarren salaketaz.
- 4. Kapitulu honetako zehapenak ezartzeko orduan, kontuan hartuko dira administrazio publikoen araubide juridikoa eta zehapen-prozedura administratiboa.

45. artikulua. Zehatzeko eskumena.

- 1. Kapitulu honetan aurreikusitako zehapenak ezartzeko eskumenaren jabe dira:
 - a) Memoria Historikoaren arloko eskudun den Departamentua: ehun mila euro arteko isunak.

- b) Gobernu Kontseilua: ehun mila eta ehun eta berrogeita hamar mila euro arteko isunak.
2. Aurreko atalean xedatutakoaz gain, arau-hausleen ustezko delituei dagozkien akzio penalei ekingo die memoria historikoaren arloan eskudun den Departamentuak, jurisdikzio-organo eskudunen aurrean.

Xedapen gehigarriak

Lehenengo xedapen gehigarria. Diruzko erreparazio-neurriak.

Gogora institutuak hala proposaturik, eta Gobernu Kontseiluaren erabakiz, batzorde tekniko bat izendatuko da eta, lege hau indarrean sartzen denetik urtebeteko epean, azterlan bat aurkeztuko du, estatuko nahiz erkidegoko araudian onartutako biktimentzako diruzko erreparazio-neurriak deskribatuz, eta ondorioak aterako ditu estaldura mailaz eta hutsune konpongarriez. Azterlan hori Gogoraren Zuzendaritza Kontseiluari igorri, hark kalteordain osagarri horiek bidezkoak eta bideragarriak diren balioetsi eta, hala badagokio, proposatu eta abiarazi egingo ditu.

Bigarren xedapen gehigarria. Memoria Historikoaren Lekuak, Guneak eta Ibilbideak.

Lege hau indarrean sartu eta urtebeteko epean, Gobernu Kontseiluak Dekretu bat onartuko du memoria historikoaren arloan eskudun den erakundeak hala proposaturik, Euskadiko Memoria Historikoaren Lekuen Katalogoa sortuz, lege honen 23. artikuluko ezaugarriak betetzen dituzten guneak, altzariak edo bazterrak ezagutarazi eta kontrolatzeko, bai eta antolatu eta inskribatzeko ere.

Halaber, arautu egingo da katalogo horretako lekuen iraupena, identifikazioa seinalizazioa, babesa, zaintza eta mantentzea, daukaten balioari eusteko, bai eta aurrez adierazitako egun eta orduetan titularrek herritarrei bisitan joaten uztea ere, Administrazioak ikuskatu ahal izatea, eta lekuaren egoeraz eta erabileraz administrazio publiko eskudunek eskatutako informazioa ematea.

Lehenengo xedapen iragankorra. Izapidetutako prozedurak.

Hasi eta lege hau indarrean jartzean amaitu gabe dauden prozedurak izapidetuko dira haiek hasi zituen araudiari jarraikiz.

Bigarren xedapen iragankorra. Dokumentu-funtsak berreskuratzea.

Eusko Jaurlaritzak jarduerak egingo ditu Euskadiko Memoria Historikoari buruzkoa den eta Estatuko Administrazioaren jabetzako den funts-ondarea Euskadiko Artxibategi Historikora eramateko, Espainiako Gobernuarekin adosturik, artxibo judizialak izan ezik, horiek berariazko beren arautegiari jarraituko baitiote.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Lege honen edukiaren kontra doazen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak indargabetuta daude.

Azken xedapenetan lehena. Araudiaren garapena.

Lege honen araudia garatzeko, aintzat hartuko da Jaurlearitzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18.c) artikulua.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarrean sartzea.

Lege hau indarrean sartuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako egunaren biharamunean.